

14

COLECCIÓN **GAZTEAK**BILDUMA

**KGK**

# Gazteak eta enplegua Euskadin 2017

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES



14  
COLECCIÓN **GAZTEAK**BILDUMA

**KGk**

# Gazteak eta enplegua Euskadin 2017

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

<b>Argitaraldia:</b>	1.a abendua, 2018
<b>Ale-kopurua:</b>	500 ale
<b>©</b>	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
<b>Internet:</b>	<a href="http://www.euskadi.eus">www.euskadi.eus</a>
<b>Argitaratzailea:</b>	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz
<b>Egileak:</b>	Miren Bilbao Gaztañaga, Oskar Longo Imatz, Nieves Corcuera Bilbao
<b>Koordinazioa:</b>	Gazteen Euskal Behatokia
<b>Bildumaren diseinua:</b>	Canaldirecto • <a href="http://www.canal-directo.com">www.canal-directo.com</a>
<b>Azaleko irudia:</b>	iStockphoto
<b>Maketazioa eta fotokonposaketa:</b>	Composiciones RALI, S.A.
<b>Imprimaketa:</b>	Gráficas DOSBI, S.L.
<b>ISBN:</b>	978-84-457-3459-9
<b>D. L.:</b>	VI 967-2018

# Aurkibidea

<b>AURKEZPENA</b> .....	<b>9</b>
<b>HITZAURREA</b> .....	<b>11</b>
<b>METODOLOGIA</b> .....	<b>13</b>
<b>1. GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA</b> .....	<b>17</b>
1.1. 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen okupazio nagusia. ....	17
1.2. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio nagusia nabarmen aldatzen da adinarekin batera .....	20
1.3. Aldeak ikusten dira jaiolekuaren eta ikasketen arabera ere .....	21
1.4. 16-29 urteko gazteen okupazio nagusiaren bilakaera .....	23
1.5. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen okupazio nagusia. ....	24
1.6. Emaidza nagusiak. ....	27
<b>2. LAN-MUNDUAN SARTZEA</b> .....	<b>29</b>
2.1. 16-29 urteko gazteen lan-eskarmentua. ....	29
2.2. 16-29 urte bitarteko gazteen lehen enplegua. ....	32
2.3. 16-29 urteko gazteen lehendabiziko enpleguaren lan-baldintzak .....	35
2.4. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen lan-eskarmentua. ....	38
2.5. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen lehen enplegua. ....	39
2.6. 30-34 urteko pertsonen lehendabiziko enpleguaren lan-baldintzak. ....	43
2.7. Emaidza nagusiak. ....	45
<b>3. LANEAN ARI DIREN GAZTEEN LAN-BALDINTZAK</b> .....	<b>47</b>
3.1. Egungo enplegua eskuratzeko modua. ....	47
3.2. Antzintasuna egungo enpleguan .....	49
3.3. Egungo enplegua: kontratu motak eta gizarte-segurantzaren kotizazioak .....	51
3.4. Norberaren konturako lana .....	55

<b>3.5. Zein erakunde motatan lan egiten duten besteren kontura lan egiten duten gazteek .</b>	<b>57</b>
<b>3.6. Lanaldi mota eta astean lan egindako orduen kopurua . . . . .</b>	<b>59</b>
<b>3.7. Enpleguaren eta ikasketen arteko lotura . . . . .</b>	<b>64</b>
<b>3.8. Batez besteko soldata eta soldataren gaineko balorazio subjektiboa . . . . .</b>	<b>65</b>
<b>3.9. Enplegua galtzeko edo prekario bihurtzeko arriskua . . . . .</b>	<b>68</b>
<b>3.10. Lanarekiko poztasuna eta lanez aldatzeko gogoa . . . . .</b>	<b>69</b>
<b>3.11. Beste enplegu bat bilatzeko ekimena . . . . .</b>	<b>71</b>
<b>3.12. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen lan-baldintzak . . . . .</b>	<b>73</b>
3.12.1. Egungo enplegua eskuratzeko modua . . . . .	73
3.12.2. Antzintasuna egungo enpleguan . . . . .	74
3.12.3. Egungo enplegua: kontratu motak eta gizarte-segurantzaren kotizazioa . . . . .	75
3.12.4. Norberaren konturako lana . . . . .	76
3.12.5. Zein erakunde motatan lan egiten duten besteren konturako langileek . . . . .	78
3.12.6. Lanaldi mota eta astean lan egindako orduen kopurua . . . . .	80
3.12.7. Enpleguaren eta ikasketen arteko lotura . . . . .	84
3.12.8. Soldata eta soldataren gaineko balorazio subjektiboa . . . . .	85
3.12.9. Enplegua galtzeko edo prekario bihurtzeko arriskua . . . . .	88
3.12.10. Lanarekiko poztasuna eta lanez aldatzeko gogoa . . . . .	89
3.12.11. Beste enplegu bat bilatzeko ekimena . . . . .	91
<b>3.13. Emaiza nagusiak . . . . .</b>	<b>93</b>
<b>4. LANGABEZIAN DAUDEN GAZTEEN EGOERA . . . . .</b>	<b>95</b>
<b>4.1. Langabezian dauden gazteen kopurua . . . . .</b>	<b>95</b>
<b>4.2. Langabezian dauden gazteen prestakuntza . . . . .</b>	<b>96</b>
<b>4.3. Aurretiazko lan-eskarmentua eta langabezia-prestazioaren kobrantza . . . . .</b>	<b>98</b>
<b>4.4. Langabezian daramaten denbora . . . . .</b>	<b>100</b>
<b>4.5. Lan-bilaketa . . . . .</b>	<b>100</b>
<b>4.6. 30 eta 34 urte bitarteko langabeen egoera . . . . .</b>	<b>101</b>
4.6.1. Langabezian dauden 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen kopurua . . . . .	101
4.6.2. 30 eta 34 urte bitarteko langabeen prestakuntza . . . . .	103
4.6.3. Aurretiazko lan-eskarmentua eta langabezia-prestazioaren kobrantza . . . . .	105

4.6.4. Langabezia daramaten denbora.....	106
4.6.5. Lana bilatzeko ekimena .....	107
<b>4.7. Emaidza nagusiak.....</b>	<b>109</b>
<b>5. IKASLE GAZTEEN PRESTAKUNTZA ETA LAN-ESKARMENTUA .....</b>	<b>111</b>
5.1. Ikasten ari diren gazteen kopurua .....	111
5.2. Ikasten ari diren gazteen prestakuntza .....	112
5.3. Ikasle gazteen lan-eskarmentua .....	114
5.4. Ikasten eta lan bila ari diren gazteak .....	115
5.5. Ikasten ari diren gazteen baliabide ekonomikoak .....	116
5.6. 30 eta 34 urte bitarteko ikasleen egoera .....	118
5.7. Emaidza nagusiak.....	120
<b>6. LAN-BILAKETA .....</b>	<b>121</b>
6.1. Lan bila ari diren gazteen kopuruak eta horien ezaugarriak .....	121
6.2. Lan-bilaketaren ezaugarriak .....	123
6.3. 30 eta 34 urteko pertsonen lan-bilaketa .....	126
6.4. Emaidza nagusiak.....	130
<b>7. LAN-ESKARMENTUA EUSKADITIK KANPO .....</b>	<b>133</b>
7.1. Euskadin jaio diren 30 urtetik beherako zenbat pertsonek dute lan-eskarmentua Euskaditik kanpo? .....	133
7.2. Euskadin jaio diren 30 eta 34 urte bitarteko zenbat pertsonek dute lan-eskarmentua Euskaditik kanpo? .....	134
7.3. Euskadin jaio diren 16 eta 34 urte bitarteko pertsonen atzerrian duten lan-eskarmentuaren analisia.....	135
7.4. Euskadin jaio eta noizbait atzerrian lan egin duten 16 eta 34 urte bitarteko pertsonen egungo egoera.....	139
7.5. Emaidza nagusiak.....	140
<b>8. ENPLEGUAREKIKO JARRERAK.....</b>	<b>141</b>
8.1. Autoenplegurako prestasuna.....	141
8.2. Mugikortasun geografikoarekiko prestasuna .....	143
8.3. Lanez aldatzeko eta lan-aurreikuspenak murrizteko prestasuna.....	149
8.4. Enpleguarekiko jarrerak 30-34 urteko pertsonen artean .....	152
8.4.1. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen autoenplegurako prestasuna.....	152

8.4.2. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen mugikortasun geografikorako prestasuna . . . . .	154
8.4.3. Lanez aldatzeko eta lan-aurreikuspenak murrizteko prestasuna 30 eta 34 urte bitartekoen artean. . . . .	160
<b>8.5. Eraitza nagusiak. . . . .</b>	<b>162</b>
<b>9. GAZTEEN LAN-EGOERAREN ONDORIOAK . . . . .</b>	<b>165</b>
9.1. Gazteen egoera sozioekonomikoa . . . . .	165
9.2. Gazteen aukerak etxebizitza propioa izateko eta familiak osatzeko. . . . .	167
9.3. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen egoera. . . . .	168
9.4. Eraitza nagusiak. . . . .	170
<b>ONDORIOAK . . . . .</b>	<b>171</b>
<b>BIBLIOGRAFIA . . . . .</b>	<b>173</b>
<b>TAULEN ETA IRUDIEN AURKIBIDEA. . . . .</b>	<b>175</b>
<b>Taulen aurkibidea . . . . .</b>	<b>175</b>
<b>Irudien aurkibidea . . . . .</b>	<b>178</b>



# Aurkezpena

Gazteen Euskal Behatokiak, 2011. urtean, krisialdiak ekonomia eta enplegua gogor astintzen zituen garaian, bi urtean behin egiteko azterlan bat prestatu zuen, xehetasunez ezagutzeko gazteek zer lan-baldintza dituzten Euskadin. “Euskadiko Gazteak” ikerlanak, 2000. urteaz geroztik, gaia aztertzen zuen, baina gaingiroki aztertzen zituen, gazteei dagozkien beste gai batzuekin batera, gazteen lan-baldintzak, eta gaian sakontzea da azterlan berri honen xedea.

Gazteen Euskal Behatokiaren azterlan honek enplegua soilik aztertzen du, eta azterlanaren laugarren edizioa da. Berariaz, gazteek 2011, 2013, 2015 eta 2017 urteetan izan dituzten lan-baldintzak aztertzen ditu.

Euskadin bizi diren 16 eta 34 urte bitarteko ia 2000 pertsonak galdetegi bati emandako erantzunak aztertzen ditu txostenak. Zehazki, gai hauen gaineko galderak egin ditu galdetegiak: gazteen laneratzea; gaur egun lanean ari diren gazteen lan-baldintzak; lanik gabe dauden gazteen egoera; ikasten ari diren gazteen prestakuntza eta lan-eskarmentua; enplegu-bilaketa; Euskaditik kanpoko lan-eskarmentua; eta autoenplegurako, mugikortasun geografikorako, lanbidez aldatzeko eta lan-aurreikuspenak murrizteko prestasuna.

Azterlanak erakusten du zenbait adierazle ekonomikorik hobera egin dutela, baina, era berean, egiaztatzen du Euskadiko gazteen enpleguaren kalitateak, eta, batik bat, 30 urtetik beherakoena, ez duela, inondik ere, adin horretako beste urrats handia egiteko aukerarik ematen, hau da, ez duela etxetik irten eta emantzipatzeko aukerarik ematen. Oso handia da, oraindik, aldi baterako lanak dituzten gazteen ehunekoak, asko dira ezinbestean lanaldi partzialak egin behar dituztenak, emakumeak batik bat, eta gazteen soldatak biztanleria osoak batez beste irabazten dituenak baino nabarmen apalagoak dira. Enpleguak behar besteko kalitaterik ez izatearen ondorioak ez dira lan-esparrukoak soilik, eta ondorioak ditu, era berean, gazteen emantzipatzeko aurreikuspenetan, eta finean, haien bizi-proiektuetan.

Ikerlan honek gazteen problematika hori eta bere ondorioak ezagutzen saiatu nahi du, eta, jakintza hori baliatuta, gazte-enpleguko politika publikoen diseinua hobetzen lagundu. Jakintza horren bidez, politikek kontuan hartuko dituzte prestakuntza, lehen enplegua eskuratzeko aukerak, kalitatezko enpleguaren sorrera eta beste hainbat alderdi. Gazteek kalitate oneko enpleguak eskuratzen baldin badituzte, beren bizi-proiektuak Euskadin betetzeko aukera izango dute, ez da lan-emigraziorik gertatuko, eta gure gizarteak ez du gazte-indarraren galerarik izango.

Beatriz Artolazabal Albeniz  
Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburua



# Hitzaurrea

Enplegua da gazteen kezka handienetako bat. Hori adierazten dute gazteen egoeraren berri ematen diguten ikerlanek. Baina kezka hori gizarte osoarena da, ez gazteena bakarrik. Izan ere, ordaindutako enplegua izatea ezinbesteko baldintza da baliabide ekonomikoak izateko, gurasoen etxetik emantzipatzeko aukerak aztertzeo eta beren bizi-proiektu heldu eta independentea hasteko.

Gazteen egoerari buruzko informazioa kudeatzea da Gazteen Euskal Behatokiaren eginkizun nagusia, baina baditu beste eginkizun batzuk ere, hala nola gazteen errealitateari buruzko datu fidagarriak ematea gizarteari, esparru akademikoari, gazteekin lan egiten duten profesionaleri eta, batik bat, gazte-politiken arduradunei. Eginkizun orokor horretan, enpleguaren gaia aztertzea da Behatokiaren lehentasunetako bat.

Hori horrela, inkesta edo galdetegietan oinarritutako beste ikerlan bat egin berri du, Euskadiko gazteen egoera aztertzeo, eta berariaz jakiteko, besteak beste, zer okupazio nagusi duten, zer lan-eskarmentu duten eta zer lan-aurreikuspen dituzten. Ikerlanak 16 eta 29 urte bitarteko gazteen egoera aztertzen du, batik bat. Adin-tarte hori aztertzea hautatu da, lanean hasteko lege-adina 16 urtekoa delako, eta 29 urteko adina delako, betidanik, Euskadin, Espainian eta Europan gazteria aztertzen duten ikerlanek darabilten adin-muga. Adin-tarte horretan dauden gazteei egin zaizkien galdera berak egin zaizkie, era berean, 30-34 urteko adin-tartekoei, gazteen lan-egoera, adinean aurrera egin ahala, aldatu egiten ote den aztertzeo. Guztira, Euskadin bizi diren ia 2.000 gaztek parte hartu dute ikerlanean, eskuzabaltasunez.

Azterlan honen beste helburu bat da gazteen egoera horrek azken urteetan izan duen bilakaera aztertzea. Galdetegiko galdera batzuk 2000. urteaz geroztik egiten dira, eta gazteek ekonomiaren susperraldiko eta krisialdiko urteetan bizi izan dituzten egoerak konparatzeko aukera ematen dute. Beste galdera batzuek ez dute datu historikoen segida hain luzerik, krisialdian sortutako kezkei erantzuteko sortu baitira.

Gazteen egoeraren, portaeren eta iritzien bilakaera aztertzeaz gainera, posible izan dugu datu horiek, gai jakin batzuetan, Espainiako eta Europako gazteei buruzko datuekin konparatzea. Alderatze hori egiteko, Europar Batasuneko *Eurostat* Estatistika Bulegoak argitaratutako datuak baliatu ditugu, Europar Batasuneko 28 herrialderi buruzko informazioa jasotzen duen aldetik.

Hau da txostenaren egitura. Hitzaurre hau egin eta ikerlan honetan aztertzen diren datuak biltzeko erabili den metodologia azaldu ondoren, hainbat gai aztertzen dira beste hamar kapitulutan: lan-baldintzak, enplegurako prestakuntza, enplegu-bilaketa, enpleguarekiko jarrerak, etab. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen egoerak eta jarrerak aztertzen dira kapitulu horietan guztietan. Aurreko urteetan edo beste geografia-eremu batzuetan izan dituzten datuak eskura izan direnean, datuon bilakaera eta/edo Europako beste herrialde batzuekiko aldeak aztertu dira. Kasu guztietan, 30 urtetik beherako pertsonen eta 30-34 urteko taldeko pertsonen egoerak alderatu dira, eta, halaber, aztertu da ea aldeak dauden bi talde nagusi horiek osatzen dituzten hainbat kolektiboren artean. Aztertutako gaiaren arabera, aldagai desberdinak erabili dira kolektibo talde zehatz horien analisia egiteko. Azterlanaren emaitza nagusiak laburtzen ditu hamargarren kapituluak. Azkenik, gazteek Euskadin eta 2017an izan duten lan-egoerari buruzko konklusio edo ondorio labur batzuk aurkezten dira. Amaieran, azterlana egiteko erabili diren txostenak eta bibliografia adierazten dira, beren estekekin batera, nahi duenak kontsulta ditzan.



# Metodologia

Metodologia kuantitatiboa erabili da eta, zehazki, elkarrizketa indibidualak egin zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lurralde historiko bakoitzeko 16-34 urteko gazteen lagin adierazgarri bati. Guztira, 1.919 inkesta egin dira: 481 Araban, 761 Bizkaian eta 677 Gipuzkoan.

Elkarrizketak etxez etxe egin dira eta, horretarako, erantzun egituratu eta itxiak erabili dira galdera gehienetan. Beste galdera batzuetan, ordea, parte-hartzaileen erantzun ireki eta espontaneoak eskatu dira. Elkarrizketak euskaraz nahiz gaztelaniaz egin dira, inkestari erantzun dioten gazteek nahi zuten hizkuntzaren arabera.

Inkestari erantzuteko pertsonen hautapen-prozedura fase anitzeko laginketarekin eta laginketa geruzatuarekin egin da. Lurralde historiko edo probintzia bakoitzeko ibilbide kopurua zehaztu da lehenik: 25 Araban, 40 Bizkaian eta 35 Gipuzkoan. Ondoren, ezarritako ibilbide-kopuruari eta probintzia bakoitzeko gazteen eskualde- eta udalerrri-banaketari begiratu zaio inkestak non egingo diren erabakitzeko. Udalerrriak tamainaren arabera sailkatu dira, biztanle-kopuruari erreparatuta (10.000 biztanletik beherako udalerrriak, 10.000-120.000 biztanle-bitarteko udalerrriak eta hiriburuak).

Zehazki, hau izan da Arabako 25 ibilbideen banaketa: 4 ibilbide 10.000 biztanletik beherako udalerrietan (ezaugarri bereko beste udalerrri batekin edo batzuekin osatu dira; zehazki, udalerrri hauek hautatu dira: Aiara, Artziniega, Zuia, Legutio, Agurain, Donemiliaga, Oion, Lantziego), 2 ibilbide 10.000 biztanletik gorako udalerrietan (Laudio eta Amurrio) eta 19 ibilbide Vitoria-Gasteizen.

Hau izan da Bizkaiko 40 ibilbideen banaketa: 7 ibilbide egin dira 10.000 biztanletik beherako udalerrietan (bi edo hiru udalerrri hautatu dira ibilbide bakoitzean: Ortuella-Zierbena, Lekeitio-Ispaster, Zalla-Sopuerta, Berriz-Garai, Gorkiz-Lemoiz, Igorre-Artea, Mundaka-Busturia-Ea); 21 ibilbide 10.000 biztanletik gorako udalerrietan (Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Basauri, Leioa –ibilbide bat baino gehiago egin da udalerrri horietan– eta Galdakao, Arrigorriaga, Durango, Amorebieta-Etxano, Mungia, Sopela, Gernika-Lumo –ibilbide bakarra udalerriko–); eta 12 ibilbide Bilbon.

Azkenik, honela banatu dira Gipuzkoako 35 ibilbideak: 8 ibilbide egin dira 10.000 biztanletik beherako udalerrietan (bi udalerrri hautatu dira ibilbide bakoitzean: Zumarraga-Itsasondo, Ordizia-Zaldibia, Zumaia-Getaria, Aretxabaleta-Leintz-Gatzaga, Urnieta-Astigarraga, Villabona-Anoeta, Ibarra-Irura, Deba-Mendaro), 18 ibilbide 10.000 biztanletik gorako udalerrietan (Irun, Errenteria, Hernani, Eibar eta Zarautz –ibilbide bat baino gehiago udalerrri bakoitzean– eta Hondarribia, Lasarte-Oria, Pasaia, Azpeitia, Beasain, Arrasate, Bergara eta Tolosa –ibilbide bat bakoitzean–) eta, azkenik, 9 ibilbide Donostian.

Galdetegiak udalerrri eta ibilbide bakoitzeko zer etxebizitzetan egingo ziren aukeratzeko, abiapuntu aleatorio bat adierazi da, eta ezarritako ibilbidea jarraitu da, etxe-atarien zenbakiak txandakatuta. Etxe bakoitzeko solairu bakoitzean inkesta bat egiteko muga jarri da, eta hamar etxebizitzako multzo bakoitzeko ezin zen inkesta bakar bat baino gehiago egin. Elkarrizketatuko ziren gazteen azken hautaketa egiteko, sexuaren eta adinaren arabera kuotak ezarri dira, eta muga jakin batzuk zehaztu dira haien okupazio nagusiari eta jaiolekuari begiratuta.

Galdetegia erantzungo duen pertsona hautatu ondoren, galdetegia aurkezteko gutuna erakutsi zaio. Gutun horrek azaldu dio Gazteen Euskal Behatokiarentzat erantzungo duela galdetegia, erantzunak anonimoak eta erabat konfidentzialak direla, eta galdetegia erantzun duten pertsona guztiek harremanetarako telefono-zenbaki bat izango dutela eskura, zalantzak eta bestelako galderak erantzuteko.

Elkarriketa amaitzean, telefono-zenbakia eskatu zaio galdetegia erantzun duen pertsona bakoitzari, telefonoz kontrolatu ahal izateko egindako inkesten kalitatea. Ibilbideak, kuotak eta galdetegia bera behar bezala osatu direla ziurtatzeko egin da kontrol hori. Erroreak hauteman direnean, zuzendu egin dira ahal izan denean, eta zuzendu ezin izan denean, baliogabetu egin dira inkestak, eta udalerrri berean ezaugarri soziodemografiko bereko beste pertsona batzuek erantzundakoekin ordeztu dira.

Kalitate-kontrol hori ez da telefonoz soilik egin, aurrez aurrekoa ere izan da zenbaitetan, presentziala. Telefono bidezko kontrola egiteko, inkestak erantzun dituzten pertsonen erantzunak egiaztatu dira eta euskarri magnetikoan grabatu dira kontrol-ekintzetan izandako elkarrizketak. Aurrez aurreko kontrola egiteko, zoriz hautatu dira inkestatzaile bakoitzaren landa-laneko eremuan dauden etxebizitza batzuk. Telefono bidez kontrolik egin ezin izan denean (telefonoa beti komunikatzen egon denean, deiak mugatuak zituenean, itzalita edo estaldurarik gabe zegoenean, etab.) ere aurrez aurreko kontrola egin da. Guztira, inkesten % 74,7 kontrolatu da (telefonoz % 65,1 eta aurrez aurre gainerako % 9,6a).

Landa-lana 2017ko azaroaren 6tik abenduaren 15era bitartean egin da, eta bi data horien artean errepikatu dira kalitate-kontrolak baliogabetu dituen inkestak.

Inkesta guztiak balioztatu ondoren, datu-base batean grabatu dira, horien estatistika-analisia egiteko SPSS pakete informatikoaren bidez. Emaitzak aurkezteko, haztatu eta milakotara bihurtu dira, gazteek Euskadiko lurralde historikoetan eta eskualdeetan duten banaketaren arabera eta aztertutako adin-taldetan duten banaketa errearen arabera. Eustat Euskal Estatistika Erakundeak argitaratzen dituen biztanleria-datu ofizialak baliatu dira banaketa-eragiketa hori egiteko.

Lagin-errorea, lagin erabat aleatorio izateari legokiokeena,  $\pm$  % 2,2koa da EAEko gazteen artean, konfiantza-maila % 95,5ekoa eta  $p=q=0,5$ .

Lagin orokorrean, kolektibo jakin bateko banakoak aukeratzean, handitu egiten da hasierako lagin-errorea. Horregatik, aztertutako gaiari egindako hurbilketak dira zenbait datu, eta ez magnitude zehatzak. Desagregazioan banakatu edo bereizitako kolektibo guztiei egin zaizkien inkesten kopuruak zehazten dituzte taulek (n).

Desagregazio-aldagai hauek eta horien baitako kategoria hauek erabili dira nagusiki:

- Sexua: emakumeak, gizonak.
- Adin-taldeak: 16-24 urte, 25-29 urte eta 30-34 urte
- Lurralde historikoa (bizilekua): Araba, Bizkaia, Gipuzkoa.
- Jaiolekua: Euskadi (Araba, Bizkaia edo Gipuzkoa), Espainiako gainerako lurraldeak (tauletan ez da kategoria honetako daturik zehazten, aztertutako laginean oso gazte gutxi baitira) eta atzerria.
- Gizarte-maila subjektiboa (bakoitzak zein gizarte-mailatan kokatzen duen bere burua): goi-maila, ertain-goikoa edo ertaina batetik, eta behe-maila edo ertain-behekoa, bestetik.
- Amaitutako ikasketa-maila: derrigorrezkoak (Lehen Hezkuntza, DBH edo parekoak) edo bigarren mailakoak, derrigorrezkoen ondorengoak (Batxilergoa edo erdi-mailako prestakuntza-zikloak), eta goi-mailakoak (unibertsitate-ikasketak, goi-mailako prestakuntza-zikloak, goi-mailako arte-ikasketak, graduondokoak, masterrak, doktoretzak).

- Amaitutako ikasketa-mota: derrigorrezkoak edo Batxilergoa, prestakuntza-zikloak (erdi- edo goi-mailakoak) eta unibertsitate-ikasketak.
- Okupazio nagusia: ikasten, lanean, langabezian, beste egoera batean (azken kategoria hau ez da tauletan adierazten, oso gazte gutxik osatzen baitute).
- Lan-eskarmentua: bai, ez.
- Kontratu-mota: mugagabea, finkoa (aldizkako kontratu finkoak eta kooperatibistak barne), aldi baterakoa (mota guztiak), norberaren kontura (autonomia edo enpresaria), kontraturik gabe.
- Lanaldia-mota: osoa edo partziala.
- Lehen lana eskuratzeko unea: ikasten zuen bitartean edo ikasketak amaitu eta gero.
- Lan-eskarmentua Euskaditik kanpo: bai, ez.

Gazteen Euskal Behatokiak du ikerketaren diseinuaren, emaitzen azterketaren eta txostenaren idazketaren gaineko erantzukizun osoa.

Landa-lana, berriz, *Ingartek* enpresak egin du, Gazteen Euskal Behatokiak berariaz emandako jarraibideak jarraituta. Enpresa honen laguntza baliatu da inkesten kalitate-kontrola egiteko: *Iritzi, Investigación Social*.





# 1

## Gazteen okupazio nagusia

Gazteen lan-egoera eta eskuratzen dituzten enpleguen ezaugarriak aztertzen hasi aurretik, ezinbestean jakin behar da zenbat pertsona ari diren lanean, eta ikasten, lanik gabe edo beste egoeraren batean dauden gazteen egoeratik bereizi behar dira. Horrenbestez, gazteek zer okupazio nagusi duten zehaztu behar du lehen analisiak.


Gazteen okupazio nagusia nabarmen aldatzen da adinarekin batera; izan ere, ikasketak amaitzeko garaira iristen den neurrian, gero eta gehiago dira lan-merkatuan sartzen direnak. Hori horrela, alde nabarmenak daude 25 urtera iritsi gabeen, 25 eta 29 urte bitartekoen eta 30 urtetik gorakoen artean.

Kapitulu honetan, gainera, zenbait aldagaik gazteen okupazioan duten eragina aztertuko dugu, hala nola ikasketa-mailak eta jaiolekuak.

### 1.1. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO PERTSONEN OKUPAZIO NAGUSIA

30 urtetik beherako gazteen erdiak baino gehiagok (% 54,4k) adierazten du ikastea dela bere okupazio nagusia. Lanean ari dira herena baino zertxobait gehiago (% 35,4). Gazteen % 6,7 langabezian dago, eta gainerakoek (% 3,5) etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten dituzte edo lan egiteko eragozpenen bat dute (iraupen luzeko gaixotasunen ondoriozko baja-egoeran izatea, etab.).

**1.1. irudia**  
16-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA (%)



Egoera horiek ez dira erabat estankoak. Ikasten ari diren gazteen % 42,8 ari da jardun osoz ikasten, eta okupazio nagusia ikastea duten arren, % 11,6 ari da lanen bat egiten ikasten ari den bitartean. Bestalde, lanean ari diren gazteei begiratuta, lan egitea da gazte horien % 28,3ren okupazio bakarra, eta okupazio nagusia lan egitea duten arren, % 7,1 ari da ikasketaren bat egiten lan egiten duen bitartean.

Azalpen gehiago eman aurretik, argitu behar da lana okupazio nagusi duten gazteen egoeraz hitz egiten ari garela, eta ez okupazio- edo enplegu-tasari buruz. Erreferentziazko astean gutxienez ordubetez lan egiten duen pertsonen ehunekoa adierazten du okupazio-tasak (edo, lan egin gabe, enpleguarekin lotura formal bat duten pertsonena, hau da, ordainsariren bat jasotzen duten pertsonena edo hiru hileko epean enplegu-egoerara bueltatzea aurreikusia duten pertsonena, oporretan, bajaran edo bestelako egoeraren batean daudelako). Definizio horretan sartzen dira, era berean, bizikide duen senideren baten enpresan lan egiten dutenek, lan horregatik inolako ordainsaririk jaso ez arren. Lanaren Nazioarteko Erakundeak emandako definizio horri begiratzen badiogu, lanean ordubetez lan egiten duten ikasle guztiak sartzen dira okupatuta dauden pertsonen kategorian<sup>1</sup>.

Bestalde, langabezian dauden gazteen zenbait ehuneko ematen ditu azterlan honek, baina ez dira langabezia-tasarekin nahastu behar. Langabezia-tasa, Lanaren Nazioarteko Erakundeak ematen dion adieran, adierazten du langabezian dauden gazteek zer proportzio duten biztanleria aktiboarekiko, hau da, lan egiteko prestutasuna duen biztanleriarekiko (lana izan zein ez). Tasa hori kalkulatzeko, beraz, ez dira kontuan hartzen ez ikasleak, ez etxeko lanak edo zaintza lanak egiten dituzten pertsonak, ez lan egiteko ezintasunak dituzten pertsonak, ez zenbaketa egin aurreko lau asteetan enplegua bilatzeko gestiorik egin ez duten pertsonak. Azterlan honek ematen dituen langabezia-ehunekoek, ordea, pertsona gazte guztiekiko kalkulatu dira, eta ez biztanleria aktiboarekiko, Euskadin langabezian dauden gazteen kopurua zehaztea baita azterlan honen helburua<sup>2</sup>.

Horrenbestez, Euskadiko gazteen egoera Europako gazteen egoerarekin konparatzeko, gazte guztiekiko European langabezian dauden gazteen ehunekoa adierazten duen adierazleari erreparatu behar zaio (*youth unemployment ratio*). Europako Batzordearen Eurostat<sup>3</sup> estatistika-erakunde ofizialak argitaratutako adierazle horrek 2017. urtean duen balioaren arabera, European langabezia-egoeran dauden gazteen batez bestekoa % 7,5ekoa da, Euskadikoa baino zertxobait handiagoa (% 6,7). Greziak (% 16,2) eta Espainiak (% 15,2) dituzte gazte langabeen proportziorik handienak, eta Txekiar Errepublika da, beste muturrean, gazte langabeen ehuneko txikiena duena (% 2,6).

---


<sup>1</sup> Horrexek azaltzen du zergatik den, inkesta hau egin den garaian (2017ko laugarren hiruhilekoan), zertxobait handiagoa Eustat erakundeak (Euskal Estatistika Erakundeak) 16 eta 29 urte bitarteko adin-taldean adierazten duen okupazio-tasa (% 39,3), guk azterlan honetan gazteen okupazio nagusiaren adierazlean eman dugun datua baino (% 35,4); izan ere, gazteek beraiek adierazitako okupazio nagusiaren datua eman dugu, eta datu horrek ez ditu barne hartzen lanen bat izan, baina nagusiki ikasten diharduten pertsonak.

<sup>2</sup> Hori horrela, Eustat erakundeak adierazi du langabezia-datua % 15,1ekoa izan dela 2017ko laugarren hiruhilekoan, eta azterlan honek, berriz, % 6,7koa izan dela. Lehen ehunekoa handiagoa izatearen arrazoia da, azaldu dugun moduan, biztanleriaren zati txikiago bat hartzen duela kontuan, hau da, biztanleria aktiboa (16 eta 29 urte bitarteko gazteen erdia baino gutxiago sartzen da biztanleria aktiboaren multzoan –zehazki, % 46,3 ziren 2017ko azken hiruhilekoan–), eta bigarrenak, berriz, gazte guztiak hartzen ditu oinarri.

<sup>3</sup> European Commission: Eurostat (EBko estatistika-erakundeak): *Database*. Estatistika-taula linean [ingelesez]. Hemen eskuragarri: <http://ec.europa.eu/eurostat/data/database> [Kontsulta: 2018/04/23]

## 1.2. irudia

EUSKADIN ETA EUROPAR BATASUNEAN LANGABEZIA-EGOERAN DAUDEN  
GAZTEEN EHUNEKOEN KONPARAZIOA, GAZTE GUZTIEKIKO (%)\*



\* Europar Batasuneko datuak 15 eta 29 urte bitarteko gazteen egoera adierazten dute.

Iturria: Eurostat, Gazteriar buruzko estatistikak (*Database:Youth*).

Kontzeptu horiek argitu ondoren, adinak aurrera egin ahala gazteen okupazio nagusiaren aldagaian zer alde ageri diren aztertuko dugu.


## 1.2. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA NABARMEN ALDATZEN DA ADINAREKIN BATERA

Aurreko puntuan azaldutako datu orokorrek alde handiak erakusten dituzte adinetik adinera. Urtez urte aztertzen baldin badugu okupazio nagusia, ikusten dugu ikastea dela jardura nagusia 23 urte bete arte, eta 24 urteko adinetik aurrera hasten dira gehiengo izaten lanean ari direnak, zer lan egiten ari diren begiratu gabe. Era berean, langabezian dauden gazteen kopuruak gora egiten du 25 urteko adinetik aurrera.

Adin-taldeen arabera banaketak adierazten du 20 urtetik beherako adinean dauden gazteen % 93,2 ikasten ari dela, eta ikasle direla, era berean, 20 eta 24 urte bitarteko adin-taldean dauden gehienak (% 61,5), baina, adin-tarte horretan bertan, lana egitea da hamar gaztetatik hiruren okupazio nagusia (% 29,6). Ikasleen ehunekoa % 18,1eraino jaisten da 25 urteko adinetik aurrera, eta gehiengoak, % 65,1ek, lan egiten du; era berean, langabezian dago 25 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetatik bat (% 11,4, zehazki).

### 1.3. irudia

16-29 URTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)



Okupazioak adin-taldeka erakusten dituen emaitzen azterketa xeheagoa eginez gero, ikusten dugu 20 eta 24 urte bitarteko gazteen gehiengoak, ikasle direla esaten duten arren, gazte guztien % 42,2rentzat soilik dela ikastea jardun osoko okupazioa, eta % 19,3k lanen bat egiten duela, bere okupazio nagusia ikastea izan arren. Bestalde, 25 eta 29 urte bitarteko adin-tartean, lan egitea okupazio bakarra da % 52,9rentzat, eta, lan egiteaz gain, ikasi egiten du adin-tarte horretako gazteen % 12,2k.


Amaitzeko, beraz, ondoriozta dezakegu ikastetik lan egiterako bidea pixkanaka urratzen dela, bat-bateko etenik gabe.

Adinak gora egin eta ikasketak amaitu ahala, gero eta handiagoa da langabezian dauden gazteen ehunekoa: 20 urte bete gabe dituzten gazteen % 1,7 dago langabezian, 20 eta 24 urte bitartean daudenen % 5,8 eta 25 eta 29 urte bitarteko adin-tartean daudenen % 11,4.

Adinak gora egin ahala ikusten den beste joera bat da gero eta handiagoa dela beste egoeraren batean izatea adierazten dutenen ehunekoa; izan ere, ikastea, lan egitea edo langabezian egotea ez den beste egoeraren batean dagoela adierazten du 25 eta 29 urte bitartean daudenen % 5,3k, eta ehuneko hori % 1,6koa da 20 urtetik behekoen artean.

### 1.3. ALDEAK IKUSTEN DIRA JAIOLEKUAREN ETA IKASKETEN ARABERA ERE

Gazteen jaiolekuaren aldagaiari begiratzen baldin badiogu, ikusten dugu lanean ari diren gazteen kopuruak antzekoak direla Euskadin jaio direnen eta atzerrian jaio direnen artean, baina gainerako egoerei erreparatuz gero, alde nabarmenak ikusten dira aldagai horren arabera: immigranteen artean, txikiagoa da ikasten ari direnen ehunekoa eta handiagoa etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten ari direnen nahiz beste egoeraren batean daudenen ehunekoa.



Sexuaren arabera aztertzen baldin badugu gazteen kopuru osoa, emakumeek eta gizonek ez dute alde handirik okupazio nagusiaren aldagaiari, baina gazte immigranteen sexuaren araberako azterketak adierazten du alde handia dagoela atzerrian jaio eta etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten dituzten emakumeen ehunekoaren eta gizonen ehunekoaren artean (hori baita okupazio nagusia emakume gazte immigranteen % 13,4rentzat, eta gizon gazte atzeritarren kasuan, aldiz, bakarrik % 0,5ek du hori okupazio nagusitzat). Bestalde, Euskadin jaiotako emakume gazteen kasuan % 0,7k soilik ditu etxeko lanak edo zaintza-lanak jardun nagusitzat.

**1.1. taula**

16-29 URTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA, JAIOLEKUAREN  
ETA SEXUAREN ALDAGAIK UZTARTUTA (%)

(%)	Jaiolekua*					
	Guztira		Euskadi		Atzerria	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Ikasten	54,4	54,4	57,2	54,0	42,1	48,2
Lanean	34,7	36,0	35,5	37,0	32,6	36,7
Langabezia-egoeran	6,2	7,2	5,2	6,7	9,0	8,1
Etxeko lanak edo zaintza-lanak	2,7	0,2	0,7	0,0	13,4	0,5
Beste egoera batean	1,9	2,2	1,3	1,5	2,9	6,4
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	661	658	510	515	116	105

\* Espainiako beste lekuetan jaiotako gazteei dagozkien datuak ez dira aurkezten, laginean oso kopuru txikia baita eta, horren ondorioz, ez da fidagarritasun estatistiko nahikoa bermatzen.

Seme-alabak izatea da datu hori azaltzen duen arrazoi nabarmenetako bat. Etxeko lanak edo zaintza-lanak egitea okupazio nagusia da seme-alabaren bat daukaten gazteen % 17,9rentzat, baina proportzioa askoz ere handiagoa da atzerrian jaiotako gazteen artean (% 27,6), Euskadin jaiotako gazteen artean baino (% 3).


Ikasketa-mailak enpleguan nola eragiten duen aztertuko dugu orain. Kontuan hartuz gero 25 urtetik beherako gazte gehienak ikasten ari direla, 25 eta 29 urte bitarteko pertsoneri erreparatuko diegu, gehienek amaituak baitituzte ikasketak, eta aztertuko dugu ikasketa motak eraginik ba ote duen okupazio-mailan (ez dugu aztertuko egiten duten lana egindako ikasketekin loturik dagoen, gerora aztertuko baitugu hori, gazte okupatuak eta dituzten enpleguen ezaugarriak azaltzen dituen kapituluari).

Goi-mailako ikasketak izateak, bai unibertsitatekoak, bai goi-mailako prestakuntza-zikloak, mesedegarri da lana eskuratzeko, lanean ari dela adierazten baitu goi-mailako ikasketak izan eta 25 eta 29 urte bitarte dituen lau gaztetik hiruk (% 74,6k). Adin-talde horretan, hau da, 25-29 urteko gazteen multzoan, lehen edo bigarren mailako ikasketak amaitu dituztenen erdiak inguruk adierazten du lanean ari dela (zehazki, % 51,4k). Azken talde edo multzo horretan dira handienak ikasleen ehunekoa, langabezia dauden ehunekoa, etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten dituztenena eta beste egoeraren batean daudenena.

Ez dago alde handirik prestakuntza-zikloak (erdi- edo goi-mailakoak) egin dituztenen eta graduoko edo graduondoko unibertsitate-ikasketak egin dituztenen artean; izan ere, lanbide-heziketako titulua dutenen % 71,1 ari da lanean, eta proportzio hori, unibertsitate-tituluak dituztenen artean, % 75,6koa da.

### 1.5. irudia

25-29 URTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA, AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA (%)



Bestalde, gazteen adinari begiratu gabe aztertzen baldin badugu egindako ikasketa zehatzek zer okupazio-maila ekarri duten, ikusten dugu hauek direla, 16 eta 29 urte dituztenen artean, okupazio-maila handiena ekarri duten ikasketak: elektronikoa, elektrizitatea, elektromekanika, mekanizatua, automozioa, diseinu grafikoa, irudia eta soinua eta antzekoak (% 61,8); fabrikazioaren, obren edo mantentze-lanen ingurukoak, hala nola aroztegia, galdaragintza, soldadura, karrozeria, lorezaintza eta antzekoak (% 67,7); eta osasunaren alorreko ikasketak, hala nola, medikuntza, erizaintza, fisioterapia, psikologia, dietetika eta antzekoak (% 65,2). Ikasketa horiek % 60tik gorako okupazio-maila dakarte.

Aitzitik, humanitateen adarreko ikasketak (hala nola zuzenbidea, politika, soziologia, historia, filosofia, filologia eta antzekoak) egin dituzten pertsonen eta artearen alorreko ikasketak egin dituztenek dute okupazio-mailarik txikiena (% 45,2); hala ere, kontuan izan behar da bi talde horietan dela handiena ikasten jarraitzen dutenen ehunekoak.

## 1.4. 16-29 URTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIAREN BILAKAERA


Gazteen okupazioak 2000. urtetik aurrera eman dituen datuak aztertzen baldin baditugu, ikusten da azken urte honetan nabarmen handitu dela ikasle gazteen ehunekoa, hori izan baita gazte gehienek (% 54,4) okupazioa 2017an. Aztertutako urte-sail guztian izan den ehuneko handiena da.

Enpleguak ere susperraldia izan du, eta 2013an edo 2015ean baino gazte gehiagorentzat izan da lan egitea bere okupazio nagusia 2017an. Hala ere, ez da aurreko urteetako zenbatekorik berreskuratu.

Behera egin du, bestalde, langabezian daudela adierazten duten gazteen ehunekoa, eta minimoa markatu du 2000. urtean hasitako sailean. Agerikoa dirudi langabeziaren beherakada horren arrazoia ikasleen ehunekoaren gorakada izan dela; izan ere, enplegua lortzeko zailtasunak dituzte gazte askok, eta horren ondorioz, ikasten jarraitzea eta curriculuma hobetzea erabakitzen dute.

### 1.6. irudia

16-29 URTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma 2000, 2004 eta 2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017 datuetarako).


## 1.5. 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN OKUPAZIO NAGUSIA

30 urteko adinetik aurrera, nabarmen egiten du behera okupazio nagusia ikastea duten pertsonen ehunekoak (% 8,5 dira 30 eta 34 urte bitartekoen artean), eta lau pertsonatik hiru lanean ari dira (% 73,3). Gainera adin-tarte horretan handiagoa da langabezian dauden pertsonen ehunekoa (% 13,2).



## 1.7. irudia

16-34 URTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)



Azken sei urteetako bilakaerak (2011-2016) erakusten digu asko handitu dela, 30 urtetik 34 urtera bitarteko adin-taldean, okupazio nagusia ikastea eta/edo lan egitea duten pertsonen ehunekoak, eta nabarmen egin duela behera langabezian dauden pertsonen ehunekoak.

## 1.2. taula

30-34 URTEKO PERTSONEN OKUPAZIO NAGUSIAREN BILAKAERA (%)


(%)	2011	2013	2015	2017
Ikasten	4,7	4,7	6,4	8,5
Lanean	68,9	62,1	69,0	73,3
Langabezia-egoeran	21,4	26,5	21,0	13,2
Beste egoera batean	5,1	6,7	3,6	5,0
Guztira	100	100	100	100
(n)	600	600	600	600

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Langabezian dauden pertsonen ehunekoak behera egin du 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen taldean, baina, hala ere, Europar Batasuneko ehunekoak bikoizten du (% 6,7), eta Greziak (% 21,1) eta Espainiak (% 14,8) soilik dituzte Euskadik baino ehuneko handiagoak.

## 1.8. irudia

EUSKADIN ETA EUROPAR BATASUNEAN LANGABEZIA-EGOERAN DAUDEN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN EHUNEKOEN KONPARAZIOA, ADIN-BITARTE HORRETAKO PERTSONA GUZTIEKIKO (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina Eurostaten datuak oinarri hartuta (*Database: Labour market*)

30 eta 34 urte bitarteko adin-taldeko emakumeen eta gizonen arteko alderik nabarmenena da handiagoa dela etxeko lanak eta zaintza-lanak egiten dituzten emakumeen ehunekoa (emakumeen % 8,1 eta gizonen % 2,0).

Euskadin jaio diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen okupazio-maila nabarmen handiagoa da adin-bitarte horretan izan eta atzerrian jaio direnena baino (% 78,5ekoa da bertan jaiokoen artean, eta % 48,9koa atzerrian jaiotakoen artean). Atzerrian jaiotakoen taldean, hamarretik lau langabezian daude, etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten dituzte, edo lan egitea edo ikastea ez den beste egoeraren batean daude.

Amaitutako ikasketa-mailaren arabera ere aldeak ikusten dira, 25 eta 29 urte bitarteko adin-taldean bezain bestekoak edo handiagoak. Lan egiten dute goi-mailako ikasketak izan eta 30 eta 34 urte bitarteko adinean dauden pertsonen % 85ek. Adin-talde horretan, ikasketa-maila horretara iristen ez diren pertsonen artean, lan egitea dute lehen okupazio % 61,3k.

### 1.3. taula

30-34 URTEKO PERTSONEN OKUPAZIO NAGUSIA, SEXUAREN, JAIOLEKUAREN  
ETA AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA (%)

Gaur egun ondoko zein egoeratan zaude?							
Guztira	Sexua		Jaiolekua*		Amaitutako ikasketa-maila		
	Emakumeak	Gizonak	Euskadi	Atzerria	Derrigorrezkoak edo bigarren mailakoak	Goi-mailakoak	
Ikasten	8,5	7,7	9,3	8,8	3,6	11,3	5,7
Lanean	73,3	71,8	74,7	78,5	75,2	61,3	85,0
Langabezia-egoeran	13,2	12,5	14,0	10,7	14,7	18,7	7,9
Beste egoera batean	5,0	8,1	2,0	2,1	6,5	8,8	1,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	600	300	300	437	110	291	309

\* Espainiako beste lekuetan jaiotako gazteei dagozkien datuak ez dira aurkezten, laginean oso kopuru txikia baita eta, horren ondorioz, ez da fidagarritasun estatistiko nahikoa bermatzen.

30 eta 34 urte bitarteko adin-taldean, okupazio-maila % 80tik gorakoa da unibertsitate-ikasketak eta prestakuntza-zikloak dituzten pertsonen artean, baina fabrikazioaren, obren eta mantentze-lanen alorreko ikasketak (aroztegia, soldadura, karrozeria eta antzekoak) egin dituzten pertsonen artean okupazio-maila % 90etik gorakoa da.

## 1.6. EMAITZA NAGUSIAK

Ezin da esan gazteek, oro har, okupazio nagusi bat dutenik, okupazio hori aldatu egiten baita adinetik adinera. Gazte gehienek, 25 urteko adina bete aurretik, ikasi egiten dute, eta 25 eta 34 urte bitarteko pertsona gehienek, berriz, lan egiten dute. Azken adin-tarte horretan handiagoak dira langabezia dauden pertsonen ehunekoak eta etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten dituztenen ehunekoak ere.

Aurreko urteetako datuekin alderatuta, ikusten da handitu egin dela ikasten ari diren gazteen ehunekoa, bai 30 urte bete aurretik, bai adin hori gainditu ondoren. Hala ere, bereziki azpimarratzekoa da behera egin duela, 2013 urtearekiko, langabezia dauden gazteen ehunekoak. Urte horretan pairatu ziren gehien krisialdiaren ondorioak.

Atzerrian jaiotakoek baino okupazio-tasa handiagoa dute Euskadin jaio direnek. Nabarmenezkoa da, horrez gainera, handia dela, emakume atzerritarren artean, etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten dituztenen ehunekoa.

Bestalde, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen taldean, ikusten da lan-okupazioaren ehunekoa handiagoa dela goi-mailako ikasketak dituztenen artean, lehen edo bigarren mailako ikasketak soilik dituztenen artean baino.



# 2

## Lan-munduan sartzea

Gazteek lehen enplegua noiz, nola eta zer baldintzatan eskuratzen duten aztertuko dugu lan-munduan sartzeari buruzko kapitulu honetan. Analisi hori egiteko, zenbat pertsonak duten lan-eskarmentua aztertu behar da lehenik, gaur egun lanean ari diren ala ez kontuan izan gabe. Pertsona horiek azalduko digute nola eskuratu zuten lehen lana eta nolakoa izan zen.

### 2.1. 16-29 URTEKO GAZTEEN LAN-ESKARMENTUA

Gazteen lan-eskarmentua kuantifikatzeko, aintzat hartuko dugu, lehenik, gazteen zer ehunekok adierazten duen bere okupazio nagusia lan egitea dela; bigarrenik, zenbat gazte ikaslek adierazten duen ikasi eta lan egiten duela, bere okupazio nagusia ikastea den arren; eta hirugarrenik, gazteen zer ehuneko ez den lanean ari gaur egun, nahiz eta lehenago nonbaiten lan egindakoa den.

Adierazi ditugun alderdi horien guztien batura eginda, hau da, zenbatuta zenbat gazte ari den lanean gaur egun (bere okupazio nagusia lan egitea ez izan arren), eta zenbatek egin duen lan noizbait, ikusten dugu 16 eta 29 urte bitarteko hiru gaztetik bik (% 68,7k) dutela lan-eskarmenturen bat.


Gazteen egoera horrek, ordea, bi argazki oso desberdin ageri ditu 20 urte bete aurretik eta ondoren. Gazteen % 29,4k izan du lan-eskarmenturen bat 20 urteko adina bete aurretik: lan egitea da % 3,5en okupazio nagusia; % 10,6 ikasten ari da nagusiki, baina, horrez gainera, lanen bat egiten du; eta % 15,3k dedikazio osoz ikasten du, edo langabezian dago, baina lanen bat izan du noizbait.

Lan-eskarmenturen bat duten gazteen ehunekoa % 76,1eraino igotzen da 20 eta 24 urte bitarteko adin-tartean: lan egitea da okupazio nagusia % 29,6rentzat; ikastea da okupazio nagusia % 19,3rentzat, baina lan osagarriren bat egiten du; eta % 27,2k ez du lanik gaur egun, baina noizbait izan zuen.

Eta lan-eskarmenturen bat duten gazteen ehunekoa % 92,1ekoa da 25 eta 29 urte bitartekoen adin-tartean: lan egitea da % 65,1en okupazio nagusia; lan osagarriren bat izan arren, ikastea da % 5,1en okupazio nagusia; eta, azkenik, % 21,9k ez du lanik gaur egun, baina noizbait izan zuen.

## 2.1. irudia

16-29 URTEKO GAZTEEN LAN-ESKARMENTUA, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)



Lan-eskarmentuari begiratuta, ez da alde nabarmenik ikusten emakumeen eta gizonen artean, ezta Euskadin edo atzerrian jaiotakoen artean ere. Ikusten da alderik, ordea, amaitutako ikasketa-mailaren arabera. Amaitutako ikasketen adierazleak lotura estua izaten du adinarekin, eta adinaren faktoreak duen eragina baztertzeke, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen adin-tartea hautatuko dugu analisirako, bitarte horretan amaituta izaten baitira, teoriarik, goi-mailako ikasketak (egitekotan).

Goi-mailako ikasketarik ez duten 25 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 84,9k du lan-eskarmentua, eta, adin-tarte horretan bertan, lan-eskarmentua du goi-mailako ikasketak amaituta dituztenen % 97,1ek. Horrenbestez, ikusten dugu, egungo okupazio-mailarekin gertatzen den moduan, ikasketa-mailak baduela eraginik lan-eskarmentua izateko aukeretan. Amaitutako ikasketen nolakoak, ordea, ez du alde adierazgarrikerik erakusten; izan ere, prestakuntza-zikloak amaitu dituztenen eta unibertsitate-ikasketak egin dituztenen % 95ek baino gehiagok izan dute lan-eskarmenturen bat.

Bestalde, gaur egun lanik ez duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteei begiratzen baldin badiegu, ikusten dugu horien % 41,1ek duela lan-eskarmenturen bat.

Gaur egun lanik egiten ez duen 16 eta 29 urte bitarteko gazteen talde hori aztertuz gero, ikusten da ikasten soilik ari diren gazteen % 32,9k lan-eskarmenturen bat izan duela bere bizitzan; bestalde, gaur egun langabezian dauden % 81,5ek izan du lan-eskarmenturen bat noizbait, eta hori bera gertatzen zaie gaur egun etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten dituzten pertsonen eta ikastea, lan egitea edo lana bilatzea ez den bestelako egoeraren batean dauden pertsonen % 64,5i.

Gaur egun lanik ez egiteko arrazoiak aldatu egiten dira, gaur egungo okupazioaren arabera. Lan-eskarmenturen bat duten ikasleen erdiak baino gehiagok adierazten du borondatez utzi zuela bere azken lana, eta horixe bera adierazten du etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten dutenen eta bestelako egoera minoritarioren batean dauden, baina aurretik lan egin dutela adierazten dutenen erdiak baino gehiagok; aitzitik, gaur egun langabezian izan, baina

aurrez lan egin duten gehienek adierazten dute ez zutela borondatez utzi beren azken lana: ez zieten kontratua berritu, sasoiko lana zen eta ez zegoen kontratatuta berritzeko aukerarik, enpresak itxi egin zuen, etab. Guztira, 30 urtetik behera izan eta gaur egun lanik egiten ez, baina noizbait lan-eskarmenturen bat izan duten gazteen % 45ek adierazten du bere borondatez utzi ziola lan egiteari, eta ia beste horrenbestek (% 44,6k) esaten du ez ziola borondatez utzi lan egiteari. Gainerakoek beste arrazoi batzuk eman dituzte edo ez diote galderari erantzun.

### 2.1. taula

EGINDAKO AZKEN LANA UZTEKO ARRAZOIAK, GAUR EGUN LANIK IZAN EZ BAINA NOIZBAIT LAN EGIN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK EMANDAKOAK, GAUR EGUN DUTEN OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

<b>Zure azken lana, zuk utzi zenuen nahi izan zenuelako, ala, aldiz, ez zizuten kontratua berritu, kalera bota egin zituzten, jarraipenik gabeko lana zen edo enpresa itxi egin zuten?*</b>				
<b>(%)</b>	<b>Guztira</b>	<b>Okupazio nagusia</b>		
		<b>Ikasten bakarrik</b>	<b>Langabezia-egoeran</b>	<b>Etxeke lanak, zaintza-lanak edo beste egoera batean</b>
Borondatezko arrazoiak	45,0	54,2	17,2	55,1
Nahi gabeko arrazoiak	44,6	36,0	73,3	29,0
Beste arrazoiak edo ez dute erantzuten	10,3	9,8	9,5	15,9
Guztira	100	100	100	100
<i>(n)</i>	291	175	81	35

\* Galdera hau bakarrik egin zaie lan-eskarmentua izanik, gaur egun lanean ez daudenei.

Datu horien bilakaerak adierazten digu ez dela apenas aldaketarik izan lan-eskarmentua duten gazteen ehuneko osoan. Hala ere, nabarmen egin du behera, gaur egun lanik izan ez baina noizbait lan egin dutenen artean, beren azken lana borondatez utzi ez zutenen kopuruak.

### 2.2. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN LAN-ESKARMENTUA DUTENEN BILAKAERA ETA ADIN HORRETAN, LANIK EGIN EZ BAINA GARAI BATEAN LAN EGIN ZUTENEN ARTEAN, AURREKO ENPLEGUA BEREN BORONDATEAREN KONTRA UTZI ZUTENEN BILAKAERA (%)

<b>(%)</b>	<b>2004</b>	<b>2008</b>	<b>2011</b>	<b>2013</b>	<b>2015</b>	<b>2017</b>
Lan-eskarmentua duten gazteak*	69,3	74,6	71,2	67,7	67,9	68,7
<i>(n)</i>	1429	1436	1327	1318	1338	1319
Gaur egun lan egin ez baina lan-eskarmentua dutenen artean azken enplegua beren borondatearen kontrako arrazioengatik galdu zuten gazteak**	–	–	67,2	69,7	68,7	44,6
<i>(n)</i>	–	–	388	411	351	291

\* Gazte guztiak oinarri hartuta.

\*\* Gaur egun lan egiten ez duten arren, lan eskarmentua duten gazteak oinarri hartuta.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma, 2004 eta 2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017 datuetarako).

## 2.2. 16-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN LEHEN ENPLEGUA

Noizbait lan-eskarmenturen bat izan duten gazteek adierazten dute 18 urte eta erdiko adinean eskuratu zutela lehen lana.

Ez dago alde handirik sexuaren, lurraldearen, udalerraren tamainaren eta gizarte-mailaren arabera. Badago alderik, ordea, ikasketa-mailari eta jaiolekuari begiratuz gero. Batez besteko orokorrak adierazten du lehen enplegua 17 eta 19 urte bitarteko adinean eskuratzen dela, baina analisia adin-tarteka, ikasketa-mailaren arabera eta jaiolekuaren arabera egiten baldin bada, alde nabariak ageri dira. Izan ere, Euskadin jaiotakoak baino lehenago hasten dira lanean atzerrian jaiotako gazteak, eta goi-mailako ikasketarik ez dutenak ere ikasketa horiek amaitu dituztenak baino lehenago hasten dira lanean. Goi-mailako titulazioaren bat duten gazteen laurdenak (% 24,6k) ez du ordaindutako lanik izan 22 urteko adina bete aurretik.

### 2.3. taula

LEHEN LANA ZER ADINETAN ESKURATU DEN, LAN-ESKARMENTUA DUTEN GAZTEEN JAIOLEKUAREN ETA AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA (%)

Zenbat urte zenituen zure lehenengo lan ordaindua izan zenuenean?*					
(%)	Guztira	Jaiolekua**		Amaitutako ikasketa-maila	
		Euskadi	Atzerria	Derrigorrezkoak edo bigarren mailakoak	Goi-mailakoak
18 urte baino gutxiago	30,8	28,3	40,3	37,1	24,2
18 edo 19 urte	39,2	41,4	31,4	44,2	33,9
20 urte edo gehiago	29,3	29,5	27,9	17,8	41,3
Ed/Ee	0,7	0,8	0,4	0,9	0,6
Guztira	100	100	100	100	100
(n)	948	737	157	459	489

\* Bakarrik lan-eskarmentua dutenei egindako galdera.

\*\* Espainiako beste lekuetan jaiotako gazteei dagozkien datuak ez dira aurkezten, laginean oso kopuru txikia baita eta, horren ondorioz, ez da fidagarritasun estatistiko nahikoa bermatzen.

Lehen lan ordaindua eskuratzeko batez besteko adinak ez du aldaketarik izan azken urteetan, 18 urte eta 19 urte bitartekoa izan baita 2011, 2013, 2015 eta 2017 urteetan egin diren ikerlanetan.

Lehen enplegua eskuratzeko batez besteko adin horrek adierazten duenaren ildoan, gazteen % 72,5ek esaten du ikasten ari zen bitartean izan zuela lehen lan hori, eta % 27,5ek soilik esaten du ikasketak amaitu ostean eskuratu zuela.


Goi-mailako titulazioaren bat duten pertsonak halakorik ez dutenek baino ehuneko handiagoan adierazten dute ikasten ari ziren bitartean izan zutela lehen enplegua (% 76,4); hala ere, goi-mailako titulaziorik ez dutenen artean ere, gehiengo dira lehen lana ikasten ari ziren bitartean eskuratu zutela esaten dutenak (% 68,6). Dena den, adierazi behar da, azken horien artean, batez bestetik gorakoa dela lehen lana 18 urte bete aurretik eskuratu zutenen ehunekoa (ikus 2.3 taula). Lehen lana ikasketak amaitu ondoren eskuratu dutenei begiratuta, gizonen baino ehuneko handiagoak dituzte emakumeek (% 75,8 emakumeek eta % 69,2 gizonen).



Lehen lana eskuratzeko adinak azken urteetan aldatuta handirik izan ez duen arren, handitu egin da lehen lana ikasten ari diren bitartean eskuratu duten gazteen ehunekoa.

## 2.2. irudia

LAN-ESKARMENTUA DUTEN GAZTEEK LEHEN ENPLEGUA ESKURATZEKO UNEAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Horren arrazoia da gero eta gazte gehiagok duela ikastea okupazio nagusi (ikus 1.5 irudia).

Bestalde, lehen lana ikasketak amaitu ondoren eskuratu duten gazteek adierazi dute lau hilabete behar izan zituztela, batez beste, hura aurkitzeko. Análisi xeheagoa eginda, ikusten dugu erdiak (% 53,2k) bi hilabete igarotzean aurkitu zuela lana, eta sei hilabete igaro ondoren, lau pertsonatik hiruk (% 76,7k) lortua zutela enplegua.

Ikasketak amaitu eta lehen enplegua eskuratu bitarteko lau hilabeteko epe hori aurreko urteetan batez beste behar izan dena baino laburragoa da. 2011. urtean, ikasketak amaitu ondoren lanean hasi ziren 30 urtetik beherako pertsonak bost hilabete eta erdi behar izan zituzten, batez beste, lehen enplegua aurkitzeko. Denbora-epe hori ia sei hilabetekoa izan zen 2013an, eta ia zazpi hilabetekoa 2015ean.

Senide, lagun edo pertsona ezagunen baten bidez lortu ohi dute lehen enplegu hori, bai lana ikasten ari direla aurkitu dutenek, bai enplegu hori ikasketak amaitu ondoren aurkitu dutenek. Lehen enplegua eskuratzeko bigarren modua norberak zuzenean lana bilatu ondoren aurkitzea izan da, eta hirugarren modua ikasteko bekak edo praktikak lortzea.

Lehendabiziko lana pertsona ezagunen bidez aurkitzea edo norberak zuzenean bilatzea izan da lehen lan hori eskuratzeko modu ohikoena lehen lana ikasten ari ziren bitartean aurkitu dutenentzat; eta lehen lana ikasketak amaitu ondoren eskuratu duten pertsonen kasuan, aldiz, handiagoa da lehen lan hori ikasteko beken edo praktiken bidez lortu dutenen ehunekoa.

## 2.4. taula

LEHENDABIZIKO LANA ESKURATZEKO MODUA, ESKURATZEKO UNEAREN ARABERA (%)

Nola lortu zenuen lehenengo lan hori?*	Guztira	Lehen lana eskuratzeko unea	
		Ikasten zuen bitartean	Ikasketak amaitu eta gero
Senide, lagun edo ezagun baten bidez	52,0	55,6	42,5
Zuk zeuk zuzenean (iragarritako lan-eskaintzei erantzuten, zure "curriculum"a enpresetara bidaltzen, iragarkiak jartzen...)	16,2	17,2	13,7
Beka baten edo ikasketetako praktikaldi baten ondorioz	12,3	9,5	19,6
Enplegua bilatzeko web orrien bidez	5,5	4,3	8,8
Ikasketa-zentrotik eskaini zizuten	4,8	4,3	5,9
ETT baten bidez	3,2	3,4	2,7
Lan-zerbitzu publiko edo lanerako orientazio zerbitzu publiko baten bidez	1,0	0,7	1,9
Administraziorako oposizio edo lan-poltsen bidez	0,8	0,4	1,9
Beste bide batetik	3,3	3,9	1,7
Ed/Ee	0,8	0,6	1,4
Guztira	100	100	100
(n)	948	673	275

\* Bakarrik lan-eskarmentua dutenei egindako galdera.

Gizonek baino ohikoagoa dute emakumeek lehen enplegua senideen eta lagun bidez eskuratzeko (% 48,8 eta % 55,1, hurrenez hurren). Lehen lana lagun bidez eta senideen bidez topatzea ohikoagoa izaten da 10.000 biztanleraren iristen ez diren udalerrietan bizi direnentzat (% 60,6), 10.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi direnentzat baino (% 51,9) eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan bizi diren pertsonentzat baino (% 47,0). Hala ere, atzerrian jaiotako pertsonak baliatzen dituzte gehien senideak, lagunak edo pertsona ezagunak lehen enplegu hori eskuratzeko (atzerrian jaiotako % 68,2k eta Euskadin jaiotako % 49,1ek).

Lehen enplegua eskuratzeko moduaren bilakaera aztertzen baldin badugu 2008 eta 2017 urteen bitartean, ikusiko dugu, erantzun-aukerak berdin-berdinak izan ez diren arren, lehen enplegua senideen bidez eskuratzeko modua nabarmen handitu dela, eta garai batean baino gehiago direla orain lehen lana ikasteko beken edo praktiken bidez eskuratzen dutenak; aitzitik, behera egin du lehen lana zuzenean bilaketa pertsonalaren bidez eskuratu dutenen ehunekoa eta enplegu hori aldi baterako lan-enpresen bidez edo enplegu-zerbitzu publikoen bidez topatu dutenena.

**2.5. taula**

## LEHENDABIZIKO ENPLEGUA ESKURATZEKO MODUAREN BILAKAERA (%)

Nola lortu zenuen lehenengo lan hori?*			
	2008	2011	2017
Senide, lagun edo ezagun baten bidez	35,3	42,1	52,0
Zuk zeuk zuzenean (iragarritako lan-eskaintzei erantzuten, zure "curriculum" a enpresetara bidaltzen, iragarkiak jartzen...)	41,5	32,3	16,2
Beka baten edo ikasketetako praktikaldi baten ondorioz	8,3	8,7	12,3
Enplegua bilatzeko web orrien bidez**	–	–	5,5
Ikasketa-zentrotik eskaini zizuten**	–	–	4,8
ETT baten bidez	6,6	7,1	3,2
Lan-zerbitzu publiko edo lanerako orientazio zerbitzu publiko baten bidez	3,6	1,3	1,0
Administraziorako oposizio edo lan-poltsen bidez**	–	–	0,8
Beste bide batetik	3,4	8,2	3,3
Ed/Ee	1,3	0,3	0,8
Guztira	100	100	100
(n)	1073	962	948

\* Bakarrik lan-eskarmentua dutenei egindako galdera.

\*\* Erantzun aukera hauek ez ziren eskeini aurreko urteetan.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma 2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011ko eta 2017ko datuetarako).

## 2.3. 16-29 URTEKO GAZTEEN LEHENDABIZIKO ENPLEGUAREN LAN-BALDINTZAK

Orain ikusiko dugun moduan, gazteen lehen lanak ordu gutxi batzuetakoak izaten dira, kontraturik gabe asko eta ez dute zerikusi handirik izaten egiten ari diren edo egin dituzten ikasketekin.

Hiru gaztetatik bik (% 66,4k) adierazi dute lehendabiziko lanean 30 ordu lan egin zituela gehienez astean. Zehazki, gehienez 10 ordu lan egin zituen % 28,3k; 11 eta 20 ordu bitartean % 23,5ek; eta 21 eta 30 ordu bitartean % 14,6k. Halaber, 31 eta 40 ordu bitartean lan egin zuen % 22,7k, eta 40 ordu baino gehiago % 7,0k. Ez du erantzunik eman % 3,9k, enpleguaren ordu-kopurua astetik atera aldatzen zitzaielako edo beste arrazoi batzuegatik.

Lehen lana eskuratzeko uneak eragin handia izaten du lan-baldintzetan. Lehen lana ikasten ari ziren bitartean eskuratu zuten pertsonen gehiengoak (% 61,3k) adierazten du 20 ordu baino gutxiago egiten zituela lan astean; aitzitik, lanean ikasketak amaitu ondoren hasi ziren pertsonen gehiengoak (% 54,8k) adierazten du 30 ordu baino gehiago lan egin zituela bere lehen enpleguan. Lan-eskarmentua duten emakumeek, lehen esan dugun moduan, gizonen baino ehuneko handiagoan bateratu zituzten ikasketak eta beren lehen lana, eta azterlanek adierazten dute gehienek (% 61,3k) 30 ordu baino gutxiago lan egiten zutela enplegu horretan.

## 2.6. taula

ESKURATUTAKO LEHEN ENPLEGUAN LAN EGINDAKO ORDUEN KOPURUA,  
HURA ESKURATZEKO UNEAREN ARABERA (%)

Lan horretan zenbat ordu lan egiten zenuen astero, gutxi gorabehera?*			
(%)	Guztira	Lehen lana eskuratzeko unea	
		Ikasten zuen bitartean	Ikasketak amaitu eta gero
10 ordu edo gutxiago	28,3	34,0	13,1
11 eta 20 ordu artean	23,5	27,3	13,7
21 eta 30 ordu artean	14,6	14,1	16,0
31 eta 40 ordu artean	22,7	15,0	43,2
41 ordu edo gehiago	7,0	5,2	11,6
Ez zeukan asteroko erregulartasunik	3,9	4,4	2,4
Guztira	100	100	100
(n)	948	673	275

\* Bakarrik lan-eskarmetua dutenei egindako galdera.

Gazte gehienek (% 64,9k) adierazten dute kontratu motaren bat izan zutela lehen enplegu horretan. Baina hiru pertsonatik batek (% 32,3k) esaten du ez zuela kontraturik. Horrez gainera, gazteen % 0,7k soilik adierazten du alta egoeran izan zela autonomoen erregimenean.

## 2.7. taula

KONTRATUA LEHEN ENPLEGUAN, HURA ESKURATZEKO UNEAREN,  
SEXUAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Bazeneukan edozein motatako kontraturik edo bazeunden alta emanda autonomoen erregimenean edo, aldiz, kontratu barik lan egiten zenuen?*							
(%)	Guztira	Lehen lana eskuratzeko unea		Sexua		Jaiolekua**	
		Ikasten zuen bitartean	Ikasketak amaitu eta gero	Emakumeak	Gizonak	Euskadi	Atzerria
Kontratua zeneukan	64,9	60,1	77,6	60,0	69,9	66,3	56,3
Autonomoen erregimenean alta emanda zeunden	0,7	0,6	1,1	0,7	0,8	0,8	0,0
Kontratu barik lan egiten zenuen	32,3	37,1	19,8	36,8	27,9	30,6	42,2
Ed/Ee	2,0	2,2	1,6	2,5	1,5	2,2	1,5
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	948	673	275	480	468	737	157

\* Bakarrik lan-eskarmetua dutenei egindako galdera.

\*\* Espainiako beste leketan jaiotako gazteei dagozkien datuak ez dira aurkezten, laginean oso kopuru txikia baita eta, horren ondorioz, ez da fidagarritasun estatistiko nahikoa bermatzen.

Lehen enplegu horri dagokionez, gazteen multzo guztietan dira gehiengo kontratua izan zuten pertsonak. Hala ere, bada alderik multzo edo taldetik taldera. Lehen enplegua ikasten ari ziren bitartean eskuratu zuten gazteen multzoan, handiagoa da kontraturik gabeko lana egiten zutenen ehunekoa (% 37,1ekoa), lehen enplegu hori ikasketak amaitu ondoren eskuratu zutenen kasuan baino, azken horien % 19,8k egin baitzuen lehen lana kontraturik izan gabe. Kontraturik gabeko lehen enplegua sarriagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (% 36,8 eta % 27,9 hurrenez hurren), baina atzerrian jaiotakoak dira ehuneko handiena dutenak, horien % 42,2k egin batzuen lehen lana kontraturik izan gabe.

Kontratua zuten pertsonak kontraturik gabekoek baino lanaldi luzeagoak zituzten, baina kontratudunak ere ez dira gehiengo izan astean 30 ordutik gora lan egiten dutenen artean: kontratudunen % 37,3k lan egiten zuen 30 ordutik gora, eta kontraturik ez zutenen % 16,5ek.

Lehen enplegu horiek ikasketetan ikasitakoarekin zuten loturari begiratuta, gazteen % 51,5ek esan du bere lehen enpleguak ez zuela inolako zerikusirik egindako ikasketekin.

Lehen lana ikasketak amaitu ondoren eskuratu zuten pertsonak adierazi dute, gainerakoek baino ehuneko handiagoan, enplegu hori beraiek ikasitakoarekin loturik zegoela, hau da, ikasitakoaren eremuko zela; hori horrela, lehen enpleguak ikasitakoarekin harreman nahikoa edo handia zuela dio lehen enplegu hori ikasketak amaitu ondoren eskuratu zutenen % 46,9k, eta ehuneko hori, berriz, % 31,3koa da lehen enplegua oraindik ikasten ari zirela eskuratu zutenen artean.

## 2.8. taula

LEHEN ENPLEGUAK IKASKETEKIN ZUEN HARREMANA,  
LEHEN ENPLEGU HORI ESKURATZEKO UNEAREN ARABERA (%)

Zein neurritaraino esango zenuke lan hori zure prestakuntzari lotuta zegoela: oso, nahikoa, pixka bat bakarrik edo batere ez?*			
(%)	Guztira	Lehen lana eskuratzeko unea	
		Ikasten zuten bitartean	Ikasketak amaitu eta gero
Oso	23,0	17,5	37,5
Nahikoa	12,6	13,8	9,4
Pixka bat bakarrik	11,4	11,3	11,6
Batere ez	51,5	56,1	39,5
Ed/Ee	1,5	1,2	2,1
Guztira	100	100	100
(n)	948	673	275

\* Bakarrik lan-eskarmentua dutenei egindako galdera.

Sexuak ez dakar alderik aldagai horretan, baina bai jairolekuak. Lehendabiziko enplegua ikasitakoarekin lotutakoa izan da Euskadin jaio diren gazteen % 36,9rentzat, eta ehuneko hori atzerrian jaio diren gazteena (% 29,2) baino handiagoa izan da.

## 2.4. 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN LAN-ESKARMENTUA

Ia gazte guztiek dute lan-eskarmenturen bat 30 eta 34 urte bitartekoen adin-taldean. Zehazki, adin-tarte horretan dauden pertsonen % 94,9k du lan-eskarmenturen bat, eta honela banatzen da ehuneko hori: okupazio nagusi lan egitea dutenak (% 73,3); ikasten ari direnak, baina lan osagarriren bat dutenak (% 1,5); eta, orain lan ez egin arren, aurretik lan-eskarmenturen bat izan dutenak (% 20,1).

Ehuneko orokor hori 25 eta 29 urte bitarteko adin-taldekoek izandakoa baino handiagoa da (% 92,1). Horrek adierazten digu adinak gora egin ahala, gora egiten duela noizbait lan egin duten pertsonen ehunekoak.

Esan behar da, hala ere, 30 eta 34 urtekoen taldean behera egin duela, aurreko urteekiko, lan-eskarmentua dutenen ehunekoak: % 97,9 izan ziren 2011. urtean, % 96,2 izan ziren 2013. urtean, % 97,7 izan ziren 2015ean, eta % 94,9 izan dira 2017. urtean.

Ez dago alderik adin horretako emakumeen eta gizonen artean, baina aldeak ikusten dira amaitutako ikasketen arabera. Goi-mailako ikasketak (bai unibertsitatekoak, bai goi-mailako prestakuntza zikloak) amaitu dituzten pertsonen lan-eskarmentu handiagoa dute goi-mailako ikasketak egin ez dituztenek baino (% 98,3 eta % 91,4, hurrenez hurren).

Jairolekuak ere aldeak dakartza; izan ere, Euskadin jaiotakoek % 96,5ek du lan-eskarmentua, eta atzeritarren ehunekoa hamar puntu txikiagoa da, % 86,5ekoa.

Lehen adierazi dugun moduan, 30 eta 34 urte bitarteko bost pertsonatik batek (% 20,1ek) ez du lan egiten gaur egun, baina lan egin izan du noizbait. Horrek esan nahi du gaur egun lanik egiten ez duen jendearen gehiengoak (% 85,6k) lan-eskarmenturen bat duela.

Pertsona horietako gehienek (% 63,4k) adierazten dute ez zutela aurreko lana beren borondatez utzi; hau da, ez zietela kontratua berritu, kaleratu egin zituztela, enpresak itxi egin zuela edo antzeko arrazoiren batengatik utzi behar izan zutela lana. Laurden batek (% 24,7k), ordea, beren borondatez utzi zuela esan du. Gainerakoek ez dute erantzun edo ez dute adierazi beren borondatez ala gogoz kontra utzi ote zuten azken enplegua.

30 eta 34 urte bitarteko pertsonen adin-taldean, behera egin du azken urteetan gaur egun lanik egin ez baina azken enplegua gogoz kontra galdu zutenen ehunekoak; aldi berean, gora egin du azken enplegu hori borondatez utzi zutela adierazten duten pertsonen ehunekoak.

### 2.9. taula

30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN ARTEAN LAN-ESKARMENTUA DUTENEN BILAKAERA ETA ADIN HORRETAN, LANIK EGIN EZ BAINA GARAI BATEAN LAN EGIN ZUTENEN ARTEAN, AURREKO ENPLEGUA BEREN BORONDATEAREN KONTRA UTZI ZUTENEN BILAKAERA (%)

(%)	2011	2013	2015	2017
Lan-eskarmentua duten pertsonak*	97,9	96,2	97,7	94,9
(n)	600	600	600	600
Gaur egun lan egin ez baina lan-eskarmentua dutenen artean azken enplegua beren borondatearen kontrako arrazioengatik galdu zuten pertsonak**	71,0	78,8	77,7	63,4
(n)	169	189	158	114

\* 30-34 urte bitarteko pertsona guztiak oinarri hartuta.

\*\* Gaur egun lan egiten ez duten arren, lan-eskarmentua duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak oinarri hartuta.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).


## 2.5. 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN LEHEN ENPLEGUA

30 eta 34 urte bitarteko adina eta lan-eskarmentua duten pertsonak batez beste esaten dute 18 eta 19 urteren bitartean eskuratu zutela lehen enplegua. Zehazki, 18 urte bete baino lehen eskuratu zuen lehen lan hori % 32,2k, 18 eta 19 urteko adinen bitartean % 33,8k, eta 20 urteko adina bete ondoren % 33,5ek. Gainerako % 0,5ak ez du erantzun.

Goi-mailako ikasketak dituztenek ikasketa horiek egin ez dituztenek baino geroago eskuratu zuten lehen enplegua.

### 2.3. irudia

LAN-ESKARMENTUA DUTEN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK ZER ADINETAN ESKURATU ZUTEN LEHEN ENPLEGUA, IKASKETA-MAILAREN ARABERA (%)



Gizonek, atzerrian jaiotakoek eta beren burua beheko gizarte-mailakotzat edo ertain-behekotzat jotzen dutenek baino geroago eskuratu zuten lehen enplegua emakumeek, Euskadin jaiotako pertsonak eta beren burua gizarte-maila altukotzat, ertain-altukotzat edo ertainekotzat duten pertsonak; dena den, egia da, era berean, lanean geroago hasi diren kolektiboek goi-mailako titulazioak dituztenen ehuneko handiagoak dituztela, lehen enplegua gazteago eskuratu dituztenek baino.

## 2.10. taula

LAN-ESKARMENTUA DUTEN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK ZER IKASKETA-MAILA DUTEN ETA ZER ADINETAN ESKURATU ZUTEN LEHEN ENPLEGUA, SEXUAREN, JAIOLAKUAREN ETA GIZARTE-MAILA SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

Zein ikasketa dituzu amaituta? Zenbat urte zenituen zure lehenengo lan ordaindua izan zenuenean?*							
(%)	Guztira	Sexua		Jaiolekua**		Gizarte-maila subjektiboa	
		Emakumeak	Gizonak	Euskadi	Atzerria	Goi-maila, ertain-goikoa edo ertaina	Behe-maila edo ertain-behekoa
<b>IKASKETA-MAILA</b>							
Derrigorrezkoak edo derrigorrezko ikasketen ondorengo bigarren hezkuntzako ikasketak	47,6	42,1	53,2	40,0	81,4	38,3	66,2
Goi-mailakoak (unibertsitatekoak edo lanbide heziketako goi-mailako heziketa zikloak)	52,4	57,9	46,8	60,0	18,6	61,7	33,8
<b>LEHEN LANA ESKURATZERAKOAN ZUTEN ADINA</b>							
18 urte baino gutxiago	32,2	31,5	32,9	29,2	38,5	27,8	42,4
18 edo 19 urte	33,8	28,2	39,5	36,4	27,0	34,7	32,8
20 urte edo gehiago	33,5	40,1	26,9	34,0	32,8	37,1	24,3
Ed/Ee	0,5	0,3	0,8	0,4	1,8	0,3	0,5
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	568	282	286	424	92	378	175

\* Lan-eskarmentua dutenen erantzunak aurkezten dira.


\*\* Espainiako beste lekuetan jaiotako gazteei dagozkien datuak ez dira aurkezten, laginean oso kopuru txikia baita eta, horren ondorioz, ez da fidagarritasun estatistiko nahikoa bermatzen.

Lehen enplegua zer adinetan eskuratu zen jakin nahi du galdetegiko galdera batek, eta galdera hori beste urte batzuetan egin izan denez, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak 2017. urtean eman dituzten erantzunak aurreko urtekoekin konparatzeko aukera dugu: 2011. urtean, ordainpeko lehen lana 20 urterekin eskuratu zutela erantzun zuten batez beste, adin hori 19 urteko eta erdikoa izan zen 2013ko erantzunetan; 19 urtekoa 2015eko erantzunetan, eta 18 eta 19 urte bitartekoa 2017. urtean. Adin-tarteak konparatuz gero, aldeak nabarmenagoak dira.



## 2.4. irudia

### LEHEN ENPLEGUA ESKURATZEKO ADINAREN BILAKAERA LAN-ESKARMENTUA DUTEN 30-34 URTEKO PERTSONEN TALDEAN (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Lehen lan ordaindua eskuratzeko adinaren beherako joera bat dator lehen enplegu hori ikasten ari ziren bitartean eskuratu zutela dioten pertsonen kopuruaren igoerarekin; izan ere, ehuneko hori % 47,2koa zen 2011. urtean, % 52,8koa 2013. urtean, % 59,2koa 2015. urtean, eta 30 eta 34 urte bitarteko hiru pertsonatik ia bi (% 62,6) izan dira 2017. urtean.

Goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen, 30 urte bete gabeko gazteek esan dutenaren ildo beretik, ikasketa horiek ez dituztenek baino ehuneko handiagoan adierazi dute ikasten ari ziren bitartean eskuratu zutela lehen enplegua (goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen % 75,4k, eta goi-mailako ikasketarik ez dutenen % 48,5ek). Era berean, Euskadin jaio eta gizarte-maila ertainekoak, ertain-altukoak eta altukoak direnek ehuneko handiagoan adierazten dute, atzerrian jaio edo gizarte-maila baxu edo ertain-baxukoak direnek baino, ikasten ari zirenean eskuratu zutela beren lehen lan ordaindua, baina horren arrazoi nagusia da Euskadin jaio eta gizarte-maila ertain edo altukoak diren gehienek goi-mailako titulazioa dutela.

Lehen enplegua ikasketak amaitu ondoren eskuratu zuten pertsonen adierazi dute bost hilabete baino zertxobait gutxiago behar izan zutela, batez beste, hura eskuratzeko. Hiru hilabete igaro ondoren, enplegua eskuratu zuen % 51,5ek, urtebetera eskuratu zuen enplegua beste % 30,7k, eta urtebete baino gehiago behar izan zuen % 8,4k. Gainerako % 9,4ak ez daki edo ez du erantzun.

Ikasketak amaitu eta lehen enplegua eskuratu bitarteko batez besteko itzarote-denbora murriztu egin da aurreko urteekiko: 2011. urtean, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen, ikasketak amaitu ondoren, sei hilabete eta erdi behar izan zituzten, batez beste, enplegua topatzeko; 2013. urtean, zazpi hilabete eta erdi behar izan zituztela adierazi zuten; 2015. urtean ia zortzi hilabete behar izan zituzten ikasketak amaitu eta lana aurkitzeko; eta 2017an, berriz, bost hilabete baino gutxiago behar izan dituzte lehen enplegu hori eskuratzeko.

Itxarote-denbora hori, ordea, ez da berbera izan emakumeentzat eta gizonentzat. Ikasketak amaitu eta lanean hasi diren 30 eta 34 urte bitarteko gizonak adierazi dute lau hilabete baino gutxiago behar izan dituztela lana topatzeko, eta emakumeek, aldiz, ia sei hilabete behar izaten dituztela.

Lehen enplegu hori eskuratzeko moduari dagokionez, senideak eta pertsona ezagunak izaten dira lana topatzeko bitartekari nagusiak, 30 urtetik beherako pertsonekin gertatzen den moduan. Lehen enplegua senideen eta lagun bidez eskuratzeko ohikoa izaten da, batik bat, lehen enplegua ikasten ari direnean eskuratzen dutenentzat eta goi-mailako ikasketarik ez duten pertsonentzat.

### 2.11. taula

LEHEN ENPLEGUA ESKURATZEKO MODUA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN ARTEAN,  
HURA ESKURATUTAKO UNEAREN ETA IKASKETA-MAILAREN ARABERA (%)

Nola lortu zenuen lehenengo lan hori?*	Nola lortu zenuen lehenengo lan hori?*				
	Guztira	Lehen lana eskuratzeko unea		Amaitutako ikasketa-maila	
		Ikasten zuen bitartean	Ikasketak amaitu eta gero	Derrigorrezkoak edo bigarren mailakoak	Goi-mailakoak
Senide, lagun edo ezagun baten bidez	50,6	55,1	43,1	59,9	42,1
Zuk zeuk zuzenean (iragarritako lan-eskaintzei erantzuten, zure "curriculum" a enpresetara bidaltzen, iragarkiak jartzen...)	17,7	17,5	18,1	13,4	21,7
Beka baten edo ikasketetako praktikaldi baten ondorioz	11,5	9,4	15,2	9,1	13,7
Enplegua bilatzeko web orrien bidez	2,1	1,1	3,7	2,8	1,5
Ikasketa-zentrotik eskaini zizuten	3,8	3,4	4,4	2,0	5,4
ETT baten bidez	6,5	7,4	4,9	6,2	6,7
Lan-zerbitzu publiko edo lanerako orientazio zerbitzu publiko baten bidez	2,6	1,8	3,9	2,9	2,3
Administraziorako oposizio edo lan-poltsen bidez	1,3	0,6	2,4	0,7	1,8
Beste bide batetik	3,0	2,3	4,1	2,8	3,2
Ed/Ee	1,0	1,4	0,3	0,2	1,7
Guztira	100	100	100	100	100
(n)	568	358	210	264	304

\* Bakarrik lan-eskarmentua dutenei egindako galdera.

Aldea oraindik eta handiagoa da lehen enplegua eskuratzeko adinari erreparatzen baldin badiogu: lehen enplegua 18 urte bete baino lehen eskuratu zuten pertsonen % 67,7koa senideen edo pertsona ezagunen bidez eskuratu zuten enplegu hori; ehunekoia % 56,0koa da (gehiengo dira oraindik) lehen enplegua 18 eta 19 urteko adinen bitartean eskuratu zuten pertsonen artean, baina % 29,1era murrizten da lehen lana 20 urterekin edo gehiagorekin aurkitu zutenen artean.

Azkenik, aztertzen baldin badugu 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen zer erantzun eman zioten lehen lana eskuratzeko moduari buruzko galderari 2011n eta zer erantzun eman dioten galdera horri berari 2017an, ikusten

dugu nabarmen egin duela behera lehen enplegua pertsonaren beraren zuzeneko bilaketaren bidez eskuratu dutenen ehunekoa (% 36,6koa izan zen 2011, eta % 17,7koa izan da 2017an); era berean, handitu egin da lehen lana senideen eta pertsona ezagunen bidez eskuratu zutela adierazi dutenen ehunekoa (% 39,6tik % 50,6ra) eta hura ikasteko beken edo praktiken bidez eskuratu zutenena (% 7,5etik % 11,5era).


## 2.6. 30-34 URTEKO PERTSONEN LEHENDABIZIKO ENPLEGUAREN LAN-BALDINTZAK

Kontuan izan behar dugu 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak 18-19 urteko adinarekin eskuratu zutela lehen lan ordaindua eta hamar urte baino gehiago igaro direla ordutik (orain 30 eta 34 urte bitartean dituztelako); hori horrela, ondoriozta dezakegu krisiaren aurreko urte oparoetan eskuratu zutela lehen enplegu hori. Datu hori jakinda, posible dugu pertsona horiek eskuratu zuten lehen enplegu horren baldintzak eta gaur egun 16 eta 29 urte bitartean daudenek eskuratzen duten lehen enpleguaren baldintzak konparatzea.

Lan-eskarmentua izan eta gaur egun 30 eta 34 urte bitarte dituzten pertsonen ia erdiak (% 47,8) esaten du 30 ordu baino gehiago lan egiten zituela lehen lan ordaindu horretan. Ehuneko horrek nabarmen gaintitzen du gaur egun 16 eta 29 urte bitarte izan eta lehen enpleguan ordu-kopuru hori egiten zuten pertsonen ehunekoa (% 29,7).

### 2.5. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO PERTSONEK ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK LEHEN ENPLEGUAN EGINDAKO ASTEKO LANORDUEN KOPURUJAREN KONPARAZIOA (%)



Lehen lana ikasten ari ziren garaian eskuratu zuten 30-34 urteko pertsonen asteko lanaldia motzagoa izaten zen lehen enplegu hori ikasketak amaitu ondoren eskuratu zuten pertsonena baino. Asteaz 30 ordutik gora lan egiten zuten lehen lana ikasten ari ziren garaian eskuratu zuten pertsonen % 32,8k; aitzitik, 30 ordutik gorako lanaldi hori bera izan zuten lehen enplegua ikasketak amaitu ondoren eskuratu zutenen % 72,8k (hau da, dobleak baino gehiagok).

Goi-mailako ikasketak dituztenek baino ehuneko handiagoan adierazten dute goi-mailako ikasketarik ez dutenek beren lehen enpleguan 30 ordu baino gehiago egiten zutela lan astean (goi-mailako ikasketak dituztenen % 39,6k eta ez dituztenen % 56,6k); baina, lehen azaldu dugun moduan, goi-mailako ikasketak dituztenek ikasketa horiek amaitu ez dituztenek baino ehuneko handiagoan esaten dute lan egin zutela ikasten ari ziren garaian.


30 eta 34 urte bitarteko gizonek adin-tarte horretako emakumeek baino ordu gehiagoko lanaldiak izan zituzten lehen enpleguan (astean 30 ordu baino gehiago lan egiten zuten gizonen % 58,4k eta emakumeek % 37,1ek). Gazteen artean ere alde nabarmenak ikusten dira gizonen eta emakumeen lanaldietan. 30 urtetik beherako pertsonak aztertzean, ikusi genuen gizonetakoek baino ehuneko handiagoan eskuratzen zutela emakumeek beren lehen enplegua ikasten ari ziren garaian, eta horren ondorioz, posible zela, ikasketak eta lana bateratzeko, ordu gutxiagoko lanak eskuratu izana; hala ere, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen adin-taldean, ez da alderik ikusten lehen enplegua eskuratzeko unean, baina bai emakume eta gizon horien lanaldietan.

Bestalde, 30 eta 34 urte bitarte izan eta lan-eskarmentua duten pertsonen multzoan, hamarretik zazpik (% 69,9k) adierazten dute kontratu bat egin zirela lehen enplegu horretan. Pertsona-talde horren % 1,6 alta-egoeran zegoen autonomoen erregimenean, eta kontraturik gabe lan egiten zuen % 25,8k. Gainerako % 2,6ak ez du erantzun.

30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 69,9k adierazten du kontratua izan zuela bere lehen lan ordainduan, eta ehuneko hori 16 eta 29 urte bitartean dituztenek izandakoa baino zertxobait handiagoa da (% 64,9).

## 2.6. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO PERTSONEK ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK LEHEN ENPLEGUAN IZANDAKO KONTRATU-HARREMANEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



Lanean ikasketak amaitu ondoren hasi diren pertsona gehiagok esan du lehendabiziko lanean kontratua zuela (% 79,3k adierazi du), lehen enplegu hori ikasten ari ziren garaian eskuratu zutenek baino (% 64,3k esan du kontratupeko lana zuela ikasten ari zen garai horretan izandako lehen enpleguan). Emakumeek baino ehuneko handiagoan adierazten dute gizonek kontratua izan zutela lehen enpleguan (gizonen % 73,9k eta emakumeen % 66,0k), nahiz eta alde handirik ez egon beraien artean lehen enplegu hori eskuratzeko uneari dagokionean. Alde

handienak pertsonaren jaiolekuaren arabera nabarmentzen dira: atzerrian jaiotako pertsonak ehuneko handiagoan egin zuten lan kontraturik gabe (% 51,5), kontratupean baino (% 40,6k izan zuen kontratua lehen enpleguan). Euskadin jaiotakoan artean, aldiz, lau pertsonatik hiruk (% 75,8k) izan zuten kontratua lehen enpleguan.

Lehen enpleguan kontratua izan zuten pertsonak lanordu gehiago izan zituzten astean (30 ordu baino gehiago egin zuten lan % 56,2k), kontraturik gabe lan egin zutenek baino (kontraturik gabekoen % 26,1ek soilik egin zituen 30 lanordu baino gehiago astean).

30 eta 34 urte bitartean eta lan-eskarmentua duten pertsonen heren batek (% 34,8k) soilik esaten du lehen lan horrek nolabaiteko lotura edo lotura handia zuela bere ikasketekin. Ehuneko hori oso antzekoa da 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen adin-taldean (% 35,6koa).

Lanean ikasketak amaitu ondoren hasi diren pertsonak, eta, batik bat, lehendabiziko enplegua 20 urte bete ondoren aurkitu dutenek adierazi dute, gainerako pertsona taldeek baino neurri handiagoan, ikasitakoarekin lotutakoa izan zela beren lehen enplegua (lehen multzoan dauden pertsonen % 44,5ek eta bigarren taldeko % 56,7k).

## 2.7. EMAITZA NAGUSIAK

Lanean ari diren pertsonen ehunekoarekin gertatzen den moduan, lan-eskarmenturen bat duten pertsonen ehunekoak nabarmen egiten du gora adinak gora egiten duen neurrian; izan ere, % 29,4koa da 20 urtetara iritsi gabekoen artean, eta % 94,9koa 30 eta 34 urte bitartekoen artean.

30 urte bete aurretik, gaur egun lanik ez duen hamar pertsonatik lauk dute lan-eskarmenturen bat, baina izan zuen azken enplegua uzteko arrazoiak asko aldatzen dira egun duten egoeraren arabera. Ikasleen eta etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten dituztenen erdiak baino gehiagok esaten du borondatez utzi zuela azken enplegua; aitzitik, langabezia dauden pertsona gehienek adierazten dute ez zutela borondatez utzi azken enplegu hori.

30 eta 34 urte bitartean izan eta gaur egun lanik egiten ez duten pertsona gehienek dute lan-eskarmenturen bat. Noizbait lan egin eta gaur egun lanik gabe dauden hiru pertsonatik bik esaten dute ez zutela borondatez utzi azken enplegua; hala ere, azken urteetan behera egin du azken enplegua borondatez utzi ez izana adierazten duten pertsonen ehunekoak.

Lana eskuratzeko modua antzekoa da 30 urtetik beherako eta gorako pertsonentzat. Bi adin-talde horietan, 18 eta 19 urte bitartekoa da lehen enplegu ordaindua eskuratzeko batez besteko adina, ikasten ari zirenean gehien-gehienak. Lan horiek senideen edo pertsona ezagunen bidez eskuratu ohi dira.

Lehen enplegu horren lan-baldintzei begiratuta, pertsona gehienek adierazten dute, bi adin-taldeetan, kontratua zutela; hala ere, astean 30 lanordu baino gutxiago egiten zituzten, eta ez zen ikasi zutenarekin lotutako lana.



# 3

## Lanean ari diren gazteen lan-baldintzak

Lanean ari diren gazteen lan-baldintzak azaltzen hasi aurretik, gogoratuko dugu gaur egun okupazio nagusia lan egitea duten pertsona gazteez hitz egiten ari garela, eta ez, aurreko kapituluan egin dugun moduan, lan-eskarmentua duten pertsona guztiez. Azterlan honen datuek adierazten dute 16 eta 29 urte bitarte dituzten pertsonen herena (% 35,4) ari dela lanean gaur egun.

Lan edo enplegu horren baldintzak aztertzean, kontratu mota, lanaldia, soldata eta beste alderdi batzuk landuko ditugu, baina, horiez gainera, aintzat hartuko ditugu, besteak beste, egungo enplegua eskuratzeko modua, lanarekiko satisfazioa eta lanez aldatzeko gogoia.

### 3.1. EGUNGO ENPLEGUA ESKURATZEKO MODUA

Lanean ari diren hiru pertsonatik batek (% 32,3k) esaten du senideen edo pertsona ezagunen bidez lortu duela egun duen enplegua. Hori da gehien errepikatzen den erantzuna, baina nabarmen handiagoa da datua, baldin eta lehen enplegua eskuratzeko bide hori bera erabili zutenen ehunekoari erreparatzen baldin badiogu (lehen enplegua pertsona ezagunei esker lortu zutela adierazi du % 52,0k).

Hau da gehien errepikatzen den bigarren erantzuna: norberak zuzeneko bilaketa egin ondoren bilatu izana egungo enplegua, hau da, lan-eskaintzen iragarkiei erantzunez, curriculuma bidalita, nork bere buruaren publizitatea eginda, etab. Lanean ari diren gazteen % 25,0k esaten du horrela eskuratu duela egun duen enplegua. Lehen enplegua eskuratzeko moduarekin konparatzen baldin badugu, gazteen % 16,2k adierazten du zuzeneko bilaketaren bidez topatu zutela lehen enplegu hori, eta % 25,0 dira beren egungo enplegua modu horretan eskuratu dutela adierazten dutenak.

Gehien errepikatzen den hirugarren erantzuna da bekaren edo ikasketen praktiken bidez eskuratu dutela egungo enplegua (% 13,8). Eskurapen-bide honetan, ez dago alde handirik lehen enplegua bide horretatik lortu izana adierazten duten gazteen ehunekoarekiko. Multzo edo talde horren batez besteko adina gainerakoena baino txikiagoa da; beraz, pentsatzekoa da oraingo lehendabiziko enplegua izan daitekeela pertsona askorentzat.

Nabarmentzekoa da, lehen enplegua eskuratzeko moduarekiko, gora egiten duela egungo enplegua administrazioaren oposizioen edo lan-poltsen bidez eskuratu izana adierazi duten gazteen ehunekoak: gazteen % 0,8k eskuratu zuen lehen enplegua bide horretatik, eta % 5,6 dira egungo enplegua bide horretatik eskuratu dutenak.

### 3.1. taula

LEHEN ENPLEGUA ESKURATZEKO MODUAREN ETA EGUNGO ENPLEGUA ESKURATZEKO MODUAREN ARTEKO ALDEA, LANEAN ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN (%)

Nola lortu zenuen zure lehenengo lana?* Nola lortu zenuen egungo lana? **		
	Lehenengo lana	Egungo lana
Senide, lagun edo ezagun baten bidez	52,0	32,3
Zuk zeuk zuzenean (iragarritako lan-eskaintzei erantzuten, zure "curriculum" a enpresetara bidaltzen, iragarkiak jartzen...)	16,2	25,0
Beka baten edo ikasketetako praktikaldi baten ondorioz	12,3	13,8
Enplegua bilatzeko web orrien bidez	5,5	7,3
Ikasketa-zentrotik eskaini zizuten	4,8	4,1
ETT baten bidez	3,2	3,6
Lan-zerbitzu publiko edo lanerako orientazio zerbitzu publiko baten bidez	1,0	2,0
Administrazioarako oposizio edo lan-poltsen bidez	0,8	5,6
Beste bide batetik	3,3	5,9
Ed/Ee	0,8	0,3
Guztira	100	100
(n)	568	517

\* Bakarrik lan-eskarmetua dutenei egindako galdera.

\*\* Gaur egun lanean ari direnei egindako galdera.

Goi-mailako ikasketarik ez dutenen aldean, ikasketa horiek dituztenek ehuneko handiagoan esaten dute ikasteko beken edo praktiken bidez eskuratu dutela egungo enplegua, lana bilatzeko web-orrien bidez eskuratu dutela eta administrazioaren oposizioen edo lan-poltsen bidez eskuratu dutela; aitzitik, goi-mailako ikasketarik gabekoek ehuneko handiagoan adierazten dute senideen edo lagunen bidez eskuratu dutela eta aldi baterako laneko enpresen bidez eskuratu dutela. Ez dago alde nabarmenik lana eskuratzeko gainerako moduen artean.



**3.2. taula**

LANEAN ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGUNGO ENPLEGUA  
ESKURATZEKO MODUA, IKASKETA-MAILAREN ARABERA (%)

Nola lortu zenuen egungo lana?*			
(%)	Guztira	Amaitutako ikasketa-maila	
		Derrigorrezkoak edo bigarren mailakoak	Goi-mailakoak
Senide, lagun edo ezagun baten bidez	32,3	47,9	23,0
Zuk zeuk zuzenean (iragarritako lan-eskaintzei erantzuten, zure "curriculum"a enpresetara bidaltzen, iragarkiak jartzen...)	25,0	22,5	26,4
Beka baten edo ikasketetako praktikaldi baten ondorioz	13,8	6,7	18,1
Enplegua bilatzeko web orrien bidez	7,3	4,1	9,3
Ikasketa-zentrotik eskaini zizuten	4,1	3,2	4,6
ETT baten bidez	3,6	7,2	1,5
Lan-zerbitzu publiko edo lanerako orientazio zerbitzu publiko baten bidez	2,0	1,8	2,1
Administraziorako oposizio edo lan-poltsen bidez	5,6	0,0	9,0
Beste bide batetik	5,9	6,2	5,8
Ed/Ee	0,3	0,4	0,3
Guztira	100	100	100
(n)	517	188	329

\* Gaur egun lanean ari direnei egindako galdera.

Gizonek baino ehuneko handiagoan eskuratzen dute emakumeek lehen enplegua administrazioaren lan-poltsen bidez (emakumeen % 8,4k eta gizonen % 3,1ek), eta ehuneko handiagoan lortzen dute hura enplegu-zerbitzu publikoen bidez (emakumeen % 3,5ek eta gizonen % 0,6k).

**3.2. ANTZINATASUNA EGUNGO ENPLEGUAN**

Lanean ari diren gazteen erdiak baino gehiagok (% 57,2k) esaten du urtebetetik gora daramala egungo enpleguan: zehazki, urtebete eta hiru urteren bitarteko antzintasuna du % 34,5ek, eta hiru urtetik gorakoa gainerako % 22,7ak. Bestalde, egungo lanean sei hilabete baino gutxiago daramatza gazteen % 25,1ek, eta sei hilabete eta urtebete bitartean % 17,1ek.

Lanean ari diren 25 urtetik beherako pertsona gehienek (% 56,6k) urtebete baino gutxiago daramate egungo enpleguan, baina 25 eta 29 urte bitarteko gehienek (% 63,5ek) urtebetetik gora darama egungo lanean.

Lanean ari diren gizon gazteen % 62,9k urtebete baino gehiago darama bere egungo lanean; ehuneko hori askoz ere apalagoa da emakumeen kasuan, haien % 51,1ek baitarama urtebetetik gora bere egungo enpleguan.

### 3.3. taula


16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ANTZINATASUNA BEREN EGUNGO ENPLEGUAN, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA (%)

(%)	Zenbat denbora daramazu oraingo enpleguan?*				
	Guztira	Sexua		Adin-taldeak	
		Emakumeak	Gizonak	16-24	25-29
Sei hilabete baino gutxiago	25,1	28,7	21,8	35,7	20,3
Sei hilabete eta urtebete artean	17,1	20,3	14,2	20,9	15,4
Urtebete eta hiru urte artean	34,5	31,3	37,5	35,5	34,0
Hiru urte baino gehiago	22,7	19,8	25,4	7,9	29,4
Ed/Ee	0,6	0,0	1,1	0,0	0,8
Guztira	100	100	100	100	100
(n)	517	254	263	129	388

\* Gaur egun lanean ari direnei egindako galdera.

### 3.1. irudia

16-29 URTEKO GAZTEEK EGUNGO ENPLEGUAN DUTEN ANTZINATASUNAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma 2000, 2004 eta 2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017 datuetarako).


Enpleguaren antzinasunari buruzko datuen bilakaerari begiratuta, ikusten dugu 2013an izan zela handiena beren lanpostuan hiru urtetik gora zeramaten gazteen ehunekoa, hau da, krisialdi ekonomikoaren ondorioek goia jo zuten urtean. Langabezia-datuak oso handiak izan ziren urte horretan, eta horrek adierazten digu lanean denbora gehien zeramaten gazteek eutsi ziotela krisialdian beren enpleguari. Okupazio-tasak oneratu egin dira 2017an, eta gazteen laneratze-tasa ere handitu egin denez, beren lanpostuan hiru urtetik gora daramaten pertsonen orduan baino zenbateko erlatibo apalagoa dute lanean ari diren gazteen multzo osoan. Krisialdiaren aurreko datuetara gerturatzen dira 2017ko zenbatekoak, hau da, 2004ko eta 2008ko datuetara.

### 3.3. EGUNGO ENPLEGUA: KONTRATU MOTAK ETA GIZARTE-SEGURANTZAREN KOTIZAZIOAK

Lanean ari diren gazteen ia erdiak (% 47,6k) aldi baterako kontraturen bat duela adierazten du. Gutxiago dira kontratu mugagabea dutenak (% 31,5 ), aldizkako kontratu finkoa dutenak (% 3,6) eta kooperatibistak (% 0,5); guztira, % 35,5eko ehunekoa osatzen dute. Gazteen % 5,6k kontraturik gabe lan egiten duela esaten du, bere kontura lan egiten duela esaten du % 8,3k, eta gainerako % 2,9ak ez du erantzuten.

#### 3.2. irudia

LANEAN ARI DIREN 16-29 URTEKO GAZTEEN KONTRATU MOTAK (%)



Aldi baterako kontratu gehiago dituzte emakumeek, eta gizonek baino gehiago egiten dute lan kontraturik gabe. Hori bera gertatzen da 25 urtetik beherako pertsonekin: aldi baterako eta kontraturik gabeko lan gehiago egiten dute.

Amaitutako ikasketa-mailari begiratzen baldin badiogu, ikusten dugu goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen, halakorik ez dutenen aldean, aldi baterako lanaren ehuneko handiagoak dituztela, baina ehuneko apalagoak dituztela norberaren konturako lanaren edo kontraturik gabeko lanaren adierazleetan.

Hala ere, lanpostuaren antzinasunak adierazten ditu alde handienak. Izan ere, lanean hiru urte baino gehiago daramatenen artean, gehiengo dira (% 56,2) kontratu mugagabea edo aldizkako kontratu finkoa dutenak eta kooperatibistak direnak.

## 3.4. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK BEREN EGUNGO ENPLEGUAN DUTEN KONTRATUA, SEXUAREN, ADIN-TALDEEN, AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN ETA LANEAN DUTEN ANTZINATASUNAREN ARABERA (%)

Nolako kontratu mota duzu?*										
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		Amaitutako ikasketa-maila		Antzintasuna lanean		
		Emakumeak	Gizonak	16-24	25-29	Derri-gorrezkoak edo bigarren mailakoak	Goi-mailakoak	Urte bat baino gutxiago	Urte bat eta hiru artean	Hiru urte baino gehiago
Aldi baterakoa	47,6	52,4	43,1	58,8	42,4	36,1	54,4	59,0	52,3	20,3
Mugagabea, finkoa **	35,5	31,6	39,2	26,0	39,9	37,1	34,6	24,1	35,4	56,2
Norberaren kontura	8,3	4,4	12,0	3,4	10,6	11,2	6,6	4,3	6,2	19,4
Ez du kontraturik	5,6	7,7	3,7	7,9	4,6	11,0	2,4	8,5	4,0	2,7
Ed/Ee	2,9	3,8	2,1	3,9	2,5	4,6	1,9	4,1	2,0	1,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	517	254	263	129	388	188	329	217	174	123

\* Gaur egun lanean ari direnei egindako galdera.


\*\* Aldizkako finkoak eta kooperatibistak hartzen ditu.

Nabarmenezkoa da, era berean, atzerrian jaiotako gazteen artean kontraturik gabe lan egiten dutela esaten dutenen ehuneko altua (% 18,3).

Kontratazioaren gaineko datuen bilakaerak erakusten digu gora egin duela aldi baterako enpleguen kopuruak eta horrekin batera murriztu egin dela enpleguaren egonkortasuna; izan ere, orain kontratu mugagabea edo aldizkako kontratu finkoa dutenen edo kooperatibista direnen ehunekoa 2000. urtean abiatutako seriearen daturik apalena da. Kontratazio mugagabeek beherakada izan dute, bai gizon gazteen artean, bai emakume gazteen artean.

### 3.3. irudia

LANEAN ARI DIREN 16-29 URTEKO GAZTEEN KONTRATU MOTEN BILAKAERA (%)



\* Mugagabeen datuak aldizkako finkoak eta kooperatibistak ere biltzen ditu.

\*\* 2000 eta 2004 urteetan "ez du kontraturik" aukera beharrean "Noizbehinkako lanak" kategoria zegoen. Alderaketa egiteko bata eta bestea parekatu dira.


Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma 2000, 2004 eta 2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017 datuetarako).

Besteren kontura lan egiten duten gazteei begiratuz gero, hau da, alde batera uzten baldin baditugu beren kontura lan egiten dutenak, ikusten dugu aldi baterako kontratu bat duela % 53,6k.

Aldi baterako kontratua duten soldatapeko pertsonen ehuneko hori Europar Batasuneko batez bestekoa (% 32,5) baino nabarmen handiagoa da, eta Espainian dagoen ehunekoaren antzekoa (% 57,5). Espainia da, hain justu, aldi baterako kontratuen ehuneko handiena duena gazteen artean.

### 3.4. irudia

ALDI BATERAKO KONTRATUA DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO SOLDATAPEKO GAZTEEN EHUNEKOEN KONPARAZIOA, EUSKADIN ETA EUROPAN BESTEREN KONTURA LAN EGITEN DUTEN GAZTE GUZTIEKIKO (%)\*



\* 15 eta 29 urte bitarteko gazteen datuak dira Europar Batasuneakoak.

Iturria: Eurostat, Gazteriar buruzko estatistikak (*Database:Youth*).

Gizarte-segurantzako kotizazioei begiratuta, lanean ari diren hamar gaztetatik bederatzik (% 91,4k) esaten dute alta emanda daudela gizarte-segurantzari. Ez dagoela alta emanda adierazten du % 7,6k, eta ez du erantzuten gainerako % 1ek.

Kontraturik gabe lan egiten duten pertsonak ez daude gizarte-segurantzari alta emanda, baina pertsona batzuek aitortzen dute, kontratua izan arren, ez dutela gizarte-segurantzari kotizatzen. Gizarte-segurantzari kotizatzen ari dela adierazten du beren kontura lan egiten duten gazteen % 95,3k.

### 3.5. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN GIZARTE-SEGURANTZARAKO KOTIZAZIOA,  
KONTRATU MOTAREN ARABERA (%)

Gizarte-segurantzan alta emanda zaude?*					
(%)	Guztira	Kontratu mota			
		Mugagabea, finkoa**	Aldi baterakoa	Norberaren kontura	Ez du kontraturik
Bai	91,4	97,9	97,8	95,3	0,0
Ez	7,6	1,8	1,6	2,7	100,0
Ed/Ee	1,0	0,3	0,6	2,0	0,0
Guztira	100	100	100	100	100
(n)	517	188	244	43	26

\* Gaur egun lanean ari direnei egindako galdera.

\*\* Aldizkako finkoak eta kooperatibistak hartzen ditu.

Kontraturik gabe lan egiten duten pertsonak dituzte gizarte-segurantzan alta eman gabe lan egiten duten pertsonen ehuneko handienak: emakumeak (% 9,6), 25 urtetik beherakoak (% 9,6), goi-mailako titulaziorik gabeko pertsonak (% 13,7), lanean urtebete baino gutxiago daramaten pertsonak (% 11,8), eta, batik bat, atzerrian jaiotako pertsonak; izan ere, atzerrian jaiotako lau pertsonatik batek esaten du ez dagoela altan emanda gizarte-segurantzan (% 24,5).

## 3.4. NORBERAREN KONTURAKO LANA

Aurreko puntuan adierazi dugun moduan, norberaren kontura lan egiten duela adierazten du lanean ari diren 30 urtetik beherako gazteen % 8,3k. Azken urteetako batez bestekoaren inguruan dago ehuneko hori; izan ere, % 6,1ek esaten zuen 2015ean bere kontura lan egiten zuela, eta ehuneko hori, 2013. urtean, % 10,2koa zen. Aztertutako urte-sailean, horiek dira norberaren konturako lanaren ehuneko handiena eta txikiena.


Gizon gazte gehiagok egiten dute norberaren konturako lana emakumeek baino (gizonen % 12,0k eta emakumeen % 4,4k); ehuneko handiagoan egiten dute norberaren konturako lana 25 eta 29 urte bitartekoek, 25 urtetik beherakoek baino (% 10,6 lehen adin-taldekoek eta % 3,4 bigarren taldekoek); eta, azkenik, norberaren konturako lana ohikoagoa da goi-mailako titulaziorik gabeko gazteengan (% 11,2), goi-mailako prestakuntza-ziklo bat edo unibertsitate-ikasketak amaitu dituztenengan baino (% 6,6).

Euskadin norberaren kontura lan egiten duten gazteen ehunekoa Europako datuekin<sup>4</sup> konparatzen baldin badugu, ikusten dugu Euskadi Europar Batasuneko batez bestekotik gora dagoela (% 6,2). Grezia, Italia, Errumania eta Eslovakia dira autonomoen edo beren konturako enpresa edo negozioa duten gazteen ehuneko handienak dituzten herrialdeak, % 10etik gorako ehunekoekin. Beste muturrean, ekonomia indartsuko herrialdeak daude, Danimarka, Alemania, Irlanda eta Austria. Horiek dituzte norberaren konturako langile gazteen ehuneko apalenak (% 3tik beherakoak). Herrialde horietan, gazteen okupazio-tasa EBko batez bestekoetatik gorakoa da.

<sup>4</sup> Geuk osatutako datuak, Eurostat erakundeak (EBko estatistika-erakundeak) gazteen gainean emandako estatistika-datueta oinarrituta, bai lanean ari diren gazteen gainekoetan, bai norberaren konturako erregimenean lan egiten duten gazteen gainekoetan. *Eurostat: Data: Population and social conditions: Youth: Youth employment* [lanean, ingelesez] <http://ec.europa.eu/eurostat/data/database> [kontsulta: 2018/04/23]

## 3.5. irudia

EUSKADIN ETA EUROPAR BATASUNEAN NORBERAREN KONTURAKO ERREGIMENEAN LAN EGITEN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN EHUNEKOEN KONPARAZIOA (%)\*



\* Europar Batasuneko datuek 15 eta 29 urte bitarteko gazteen egoera adierazten dute.

Iturria: Geuk osatutako informazioa, Eurostat erakundearen gazteei buruzko estatistiketan oinarrituta (*Database: Youth*).

Euskadin gertatzen den moduan, emakume eta gizon gazteen arteko aldeak nabarmenak dira norberaren konturako enpleguaren alorrean: Europar Batasunean gizon gazteen % 7,5 da autonomia edo enpresaria, eta datu hori % 4,6koa da emakume europarren artean. Beren kontura lan egiten duten gizon gazteen ehunekoa Europar Batasuneko batez bestekoa baino handiagoa da Euskadin (% 12,0koa Euskadin eta % 7,5koa Europar Batasunean). Euskal emakume gazteak, berriz, Europar Batasuneko batez bestekotik hurbil daude (% 4,4 Euskadin eta % 4,6 EBn).



Autonomoen erregimenean alta emanda egoteak ez du esan nahi alta emanda dagoenak enpresa edo negozio propioa duenik. Horren jakitun, Euskadin norberaren konturako erregimenean lan egiten dutela esaten duten gazteei galdetu diegu ea autonomoak edo enpresariak diren beren enpresa propioarekin ala autonomoen erregimenean alta emanda dauden, baina beste enpresa batentzat lan egiteko.

Enpresa edo negozio propioa duela adierazten du % 6,3k, eta gainerako % 2ak esaten du autonomoen erregimenean alta emanda dagoela, baina berea ez den enpresa batean egiten duela lan.

### 3.5. ZEIN ERAKUNDE MOTATAN LAN EGITEN DUTEN BESTEREN KONTURA LAN EGITEN DUTEN GAZTEEK

Gazte gehienek (% 88,7k) besteren kontura lan egiten dute, eta horien artean sartzen dira kontratu mota oro dutenak eta kontraturik gabe lan egiten dutenak.

Enpresa pribatuetan lan egiten dute horietako gehienek (% 73,8k). Sektore publikoan lan egiten du % 11,7k; zehazki, administrazio publikoan lan egiten du % 7,4k (horren barruan sartzen dira, esaterako, Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, Osakidetza, Hezkuntza, Ertzaintza edo Lanbide) eta enpresa publikoren batean gainerako % 3,4k (EITB, EEE, SPRI, VISESA, EJIE, Bidegi, Lantik...). Horrez gainera, kooperatibaren batean lan egiten du % 4,1ek, irabazi asmorik gabeko erakunderen batean % 1,5ek, etxeko lanen esparruan % 2,5ek, bestelako erakunderen batean lan egiten duela esaten du % 3,4k, eta gainerako % 2,9ak ez du erantzuten.

Enpresa pribatuetan lan egiten duten gazteen ehunekoak behera egin du 2011 eta 2017 urteen bitartean, eta igoera apal bat izan dute sektore publikoan eta kooperatibetan lan egiten dutenen ehunekoak.

#### 3.6. taula

BESTEREN KONTURA LAN EGITEN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK  
LANTOKI DUTEN ERAKUNDE MOTAREN BILAKAERA (%)

Zein erakunde motatan lan egiten duzu?*				
(%)	2011	2013	2015	2017
Enpresa pribatu batean	83,3	81,1	80,6	73,8
Sektore publikoan	8,9	8,2	10,5	11,7
<i>Enpresa publikoan</i>	5,4	5,0	5,0	4,3
<i>Administrazio publikoan</i>	3,5	3,2	5,5	7,4
Kooperatiba batean	1,8	2,1	3,7	4,1
Besteren etxeko lanetan	2,5	3,8	3,3	2,5
Irabazteko asmorik ez duen erakunde batean, GKE edo ONG batean	0,1	1,3	0,6	1,5
Bestelako erakunde batean	2,7	2,1	1,3	3,4
Ed/Ee	0,6	1,4	0,0	2,9
Guztira	100	100	100	100
(n)	463	372	436	458

\* Gaur egun besteren kontura lan egiten ari direnei egindako galdera.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Gazteen talde guztietan, enpresa pribatuan lan egiten duela esaten du gehiengoak. Bereziki, gizonak eta erdinahiz goi-mailako prestakuntza-zikloak egin dituztenak nabarmentzen dira parametro horretan.

Emakumeek, unibertsitate-ikasketak dituztenek eta Euskadin jaiotakoek gainerako taldeek baino partaidetza-ehuneko handiagoa dute administrazio publikoan. Unibertsitate-ikasketak dituztenek eta Euskadin jaio direnek gainerakoek baino partaidetza-ehuneko handiagoa dute kooperatibetan.

Emakumeek, derrigorrezko ikasketak edo Batxilergoa soilik egin dutenek eta, batik bat, atzerrian jaiotako pertsonak gainerako taldeek baino partaidetza-ehuneko handiagoa dute etxeko lanen edo zerbitzuen sektorean.

### 3.7. taula

BESTEREN KONTURA LAN EGITEN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK LANTOKI DUTEN ERAKUNDE MOTA, SEXUAREN, AMAITUTAKO IKASKETA MOTAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

(%)	Zein erakunde motatan lan egiten duzu?*							
	Guztira	Sexua		Amaitutako ikasketa mota			Jaiolekua**	
		Emakumeak	Gizonak	Derrigorrezkoak edo Batxilergoa	Lanbide Heziketako zikloak	Unibertsitate-ikasketak	Euskadi	Atzerria
Enpresa pribatubatean	73,8	68,0	79,5	77,7	85,4	63,8	73,5	74,2
Sektore publikoan	11,7	14,5	8,9	5,1	4,3	20,5	12,7	4,9
<i>Enpresa publikoan</i>	4,3	4,5	4,1	5,1	1,3	6,3	4,0	4,1
<i>Administrazio publikoan</i>	7,4	10,0	4,8	0,0	3,0	14,2	8,7	0,8
Kooperatibabatean	4,1	3,9	4,4	1,7	3,2	6,1	4,9	1,2
Besteren etxeko lanetan	2,5	5,1	0,0	7,7	1,2	0,4	0,7	13,5
Irabazteko asmorik ez duen erakunde batean, GKE edo ONG batean	1,5	2,3	0,7	0,0	1,9	2,1	1,8	0,0
Bestelako erakunde batean	3,4	3,8	3,0	3,7	2,2	3,9	3,2	3,8
Ed/Ee	2,9	2,4	3,5	4,1	1,7	3,2	3,2	2,3
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	458	233	225	114	148	192	370	69

\* Gaur egun besteren kontura lan egiten ari direnei egindako galdera.

\*\* Espainiako beste lekuetan jaiotako gazteei dagozkien datuak ez dira aurkezten, laginean oso kopuru txikia baita eta, horren ondorioz, ez da fidagarritasun estatistiko nahikoa bermatzen.

### 3.6. LANALDI MOTA ETA ASTEAN LAN EGINDAKO ORDUEN KOPURUA

Lanean ari diren 30 urtetik beherako hamar gaztetatik zazpik (% 69,4k) lanaldi osoan lan egiten dutela esaten dute. Lanaldi partzialean lan egiten duela esaten du % 29,1ek. Enpresan edo erakundeetan egiten den kontratu mota nagusiak edo ordu gehien dituen kontratuak ezarrita dituen ordu-kopuruaren azpitik dauden lanaldiak dira partzialak (enpresa eta erakunde batzuek 35 orduko lan astea dute ezarrita, beste batzuek, berriz, 40 ordukoa, etab.). Gainerako % 1,5ek ez du erantzun.

Gizonezkoek baino ehuneko handiagoan egiten dituzte emakumeek lanaldi partzialak. Aldea hogeit puntukoa da ehunekotan: emakumeen % 39,7k du lanaldi partzialeko lana eta % 19,1 dira lanaldi horretan lan egiten duten gizonak.


Lanaldi partzialen ehuneko handiak dituzten beste talde batzuk dira 25 urtetik beherakoak (% 37,7k du lanaldi partziala, eta ehunekoa % 25,1ekoa da 25 eta 29 urte bitartean dituztenen taldean) eta atzerrian jaio diren gazteak (lanaldi partzialean lan egiten du atzerrian jaiotako gazteen % 35,3k, eta ehuneko hori % 28,3koa da Euskadin jaio direnen artean).

Hala ere, seme-alabak dituzten pertsonak dute lanaldi partzialeko lanaren ehuneko handiena (% 43,7).

Lanaldi partzialeko lanaren ehunekoak behera egin du 2015. urtearekiko, emakumeen kasuan batik bat, eta horren ondorioz, 2011 eta 2013 urteetako datuetara gerturatu da.

#### 3.6. irudia

EUSKADIN 16 ETA 29 URTE BITARTEAN DITUZTEN GAZTE OKUPATUEN LANALDIAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma 2000, 2004 eta 2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017 datuetarako).

Gazte europarren datuekin konparatzen baldin baditugu lanaldi partzialeko lana duten gazteen ehunekoak, ikusten dugu Europar Batasuneko batez bestekotik gora daudela Euskadin, bai emakume gazteak, bai gizon gazteak. Herbehereetako, Danimarkako eta Suediako gazteek dituzte, Europar Batasunean, lanaldi partzialeko lanaren ehuneko handienak.

## 3.8. taula

LANALDI PARTZIALEAN LAN EGITEN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EHUNEKOAK  
ADIN-TARTE HORRETAKO GAZTE OKUPATU GUZTIEKIKO, SEXUAREN  
ETA EUROPAKO HERRIALDEAREN ARABERA (%)\*

(%)	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Herbehereak	63,9	76,0	52,1
Danimarka	49,7	57,9	42,0
Suedia	34,6	44,4	25,5
Finlandia	30,8	40,6	21,6
Irlanda	29,1	35,3	23,3
Euskadi	29,1	39,7	19,1
Espainia	27,3	34,4	20,7
Erresuma Batua	26,6	35,5	18,5
Italia	26,1	38,6	17,2
Austria	26,1	35,3	17,5
EB28	23,6	31,4	16,9
Belgika	23,0	34,1	13,2
Alemania	22,8	29,3	17,2
Eslovenia	22,3	30,5	15,7
Grezia	19,9	25,7	15,6
Frantzia	18,7	26,6	11,7
Zipre	17,3	20,4	14,1
Luxenburgo	15,0	20,2	10,0
Portugal	13,4	16,4	10,6
Estonia	13,0	19,8	7,6
Malta	12,4	15,7	9,6
Errumania	9,3	8,7	9,7
Letonia	8,8	13,3	4,9
Lituania	8,6	10,5	7,0
Polonia	8,5	12,3	5,6
Txekiar Errepublika	8,3	12,5	5,3
Eslovakia	6,5	8,4	5,2
Kroazia	5,7	7,5	4,3
Hungaria	4,6	6,1	3,5
Bulgaria	3,9	5,1	3,1

\* Europako herrietako datuak 15 eta 29 urte bitarteko gazteenak dira.

Iturria: Eurostat, Gazteei buruzko estatistikak (*Database: Youth*).

Lanaldi partzalean lan egiten duten gazteengana bueltatuta, ikusten dugu ia horien erdiak (% 45,6k) lanaldi osoko lanik topatu ez duelako egiten duela lanaldi partzialeko lana. Gazteen % 3,3k esaten du enpresak ezarritako neurria izan dela, enplegua erregulatzeko espediente baten edo antzeko neurriren baten ondorioz. Lanaldi partziala adingabekoak edo mendekotasuna duten senideak zaintzeko egiten duela adierazten du % 6,2k. Gazteen % 21,4k esaten du lanaldi partzalean lan egiten duela lana beste enpleguren batekin edo ikasketekin bateratzeko; lanaldi partzalean lan egin nahi duela adierazten du % 8,6k; eta gainerako % 14,9ak beste arrazoi zehaztugabe batzuk eman ditu.

Aurreko urteetako datuekin konparatuz gero, behera egin du lanaldi partziala lanaldi osoko lanik topatu ez duelako egiten duten gazteen ehunekoak.

### 3.9. taula

LANALDI PARTZIALEAN LAN EGITEN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK LANALDI HORRETAN LAN EGITEKO DITUZTEN ARRAZOIEN BILAKAERA (%)

Zergatik duzu lanaldi partzialeko enplegua?*				
(%)	2011	2013	2015	2017
Lanaldi osoko enplegurik aurkitu ez duzulako	59,3	66,0	62,6	45,6
Familiako betebeharrak dituzulako (seme-alabak, gurasoak edo beste senideak zaindu beharra)	4,8	6,3	3,8	6,2
ERE edo enpresak ezarritako derrigorrezko lanaldi murrizketa duzulako	***	0,6	3,1	3,3
Lanaldi partziala izatea nahiago duzulako, besterik gabe**	17,4	10,4	17,2	30,0
Bestelako arrazoiengatik	16,7	12,8	12,8	14,9
Ed/Ee	1,8	3,9	0,6	0,0
Guztira	100	100	100	100
(n)	139	136	160	147

\* Lanaldi partzalean lan egiten dutenei egindako galdera.

\*\* Lanaldi partziala beste lan batekin edo ikasketekin bateratu ahal izateko edo lanaldi partziala nahiago dutelako hartzen ditu.

\*\*\* 2011n ez zen erantzun hori eskaini.


Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Lanaldi partziala lanaldi osoko lanik topatu ez dutelako egiten duten gazteen ehunekoak behera egin duen arren, Europar Batasunean baino handiagoa da Euskadin; izan ere, Europan 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 29,7k lan egiten du lanaldi partzalean lanaldi osoko lanik topatu ez duelako, eta Euskadin, berriz, % 45,6k.

Alde handiak daude Europako herrialdeen artean. Europa hegoaldeko herrialde gehienetan arrazoi horregatik egiten du lanaldi partzialeko lana gazteen erdiak baino gehiagok.

## 3.7. irudia

LANALDI OSOKO LANIK TOPATU EZ DUTELAKO LANALDI PARTZIALEAN ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, LANALDI PARTZIALEAN LAN EGITEN DUTEN GAZTE GUZTIEKIKO. EUSKADIKO ETA EBKO DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)\*



\* Europar Batasuneko datuek 15 eta 29 urte bitarteko gazteen egoera adierazten dute. Estonia eta Letoniako datuak 2016koak dira, eta Lituaniakoak, berriz, 2014koak.

Iturria: Eurostat, Gazteriar buruzko estatistikak (*Database:Youth*).


Sexuaren araberako analisiak erakusten digu Euskadin lanaldi partzian lan egiten duten emakume gazteen erdia lanaldi osoko enplegurik topatu ez duelako dagoela egoera horretan, eta proportzio hori gizonena baino nabarmen handiagoa da (lanaldi partzian lan egiten duten emakume gazteen % 49,9k eman du arrazoi hori, eta lanaldi partzian lan egiten duten gizon gazteen % 37,3k). Gizonezkoek baino ehuneko handiagoan adierazten dute emakumeek seme-alabak zaintzeko edo mendekotasuna duten adinekoak zaintzeko egiten dutela lanaldi partzian lan (lanaldi partzian lan egiten duten emakumeen % 8,6k, eta lanaldi hori egiten duten gizon gazteen % 1,6k). Adierazi behar da, bestalde, seme-alabak edo mendekotasuna duten adinekoak zaindu beharraren arrazoiak ematen dutela,

batik bat, seme-alabak dituzten gazteek: lanaldi partzialean lan egin eta seme-alabak dituen hiru pertsonatik batek (% 33,5ek) adierazten du seme-alaba horiek zaintzeko egiten duela lan lanaldi partzialean.

Gazteek astean lan egiten dituzten orduen kopurua aztertzen baldin badugu, ikusten dugu gehienez 30 lanordu egiten dituela gazteen % 27,0k, astean 31 eta 40 ordu bitartean lan egiten dituela % 50,8k, eta astean 40 ordu baino gehiago lan egiten dituela % 20,8k. Gainerako % 1,4k ez du erantzun.

### 3.8. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK ASTEAN EGITEN DITUZTEN LANORDUAK (%)



Lanaldi motak erabakitzen du, oro har, zenbat lanordu egingo diren. Lanaldi partzialean lan egiten dutenen erdiak baino gehiagok 20 lanordu egiten ditu gehienez astean (lanaldi partzialean lan egiten duten gazteen % 53,5ek). Bestalde, lanaldi osoan lan egiten duten hamar gaztetik hiruk 40 lanordu baino gehiago egiten dituzte astean (lanaldi osoan lan egiten duten gazteen % 30,3k).

### 3.10. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK ASTEAN EGITEN DITUZTEN LANORDUAK, LANALDI MOTAREN ARABERA (%)

Batez beste, zenbat ordu egiten duzu lan astero, gutxi gorabehera?*			
(%)	Guztira	Lanaldi mota	
		Lanaldi osoa	Lanaldi partziala
10 ordu edo gutxiago	3,4	0,0	9,8
11 eta 20 ordu artean	12,7	0,0	43,7
21 eta 30 ordu artean	10,9	1,5	32,5
31 eta 40 ordu artean	50,8	67,9	11,3
41 eta 50 ordu artean	18,9	27,2	0,0
51 ordu edo gehiago	1,9	2,8	0,0
Ed/Ee	1,4	0,7	2,7
Guztira	100	100	100
(n)	517	363	147

\* Gaur egun lanean ari direnei egindako galdera.

Batez beste lanordu gutxien egiten dituzten taldeak dira, noski, lanaldi partzialeko ehuneko handienak dituztenak: emakumeak, 25 urte baino gutxiago dituzten pertsonak, atzerrian jaiotakoak eta seme-alabak dituzten pertsonak.

Lanaldi partzialean lan egiten dutenen, eta, zehazki, astean gehienez 30 lanordu egiten dituzten gazteen ehunekoak behera egin du 2015. urtetik 2017. urtera; izan ere, % 33,9 ziren 2015ean eta % 27,0 izan dira 2017an.

Kontratuaren edo lan-harremanaren motak ere badu eraginik astean egiten diren lanorduetan. Norberaren kontura lan egiten dutenen eta kontraturik ez dutenen artean daude alderik handienak. Autonomo edo enpresariaren erdiak baino gehiagok (% 54,5ek) esaten du 40 ordu baino gehiago lan egiten dituela astean. Beste muturrean, kontraturik ez dutenen ia erdiak (% 48,9k) esaten du 20 ordu egiten dituela gehienez astean.

### 3.7. ENPLEGUAREN ETA IKASKETEN ARTEKO LOTURA

Lanpostua betetzen duenak ikasitakoarekin edo eskuratutako prestakuntzarekin zerikusia duen lana da ikasketekin lotutakoa. 2017. urtean, 16 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetatik seik (% 60,1ek) dute ikasi dutenarekin edo eskuratu duten prestakuntzarekin zerikusia duen lana, hau da, ikasketekin loturiko lana. Ikasketekin lotura handia duen lana duela adierazten du gazte horien % 43,3k. Azken urteetako ehuneko handiena da.

#### 3.11. taula

16-29 URTEKO GAZTEEN EGUNGO ENPLEGUAREN ETA EGIN DITUZTEN IKASKETEN ARTEKO LOTURAREN BILAKAERA (%)

Zein neurritaraino esango zenuke zure lana zure prestakuntzari lotuta dagoela?*					
(%)	2008	2011	2013	2015	2017
Oso lotuta	22,0	20,1	22,3	33,1	43,4
Nahikoa lotuta	29,5	38,6	30,6	19,6	16,7
Pixka bat bakarrik	15,4	20,5	21,5	13,0	9,3
Batere ez	32,7	20,3	23,9	33,7	29,9
Ed/Ee	0,3	0,5	1,7	0,6	0,6
Guztira	100	100	100	100	100
(n)	615	501	419	468	517

\* Gaur egun lanean ari direnei egindako galdera.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma 2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017 datuetarako).

Emakumeek eta gizonek ez dute alde handirik ikasketekin lotutako lanaren parametroetan. Ikasketa-mailak dakartzala alderik handienak. Goi-mailako ikasketak egin dituzten gazteen erdiak baino gehiagok (% 56,2k) esaten du ikasitakoarekin lotura handia duen lan bat egiten duela, eta gutxiengo dira (% 21,9) ikasketa-maila hori izan ez eta ikasitakoarekin lotutako lana egiten dutenak.

Ikasketa motari begiratzen baldin badiogu, unibertsitate-tituluak dituztenen % 59,3k adierazten du ikasitakoarekin lotura handia duen lana egiten duela. Ehuneko hori % 46,8ra jaisten da prestakuntza-zikloren bat amaitu eta gaur egun lan egiten ari diren gazteen artean, eta % 15,8ra murrizten da oinarritzko ikasketak (DBH edo baliokidea) edo Batxilergoa amaitu dutenen artean.



**3.12. taula**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN PRESTAKUNTZAREN ETA ENPLEGUAREN ARTEKO LOTURA, AMAITUTAKO IKASKETA MOTAREN ARABERA (%)

Zein neurritaraino esango zenuke zure lana zure prestakuntzari lotuta dagoela?*				
(%)	Guztira	Amaitutako ikasketa mota		
		Derrigorrezkoak edo Batxilergoa	Lanbide heziketako zikloak	Unibertsitate-ikasketak
Oso lotuta	43,4	15,8	46,8	59,3
Nahikoa lotuta	16,7	13,6	19,4	16,6
Pixka bat bakarrik	9,3	6,5	9,2	11,3
Batere ez	29,9	62,3	24,6	12,3
Ed/Ee	0,6	1,8	0,0	0,4
Guztira	100	100	100	100
(n)	517	135	161	215

\* Gaur egun lanean ari direnei egindako galdera.

Zehaztu behar da, ordea, aldeak daudela erdi-mailako prestakuntza-zikloak egin dituztenen eta goi-mailako zikloak egin dituztenen artean. Goi-mailako prestakuntza-zikloren bat egin duten gazteen erdiak (% 50,8k) esaten du ikasitakoarekin oso lotutako lana egiten duela, eta datu horri gehitzen baldin badiogu beren lanak ikasi dutenarekin lotura nahikoa duela esaten dutenen ehunekoa, ez da alderik ikusten goi-mailako prestakuntza-zikloak eta unibertsitate-ikasketak egin dituztenen artean (% 71,0 eta % 70,9, hurrenez hurren). Ezin da ikasketa-alor jakinen arabera analisi zehatzik egin, 30 urteko pertsona gutxi daudelako lanean kategoria batzuetan.

Bada alderik dakarren beste aldagaien bat, jaiolekua esaterako; hala ere, aldagai horrek lotura estua du, era berean, ikasketa mailarekin, ikasketekin lotutako enplegu-ehuneko txikiagoak izan arren, Euskadin jaio direnek baino unibertsitate-ikasketen ehuneko txikiagoak baitituzte atzerrian jaio diren gazteek.

Gogoratu behar da, edonola ere, gazteen balorazio subjektiboak direla horiek guztiak, eta, horren ondorioz, enplegu eta ikasketa berberak izan arren, egiten duten lanaren eta eskuratu duten prestakuntzaren arteko loturaren gaineko pertzepzio desberdinak izan ditzaketela.

### 3.8. BATEZ BESTEKO SOLDATA ETA SOLDATAREN GAINEKO BALORAZIO SUBJEKTIBOA

16 eta 29 urte bitartean dituzten gazte okupatuen batez besteko soldatak gutxigatik gainditzen du mila euroko langa; zehazki, 1093 eurokoa da hilean, batez beste.


Argitu behar da gazteek adierazitako soldata garbiak direla, eta lanean ari diren gazteen % 14,2k ez diola galdera horri erantzun. Soldaten mailari begiratuta, lanbide artekoa baino soldata apalagoa jaso dute lanean ari diren gazteen % 18,8k. Lanbide arteko gutxieneko soldata, 2017. urtean, 707,70 eurokoa izan da hilean<sup>5</sup>. Lanbide arteko gutxieneko soldatari dagokiona baino soldata handiagoa jaso arren, ez da hilean 1000 euro irabaztera iristen gazteen % 16,4. Guztira, hilean 1000 euro baino gutxiago irabazten du lanean ari diren gazteen % 35,2k. Horrez gainera, 1000 eta 1200 euro irabazten du hilean gazteek % 21,3k; 1201 eta 1500 euro bitartean irabazten du hilean % 14,5ek, eta % 15ek soilik irabazten ditu 1500 euro baino gehiago hilean.

Batez besteko soldata hori aurreko urteetako baino zertxobait handiagoa da; izan ere, hilean 998 eurokoa zen 2011. urtean; hilean 966 eurora murriztu zen 2013. urtean; berriro hilean 996 euro izan arte igo zen 2015. urtean; eta 100 euroan igo da 2017an, hilean 1093 eurokoa dela kalkulatu baita.

Emakume gazteek baino soldata handiagoak jasotzen dituzte gizon gazteek (1025 euro eta 1157 euro, hurrenez hurren). Azken urteetan errepikatzen ari den joera da hori, baina 2015. urtearekin alderatuta, gizonezkoenek baino goera handiagoa izan dute emakumeen soldatek, eta murriztu egin da, ondorioz, soldaten arteko aldea.

### 3.9. irudia

16-29 URTEKO LANGILE GAZTEEN BATEZ BESTEKO SOLDATAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma).

Emakumeen batez besteko soldataren zenbatekoak gora egitearen arrazoietako bat da behera egin duela emakumeek egindako lanaldi partzialen ehunekoak. Kontuan izan behar da lanaldi osoan lan egiten dutenen batez besteko soldata (1288 euro) lanaldi partzian lan egiten dutenen doublea dela (644 euro).

Lanaldi mota eta jaiolekua dira soldatan alderik handiena dakarten aldagaiak. Atzerrian jaiotakoek baino soldata nabarmen handiagoak dituzte Euskadin jaio direnek (1125 eurokoa Euskadin jaiotakoek, eta atzerrian jaiotakoek hilean 891 euro, batez beste).

Aldeak ikusten dira, era berean, titulazioari begiratuta. Goi-mailako titulaziorik ez dutenek baino gehiago kobratzen dute ikasketak horiek dituztenek (1178 goi-mailako ikasketak dituztenek, eta 955 ikasketak horiek ez

<sup>5</sup> Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO - BOE): 316. zk., 2016ko abenduaren 31koa: *Abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretua, 2017rako lanbide arteko gutxieneko ordainsaria finkatzen duena* [linean] Hemen eskuragarri: <http://www.boe.es/boe/dias/2016/12/31/pdfs/BOE-A-2016-12598.pdf> [Kontsulta: 2018/03/20]

dituztenek), eta prestakuntza-zikloak egin dituztenek baino zertxobait gehiago irabazten dute unibertsitate-ikasketak egin dituztenek (1196 euro unibertsitate-tituluak dituztenek eta 1117 euro prestakuntza-zikloak ikasitakoek).

Norberaren konturako lana egiten dutenek dituzte batez besteko soldata handienak (1209 euro hilean); beste muturrean, kontraturik gabe lan egiten dutenek jasotzen dituzte soldata apalenak (622 euro hilean). Kontratu mugagabea edo aldizkako kontratu finkoa dutenek eta kooperatibistek 1194 euro irabazten dituzte hilean, eta aldi baterako kontratuak dituztenek 1056 euro hilean.

Soldataren gaineko balorazioa egiteko eskatuta, gazteen gehiengoari (% 63,6ri) iruditzen zaio ondo edo oso ondo ordainduta dagoela.

Gazteen gehiengoak ondo ordainduta izatearen sentipena du aztertutako talde guztietan. Batez besteko soldatak gora egin ahala, gero eta handiagoa da ondo ordainduta izatearen sentipena.

### 3.13. taula

16 ETA 29 URTEKO GAZTEEK ONDO ORDAINDUTAKO LANA  
IZATEAREN PERTZEPZIOA, SOLDATA-TARTEEN ARABERA (%)

Eta zein neurritaraino uste duzu zure lana ondo ordainduta dagoela?*				
(%)	Guztira	Soldata tarreak		
		1000 euro baino gutxiago	1000 eta 1200 euro artean	1200 euro baino gehiago
Oso ondo edo nahiko ondo ordainduta	63,6	49,5	60,0	83,1
Pixka bat edo batere ez ondo ordainduta	33,8	48,3	40,0	14,8
Ed/Ee	2,6	2,2	0,0	2,1
Guztira	100	100	100	100
(n)	517	175	109	158

\* Gaur egun lanean ari direnei egindako galdera.

Horrenbestez, soldata apala dutenen aldean, logikoa da batez besteko soldata handia dutenek ondo ordainduta daudela pentsatzea. Emakumeek baino ehuneko handixeagoan pentsatzen dute gizonek ondo ordainduta daudela (gizonen % 65ek eta emakumeen % 62k); goi-mailako titulaziorik ez dutenek baino ehuneko handiagoan pentsatzen dute ondo ordainduta daudela titulazio hori dutenek (% 56,7 eta % 67,7, hurrenez hurren); eta prestakuntza-zikloak egin dituztenek baino ehuneko handiagoan pentsatzen dute ondo ordainduta daudela unibertsitate-ikasketak dituztenek (% 61,8 eta % 69,3, hurrenez hurren). Horrez gainera, lanaldi partzian lan egin eta ondo ordainduta daudela sentitzen dutenen ehuneko txikiagoa da lanaldi osoan lan egin eta ondo ordainduta daudela sentitzen dutenena baino (% 60,0 eta % 65,4, hurrenez hurren), eta atzerrian jaiotakoek baino ehuneko handiagoan uste dute Euskadin jaiotakoek ondo ordainduta daudela (Euskadin jaiotakoen % 64,8k eta atzerrian jaiotakoen % 58,8k).

Norberaren konturako erregimenean lan egiten dutenak dira diru-sarrerak gora egin ahala ondo ordainduta izatearen sentipena handitzen dela adierazten duen joera horren salbuespena; izan ere, hilean diru-sarrera handienak dituen arren, talde horrek du ondo ordainduta izatearen sentipen-ehuneko txikiena (erregimen horren daudenen % 50,7k uste du ondo ordainduta dagoela). Lan egiteko eman behar duten denbora eta ahalegina da, itxura batean, balorazio hori egitearen arrazoia (norberaren konturako langileen erdiak baino gehiagok adierazten du astean 40 ordu baino gehiago lan egiten dituela).

Oro har, ondo ordainduta izatearen sentipena gero eta handiagoa da 2013. urteaz geroztik, eta sentipen horrek soldatekin batera egin du gora.

### 3.10. irudia

NORBERAREN LANA ONDO ORDAINDUTA IZATEAREN SENTIPENAREN ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN BATEZ BESTEKO SOLDATAREN BILAKAERA



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Gazteek beren ordainsariei buruzko iritzia ematen dutenean, hau da, ondo ordainduta ala ordainsari apalak jasotzen dituztela esaten dutenean, kontuan izan behar da krisialdi ekonomikoko urteetatik gatzela eta urte horietan, maiz, soldaten izozteak, murrizketak eta antzeko neurriak pairatu izan direla.

Infoempleo-Adecco 2016 txostenaren arabera<sup>6</sup>, urteko soldata gordinaren batez bestekoa 25.368 eurokoa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan, baina gazteek, ikerlan honetan bertan adierazi dutenaren arabera, soldata askoz ere apalagoak dituzte.

## 3.9. ENPLEGUA GALTZEKO EDO PREKARIO BIHURTZEKO ARRISKUA

Lanean ari diren gazteen ia laurdenak uste du nahiko edo oso gertagarria dela urtebeteko epean enplegua galtzea; zehazki, % 22,6k uste du enplegua gal dezakeela epe horretan.

Ez da harrizkoa hori hala izatea, aldi baterako kontratua baitu gazteen ia erdiak. Aldi baterako kontratua dutenen eta kontraturik gabe lan egiten dutenen artean daude urtebetean enplegua galtzeko arriskua ikusten duten pertsona gehien (aldi baterako kontratua dutenen % 34,6k eta kontraturik gabekoen % 35,4k uste dute nahiko edo oso gertagarria dela lanik gabe gelditzea). Kontratu mugagabea dutenek eta norberaren kontrako erregimenean lan egiten dutenek ere pentsatzen dute, ehuneko apalagoetan bada ere, enplegua galtzeko arriskua dutela; izan ere, kontratu mugagabea eta aldizkako kontratu finkoa dutenen eta kooperatibista direnen % 6,4k uste du enplegua gal dezakeela 2018. urtean, eta horixe bera uste du autonomoen edo enpresarien % 16,2k.

<sup>6</sup> Infoempleo-Adecco txostena (2016): *Oferta y demanda de empleo en España 2016* [linean] Webgune honetan eskuragarri: <https://iestatic.net/infoempleo/documentacion/Informe-Infoempleo-Adecco-2016.pdf> [Kontsulta: 2018/07/18]

Lanean urtebete baino gutxiago daramatenen herenak (% 32,1ek) uste du oso gertagarria dela lan hori galtzea urtebeteko epean; enplegua galtzeko arriskuaren pertzepzioa dutenen ehuneko hori erdira murrizten da lanean denbora gehiago daramatenen artean (lanean urtebete eta hiru urte bitartean daramatenen % 16,4k eta beren lanpostuan hiru urte baino gehiago daramatenen % 14,0k uste du hori gerta dakiokoela).

Gizonen aldean, lana galtzeko arrisku handiagoa ikusten dute emakumeek (emakumeen % 27,0k ikusten du arrisku hori eta gizonen % 18,4k); 25 urte baino gutxiago dutenek ere lana galtzeko arrisku handiagoa ikusten dute, 25 eta 29 urte bitarteko adina dutenek baino (% 26,8 eta % 20,6, hurrenez hurren); eta unibertsitate-ikasketak dituztenek, azkenik, arrisku handiagoa sumatzen dute, prestakuntza-zikloak ikasi dituztenek baino (unibertsitate-ikasketak egin dituztenen % 29,4k eta prestakuntza-zikloak egindakoen % 18,5k).


Bestalde, lanean ari diren 30 urtetik beherako gazteen % 6,4k uste du, enplegua galdu ez arren, nahiko edo oso gertagarria dela aurten bere lan-baldintzak okertzea (soldata, ordutegia, etab.).

Oro har, eta gainerako taldeen aldean, lan-baldintzak okertzeko arrisku handiagoa hautematen dute enplegua galtzeko arrisku gutxien ikusten duten taldeek, baina bada salbuespenik; lan-baldintzak okertzeko arriskuaren pertzepzioa oso antzekoa da unibertsitate-tituluak dituzten pertsonen eta lanbide-ikasketak dituzten pertsonen artean (pertzepzio hori % 6,3koa eta % 6,0koa da, hurrenez hurren).

Lanean ari diren 30 urtetik beherako gazteen % 29,0k uste du urtebeteko epean enplegua galdu dezakeela edo hura prekario bihurtzeko dakiokoela. Aurreko urteetako baino txikiagoa da ehuneko hori, eta 10 puntu murriztu da 2013. urtetik 2017. urtera.

### 3.11. irudia

LANEAN ARI DIREN 16-29 URTEKO GAZTEEN ENPLEGUA GALTZEKO EDO PREKARIO BIHURTZEKO ARRISKUAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

## 3.10. LANAREKIKO POZTASUNA ETA LANEZ ALDATZEKO GOGOIA

Hiru gaztetik bik (% 63,7k) esaten dute pozik daudela gaur egun egiten duten lanarekin, eta lanez aldatu nahiko luke hiru gaztetik batek (% 32,3k).

Gazteen zer taldek edo multzok dute lana aldatzeko gogorik handiena? Lanaldi partzalean lan egiten dutenek, kontraturik gabekoek, ikasketekiko lotura txikia edo ezdeusa duten lanak egiten dituztenek eta gaizki ordainduta sentitzen direnek.

Beste muturrean, hauek dute poztasun handiena beren lanarekin: beren kontura lan egiten dutenak, ikasitakoarekin lotura nahiko edo handiko enpleguak dituztenak eta ondo ordainduta daudela uste dutenak.

### 3.14. taula

LANEAN ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK BEREN EGUNGO LANAREKIN DUTEN POZTASUNA, LANALDI ETA KONTRATU MOTAREN, IKASKETEKIKO DUEN LOTURAREN ETA ONDO ORDAINDUTA IZATEAREN SENTIPENAREN ARABERA (%)

Oro har, pozik zaude lanean ala nahiago zenuke aldatzea, aukerarik izanez gero?*						
(% horizontalak)	Lanarekin duen poztasuna					(n)
	Pozik dago	Nahiago luke aldatzea, aukerarik izanez gero	Ed/Ee	Guztira		
Guztira		63,7	32,3	4,0	100	517
Lanaldi mota	Lanaldi osoa	68,8	28,0	3,1	100	363
	Lanaldi partziala	52,3	43,4	4,2	100	147
Kontratu mota	Mugagabea, finkoa**	65,1	31,1	3,8	100	188
	Aldi baterakoa	62,3	33,3	4,3	100	244
	Norbere kontura	73,5	24,5	2,0	100	43
	Kontratu barik	55,1	44,9	0,0	100	26
Lana eta formakuntzaren arteko lotura	Oso+nahikoa lotuta	71,1	26,4	2,5	100	310
	Pixka bat+batere ez	52,2	41,9	5,9	100	204
Ondo ordainduta izatearen sentipena	Oso+nahikoa ondo	76,1	21,6	2,3	100	331
	Pixka bat+batere ez	41,2	52,6	6,2	100	173

\* Galdera hau bakarrik egin zaie gaur egun lanean daudenei.

\*\* Aldizkako finkoak eta kooperatibistak ere sartzen dira.

Ahal izanez gero, lana aldatuko luketenen erdiak baino gehiagok (% 59,0k) esaten du kontratu-baldintzak, soldata, ordutegia, segurtasuna eta beste alderdi batzuk hobetzeko aldatu nahi duela lanez. Bestalde, lanez aldatu nahi dutenen % 26,2k esaten du bere kualifikazioarekin, prestakuntzarekin edo gaitasun pertsonalekin lotura handiagoa duen lana izan nahi duela.

Oso pertsona gutxik aipatzen du bestelako arrazoirik. Lanez aldatu nahi duten gazteen % 6,9k esaten du beste zerbait probatu nahi duela, erronka berriak behar dituela; % 2,1ek esaten du egungo lana galtzeko beldurra edo ziurtasuna duela, eta beste lan bat bilatu nahi duela hori gertatu baino lehen; % 1,5ek esaten du lan-giro txarra duela lantokian edo ez duela harreman onik nagusiekin eta/edo lankideekin; % 1,0k esaten du ez zaiola egiten duen lana gustatzen; % 0,7k adierazi du beste herriren batean lan egin nahi duela; eta beste arrazoi batzuk eman ditu % 2,5ek.

Gaizki ordainduta daudela uste dutenen artean, lan-baldintzak hobetu nahi dituela adierazi du % 70,3k. Eta gaur egun egiten duten lanak beren ikasketekin harreman txikia edo deuseza duela esaten dutenen artean, % 37,6 dira beren kualifikazioarekin, prestakuntzarekin edo gaitasun pertsonalarekin lotura handiagoa duen lan bat eskuratu nahi dutenak. Batez bestekoa baino hamar puntu handiagoko ehunekoak dituzte bi talde edo multzo horiek.

### 3.15. taula

LANEAN ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK BEREN EGUNGO ENPLEGUA ALDATU NAHI IZATEKO EMATEN DITUZTEN ARRAZOIAK, EGUNGO ENPLEGUA IKASKETEKIKO DUEN LOTURAREN ETA ONDO ORDAINDUTA IZATEAREN SENTIPENAREN ARABERA (%)

Zein izango litzateke lanez aldatzeko arrazoi nagusia?*					
(%)	Guztira	Lana eta formakuntzaren arteko lotura		Ondo ordainduta izatearen sentipena	
		Oso + nahikoa lotuta	Pixka bat + batere ez	Oso + nahikoa ondo	Pixka bat + batere ez
Lan-baldintza hobeak nahi dituzu (kontratuan, soldatan, ordutegian, segurtasunean...)	59,0	66,3	52,0	42,1	70,3
Zure prestakuntzarekin edo gaitasunekin lotuago dagoen lana nahi duzu	26,2	14,3	37,6	42,8	14,5
Beste arrazoi bat	14,8	19,4	10,4	15,1	15,2
Guztira	100	100	100	100	100
(n)	165	82	83	70	92

\* Galdera hau bakarrik egin zaie gaur egun lanean ari diren eta aukera izanez gero aldatuko luketen gazteei.

Datuek 2011. urteaz geroztik izan duten bilakaerari begiratzen badiogu, ikusten dugu behera egin duela ahal izanez gero lanez aldatuko luketen gazteen ehunekoak; izan ere, ehuneko hori % 47,9koa izan zen 2011. urtean, % 38,2koa 2013. urtean, % 36,5koa 2015. urtean eta, azkenik, % 32,3koa izan da 2017. urtean.

Lanez aldatu nahi izateko arrazoiak berberak dira aztertutako urte guztietan: lan-baldintzak hobetu nahia da lehen arrazoiak, eta prestakuntzarekiko lotura handiagoa duen lana lortzea bigarrena. Emandako erantzunen % 80 baino gehiago biltzen dute bi arrazoi horiek.


## 3.11. BESTE ENPLEGU BAT BILATZEKO EKIMENA

Beste enplegu bat bilatzen dabil lanean ari diren gazteen ia laurdena (lanean ari diren gazteen % 23,3, zehazki). Ehuneko hori 2015koa baino zertxobait txikiagoa da (% 29,4) eta gertuago ditu 2013ko ehunekoak (% 22,2) eta 2011koa (% 23,2).

Lan-baldintza okerrenak dituzten gazteek dute lana bilatzeko ekimen handiena: kontraturik gabe edo aldi baterako kontraturen batekin lan egiten dutenak, lanaldi partzialeko kontratuak dituztenak, ikasitakoarekiko lotura txikia edo deuseza duen lana dutenak, gaizki ordainduta daudela uste dutenak, urtebetean lana galtzea nahiko edo oso gertagarria dela uste dutenak eta, batik bat, ahal izanez gero lanez aldatuko luketela adierazi duten gazteak.

### 3.12. irudia

BESTE ENPLEGUREN BATEN BILA ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO LANGILEAK, KONTRATU ETA LANALDI MOTAREN ARABERA, EGUNGO ENPLEGUAK IKASKETEKIKO DUEN LOTURAREN ARABERA, ONDO ORDAINDUTA IZATEAREN SENTIPENAREN ARABERA, EGUNGO ENPLEGUAREKIN DUTEN POZTASUNAREN ARABERA ETA ENPLEGUA GALTZEKO ARRISKUAREN ARABERA (%)



Erantzunek adierazten dute, era berean, lana bilatzeko ekimen handiagoa dutela emakumeek, gizonen baino (emakumeen % 26,8k eta gizonen % 20,0k); unibertsitate-ikasketak dituztenek, lanbide-heziketako tituluren bat dutenek baino (unibertsitate-ikasketak dituztenen % 25,9k eta lanbide-heziketako ikasketak dituztenen % 18,9k); eta atzerrian jaio diren gazteak, Euskadin jaio direnak baino (atzerrian jaiotakoek % 35,7k eta Euskadin jaiotakoek % 21,5ek).

Lan bila ari diren hiru gaztetik bi (% 64,6) enplegu-eskatzailerak dira Lanbiden, Euskal Enplegu Zerbitzuan.

Pertsona horien % 98,3 lan bila ari da Euskadin, baina horrek ez du esan nahi guztiak Euskadin soilik bilatzen ari direnik: pertsona horien % 17,3k Espainiako gainerako lurraldeetara zabaldu du bere bilaketa-eremua eta % 10,6k atzerria.

Pertsona horietako asko (% 45,0) sei hilabete baino gutxiago darama lan bila. Lan bila ari direnen % 18,3 zazpi hilabete eta urtebete bitartean ari da jardun horretan, eta urtebetetik gora ari da % 29,1. Gainerako % 7,6ak ez du erantzunik eman.

Beste lan bat urtebete baino denbora luzeagoan bilatzen ari direnen ehunekoak gora egin du, pixkanaka, 2011. urteaz geroztik: lan bila ari zirenen % 14,3 ziren urte hartan, % 20,8 izan ziren 2013an, % 25,6 izan ziren 2015ean, eta, azkenik, % 29,1 izan dira 2017an.

Lana aurkitzeko zer aukera ikusten duten galdetu ondoren, sei hileko epean aurkituko duela uste du lan bila ari direnen % 49,0k. Ehuneko hori 2015ean izandakoaren oso antzekoa da (% 51,2), baina aurreko urte batzuetan izandakoa baino nabarmen handiagoa, % 36,0koa izan baitzen 2011. urtean, eta % 22,9koa 2013. urtean.



Enplegua lortzeko itzaropena edo konfiantza handiagoa da prestakuntza-zikloak ikasi dituztenen artean, unibertsitate-ikasketak egin dituztenen artean baino (% 55,0 eta % 40,9, hurrenez hurren).

### 3.12. 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN LAN-BALDINTZAK

30 urtetik beherako gazteen lan-baldintzak aztertu ditugu orain arte. Adinak gora egin ahala baldintza horiek hobera egiten duten ikusiko dugu orain, eta hori aztertzeko, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen lan-baldintzekin konparatuko ditugu 30 urtetik beherakoen lan-baldintzak.

Lehenik eta behin, gogoratu behar da adin-bitarte horietan diren pertsonen zer ehunekorentzat den lan egitea bere okupazio nagusia, alde handiak baitaude batetik bestera: 30 urte bete aurreko pertsonen % 35,4 ari da lanen bat egiten, eta ehuneko hori % 73,3koa da 30 eta 34 urteko adin-taldean.

#### 3.12.1. Egungo enplegua eskuratzeko modua

30 urtetik gorako eta beherako pertsonen ez dute alde handirik egun duten enplegua eskuratzeko moduan. Senideak eta pertsona ezagunak dira, bi taldeetan, enplegua eskuratzeko lehen bitartekoak, eta zuzeneko bilaketa pertsonala da lana aurkitzeko bigarren bidea. 30 urtetik gorako adin-taldean behera egiten du egun betetzen duten lanpostua praktiken, beken edo ikastegiren bateko eskaintzen bidez eskuratu dutenen ehunekoak. Lehen enplegua eskuratzeko bideak izan ohi dira horiek. Era berean, txikiagoa da enplegua bilatzeko web-orriak erabili dituztenen ehunekoa, baliabide nahiko berria delako.

#### 3.16. taula

LANEAN ARI DIREN 16 ETA 29 URTEKO GAZTEEK ETA 30-34 URTEKO PERTSONEK EGUNGO ENPLEGUA ESKURATZEKO MODUAN AGERI DUTEN ALDEA (%)

Nola lortu zenuen egungo lana?*		
	16-29 urte	30-34 urte
Senide, lagun edo ezagun baten bidez	32,3	33,9
Zuk zeuk zuzenean (iragarritako lan-eskaintzei erantzuten, zure "curriculum"a enpresetara bidaltzen, iragarkiak jartzen...)	25,0	28,0
Beka baten edo ikasketetako praktikaldi baten ondorioz	13,8	6,9
Enplegua bilatzeko web orrien bidez	7,3	4,5
Ikasketa-zentrotik eskaini zizuten	4,1	2,3
ETT baten bidez	3,6	4,5
Lan-zerbitzu publiko edo lanerako orientazio zerbitzu publiko baten bidez	2,0	2,6
Administraziorako oposizio edo lan-poltsen bidez	5,6	6,4
Beste bide batetik	5,9	10,0
Ed/Ee	0,3	0,9
Guztira	100	100
(n)	517	444

\* Gaur egun lanean ari direnei egindako galdera.

30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ikasketa-mailari begiratzen baldin badiogu, goi-mailako titulaziorik ez dutenen ia erdiak senideen edo pertsona ezagunen bidez eskuratu dute egungo enplegua, eta batez bestekotik gorakoa da, adin-talde horretan, egungo enplegua aldi baterako laneko enpresaren baten bidez lortu dutenen ehunekoa. Goi-mailako ikasketak dituztenen artean, berriz, zuzeneko bilaketa pertsonalak garrantzi handiagoa du, eta hori da enplegua topatzeko bide nagusia. Gehiago dira, era berean, egungo lana oposizioen, beken, praktiken edo enplegu-zerbitzu publikoen bidez lortu dutenak. Datu hauek berretsi egiten dute, 30 urtetik beherako gazte okupatuen datuak aztertzean ikusi zen moduan, aldeak daudela ikasketa-mailaren arabera.

### 3.12.2. Antzintasuna egungo enpleguan


30 eta 34 urte bitarteko pertsona okupatuen erdiak baino gehiagok (% 57,1ek) esaten du hiru urte baino gehiago daramatzala bere egungo enpleguan. Urtebete eta hiru urte bitartean darama egungo lanean % 19,9k, urtebete baino gutxiago darama % 21,9k (sei hilabete baino gutxiago % 13,5ek eta sei hilabete eta urtebete bitartean % 8,4k). Gainerako % 1ek ez du erantzun.

Hemen alde handiak ikusten dira 30 urtetik gorakoen eta beherakoen artean, egungo enpleguan hiru urte baino gehiago daramaten pertsonen ehunekoa, 30 eta 34 urte bitarteko adin-taldean, 16 eta 29 urte bitarteko adin-taldekoaren doblea baino handiagoa baita.

Beren lanean hiru urte baino gehiago daramatenen datuen bilakaerari erreparatzen baldin badiogu, ikusten dugu datuak behera egin duela 2013 eta 2015 urteekiko, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen lan-antzintasunaren adierazleek adierazitakoaren ildoan. Egin diren kontratazio berrien ondorioz, pertsona okupatuen ehunekoak gora egin du 2017. urtean, eta pertsona horiek, noski, ez dute antzintasun handirik; beraz, lanean denbora luzea daramatenen pertsonen ehunekoak behera egin du zenbaketa orokorrean.

### 3.13. irudia

EGUNGO ENPLEGUAN HIRU URTETIK GORAKO ANTZINTASUNA DUTEN PERTSONEN BILAKAERA, 16 ETA 29 URTEKO GAZTEEN ETA 30-34 URTEKO PERTSONEN ADIN-TALDEETAN (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).


Ez da alde handirik ikusten gizonen eta emakumeen artean, ezta egindako ikasketen arabera; bai, ordea, jaiolekuaren arabera. Atzerrian jaiotako pertsonen baino enplegu egonkorragoa dute Euskadin jaiotakoek; izan ere, Euskadin jaio eta 30 eta 34 urte bitartean dituzten pertsonen % 60,5ek hiru urte baino gehiago daramatza bere lanean, eta ehuneko hori % 36,1ekoa da atzerrian jaiotakoaren artean.

### 3.12.3. Egungo enplegua: kontratu motak eta gizarte-segurantzaren kotizazioa

30 eta 34 urte bitarteko langileen erdiak baino gehiagok du kontratu egonkorra, hau da kontratu mugagabea edo aldizkako kontratu finkoa du edo kooperatibista da (% 53,9 dira, guztira). 16 eta 29 urte bitarteko gazte langileekin konparatuta, handiagoak dira kontratu mugagabeen eta norberaren konturako enpleguen zenbatekoak, eta txikiagoak aldi baterako kontratuen eta kontraturik gabekoen ehunekoak.

#### 3.14. irudia

LANEAN ARI DIREN 16 ETA 29 URTEKO GAZTEEK ETA 30-34 URTEKO PERTSONEK BEREN KONTRATU MOTETAN DUTEN ALDEA (%)




30 eta 34 urte bitarteko pertsonen erdiak baino gehiagok kontratu mugagabea edo antzeko lan-harremanen bat du, eta datu hori berretsi egiten da adin horretan lanean ari diren erdiak baino gehiagok egungo enpleguan hiru urte baino gehiago daramatzatela adierazten duen datuarekin. Lanean duten antzintasunaren arabera aztertzen baldin badugu 30 eta 34 urte bitarteko langileen kontratu motak, ikusten dugu beren lanpostuan hiru urte baino gehiago daramatzatenean % 70,0k (ikusitako aurreko puntuan adin horretako langile guztien erdia baino gehiago direla) kontratu mugagabea edo aldizkako kontratu finkoa dutela edo kooperatibistak direla, % 14,5ek norberaren konturako lan-erregimenean lan egiten duela, % 14,4k aldi baterako kontratua duela (bitarteko kontratuak edo obra nahiz zerbitzu jakinak egitekoak gehien-gehienak). Azkenik, kontraturik gabe lan egiten du % 1,1ek.

Lanpostuan hiru urte baino denbora gutxiago daramatenean artean, aldiz, hiru pertsonatik bat (% 32,2) bakarrik sartzen da kontratu mugagabeen, aldizkako kontratu finkoen eta kooperatibisten multzoan, aldi baterako kontratua du erdiak (% 49,9k), norberaren konturako erregimenean lan egiten du % 10,6k, eta kontraturik gabe lan egiten du % 4,9k. Gainerako % 2,4k ez du erantzun.

30 eta 34 urte bitarteko pertsonen azken urteetan izan dituzten kontratuen bilakaerak esaten digu behera egin duela kontratu mugagabea dutenen kopuruak, eta aldi baterako lana dutenen kopuruak, berriz, gora egin duela.

Aurreko puntuan adierazi dugun moduan, kontratazioen gorakada izan daiteke horren arrazoia, kontratu berri horiek, ziur asko, aldi baterakoak izango direlako.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Gizarte-segurantzaren kotizatzen duela esaten dute adin-bitarte horretan dauden pertsona gehienek (% 96,5ek). 30 urtetik beherakoena baino zertxobait handiagoa da ehuneko hori (% 91,4).

Euskadin jaio eta adin-bitarte horretan lanean ari diren gehienak (% 98,3) daude alta-egoeran gizarte-segurantzaren. Atzerrian jaio diren pertsona gehienek kotizatzen dute gizarte-segurantzaren, baina % 17,8k ez du kotizatzen. Ehuneko hori bat dator, erabat, kontraturik gabe lan egiten duten langile atzerritarren ehunekoarekin, % 17,8koa baita (ehuneko hori, ikusi dugun moduan, % 2,7koa da 30 eta 34 urteko pertsona guztiak aintzat hartuta, hau da, kontraturik gabeko langileen proportzioa askoz handiagoa da atzerritarren artean).

### 3.12.4. Norberaren konturako lana


Norberaren konturako erregimenean lan egiten du 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 12,9k. Autoenpleguaren proportzioa handiagoa da adin-talde honetan, 30 urtetik beherakoen artean baino (ehunekoa % 8,3koa da 16 eta 29 urte bitarteko langileen artean).

Europar Batasunean norberaren konturako erregimenean lan egiten duten 30 eta 34 urte bitarteko ehunekoa baino zertxobait handiagoa da (% 11,0koa da EBn). Herrialde europarren artean, Grezia eta Italia dira adin-tarte honetan norberaren konturako langile-ehuneko handienak dituzten herrialdeak. Beste muturrean, Danimarka, Kroazia eta Alemania dira autoenplegu-ehuneko txikienak dituztenak. Datu horien berri eman dugu lehenago, Europan 30 urtetik behera dituzten pertsonen norberaren konturako lanaren datuak konparatzean. Izan ere, Europan, Italia eta Grezia dira norberaren konturako langile gazteen ehuneko handienak dituztenak, eta Danimarka eta Alemania dira gazte autonomo eta enpresarien ehuneko txikienak dituztenak.

Danimarka eta Alemania dira, hain justu, Suediarekin, Herbehereekin, Erresuma Batuekin eta Estoniarekin batera, enplegu-tasa handienak dituzten herrialdeak Europar Batasunean (% 74tik gorako enplegu-tasak izan dituzte guztiek 2017an); beste muturrean, Italiak eta Greziak dituzte tasa apalenak (% 60tik beherakoak)<sup>7</sup>. Datu horiek ikusita, pentsa daiteke lan-eskasia orokorrari aurre egiteko modu bat dela norberaren konturako lana, eta ez, hainbeste, bokazioz egindako hautua.

### 3.16. irudia

EUSKADIN ETA EUROPAR BATASUNEAN NORBERAREN KONTURAKO ERREGIMENEAN LAN EGITEN DUTEN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA OKUPATUEN EHUNEKOEN KONPARAZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eurostaten lan-merkatuari buruzko datuak oinarri hartuta (*Database: Labour Market*).

<sup>7</sup> EUROSTAT, EBko estatistika-erakundea: *Database: Population and social conditions: Labour market* (lan-merkatuari buruzko estatistika-datuak) [linean] Hemen eskuragarri, ingelesez: <https://ec.europa.eu/eurostat/data/database> [kontsulta: 2018/08/16]

Norberaren konturako erregimenean lan egiten duen % 12,9 hori honela banatzen da: autonomoak edo enpresa propioa duten enpresariak dira % 9,7; autonomoen erregimenean daude, baina beste enpresa batentzat lan egiten du % 2,9k; eta gainerako % 0,3ak ez du erantzunik eman.

Beren enpresa propioa dutela aitortzen duten langileen ehunekoa handiagoa da 30 eta 34 urte bitartekoen artean (% 9,7), 30 urtetik beherakoen artean baino (% 6,3).

Horrez gainera, beren konturako erregimenean eta beren enpresa propioan nahiz beste enpresaren batean lan egiten dutenen ehunekoa handiagoa da 30 eta 34 urte bitarteko gizonen artean, adin horretako emakumeen artean baino, eta handiagoa da, era berean, atzerrian jaio direnen artean, Euskadin jaio direnen artean baino.

### 3.17. taula

NORBERAREN KONTURAKO ERREGIMENEAN LAN EGITEN DUTEN 30-34 URTE BITARTEKO PERTSONA OKUPATUAK, SEXUAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

Eta autonomoa edo enpresaria zara eta baduzu zeurea den enpresa, ala autonomoen erregimenean alta emanda duzu baina beste baten enpresan lan egiten duzu?*					
(%)	Guztira	Sexua		Jaiolekua**	
		Emakumeak	Gizonak	Euskadi	Atzerria
Autonomoa edo enpresaria zara eta baduzu zeurea den enpresa	9,7	8,6	10,6	9,1	13,5
Autonomoa, baina beste baten enpresan lan egiten	2,9	1,6	4,0	2,8	5,4
Ed/Ee	0,3	0,9	0,1	0,5	0,0
<b>AUTONOMOAK EDO ENPRESARIAK</b>	<b>12,9</b>	<b>11,1</b>	<b>14,7</b>	<b>12,4</b>	<b>18,9</b>
Gainerakoak (ez dute norbere kontura lan egiten)	87,1	88,9	85,3	87,6	81,1
Guztira	100	100	100	100	100
(n)	444	215	229	351	52

\* Lanean ari diren 30-34 urte bitarteko pertsona guztiak oinarri hartuta.

\*\* Espainiako beste lekuetan jaiotako gazteei dagozkien datuak ez dira aurkezten, laginean oso kopuru txikia baita eta, horren ondorioz, ez da fidagarritasun estatistiko nahikoa bermatzen.

Beren enpresa propioa duten pertsonen ehunekoa ez da aldatu 2013 eta 2017 urteen bitartean (lanean ari diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsona guztien % 9,7 izan dira 2013an, 2015 eta 2017an).

### 3.12.5. Zein erakunde motatan lan egiten duten besteren konturako langileek

Besteren kontura lan egiten du adin-tarte horretan lanean ari diren guztien % 85,9k, zer kontratu mota duten begiratu gabe.

Enpresa pribatuetan lan egiten dute pertsona horietako gehienek (% 71,7k). Sektore publikoan lan egiten du % 15,5ek, bai administrazio publikoan (% 9,1ek), bai enpresa publikoren batean (% 6,4k). Horrez gainera,

kooperatibaren batean lan egiten du % 5,7k, irabazi asmorik gabeko erakunderen batean % 1,3k, etxeko lanen esparruan % 1,8k, eta gainerako % 4,0ak ez du erantzuten.

Besteren konturako langileek non lan egiten duten begira jarrita, ez dago alde handirik 30 urtetik beherakoekin; hala ere, egia da 30 eta 34 urte bitartekoen ehuneko handiagoak lan egiten duela sektore publikoan (% 15,5ek), 30 urtetik beherakoek baino (% 11,7), eta horixe bera gertatzen da kooperatibetan ere (% 5,7 dira 30-34 urte bitartekoak, eta % 4,1 dira 30 urtetik beherakoak).

Gizonen aldean, besteren kontura lan egiten duten 30 eta 34 urte bitarteko emakumeek ehuneko handiagoan lan egiten dute sektore publikoan, kooperatibetan, irabazi asmorik gabeko erakundeetan eta etxeko zerbitzuan. Emakumeena baino handiagoa da gizonen ehunekoa enpresa pribatuan.

Egin diren azterlanek adierazten dute unibertsitate-ikasketak dituztenek gainerako pertsonak baino ehuneko handiagoan lan egiten dutela sektore publikoan eta irabazi asmorik gabeko edo gobernu kanpoko erakundeetan, gehiengoak sektore pribatuan lan egiten duen arren. Prestakuntza-zikloak egin dituztenek, derrigorrezko ikasketak dituztenek eta Batxilergoa amaitutakoek gainerako taldeek baino ehuneko handiagoan lan egiten dute enpresa pribatuetan eta kooperatibetan, eta azken horiek (gehienez DBH edo Batxilergoa bete dutenak) dira, gainera, etxeko zerbitzuan lan egiten duten langileen ehuneko handiena dutenak (sektore horren esparrua txikia den arren).

### 3.18. taula

BESTEREN KONTURA LAN EGITEN DUTEN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK LANTOKI DUTEN ERAKUNDE MOTA, SEXUAREN ETA AMAITUTAKO IKASKETA MOTAREN ARABERA (%)

Zein erakunde motatan lan egiten duzu?*						
(%)	Guztira	Sexua		Amaitutako ikasketa mota		
		Emakumeak	Gizonak	Derrigorrezkoak edo Batxilergoa	Lanbide heziketako zikloak	Unibertsitate-ikasketak
Enpresa pribatu batean	71,7	64,2	79,2	77,3	79,8	61,9
Sektore publikoan	15,5	19,4	11,6	5,4	6,9	28,5
<i>Enpresa publikoan</i>	<i>9,1</i>	<i>11,7</i>	<i>6,5</i>	<i>4,1</i>	<i>2,6</i>	<i>17,3</i>
<i>Administrazio publikoan</i>	<i>6,4</i>	<i>7,7</i>	<i>5,1</i>	<i>1,3</i>	<i>4,3</i>	<i>11,2</i>
Kooperatiba batean	5,7	6,3	5,0	7,5	7,8	2,9
Besteren etxeko lanetan	1,8	3,6	0,0	5,4	0,5	0,4
Irabazteko asmorik ez duen erakunde batean, GKE edo ONG batean	1,3	2,2	0,5	0,0	0,7	2,7
Bestelako erakunde batean	2,8	2,7	2,9	3,5	2,9	2,2
Ed/Ee	1,2	1,7	0,8	0,9	1,3	1,4
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	383	189	194	101	122	160

\* Besteren kontura lan egiten ari direnei egindako galdera.

Lan egiten duten erakunde motari begiratuta, 2011 eta 2017 urteen bitartean ez da aldaketa handirik izan besteren kontura lan egiten duten 30 eta 34 urte bitartekoen adin-taldean.

**3.19. taula**

BESTEREN KONTURA LAN EGITEN DUTEN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK  
LANTOKI DUTEN ERAKUNDE MOTAREN BILAKAERA (%)

Zein erakunde motatan lan egiten duzu?*				
(%)	2011	2013	2015	2017
Enpresa pribatuan	74,9	68,9	74,2	71,7
Sektore publikoan	16,7	15,8	15,7	15,5
Kooperatiba batean	4,1	5,0	4,7	5,7
Besteren etxeko lanetan	0,8	2,7	3,1	1,8
Irabazteko asmorik ez duen erakunde batean, GKE edo ONG batean	0,6	4,3	0,9	1,3
Bestelako erakunde batean	1,6	2,7	1,4	2,8
Ed/Ee	1,3	0,7	0,0	1,2
Guztira	100	100	100	100
(n)	368	331	369	383

\* Besteren kontura lan egiten ari direnei egindako galdera.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

**3.12.6. Lanaldi mota eta asteen lan egindako orduen kopurua**

Lanaldi osoan lan egiten dute 30 eta 34 urte bitarteko hamar pertsona okupatutatik zortzik (% 79,8k). Ehuneko hori 30 urtetik beherakoan taldekoarena baino hamar puntu handiagoa da (% 69,4).

Emakumeek ehuneko handiagoan lan egiten dute lanaldi partzialean, gizonen baino (emakumeen % 29,9k eta gizonen % 9,7k). Seme-alabak dituztenek ehuneko handiagoan egiten dute lan lanaldi partzialean, seme-alabarik ez dutenek baino (% 26,2k eta % 16,5ek, hurrenez hurren).

Sexuaren arabera aztertzen baldin badugu datu horien bilakaera, ikusten dugu behera egin dutela, 2015 eta 2017 bitartean, lanaldi partzialen ehunekoek, bai gizonenak, bai emakumeenak. Ikusi dugu, lehenago, ehunekoek behera egin dutela 16 eta 29 urte bitarteko emakumeen eta gizonen artean ere.


Sexuaren arabera konparatzen baldin baditugu 30 urtetik gorako eta beherako langileen datuak, ikusten dugu lanaldi partzialen ehuneko handiagoa dutela 30 urtetik beherako emakumeek, 30 eta 34 urte bitarteko emakumeek baino, eta horixe bera gertatzen dela gizonekin ere, lanaldi partzialen ehuneko handiagoa baitute 30 urtetik beherako gizonen, 30 eta 34 urte bitartekoek baino. Lanaldi murriztua egiteko arrazoiei begiratuta, seme-alabak zaindu beharra da horietako bat, baina seme-alabak dituztenen ehunekoa 30 eta 34 urte bitartekoaren artean 30 urtetik beherakoena baino handiagoa den arren, lanaldi partzialean lan egiten dutenen ehuneko handiagoa dute 30 urtetik beherakoek; beraz, ez da hori lanaldi murriztua egiteko arrazoi bakarra.

Gizonen eta emakumeen artean konparatzen baldin baditugu adin-talde bietako lanaldi partzialen ehunekoak, ikusten dugu 30 eta 34 urte bitarteko emakumeek lanaldi partzialen ehuneko handiagoa dutela, 16 eta 29 urte bitarteko gizonen baino. Hau da, gizonen aldean, emakumeek beti dute lanaldi partzialen ehuneko handiagoa. Aztertutako urte guztietan ikusi da joera hori.



## 3.17. irudia

LANALDI PARTZIALEAN LAN EGITEN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN BILAKAERA ETA KONPARAZIOA, SEXUAREN ARABERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Lanaldi partzian lan egiteko 30 eta 34 urte bitartekoek emandako arrazoi nagusiak hauek dira: lanaldi osoko lanik ez aurkitu izana eta adingabeak edo mendekotasuna duten senideak zaindu behar izatea.

Lanaldi partzian lan egiten duten 30 urtetik beherako gazteen aldean, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehuneko txikiagoan adierazi dute lanaldi osoko lanik ez topatu izana, lan bat baino gehiago egin beharra edo ikasketak eta lana bateratu behar izatea dela horren arrazoia, baina gazteagoek baino ehuneko handiagoan adierazi dute familia-betebeharrak direla lanaldi partziala egitearen arrazoia. Izan ere, lanaldi partzian lan egiten duten 30 eta 34 urte bitarteko hamar pertsonatik hiru (% 29,2k) egiten dute lanaldi hori seme-alabak edo mendekotasuna duten senideak zaintzeko.

### 3.20. taula

LANALDI PARTZIALEAN LAN EGITEN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK LANALDI HORRETAN LAN EGITEKO DITUZTEN ARRAZOIEN KONPARAZIOA (%)

Zergatik duzu lanaldi partzialeko enplegua?*		
	16-29 urte	30-34 urte
Lanaldi osoko enplegurik aurkitu ez duzulako	45,6	36,5
Familiako betebeharrak dituzulako (seme-alabak, gurasoak edo beste senideak zaindu beharra)	6,2	29,2
Beste lan batekin edo ikasketekin bateratu ahal izateko	21,4	7,3
Lanaldi partziala izatea nahiago duzulako, besterik gabe	8,6	5,1
ERE edo enpresak ezarritako derrigorrezko lanaldi murrizketa duzulako	3,3	2,6
Bestelako arrazoiengatik	14,9	19,3
Guztira	100	100
(n)	147	89

\* Gaur egun lanaldi partzian lan egiten ari direnei egindako galdera.

Lanaldi partziala egiten duten pertsona gutxiren datuak bildu ditu inkestak, eta horren ondorioz, ezin dira datuak sexuaren arabera aztertu. Ehunekoak lanaldi partzian ari direnen arabera soilik kalkulatu beharrean, lanean ari diren pertsona guztiekiko kalkulatu baldin baditugu, ikusten dugu 30 eta 34 urte bitarteko hamar emakume landunetik batek (% 10,7k) lanaldi murriztua egiten duela, seme-alabak edo mendekotasuna duten senideak zaintzeko. Seme-alabak, gehien-gehienetan, bienak diren arren, gizonezkoena baino hamar aldiz handiagoa da ehuneko hori, gizonezkoen % 1ek soilik baitu lanaldi murriztua arrazoi horregatik.

Astean egiten dituzten lanorduei begiratuta, 30 eta 34 urte bitartean dituzten pertsona okupatuen erdiak baino gehiagok esaten du 31 eta 40 lanordu bitartean egiten dituela astean, hau da, lanaldi osoko lanaren estandarren barruan, lanaldi osoek 35 eta 40 lanordu bitarte izaten baitituzte normalean. Astean gehienez 30 ordu lan egiten ditu % 20,5ek. Eta astean 40 lanordu baino gehiago egiten ditu % 24,0k. Gainerako % 1,1ari zaila egiten zaio astean zenbat lanordu egiten dituen kalkulatzeko, eta ez du erantzunik eman.

Lanaldi partziala egiten duten pertsona gehienek 11 eta 30 lanordu bitartean egiten ditu (lanaldi partzian lan egiten duten lau pertsonatik hiruk lan egiten dute bitarte horretan). Lanaldi osoan lan egiten duten gehienek 31 eta 40 lanordu bitartean egiten dituzte astean.

Gizonek baino lanaldi laburragoak izaten dituzte emakumeek, lanaldi murriztuen ehuneko handiagoa dutelako emakumeek. Norberaren konturako erregimenean lan egiten duten pertsonak izaten dituzte lanaldi luzeenak, gehiengoak 40 lanordu baino gehiago egiten baititu astean. Batez beste, aldi baterako kontratuak dituztenek baino lanordu gehiago egiten dituzte astean kontratu mugagabeak dituztenek, aldizkako kontratu finkoak dituztenek eta kooperatibistek.

**3.21. taula**

30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGILEEK ASTEAN EGITEN DITUZTEN LANORDUAK, SEXUAREN, KONTRATU MOTAREN ETA LANALDI MOTAREN ARABERA (%)

Batez beste, zenbat ordu egiten duzu lan astero, gutxi gorabehera?*								
(%)	Guztira	Sexua		Kontratu mota**			Lanaldi mota	
		Emakumeak	Gizonak	Mugagabea***	Aldi baterakoa	Norberaren kontura	Osoa	Partziala
10 ordu edo gutxiago	2,4	4,4	0,6	1,2	3,9	0,0	0,0	11,0
11 eta 20 ordu artean	6,6	10,2	3,1	5,6	7,9	2,3	0,0	33,6
21 eta 30 ordu artean	11,4	14,7	8,4	8,9	17,3	9,6	4,6	39,6
31 eta 40 ordu artean	54,5	52,0	56,8	63,3	55,2	22,2	64,7	14,3
41 eta 50 ordu artean	21,1	13,6	28,3	19,4	15,2	44,3	26,5	0,0
51 ordu edo gehiago	2,8	3,0	2,7	0,9	0,5	16,9	3,6	0,0
Ed/Ee	1,1	2,2	0,0	0,6	0,0	4,6	0,6	1,5
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	444	215	229	244	128	56	353	89

\* Galdera hau bakarrik egin zaie gaur egun lan egiten ari direnei.

\*\* Lan-kontraturik gabe lan egiten dutenak ez dira aintzat hartu, laginean oso kopuru txikia direlako eta, horren ondorioz, ez delako fidagarritasun estatistiko nahikoa bermatzen.


\*\*\* Aldizkako finakoak eta kooperatibistak ere kategoria honetan sartzen dira.

Datu horiek 30 urtetik beherakoen datuekin konparatzen baldin baditugu, ikusten dugu 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen lanordu gehiago egiten dituztela astean, baina gogoratu behar da lanaldi partzialen ehunekoak handiagoa dela gazteen artean, 30 eta 34 urte bitarte dituztenen artean baino.

Datuek bilakaerak adierazten digu 2013 eta 2015 urteen bitartean gora egin zuela astean gehienez 30 lanordu egiten zituztenen ehunekoak, urte horietan lanaldi partzialen kopuruak gora egitearekin batera. Nabarmentzekoa da, bestalde, 2017an aurreko urteetan baino handiagoa dela astean 40 lanordu baino gehiago egiten dituztela adierazten dutenen ehunekoak (% 24,0). Datuek joera hori bera adierazten dute 30 urtetik beherako langileen artean.

### 3.18. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO LANGILEEK ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGILEEK  
ASTEAN EGITEN DITUZTEN LANORDUEN BILAKAERA ETA KONPARAZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

### 3.12.7. Enpleguaren eta ikasketen arteko lotura


30 eta 34 urte bitarteko langileen erdiak baino gehiagok (% 58,5ek) esaten du ikasi duenarekin lotura nahikoa edo handia duen lanen bat egiten duela. Hala ere, pertsona horien % 31,5ek esaten du egun egiten duen lanak ez duela zerikusirik bere ikasketekin.

Datu horiek 30 urtetik beherakoen antzekoak dira, eta ikusten da, ondorioz, adinean gora egin ahala ez dela lortzen ikasketekin lotutako enplegu-ehunekoak handitzea.

Datu horien bilakaerak adierazten digu 2011 eta 2013 urteen bitartean jaitsi egin zela ikasitakoarekin lotutako enpleguen ehunekoak 30 urtetik beherakoen artean, eta ikasitakoarekin lotutako enpleguaren ehunekoari eutsi ziotela 30 eta 34 urte bitartekoekin; horren ondorioz, 30 urtetik gorakoekin eta behekoekin arteko aldea 10 ehuneko-puntura iritsi zen urte horietan. 2015. urtean, berriz, behera egin zuen ikasitakoarekin lotutako enpleguen ehunekoak 30 eta 34 urte bitartekoekin artean (hori gertatu zen bi urte lehenago 30 urtetik beherakoekin), eta 30 urtetik beherakoekin eutsi egin zioten ikasitakoarekin lotutako enpleguaren ehunekoari; horren ondorioz, jarraitu zuen bi adin-talde horien arteko aldea izaten, baina alde txikiagoa. Ikasitakoarekin lotutako enpleguaren ehunekoak gora egin du 2017an, eta igoera handiagoa izan da 16 eta 29 urte bitartekoekin adin-taldean. Edonola ere, 2017ko zenbatekoak oso antzekoak dira bi adin-talde horietan.

**3.19. irudia**

IKASITAKOAREKIN LOTUTAKO LANA DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO LANGILEEN ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGILEEN BILAKAERA ETA KONPARAZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Emakumeen eta gizonen artean ez da alde handirik ikusten, baina bai amaitutako ikasketen arabera; hori horrela, unibertsitate-titulua dituzten pertsonen ehuneko handiagoan dute ikasketekin lotutako enplegua (% 79,5), prestakuntza-zikloak amaitu dituztenek baino (% 57,0), eta prestakuntza-zikloak egindakoen, era berean, ehuneko handiagoan dute ikasketekin lotutako enplegua, derrigorrezko ikasketak edo Batxilergoa amaitu dutenek baino (% 28,8). Ikasketekin lotutako enpleguen ehuneko handienak lortu dituzte osasun-ikasketak egin dituztenek (medikuntza, erizaintza, fisioterapia, psikologia, dietetika...) eta ikasketa teknikoak egin dituztenek, hala nola ingeniari-tza, informatika eta arkitektura; zehazki, % 84,4ko eta % 81,4ko ehunekoetan eskuratu dituzte ikasketekin lotutako enpleguak.

Ikasketekin lotutako lanaren ehunekoak gora egiten du langileak lanpostuan duen antzintasuna handitu ahala; hori horrela, beren lanpostuan urtebete baino gutxiago daramatenen artean, ikasketekin lotutako lana egiten duela esaten du % 42,4k, urtebete eta hiru urte bitarte daramatenen artean, ikasketekin lotutako lana egiten dutenen ehunekoa % 59,4ra igotzen da, eta % 64,3ra lanpostuan hiru urte baino gehiago daramatzatzenen artean. Argitu beharreko kontua izan daiteke jakitea ea ikasketekin lotutako lanpostua lortzen dutenak gutxiago mugitzen diren eta horregatik duten antzintasun handia ala enplegua eskuratu ondoren ikasten duten lanarekin lotutako zerbait.

**3.12.8. Soldata eta soldataren gaineo balorazio subjektiboa**

30-34 urteko langileen batez besteko hileko soldata 1.297 eurokoa da, 30 urtetik beherakoen batez besteko soldata baino 200 euro handiagoa (talde horretan, batez besteko soldata 1093 eurokoa da hilean).

Batez besteko soldata horren atzean, ordea, alde handiak daude sexuaren eta lanaldi motaren arabera. Gizonek, batez beste, 1383 euro kobratzen dute hilean, eta emakumeek, berriz, 1209 euro. Lanaldi partzialen lan egiten dutenen ia bikoitza irabazten dute lanaldi osoan lan egiten dutenek (793 euro eta 1424 euro, hurrenez hurren).

Lan partzialen ehunekoa handiagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino, eta kontuan izan behar da lanaldi partziala dutenek irabazten dituztela soldata apalenak; hori horrela, lanaldi motaren arabera bereiziko ditugu gizonen eta emakumeen soldatak. Aldeak ez dira izugarriak, baina emakumeek, lanaldi batean zein bestean, gizonek baino soldata apalagoak jasotzen dituzte. Horrenbestez, baieztatu daiteke emakumeek, batez beste, gizonek baino soldata txikiagoak jasotzen dituztela, eta horren arrazoia ez dela ordu gutxiago lan egiten dituztela soilik.

### 3.22. taula


30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGILEEN BATEZ BESTEKO SOLDATA, SEXUA  
ETA LANALDI MOTA KONBINATUTA (€)

(€)	Guztira	Sexua	
		Gizonak	Emakumeak
Batez besteko soldata, guztira	1297	1383	1209
Batez besteko soldata lanaldi osoan	1424	1441	1402
Batez besteko soldata lanaldi partzialean	793	847	778

Soldatek bilakaera bera izan dute 30 urtetik gorako eta beherako artean. Soldaten batez bestekoek zertxobait egin zuten behera 2011tik 2013ra, eta gerora gorantz egin dute, harik eta, 2017. urtean, aztertutako urteen baliorik handienara iritsi diren arte.

### 3.20. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGILEEN  
HILEKO BATEZ BESTEKO SOLDATAREN BILAKAERA ETA KONPARAZIOA (€)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma).

Soldata-mailari erreparatuta, lanbide arteko gutxieneko soldata baino ordainsari apalagoak jasotzen ditu 30 eta 34 urte bitarteko langileen % 9,6k (lanbide arteko gutxieneko soldata 707 €-koa izan da 2017an). Gizonen % 5,4k soilik jasotzen du lanbide artekoa baino soldata apalagoa, baina emakumeen artean ehunekoa % 14,1ekoa da.


Lanaldi partziala egiten duten pertsonak dira gehien-gehienean, lanaldi mota horretan lan egiten dutenen % 39,7k irabazten baitu hilean 707 euro baino gutxiago, eta lanaldi osoan lan egiten dutenen artean, % 2,0k irabazten du diru-kopuru hori baino gutxiago.

Beste muturrean, hilean 2000 euro baino gehiago irabazten du 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 4,7k. Gizonek % 5,3ko ehunekoa dute, eta emakumeek, berriz, % 4,1ekoa.

Hala ere, 30 eta 34 urte bitarteko langileen gehiengoak 1000 € eta 2000 € bitarteko zenbatekoren bat irabazten du hilean; zehazki, bitarte horretako zenbatekoren bat jasotzen du hilean adin-tarte horretako langileen % 60,3k.

Soldataren gaineko iritzi subjektiboari begiratuta, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen erdiak baino gehiagok (% 62,2k) uste du ondo ordaindutako lana egiten duela.

Ondo ordaindutako lana egiten dutela pentsatzen duten pertsonen ehunekoa handitu egin da aurreko urteekiko, eta soldaten pareko bilakaera izan du, hau da, iritzi hori zutenen ehunekoak behera egin zuten 2011. urtetik 2013. urtera, baina 2011koa baino handiagoa izan da 2017. urtean.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Ez dago alde handirik emakumeen eta gizonen artean edo lanaldi motaren arabera, baina aldeak ikusten dira jasotako soldatari begiratuta: hilean 1200 euro baino gutxiago irabazten dutenen gehiengoak uste du bere lana gaizki ordainduta dagoela; aitzitik, hilean 1200 euro baino gehiago irabazten dutenen % 78,4k uste du ondo ordaindutako lana egiten duela.

Bestalde, 30 urtetik behera iritzi hori bera dutenen ehunekoarekin konparatzen baldin badugu ondo ordainduta daudela pentsatzen duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, iritzi-ehunekoak oso antzekoak dira: 30 eta 34 urte bitarteko langileen % 62,2k uste du ondo ordainduta dagoela, eta 30 urtetik beherako langile gazteen % 63,6k du iritzi hori bera.

### 3.12.9. Enplegua galtzeko edo prekario bihurtzeko arriskua

Urtebeteko epean enplegua galtzeko arrisku nahikoa edo handia ikusten dutenen ehunekoak nabarmen egiten du behera 30 eta 34 urtekoen adin-taldean; izan ere, 30 urtetik beherako langileen % 22,6k ikusten du arrisku hori, eta 30 eta 34 urte bitarteko langileen artean ehunekoa % 14,5koa da.

Aldi baterako kontratua duten 30 eta 34 urte bitarteko langileak dira, normala den moduan, lana galtzeko arrisku handiena ikusten dutenak (% 26,4). Bestalde, emakumeek lana galtzeko arrisku handiagoa ikusten dute, gizonek baino (% 16,2 eta % 12,8, hurrenez hurren).


Horrez gainera, 30 eta 34 urte bitarteko langileen % 9,1ek uste du, lana galduko ez duen arren, nahiko edo oso gertagarria dela bere lan-baldintzak (soldata, ordutegia, etab.) okertzea.

Aldi baterako kontratua duten langileak dira, berriro ere, beren lana prekario bihurtzeko arrisku handiena ikusten dutenak (% 11,4k). Arrisku horren pertzepzioa handiagoa da emakumeen artean (% 9,6), gizonen artean baino (% 8,7).

Enplegua galtzeko eta haren baldintzak okertzeko arriskuaren pertzepzioa 2015ean zegoenaren antzekoa da, eta bi urteetan da 2013koa baino txikiagoa.

#### 3.22. irudia

30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGILEEK ENPLEGUA GALTZEKO EDO PREKARIO BIHURTZEKO HAUTEMATEN DUTEN ARRISKUAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

2017. urtean, guztira, 30 eta 34 urte bitarteko langileen % 23,6k hauteman du enplegua galtzeko edo bere lan-baldintzak okertzeko arriskua, hau da, lau langiletik batek hauteman du arrisku hori.

Lana galtzeko arriskua eta lan-baldintzak okertzeko arriskua batera hartuta ikus dezakegu aldi baterako kontratua duten pertsonen eta beren lanpostuan hiru urte baino gutxiagoko antzintasuna dutenek hautematen dutela arrisku gehien (% 37,8 eta % 31,7 dira, hurrenez hurren). Emakume gehiagok ikusten du arriskuan bere lana, gizonek baino (emakumeen % 25,8k eta gizonen % 21,5ek).



### 3.12.10. Lanarekiko poztasuna eta lanez aldatzeko gogoia

30 eta 34 urte bitarteko hiru langiletik bik (% 68,3k) esaten dute pozik daudela egun egiten duten lanean. Bestalde, % 30,4k esaten du lana aldatuko lukeela, horretarako aukerarik izanez gero. Gainerako % 1,4ak ez du erantzun.

Beren lana ondo ordainduta dagoela pentsatzen duten pertsonak dira beren lanarekin poztasun handiena adierazten dutenak; izan ere, % 85,6 dira beren lanarekin pozik daudenak. Beren ikasketekin lotura nahikoa edo handia dutenen artean, % 79,6 dira beren lanarekin pozik daudenak.


Beren lanarekin pozik daudenen ehunekoa batez bestekoa baino handiagoa da honako talde hauetan: graduako edo graduondoko unibertsitate-titulazioa dutenak (% 77,1), hilean 1200 euro garbi baino gehiago kobratzen dutenak (% 76,7), enplegua galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskurik ikusten ez dutenak (% 75,0) eta enpresaren batean hiru urtetik gorako antzintasuna dutenak (% 72,1).

Horrez gainera, kontratu mugagabea dutenek eta lanean jarraitutasuna dutenek (aldizkako kontratu finkoa dutelako edo kooperatibistak direlako) poztasun handiagoa dute, aldi baterako kontratua dutenek baino (jarraitutasuna dutenen % 70,2 eta aldi baterako kontratua dutenen % 64,4), eta lanaldi osoan lan egiten dutenek poztasun handiagoa dute, lanaldi partziala dutenek baino (% 70,4 eta % 60,3, hurrenez hurren).

Bi langile-taldetan soilik dira gehiengo lana aldatu nahi dutenak: beren lana gaizki ordainduta dagoela uste duten langileen taldean (lana aldatuko luke multzo horretan daudenen % 59,8k) eta urtebeteko epean lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskua ikusten duten langileen taldean (% 50,2k aldatuko luke lana).

#### 3.23. irudia

LANAREKIKO POZTASUNA EDO LANA ALDATZEKO GOGOIA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGILEEN TALDEAN, ONDO ORDAINDUTA IZATEAREN SENTIPENAREN ARABERA, LANAK EGINDAKO IKASKETEKIN DUEN LOTURAREN ARABERA, ETA ENPLEGUA GALTZEKO EDO PREKARIOA BIHURTZEKO ARRISKUAREN GAINEAN DUTEN IRITZIAREN ARABERA (%)



30 eta 34 urte bitarteko langileek poztasun handixeagoa adierazten dute beren lanarekin (% 68,3), 16 eta 29 urte bitarteko langileek baino (% 63,7). Aztertutako urte guztietan errepikatu da hori, baina 30 urtetik gorako eta beheako langileen joerak desberdinak dira: lanarekin poztasuna adierazten duten langileen ehunekoa gero eta handiagoa da 16 eta 29 urte bitarteko langileen artean, eta gero eta txikiagoa 30 eta 34 urte bitartekoen taldean; beraz, gero eta txikiagoa da bi adin-talde horien arteko iritzi-aldea.

### 3.24. irudia

16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO LANGILEEK BEREN ENPLEGUAREKIN DUTEN POZTASUNAREN BILAKAERA ETA KONPARAZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Aztertuta lanez aldatu nahi izateko zer arrazoi ematen dituzten 30 eta 34 urte bitarteko langileek, ikusten da gehiengoak, % 51,9k, lan-baldintzak (kontratua, soldata, ordutegia, etab.) hobetzeko aldatu nahi duela bere lanpostua. Logikoa da hori horrela izatea, beren lana gaizki ordainduta dagoela uste duten pertsonak baitute lanez aldatzeko gogoia dutenen ehuneko handiena; horrez gainera, lana aldatzeko gogo handiagoa adierazten dute aldi baterako kontratua edo lanaldi partzialeko lana dutenek, kontratu mugagabea edo lanaldi osoko lana dutenek baino.

Norberaren kualifikazioarekin, prestakuntzarekin edo gaitasun pertsonalarekin lotura handiagoa duten lana topatu nahi izatea da lanez aldatu nahi izateko bigarren arrazoia (% 21,1ek eman du arrazoi hori). Ikusi dugu lehenago ikasketekin lotutako lanik ez dutenen taldean batez bestetik gorakoa dela lanez aldatu nahi dutenen ehunekoa.

Lanez aldatu nahi izateko hirugarren arrazoia gauza berriak probatzea eta beste erronka batzuei ekitea da, baina lanez aldatu nahi dutenen % 9,4k soilik eman du arrazoi hori.

Horrez gainera, % 5,1ek esaten du lanez aldatu nahi duela harreman txarrak dituelako nagusiekin eta/edo lankideekin, % 4,3k esaten du enplegua galtzeko beldurra edo ziurtasuna duela eta beste lan bat topatu nahi duela hori gertatu baino lehen, eta % 2,0k adierazten du beste herriren batean lan egin nahi duela. Gainerakoek beste arrazoi batzuk ematen dituzte (ez dute gustuko egun egiten duten lana, etab.) edo ez dute erantzuten.

Lan-baldintza hobeak nahi izatearen edo ikasitakoarekin lotutako lanen bat topatzearen arrazoiak gehiago nabarmentzen dira 30 urtetik beherako pertsonen artean, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean baino. Bestalde, beste erronka batzuei ekiteko gogoaren, nagusiekin edo lankideekin harreman txarrak izatearen eta lana galtzeko beldur izatearen arrazoiak ehuneko handiagoan ematen dituzte 30 eta 34 urte bitarteko langileek, 16 eta 29 urte bitartekoek baino.

**3.23. taula**

LANA ALDATU NAHIKO LUKETEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO LANGILEEK ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGILEEK HORRETARAKO EMATEN DITUZTEN ARRAZOIEN KONPARAZIOA (%)

<b>Zein izango litzateke lanez aldatzeko arrazoi nagusia?*</b>		
	<b>16-29 urte</b>	<b>30-34 urte</b>
Lan-baldintza hobeak nahi dituzu (kontratuan, soldatan, ordutegian, segurtasunean...)	59,0	51,9
Zure prestakuntzarekin edo gaitasunekin lotuago dagoen lana nahi duzu	26,2	21,1
Gauza berriak probatu nahi dituzu, erronka berriei aurre egin	6,9	9,4
Lana galtzeko beldur zara edo badakizu lana galduko duzula eta hori gertatu baino lehen beste bat aurkitu nahi duzu	2,1	4,3
Nagusiekin edo lankideekin harreman txarrak dituzu, lan-giro txarra duzu	1,5	5,1
Beste herri edo hiri batean lan egin nahi duzu	0,7	2,0
Beste arrazoi bat edo erantzunik ez	3,6	6,2
Guztira	100	100
<i>(n)</i>	165	130

\* Galdera hau bakarrik egin zaie ahal izango balute lana aldatuko luketen langileei.

Datuek azken urteetan izan duten bilakaerak esaten digu lan-baldintzak hobetzea dela lanez aldatu nahi izateko arrazoi nagusia (lanez aldatu nahian dabilzan 30 eta 34 urte bitarteko langileen erdiak baino gehiagok eman du arrazoi hori aztertutako urte guztietan), eta norberak ikasitakoarekin lotutako lan bat eskuratu nahi izatea da bigarren arrazoa.


Horrez gainera, 2013 eta 2017 urteen bitartean, behera egin du lana egungo lanpostua galtzeko beldurra edo ziurtasuna dutelako aldatu nahi dutenen ehunekoak (% 10,5koa zen 2013an eta % 4,3koa izan da 2017an). Era berean, 2017an txikiagoa izan da urtebeteko epean beren lana galduko dutela uste dutenen ehunekoak (ikus 3.22. irudia).

**3.12.11. Beste enplegu bat bilatzeko ekimena**

Beste lan baten bila ari da 30 eta 34 urte bitartean dituzten langileen laurdena baino zertxobait gutxiago (% 22,8). Ehuneko oso antzekoa izan da 16 eta 29 urteko langileen artean (% 23,3), baina talde horiek bilakaera ezberdina izan dute. 30 urtetik beherako langileek antzeko ehunekoak dituzte orain eta krisialdi ekonomikoaren aurretiko urteetan. baina 30 eta 34 urtekoen adin-taldean igoera nabarmena izan da 2011-2013 urteetatik 2015-2017 urteetara.

## 3.25. irudia

16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO LANGILEEN ARTEAN BESTE ENPLEGU BATEN BILA DABILTZANEN BILAKAERA ETA KONPARAZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma).

Beste enplegu baten bila dabiltzanen ehunekoak 30 eta 34 urte bitarteko langileen artean gora egin izanaren arrazoia izan daiteke gaur egun krisialdiko urteetan baino pertsona gehiago daudela aldi baterako kontratuekin lanean, eta orduan baino gutxiago direla ikasketekin lotutako lana dutenak eta beren egungo lanarekin pozik daudenak.

Urtebeteko epean lanpostua galduko dutela uste dutenek dute beste lan bat bilatzeko ekimen handiena, horien erdia baino gehiago (% 53,8) ari baita lan bila. Beste lan baten bila dabiltzanen batez bestekotik gora dauden beste kolektibo batzuk dira hilean 1000 euro baino gutxiago irabazten dutenak (% 46,5), enpresan lanean urtebete baino gutxiago daramatenak (% 39,4), aldi baterako lana daukatenak (% 36,1) kontraturik gabe lan egiten dutenak (% 34,9), lanaldi partzialean lan egiten dutenak (% 34,9) eta ikasi dutenarekin zerikusi txikia edo deuseza duten lanpostua dutenak (% 27,9).

Lanbiden lan-eskatzaille gisa izena emanda dago 30 eta 34 urte bitarteko adinean lan bila ari diren horien gehiengoa (% 62,4), 30 urtetik behera dutenen ehuneko antzekoan (Lanbiden izena emanda dago 16 eta 29 urte bitartean izan eta lan bila ari diren langileen % 64,6).

Lan bila ari diren horien gehiengoa Euskadin ari da lana bilatzen; izan ere, beste lan baten bila ari diren 30 eta 34 urte bitarteko langileen % 95,2k Euskadi du bilaketa-eremu. Espainiako beste lurralde batzuetan ari da lan bila % 22,9, eta hamar pertsonatik bat (% 9,5) atzerrian. Ehuneko horiek 30 urtetik beherakoek dituztenen antzekoak dira.

Batez beste, 13 hilabete eta erdi darama lan bila egoera horretan dagoen jendea; izan ere, erdia baino gehiago (% 54,1) urtebete edo gehiago darama lan bila. Lana bilatzen emandako denbora aurreko urteetan baino luzeagoa da (11 hilabetekoa zen 2011n, 9 hilabete eta erdikoa 2013an eta 10 hilabetekoa 2015ean), baina horrek ez du esan nahi, ezinbestean, orain zailagoa denik lana aurkitzea. Denbora luzeagoa izatearen beste arrazoi bat izan daiteke lan bila ari diren pertsona horiek orain dituztenak baino baldintza hobekak lortu nahi dituztela lanpostu berrian. Ez dago alde handirik, aldagai honetan ere, 30 urtetik behera duten pertsonetik, 16 eta 29 urteko adinean beste lan baten bila dabiltzan langileen batez besteko bilaketa-denbora 13 hilabetekoa baita.

Lana sei hilabeteko epean aurkitzeko zer aukera ikusten duten galdetuta, aukera horri nahiko edo oso gertagarri deritzotenen ehunekoak nabarmen igo da aurreko urteekiko, eta 2017an erdia baino zertxobait gehiago dira (% 52,4).

2015. urtean, 30 urtetik beherako pertsonen 30 eta 34 urte bitartekoek baino itxaropen handiagoa zuten hura aurkitzeko; 2017. urtean, ordea, itxaropen handiagoa dute 30 eta 34 urte bitartekoek. Edonola ere, biek ala biek krisialdiko urteetan (2011-2013) baino itxaropen handiagoa adierazi dute 2015ean eta 2017an.

### 3.26. irudia

BESTE LAN BATEN BILA DABILTZAN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO LANGILEEK ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEK SEI HILABETEKO EPEAN LANA AURKITZEKO DUTEN ITXAROPENAREN BILAKAERA ETA KONPARAZIOA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

## 3.13. EMAITZA NAGUSIAK

Lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiak baino gehiagok aldi baterako kontratua du. Aldi baterako kontratuen ehunekoak, gainera, gora egin du azken urteetan. Hala ere, beste alderdi batzuk hobera egin dute. Gizarte-segurantzaren kotizatzen dute lanean ari diren hamar gaztetik bederatzik, eta handitu egin dira lanaldi osoko lanaren ehunekoak, emakumeen artean, batik bat. Lanaldiaren iraupenak gora egin duenez, soldatek ere gora egin dute, emakumeen artean batik bat, eta horren ondorioz zertxobait murriztu da emakume eta gizon gazteen arteko soldata-aldea.

Emakume gazteek, hala ere, gizonen baino aldi baterako kontratuen ehuneko handiagoa dute, eta txikiagoa, berriz, beren negozio propioari ekiteko ehunekoak. Gizonen baino lanaldi partzial gehiago dituzte emakumeek, eta soldata apalagoak jasotzen dituzte.

Behera egin du beren enplegua urtebeteko epean gal dezaketela uste duten langileen ehunekoak (hala ere, gizonen baino aldi baterako kontratuen ehuneko handiagoa dute emakumeek eta lana galtzeko arrisku handiagoa sumatzen dute), eta handitu egin da ikasitakoarekin lotutako lana dutela diotenen ehunekoak. Horrenbestez, behera egin du lana aldatu nahi duten pertsonen ehunekoak, eta baita, horren ondorioz, beste enplegu bat bilatzen ari diren pertsonen ehunekoak ere.

Lan-baldintzak hobetu egiten dira 30 urtetik aurrera. Kontratu mugagabea eta hiru urtetik gorako lan-antzinatasuna du 30 eta 34 urte bitarteko langileen erdiak baino zertxobait gehiagok; hala ere, aurreko urteetan baino gutxiago dira, adin-tarte horretan, ezaugarri horiek dituztenak.

Oro har, lanaldi osoko lanaren ehunekoa handiagoa da 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen adin-taldean, baina kontuz irakurtzeko datua da, 16 eta 29 urte bitarteko gizonek baino lan partzialen ehuneko handiagoa baitute 30 eta 34 urte bitarteko emakumeek. Edonola ere, lanaldi osoko enpleguaren ehunekoa handiagoa da 30 eta 34 urte bitarteko emakumeen artean, 30 urtetik beherako emakumeen artean baino.

Soldatak ere gora egiten du adinarekin; izan ere, 30 eta 34 urte bitartekoek 30 urtetik beherakoek baino 200 euro gehiago irabazten dituzte batez beste. Zehazki, 1297 euro garbi irabazten dituzte hilean, baina aldea dago, oraindik, emakumeen eta gizonen soldaten artean.

Enplegua galtzeko arriskua txikiagoa da 30 eta 34 urte bitartekoen artean, adin horretara iristen ez direnen artean baino, kontratu mugagabeen ehunekoa handiagoa baita adin handiagokoen taldean. Hala ere, beste lan baten bila ari direnen ehunekoa antzekoa da bi adin-talde horietan; izan ere, 30 eta 34 urte bitartekoen artean zertxobait egin du behera, aurreko urteekin alderatuta, beren egungo lanarekin pozik daudenen ehunekoak, eta murriztu egin da 30 urtetik beherako pertsonetikiko zuten aldea.

# 4

## Langabezian dauden gazteen egoera

Txosten honen 1. kapituluaz azaldu dugun moduan, 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien % 6,7k esan du, azterlan honetan, langabezia-egoeran dagoela.

Datu edo ehuneko hori ez da nahastu behar estatistika-erakunde ofizialek (Eustat, INE edo Eurostat erakundeek) ematen duten langabezia-tasarekin, biztanleria aktiboaren arabera kalkulatu baita tasa hori, eta ez biztanleria osoaren arabera, azterlan honetan egin dugun moduan (ikus 1. kapituluaz). Hori jakinda, eta nahasmendurik sortu ez dadin, "ehuneko" eta "proportzio" hitzak erabiliko ditugu, baina ez dugu "tasa" kontzeptua erabiliko langabezian dauden gazteen egoerari buruz hitz egiteko.

Gai hauek aztertuko ditugu orain: gazteen zer taldek dituzten langabezia-ehuneko handienak, zer lan-eskarmentu izan duten aurretiaz, zenbat denbora daramaten langabezia-egoeran, langabezia-prestazioa jasotzen duten, prestakuntza-ikastarorik egiten ari diren eta lan bila ari diren.

Azkenik, langabezian dauden pertsonen 30 urtetik behera eta 30 eta 34 urte bitarteko adinean zer alde dituzten ikusiko dugu.


### 4.1. LANGABEZIAN DAUDEN GAZTEEN KOPURUA

Langabezian dauden gazteen kopuruak gorabeherak izan ditu azken urteetan. Gazte langabeen kopuruak nabarmen egin zuen gora krisialdiko urteetan, eta 2013an iritsi zuen 2000-2017 urte-bitarteko ehunekorik handiena, EAEn bizi ziren gazteen % 18,1 izan baitzen langabezian urte horretan. Gerora, datuak nabarmen egin du behera, harik eta 2000. urteaz geroztik izan duen balio txikiena (% 6,7koa) erakutsi arte 2017an.

Espainiako eta Europako gazte langabeen bilakaera bera izan dute gazteek Euskadin; hala ere, krisialdi ekonomikoaren urteetan, langabezian zeuden gazteen kopuruak EB28 herrialdeen batez bestekotik gora handitu zen Euskadin, baina ez zen Espainiako gazteen batez bestekoa adina igo. Aztertutako urte guztietan, 2017. urtean soilik izan da gazte langabeen ehunekoa EBko batez bestekoa (% 7,5) baino txikiagoa Euskadin.

#### 4.1. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE LANGABEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA ADIN HORRETAKO GAZTE GUZTIEKIKO, ETA ESPAINIAKO ETA EUROPAR BATASUNEN BATEZ BESTEKO DATUEKIKO KONPARAZIOA\* (%)



\* Europako datuak 15-29 urte bitarteko gazteenak dira.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiaren datuak Euskadirako (*Euskadiko gazteak* bilduma 2000-2008 datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017ko datuetarako) eta Eurostat Espainia eta Europako datuetarako.

Langabezian dauden gazteen ehunekoa antzekoa da Euskadiko emakumeen eta gizonen artean, baina nabarmen egiten du gora adina handitu ahala; izan ere, % 1,7koa da 20 urtetik beherako pertsonen artean, % 5,8koa 20 eta 24 urte bitartekoen artean, eta, aurrerago, % 11,4koa 25 eta 29 urte bitarte dituztenen artean. Berariaz, langabezian dauden batez besteko adina 25 urtekoa da 30 urtetik behera duten pertsonen artean. Langabezian dauden gazteen ehunekoak gora egiten du adinak gora egin ahala, eta horren arrazoietako bat da lana aurkitzeko zailtasunak izaten dituztela ikasketak amaitu ostean.

Europar ez da alde hain handirik ikusten adin-taldearen arabera, eta, Euskadin ez bezala, 20 eta 24 urte bitartean dituztenek dute Europar gazte langabeen proportziorik handiena (% 9,6).

## 4.2. LANGABEZIAN DAUDEN GAZTEEN PRESTAKUNTZA

Langabezia-egoeran daudela adierazten duten gazteen datuei begiratu gero, goi-mailako ikasketak dituela hamar pertsonatik lauk (% 42,2); beraz, ikusten da goi-mailako titulazio bat izateak ez duela ikasketak amaitu eta berehala lan bat lortuko dela ziurtatzen. Hala ere, azpimarratzeko datua da heren batek baino gehiagok (% 35,8k) derrigorrezko ikasketak dituela gehienez eta ez duela ikasten jarraitu horiek amaitu ostean. Gainerako % 22ak bigarren mailako ikasketak ditu, derrigorrezko ikasketen ondorengoak, Batxilergoa edota erdi mailako prestakuntza-zikloren bat.


Zer hizkuntza dakizkiten aztertuta, langabezian dauden pertsonen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 55,1ek) esaten du euskaraz nahiko edo oso ondo egiten duela, eta laurdenak (% 25,0k) esaten du ingelesa nahiko edo oso ondo hitz egiten duela.



Euskadiko gazteen batez besteko datuekin konparatzen baldin baditugu ehuneko horiek, ikusten dugu langabezian dauden pertsonen artean handiagoa dela derrigorrezko titulazio oinarrikoa soilik dutenen ehunekoa (% 35,8 eta batez bestekoa % 27,8koa da), eta euskararen eta ingelesaren ezagutza batez bestekoa baino txikiagoa da langabezian dauden gazteen artean.

#### 4.2. irudia

LANGABEZIAN DAUDEN GAZTEEN PRESTAKUNTZA-MAILAREN ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN BATEZ BESTEKO DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



Ondoriozta dezakegu, beraz, langabezian dauden gazteen prestakuntza-maila gazteen batez bestekoa baino txikiagoa dela.

Datu horien bilakaerak adierazten digu 2011. urtean, krisialdiko urtean eta enplegua suntsitzen ari zenean, langabezian zeuden gazteen hezkuntza-maila oraingoa baino nabarmen handiagoa zela: lanik gabeko gazteen % 21,8k zituen, langabezian zeuden gazte guztiekiko, derrigorrezko ikasketak soilik, eta ehuneko hori are txikiagoa izan zen (% 11,4koa) bi urte geroago, 2013an. Urte horietan, bigarren mailako eta goi-mailako ikasketak zituzten gazte asko lanik gabe geratu zen, eta beste askok ez zuen lanik aurkitu.

Arrazoi horrek berak eraginda, 2011. urtean izan ziren, lanik gabeko gazteen artean, euskara eta ingelesa ondo zekitenen ehuneko handienak (% 70,4 eta % 42,3, hurrenez hurren).


Bestalde, 2017. urtean, lanik gabe dauden gazteen % 17,3k esan du prestakuntza-ikastaroren bat egiten ari dela. Proporzio hori 2015ekoaren berdina da (% 17,3) eta 2013koaren oso antzekoa (% 17,4). Kontuan izan behar da, gai hau aztertzean, prestakuntza-ikastaroren bat egiten ari diren gazte langabe batzuek ikasle direla erantzun zezaketela, eta horren ondorioz, egiazkoa baino txikiagoa izatea hemen agertzen zaigun ikasten ari diren gazte langabeen ehunekoa.

### 4.3. AURRETIAZKO LAN-ESKARMENTUA ETA LANGABEZIA-PRESTAZIOAREN KOBRANTZA

Noizbait lan egindakoa da langabezian dauden pertsona horien gehiengoa (% 81,5). Langabezian dauden 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, aurretiaz lan-eskarmentua dutenen ehunekoa (% 88,1koa) handiagoa da 25 urtetik beherakoen artean baino; hala ere, gazteago horien artean ere, gehiengo dira (% 70,0) lan-eskarmenturen bat dutenak.

Lan-eskarmenturen bat duten gazte langabeen ehunekoa % 80tik gorakoa da 2004. urteaz geroztik. Proporzio hori, ordea, % 62,6koa izan zen 2000. urtean.

**4.3. irudia**  
LAN-ESKARMENTUA DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE LANGABEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, LANGABEZIAN DAUDEN GAZTE GUZTIEKIKO (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma 2000-2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017 datuetarako).

Era berean, langabezian dauden gazteen herenak baino zertxobait gehiagok (% 37,0) Euskaditik kanpo lan egin du noizbait: Espainiako beste autonomia-erkidegoren batean lan egin du % 22,1ek, eta atzerrian lan egin du % 18,0k; zehazki, Europako beste herrialderen batean lan egin du % 12,1ek, eta noizbait Europatik kanpo lan egin duela esan du % 6,5ek. Eremu geografiko horiek ez dute elkar baztertzen, eta horren erakusle da pertsona horietako batzuek eremu horietako bat baino gehiagotan lan egin duela.


Gaur egun langabezian izan baina aurrez lan-eskarmenturen bat duten gazteen % 17,2k soilik esaten du bere borondatez utzi zuela bere azken lana. Bestelako arrazoiak ematen dituzte gehien-gehienek: ez zieten kontratua berritu, enpleguak ez zuen lan egiten jarraitzeko aukerarik ematen, kaleratu egin zuten, enpresak itxi egin zuen, etab.

Edonola ere, langabezian dauden gazte guztiak aintzat hartuz gero (aurrez lan-eskarmentua dutenak eta lan-eskarmenturik gabeak), horien laurdena soilik (% 24,8) ari da langabezia-prestazioa jasotzen. 2011. urtean, krisialdiaren lehen urteetako batean, ehuneko handiago batek, % 32,2k, jasotzen zuen langabezia-prestazioa. Horren arrazoiak da handitu egin zela, krisiak suntsitu zituen gazte-enpleguen ondorioz, lanik gabe geratu bai, baina langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea zuten gazteen ehunekoa, lehendik lan egindakoak eta kotizatutakoak zirelako. Enplegua eskuratzeko aukera gutxi izanda, gazte langabeen ehunekoek gora egin zuten 2013an, eta 2011. urtean ez bezala, langabezian zeuden pertsona horietako batzuek ez zuten aurretiazko lan-eskarmenturik edo agortu

egin zuten langabezia-prestazioa jasotzeko epea, eta, ondorioz, nabarmen egin zuten behera, % 18,2ra, prestazio hori jasotzen zuten gazteen ehunekoak. Langabezian dauden gazteen ehunekoak behera egin du 2015ean eta 2017an, baina oso igoera txikia izan du aurretiazko lan-eskarmentua duten gazteen ehunekoak, eta horren ondorioz, ez da askorik handitu prestazioa eskuratzen dutenen kopurua.

#### 4.4. irudia

LANGABEZIAN DAUDEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, LAN-ESKARMENTUA DUTEN GAZTE LANGABEEN EHUNEKOARENA ETA LANGABEZIA-PRESTAZIOA JASOTZEN DUTEN GAZTE LANGABEEN EHUNEKOARENA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma 2000-2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017 datuetarako).

Gazte langabeen laurdenak soilik jasotzen du langabezia-prestazioa, eta logikoa da, horren ondorioz, hamar gaztetatik sei (% 60,1) bere familiaren (aitaren, amaren, anai-arreben edo beste senide batzuen) edo bikotekidearen diru-sarreraren kontura soilik bizi zela. Gainerako gazteen artean, batzuk beren diru-sarreraren kontura (langabezia-prestazioa, beste gizarte-prestazio batzuk, aurrezkiak, etab.) bizi dira, gutxi diren arren (% 14,2) eta beste batzuek familiaren edo bikotekidearen diru-sarrerekin osatzen dituzte beren diru-sarrerak.

Beren familiaren edo bikotekidearen diru-sarreraren kontura soilik bizi diren gazte langabeen ehunekoa 2015. urtean izan zenaren antzekoa da (% 58,1), eta 2013. urtean izan zena baino apalagoa (% 67,6). Urte hartan inoizko txikiena izan zen langabezia-prestazioa jasotzen zuten gazteen ehunekoa.


Hilean eskuragarri duten diru-kopuruari begiratuta, hilean 300 euro baino gutxiago izaten ditu gazte horien ia erdiak (% 44,0k). Ehuneko hau 2015ean zenaren antzekoa da (% 45,0) eta 2013an izandakoa baino txikiagoa (% 59,0), orduan, 2013an, prestazioa kobratzen zuten gazteen ehunekoa txikiena zen eta handiena, ondorioz, familien diruarekiko mendekotasuna.

## 4.4. LANGABEZIAN DARAMATEN DENBORA

Langabezian sei hilabete baino gutxiago daramala dio langabezian dauden gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 53,6k). Bestalde, iraupen luzeko langabezian dago gazte horien laurdena baino zertxobait gehiago (% 26,2).

### 4.5. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE LANGABEEK LANGABEZIAN DARAMATEN DENBORA (%)



Nabarmen egin du behera, 2015etik 2017ra langabezian urtebetetik gora daramaten gazteen ehunekoak, % 43,1koa baitzen 2015ean, eta % 26,2koa izan baita 2017an.

Kontuan hartzekoa da, era berean, langabezian dauden gazteen ehuneko osoak ere nabarmen egin duela behera azken bi urteotan.

Kalkuluek adierazten dute 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien % 1,8k urtebetetik gora daramala langabezian. Ehuneko hori 2015ekoa eta 2013koa baino nabarmen txikiagoa da (hurrenez hurren, % 6,6koa eta % 7,0koa izan ziren urte horietan).

Derrigorrezko ikasketak edo bigarren mailakoak soilik dituzten gazte langabeek daramate denbora luzeen langabezian; hori horrela, epe luzeko langabezian, hau da, urtebetetik gorako langabezian dauden gazteen ehuneko hiru aldiz handiagoa da derrigorrezko ikasketak edo bigarren mailakoak dituzten gazte langabeen artean (% 36,4), goi-mailako titulaziotan bat duten gazte langabeen artean baino (% 12,4).

## 4.5. LAN-BILAKETA


Lan bila ari da langabezian dagoen lau gaztetatik hiru (% 75,6); Lanbiden lan-eskatzaille gisa izena emanda dago horien % 62,7, ez, ordea, gainerako % 12,9a.

Euskadin lan bila ari diren gazte langabe ia guztiak (% 98,9) Euskadin bertan ari dira lan bila. Lan bila ari direnen % 14,3 ari da, era berean, lana Espainiako beste lurralde batzuetan bilatzen, eta % 10,4 ari da atzerrian bilatzen.

Kalkuluak langabezian dauden gazte guztien arabera egiten baldin baditugu (hau da, lan bila ari diren ala ez kontuan hartu gabe), ikusten dugu 30 urtetik beherako gazte langabeen % 74,8 Euskadin ari dela lan bila, % 10,8 beste autonomia-erkidego batzuetan, eta % 7,8 atzerrian. Guztira, langabezian dauden gazteen % 12,9 ari da lana Euskaditik kanpo bilatzen.

#### 4.6. irudia

LAN-BILAKETAREN EREMUA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE LANGABEEN ARTEAN (%)



Lan bila ari diren gazte langabeei erreparatuta, egoera horretan dauden lau gaztetatik hiru (% 74,0) gehienez urtebete darama lan bila. Enplegua bilatzeko denbora 7 hilabetekoa da batez beste.

Lana bilatzeko batez besteko denborak gora egin zuen 2011. urteaz geroztik (7 hilabete eta erdikoa izan zen urte hartan); hori horrela, 9 hilabetekoa izan zen 2013an, eta 10 hilabetekoa 2015ean. 2017. urtean, ostera, behera egin dute langabezian dauden gazteen ehunekoak eta langabezian jarraitzen dutenek lan bila daramaten denborak.

Lana aurkitzeko aukeren pertzepzioari begiratuta, langabezian egonda lan bila dabilzan gazteen erdiak baino gehiagok (% 55,6k) uste du nahikoa edo oso gertagarria dela sei hilabeteko epean lana aurkitzea. Ehuneko hori 2015ekoaren antzekoa da (% 53,4), baina 2013koa nahiz 2011koa baino askoz ere handiagoa (% 32,2 eta % 30,5, hurrenez hurren).

Aztertutako laginari begiratuta, ezin dugu aztertu zer gazte-talde ari diren lana Euskaditik kanpo bilatzen edo zer taldek uste duen gehien lana aurkitzeko aukera handiak dituela, gutxi baitira, aztertutako laginean, langabezian dauden gazteak.


## 4.6. 30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGABEEN EGOERA

### 4.6.1. Langabezian dauden 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen kopurua

30 eta 34 urte bitarteko adinean dauden pertsonen % 13,2 dago langabezian, 30 urtetik beherako gazteen bikoitza (% 6,7). Hala ere, aurreko urteekin alderatuta, langabezian daudenen ehunekoak nabarmen egin du behera 30 eta 34 urte bitartekoen artean. Izan ere, Euskadin, 30 eta 34 urte bitarteko lau pertsonatik bat langabezian zegoen 2013. urtean.

## 4.7. irudia

30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGABEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE LANGABEEKIKO KONPARAZIOA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Ehunekoak behera egin duen arren, 30 eta 34 urte bitarteko langabeen kopurua adin horretan langabezian dauden europarren batez bestekoaren bikoitza da (% 6,7), eta Grezian eta Espainian soilik da Euskadin baino handiagoa 30 eta 34 urte bitarteko langabeen proportzioa (ikus 1.8 irudia).

Bilakaerak joera bera izan du Euskadin, Espainian eta Europan, baina Europan aldaketak ez dira beste bi lurraldeetan bezain handiak izan. 30 eta 34 urte bitarteko langabeen kopurua, 2011 eta 2015 urteen bitartean, Espainian baino handiagoa izan da Euskadin, baina adin-bitarte horretako langabeen kopuruaren jaitsiera, 2015 eta 2017 urteen bitartean, Espainian baino askoz ere handiagoa izan da Euskadin.

## 4.8. irudia

30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGABEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA EUSKADIN, ESPAINIAN ETA EUROPAN, ADIN HORRETAKO PERTSONEN KOPURU OSOAREKIKO (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia Euskadiko datuetarako (*Emantzipazioa* bilduma) eta Eurostat Espainia eta Europako datuetarako.

Ez dago alde handirik 30 eta 34 urte bitarteko emakume eta gizon langabeen artean: gizonen % 14,0 eta emakumeen % 12,5 zeuden langabezian 2017. urtean.

Langabeen ehunekoa nabarmen txikiagoa da goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen artean (% 7,9), derrigorrezko ikasketak edo bigarren mailakoak soilik amaitu dituztenen artean baino (% 18,7).

#### 4.6.2. 30 eta 34 urte bitarteko langabeen prestakuntza

Langabezian dauden 30 eta 34 urte bitarteko hamar pertsonatik hiruk (% 30,3k) soilik ditu goi-mailako ikasketak. Proporzio edo ehuneko hori 16 eta 29 urte bitarteko langabeena baino txikiagoa da, % 42,2k baitu, 30 urtez azpiko langabeen talde horretan, goi-mailako tituluren bat.


Konparatzen baldin baditugu 30 eta 34 urte bitarteko pertsona guztien eta, adin horretan, langabezian dauden pertsonen arteko proporzioak, ikusten dugu langabezian dauden pertsonen titulazio-maila beren adin berekoek batez beste dutena baino nabarmen txikiagoa dela; izan ere, adin horretako % 50,5ek du goi-mailako tituluren bat (unibertsitatekoa edo goi-mailako prestakuntza-gradua), eta langabezian dauden % 30,3k du titulazio-maila hori.

Adin horretako pertsona guztiakin alderatuta, euskararen eta ingelesaren ezagutza-maila apalagoa dute adin horretan langabezian daudenek.

30 urtetik beherako langabeekin konparatuz gero, ikusten da euskara gehiago dakitela gazteagoek, baina ingeles-maila pertsua dutela.

#### 4.9. irudia

30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGABEEN PRESTAKUNTZA-MAILAREN KONPARAZIOA, ADIN HORRETAKO PERTSONEN BATEZ BESTEKOAREKIKO ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE LANGABEEKIKO (%)



Datuen bilakaerak adierazten digu 30 eta 34 urte bitarteko langabeen % 17,6k soilik zuela, 2011. urtean, goi-mailako ikasketaren bat. Ehuneko hori, 2013. urtean, % 37,6ra igo zen, goi-mailako titulua zuten pertsona asko lanik gabe geratu zirelako eta, krisiak eta lan-merkatuaren egoera gaitzak bultzatuta, ikasketak luzatu zituztelako gazte askok. 2015. urteaz geroztik, behera egin du goi-mailako ikasketen tituluren bat duten langabeen ehunekoak, baina oso motel.

30 eta 34 urte bitarteko pertsona guztien batez bestekoaren antzekoa da 30 eta 34 urte bitarteko langabeen titulazioaren datua; alde horretatik, nabarmen egin du gora, 2013tik aurrera, goi-mailako tituluren bat duten pertsonen proportzioak.

#### 4.10. irudia

GOI-MAILAKO IKASKETAK DITUZTEN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGABEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, ADIN HORRETAN LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONA GUZTIEN EHUNEKOARENA ETA ADIN HORRETAN GOI-MAILAKO TITULAZIOA DUTEN PERTSONA GUZTIEN EHUNEKOARENA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma).

Bestalde, prestakuntza-ikastaroren bat egiten ari da langabezia dagoen lau pertsonatik bat (% 23,9). Ehuneko hori 30 urtetik beherako langabeena baino handiagoa da (adin horretatik beherako langabeen % 17,3 ari baita prestakuntza-ikastaroren bat egiten).

Ikastaroren bat egiten ari diren langabeen ehunekoak gora egin du urtetik urtera: % 13,5 aritu ziren ikastaroren bat egiten 2013an, % 13,8 aritu ziren 2015ean, eta hamar puntu gehiago izan dira 2017an, hau da, % 23,9.




### 4.6.3. Aurretiazko lan-eskarmentua eta langabezia-prestazioaren kobrantza

30 eta 34 urte bitarteko langabe gehien-gehienek (% 96,4k) dute aurretiazko lan-eskarmenturen bat, 30 urtetik beherako langabeek baino proportzio handiagoan (adin-tarte horretako % 81,5ek esaten du lan-eskarmenturen bat izan duela).

Aurretiazko lan-eskarmenturen bat dutenen ehunekoak ez du aldaketa handirik izan azken urteetan 30 eta 34 urte bitarteko langabeen artean. Egoera bestelakoa izan da 30 urtetik beherako langabeen artean, 2011 eta 2017 urteen bitartean hamar puntu egin baitu behera lan-eskarmentua dutenen ehunekoak.

#### 4.11. irudia

AURRETIAZKO LAN-ESKARMENTUA DUTEN LANGABEEN BILAKAERA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO LANGABEEN ARTEAN (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

30 eta 34 urte bitarteko pertsonen lan-eskarmentua ez da Euskadira mugatzen; izan ere, adin-bitarte horretan dauden langabeen % 30,6k esaten du beste autonomia-erkidegoren batean lan egin duela, eta % 27,4k adierazten du atzerrian lan egin duela. Atzerrian lan egin dutenen artean, % 15,5ek esaten du Europako beste herrialderen batean lan egin duela, eta % 18,9k esaten du Europatik kanpo lan egin duela. Egoera horiek ez dute elkar baztertzen; beraz, horiek guztiak aintzat hartuta, ikusten dugu Euskaditik kanpo lan egin duela noizbait 30 eta 34 urte bitarteko langabeen ia erdiak (% 46,4k). Ehuneko hori 30 urtetik beherako langabeena baino handiagoa da berriro ere (lehen adierazi dugun moduan, gazte langabeen % 37,0k du lan-eskarmenturen bat Euskaditik kanpo).

Beren aurreko enplegurik gabe geratzeko arrazoiari begiratuta, aurretiaz lan-eskarmentua duten langabeen % 17,1ek soilik adierazi du enplegua bere borondatez utzi zuela. Gainerako langabeek beste arrazoi batzuk eman dituzte: kontratua amaitzean ez zuten hura berriro, kaleratu egin zuten, enpresa itxi zuten, nahi gabeko beste arrazoi batzuk izan ziren edo ez dute arrazoirik zehaztu. Adin-talde horretan azken enplegua borondatez utzi zutenen ehunekoa 30 urtetik beherakoarenaren ia berdin-berdina da (% 17,1 eta % 17,2, hurrenez hurren).

30 eta 34 urte bitarteko langabeen guztizko zenbatekora bueltatuta, ikusten dugu ia guztiek dutela aurretiazko lan-eskarmenturen bat, baina erdiak baino gutxiagok (% 40,9k) jasotzen duela langabezia-prestazioa. Ehuneko hori 2015koa baino nabarmen handiagoa da (% 27,9) eta gertuago ditu 2013ko ehunekoak (% 37,6) eta 2011koa (% 36,2). Langabezia-ehunekoak goia jo zuen 2013an, eta horren ondorioz, langabetu gutxiagok izan zuten, 2015ean, langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea, ez zutelako aurreko urteetan kotizatu.

Langabezia-prestazioa kobratzen ari diren pertsonen ehunekoak nabarmen handiagoa da 30 eta 34 urte bitarteko langabeen artean (% 40,9koa da), 30 urtetik beherako langabeen artean baino (% 24,8koa).

Datu horiek ikusita, logikoa da langabezian dauden 30 eta 34 urte bitarteko hamar pertsonatik lauk (% 40,7k) esatea beren familiaren (gurasoen, anai-arreben edo beste senide batzuen) edo bikotekidearen diru-sarreraren kontura bizi direla erabat edo neurri handi batean, eta ia erdiak (% 47,0k) esatea 600 euro baino gutxiago izaten dituela hilean.

#### 4.6.4. Langabezian daramaten denbora


Langabezian sei hilabete baino gutxiago daramala dio langabezian dauden 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 53,0k). Beste muturrean, langabezian urtebetetik gora daramala esaten du lau pertsonatik batek (% 27,4k). Proporzioak oso antzekoak dira 16 eta 29 urte bitarteko langabeen adin-taldean.

30 eta 34 urte bitarteko langabeei erreparatuta, ikusten dugu langabezian urtebetetik gora daramatenen ehunekoak nabarmen egin duela behera aurreko urteekin alderatuta. Horixe bera ikusi dugu 30 urtetik beherako langabeen datuak aztertzean. Izan ere, 2013 eta 2015 urteetan, langabezian zeuden pertsonen ia erdiak (% 49,4k eta % 49,5ek, hurrenez hurren) urtebetetik gora zeramaten lanik gabe, eta orain, berriz, langabeen laurdena baino zertxobait gehiago (% 27,4) dago egoera horretan.

Langabeen ehunekoak ere behera egin duela kontuan hartuta, interesgarria da jakitea adin horretako pertsona guztietatik zenbat dauden iraupen luzeko langabezia-egoeran. Adin horretako pertsonen % 3,6 dago urtebetetik gora langabezian. 30 eta 34 urte bitarteko pertsona guztiekiko azterketa horrek erakutsi digu iraupen luzeko langabezia-kopuruak ia erdira egin duela behera, aurreko urteekiko.

#### 4.12. irudia

IRAUPEN LUZEKO LANGABEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO ADIN-TALDEAN ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO ADIN-TALDEAN (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma).

Goi-mailako ikasketarik ez dutenek dute iraupen luzeko langabezia-ehuneko handiena (% 6,1ekoa), beren adin-taldeko batez bestekoaren bikoitza.

#### 4.6.5. Lana bilatzeko ekimena


Lan bila ari da 30 eta 34 urte bitarteko langabeen gehiengoa (% 84,5). Lanbiden lan-eskatzaile moduan izena emanda daudenen ehunekoa zertxobait txikiagoa da (% 73,8koa), hau da, lan bila aritu arren, langabezian dauden hamar pertsonatik bat (% 10,7) ez dago Lanbiden izena emanda.

Lan bila ari direnen ehunekoa eta Lanbiden izena emanda daudenen handiagoa da 30 eta 34 urte bitarteko adin-taldean, 16 eta 29 urte bitarteko adin-taldean baino, adin-talde gaztean langabeen % 75,6 ari baita lan bila, eta % 62,7 baitago Lanbiden izena emanda lan-eskatzaile moduan.

Euskadi da lana bilatzeko eremua lan bila dabilzan langabe ia guztientzat (% 99,1entzat). Bilaketa-eremua beste autonomia-erkidego batzuetara zabaldua du % 23,0k, eta atzerrira % 16,8k. Zer ehuneko osatzen dute langabeen talde horiek 30 eta 34 urteren bitarteko adinean langabezian dauden pertsona guztiekiko? Euskadi da lana bilatzeko eremua adin-bitarte horretan langabezian dauden pertsona guztien % 83,7rentzat, eta % 21,1ek zabaldu du bere bilaketa-eremua Euskaditik kanpora (bateragarri da bi eremuetan bilatzea); zehazki, 30 eta 34 urte bitarteko langabe guztien % 19,5 ari da lan bila Espainiako beste lurralde batzuetan, eta % 14,2 atzerrian.

#### 4.13. irudia

LANA BILATZEKO EREMUEN KONPARAZIOA 30-34 URTEKO ETA 16-29 URTEKO LANGABEEN ARTEAN (%)




Datuak 16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeen ehunekoekin konparatuz gero, ikusten dugu 30 eta 34 urte bitarteko langabeek 30 urtetik beherakoek baino lan-bilatzailen ehuneko handiagoa dutela, eta bilaketa-proporzioa gazteena baino handiagoa dela aztertutako eremu guztietan.

30 eta 34 urte bitarteko langabeen % 46,0k sei hilabete baino gutxiago darama lana bilatzen, eta urtebete edo gehiago ari da lana bilatzeko jardunean adin-bitarte horretako langabeen % 18,5. Datu horiek bat datoz beste hauekin: langabezian dauden erdiak baino zertxobait gehiagok (% 53,0k) sei hilabete baino gutxiago darama langabezian, eta % 27,4k urtebete baino gehiago darama egoera horretan. Lana bilatzeko batez besteko denbora 7 hilabete eta erdikoa da, aurreko urteetan baino laburragoa. Batez besteko hori 30 urtetik beherako langabeek duten batez bestekoaren antzekoa da.

#### 4.14. irudia

LANA BILATZEN DARAMATEN BATEZ BESTEKO DENBORAREN BILAKAERA 30-34 URTEKO ETA 16-29 URTEKO LANGABEEN ARTEAN (HILABETEAK)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa bilduma*).

Lan bila ari diren erdiak (% 51,1ek) uste du sei hileko epean aurkituko duela: lana epe horretan bilatzea oso gertagarria dela uste du bilatzaileen % 20,1ek, eta nahiko gertagarria dela % 31,0k. Epe motzean enplegua aurkitzeko aukeren gaineko baikortasuna aurreko urteetako baino handiagoa da adin-talde horretan, eta baikortasun horixe bera ageri dute lan bila ari diren 30 urtetik beherako langabeek.

Bitxia da ikustea 2011. urtean 30 eta 34 urte bitarteko langabeek lana bilatzeko baikortasun handiagoa zutela 30 urtetik beherako langabeek baino, eta 2013. urteaz geroztik 16 eta 29 urte bitarteko langabeek baikorragoak direla, 30 eta 34 urte bitartekoak baino.

#### 4.15. irudia

30 ETA 34 URTE BITARTEKO ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO LANGABEEK SEI HILABETEKO EPEAN LANA AURKITZEKO DUTEN ITXAROPENAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Langabeen ehunekoaren eta lana bilatzeko batez besteko denboraren kontrako joera adierazten du lana aurkitzeko itxaropenaren edo konfiantzaren adierazleak: langabezian daudenen ehunekoak gora egiten duenean, luzatu egiten da lana bilatzeko denbora, lanpostu gutxiago eskaintzen direlako eta lanpostuak eskuratzeko lehia handitzen delako; horren ondorioz, murriztu egiten da lana aurkitzeko itxaropena. Aitzitik, langabeziak behera egiten duenean, laburtu egiten da langabezian emandako denbora, eta handitu egiten da epe motzean lana aurkitzeko itxaropena.

## 4.7. EMAITZA NAGUSIAK

Gazte langabeen ehunekoak nabarmen egin du behera 2013. urteaz geroztik. Urte horretan izan zuen langabeziak 2000-2017 aldiko ehunekorik handiena, eta 2000. urtean hasitako urte-sail horren ehuneko txikiena adierazten du gaur egun. Beherakada horren arrazoietakoa bat da handitu egin dela lanean ari diren gazteen ehunekoa, baina beste arrazoi bat da gazteek luzatu egin dutela beren ikasketa-aldia; izan ere, langabeen ehunekoa urte-saileko txikiena da, bai, baina ikasleen ehunekoa handiena da aztertutako urteen sail horretan.

Langabezian dauden gazteek beren adineko pertsonen batez bestekoa baino ikasketa-maila apalagoa dute, eta horrek argi adierazten du zer-nolako garrantzia duen prestakuntzak enplegua eskuratzeko aukerak izateko.

Gazte langabe gehienek izaten dute lan-eskarmenturen bat aurretiaz, eta gazte horien herenak baino zertxobait gehiagok Euskaditik kanpo lan egin du noizbait. Hala ere, 30 urtetik beherako lau langabeetatik batek soilik kobratzen du langabezia-prestazioa, eta, horren ondorioz, familiarekiko mendekotasun ekonomikoa dute.

Lau gazte langabetik hiru lan bila ari da gaur egun. Lanbide enplegu-zerbitzu publikoan lan-eskatzaille moduan izena emanda daude gazte langabe gehienak, eta lan bila emandako batez besteko denbora aurreko urteetan baino laburragoa da. Euskadi ez da lana bilatzeko eremu bakarra gazteentzat; izan ere, langabezian dauden hamar

gaztetatik batek Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetara edo atzerrira zabaldu du bilaketa-eremua. Lana bilatzen ari direnek hura sei hileko epean aurkitzeko itzaropena nabarmen handitu da 2011 eta 2013 urteekiko, hau da, langabezia-datu handiko urteekiko.

30 eta 34 urte bitartekoen adin-taldean, gazteen adin-taldean baino handiagoa da langabezian daudenen proportzioa eta langabezian urtebete baino gehiago daramatenen ehunekoak; hala ere, bilakaera positiboa izan da adin-talde horretan ere, eta datuak aurreko urteetakoak baino nabarmen txikiagoak dira. Adin-bitarte horretan, gora egiten du aurretiazko lan-eskarmentua dutenen ehunekoak, ia langabe guztiek izan baitute noizbait lan-eskarmenturen bat; hala ere, erdiak baino gutxiagok kobratzen du langabezia-prestazioa. Adin horretan, gora egiten du, era berean, lana Euskadin eta Euskaditik kanpo bilatzen dutenen ehunekoak.

Datuen bilakaera positiboa izan da bi adin-talde horietan: langabeen bolumenak, oro har, behera egin du azken urteetan, eta behera egin du, era berean, langabezian urtebetetik gora daramatenen ehunekoak. Era berean, laburtu egin da lana bilatzen batez beste emandako denbora, eta handitu egin da lana sei hileko epean aurkitzeko itzaropena.

# 5

## Ikasle gazteen prestakuntza eta lan-eskarmentua

Bere okupazio nagusia ikasle izatea dela esaten du Euskadiko 16 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 54,4k). Hala ere, ikasten aritzeak ez du esan nahi aurretiazko lan-eskarmenturik ez dutenik edo lana bilatzen ari ez direnik. Kapitulu honetan, ikasle gazteen kopuruen bilakaera aztertuko dugu, zer prestakuntza zuten iraganean eta zer prestakuntza duten orain, zer lan-eskarmentu izan duten aurretiaz, eta orain lan bila ari diren.


### 5.1. IKASTEN ARI DIREN GAZTEEN KOPURUA

Ikasle gazteen ehunekoak 2000. urtean abiatutako urte-saileko handiena izan da 2017an, % 54,4koa izan baita (ikus 1.6 irudia). Gazteen ikasketa-aldia luzatu egin da, eta egoera horren arrazoi nagusia izan da enplegua falta izan dela krisialdiko urteetan eta curriculumak hobetzeko premia sortu dela lana aurkitzeko. Egoera horren alde ona da gure gazteak ondo prestatuta daudela, baina, horren ifrentzuan, atzeratu egin da lanpostu bat eskuratzeko adina, eta horrek hainbat ondorio izan ditu: gazteek zailtasun ekonomikoak dituzte emantzipatzeko, atzeratu egin da seme-alabak izateko adina, atzeratu egin da gizarte-segurantzian kotizatzen hasteko adina, etab. Beste ondorio bat da eskaintzen diren lanpostuetarako behar dena baino kualifikazio handiagoa izaten dutela gazte askok; alde horretatik, lan-eskaintza askotan eskatzen diren baldintzak lanpostua egiaz betetzeko behar direnak baino handiagoak izaten dira, eta eskaintzetan galbahe bat ezartzea izaten da baldintza horiek jartzearen arrazoi bakarra.

Parekoak dira ikasle gazte gizonezko eta emakumezkoen ehunekoak (% 54,4koak bietan). Aldeak ikusten dira, ordea, jaiolekuaren eta gizarte-mailaren arabera. Atzerrian jaiotakoek baino ehuneko handiagoan ikasten dute Euskadin jaiotakoek (% 45,1 eta % 55,9, hurrenez hurren). Gizarte-maila ertainekoak, ertain-goikoak edo goikoak direla esaten dutenek ehuneko handiagoan ikasten dute, beheko edo ertain-beheko mailakoak direla esaten dutenek baino (% 57,3 lehenek, eta % 45,7 bigarrenek).

Hala ere, adina da alderik handienak dakartzan aldagaia. Ikastea da 16 eta 24 urte bitarteko gazteen okupazio nagusia, eta, zehazki, 16 eta 19 urte bitartekoen % 93,2k eta 20 eta 24 urte bitartekoen % 61,5ek esaten du ikastea dela bere jardun nagusia. Behin 25 urteko adina beteta, gehiago dira lan egiten dutenak, ikasten ari direnak baino; hori horrela, ikasleen proportzioa % 18,1era murrizten da adin horretan.

Bere jardun nagusia ikastea ez baldin bada ere, 25 eta 29 urte bitarteko langileen % 12,2 zerbait ikasten ari da aldi berean, eta beste % 2,4, langabezian egon arren, prestakuntza-ikastaroren bat egiten ari da. Hori horrela, 25 eta 29 urte bitartekoen herena (% 32,7) zerbait ikasten ari da.



## 5.2. IKASTEN ARI DIREN GAZTEEN PRESTAKUNTZA

Ikasten ari diren gazteen egoera aztertzeko, ikastea okupazio nagusi duten gazteen egoerari erreparatuko diogu, hau da, ez ditugu kontuan hartuko lan egiten, eta aldi berean, ikasten ari direnak edo, langabezian egonda, prestakuntza-ikastaroren bat egiten ari direnak.

Ikasten ari diren gazteen herenak amaituak ditu derrigorrezko ikasketak (% 33,0), Batxilergoa edo erdi-mailako prestakuntza zikloren bat amaitu du % 47,5ek, eta goi-mailako titulazioaren bat du % 19,5ek. Goi-mailako ikasketak amaituta izan eta, okupazio nagusi moduan, ikasten jarraitzen dute Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien % 10,6k, hau da, adin-bitarte horretan dauden hamar pertsonatik batek.

Egun egiten dituzten ikasketei begiratuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Batxilergoa edo erdi-mailako prestakuntza-zikloren bat egiten ari da ikasleen % 35,9. Goi-mailako ikasketak egiten ari da % 50,1, hau da, goi-mailako prestakuntza-zikloren bat edo unibertsitate-graduaren bat. Masterrak edo graduondoko ikasketak egiten ari da ikasleen % 5,7. Hizkuntzak ikasten ari da % 1,9 eta bestelako ikasketak edo ikastaroak egiten ari da % 6,4.



## 5.1. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK AMAITUTAKO IKASKETAK ETA EGUN EGITEN ARI DIREN IKASKETAK (%)

Zein ikasketa dituzu amaituta? Zer ari zara ikasten?		
(%)	Amaitutako ikasketak	Gaur egun ikasten ari direna
Derrigorrezko ikasketak (amaituta edo oraindik betetzen)	33,0	6,5
Derrigorrezko ikasketen ondorengo bigarren mailako ikasketak (Batxilergoa edo lanbide heziketako erdi mailako prestakuntza-zikloak)	47,5	29,4
Goi-mailako ikasketak (graduak unibertsitate-ikasketak edo lanbide heziketako goi-mailako prestakuntza-zikloak)	17,0	50,1
Graduondoko ikastekak edo masterrak	2,5	5,7
Hizkuntzak edo bestelako ikastaroak*	–	8,3
Guztira	100	100
(n)	647	647

\* Aukera hau ez zaie eskaini gaur egun ikasten ari direnei.

Logikoa da pentsatzea, aurreko ehuneko horietako askok duten antzekotasuna ikusita, derrigorrezko ikasketak amaituta dituzten pertsonak bigarren mailako ikasketak egiten ari direla, derrigorrezko ikasketa horien ondokoak alegia, eta horiek amaitu eta ikasten jarraitu dutenak goi-mailako ikasketak egiten ari direla (unibertsitatekoak edo lanbide-ikasketak). Baina zer ikasten dute goi-mailako tituluak eskuratuta dituztenek? Prestakuntza-zikloren bat egiten ari da pertsona horien % 26,6, unibertsitate-graduren bat % 27,6, master edo graduondoko ikasketaren bat % 26,0, eta hizkuntzak ikasten edo bestelako ikastaroren bat egiten ari da gainerako % 19,8.

Ikasketa-mailari begiratu beharrean, egiten ari diren ikasketa motari erreparatzen baldin badiogu, ikusten dugu Euskadiko gazteek unibertsitate-ikasketak egiteko joera handiagoa dutela, lanbide-ikasketak egitekoa baino: unibertsitate-graduren bat edo graduondoko ikastaroren bat egiten ari da ikasleen % 39,8, eta prestakuntza-zikloren bat, erdi- edo goi-mailakoa, egiten ari da % 27,8. Alde horiek are handiagoak dira emakume gazteen kasuan, gizonezkoek baino ehuneko handiagoan erabakitzen baitute unibertsitate-ikasketak egitea.

## 5.2. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO IKASLEAK EGITEN ARI DIREN IKASKETA MOTAK, SEXUAREN ARABERA (%)

Zer ari zara ikasten?*			
(%)	Guztira	Sexua	
		Emakumeak	Gizonak
DBH edo parekoak	6,5	4,3	8,7
Batxilergoa	17,3	18,8	15,8
Lanbide heziketako erdi- eta goi-mailako prestakuntza-zikloak	27,8	19,8	35,5
Unibertsitate-ikasketak (graduak, graduondokoak, masterrak)	39,8	49,8	30,2
Goi-mailako arte-ikasketak	0,3	0,2	0,3
Hizkuntzak edo beste era bateko kurtsoak eta ikastaroak	8,3	7,1	9,5
Guztira	100	100	100
(n)	647	326	321


\* Ikasketa-mota bat baino gehiago egiten ari direnei ordu gehiago edo maila altuagoa duena adieraztea eskatu zaie.

Hizkuntzen ezagutzari begiratuta, lau ikasletik hiruk (% 78,6k) esaten du nahiko ondo edo oso ondo hitz egiten duela euskara, eta erdiak baino gehiagok (% 56,9k) ingelesa nahiko ondo edo oso ondo hitz egiten duela.

Ikasleek beren adineko pertsona guztien batez bestekoak baino euskara eta ingeles gehiago dakite, eta horixe bera adierazten dute zenbait ikerlanek.

### 5.2. irudia

EUSKARAREN ETA INGELESAREN JAKINTZA-MAILA, 16 ETA 29 URTE BITARTEKO IKASLEEN ETA ADIN HORRETAKO PERTSONA GUZTIEN ARTEAN KONPARATUTA (%)




### 5.3. IKASLE GAZTEEN LAN-ESKARMENTUA

Ikasten ari diren gazteen % 21,2k esaten du, ikasteaz gain, lan osagarriren bat egiten duela. Azken urteetako baino handiagoa da ehuneko hori, eta krisialdiaren aurrekoetara gerturatzen da.

Bestalde, ikasten ari diren gazteen % 25,9k esaten du, orain lanik egiten ez duen arren, noizbait egin izan duela; beraz, guztira, ikasten ari diren gazteen ia erdiak (% 47,1ek) du lan-eskarmenturen bat.

### 5.3. irudia

NOIZBAIT LAN EGIN DUTEN ETA EGUN LANEAN ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO IKASLE GAZTEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma 2004 eta 2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017 datuetarako).

Langabezia dauden gazteek ez bezala, noizbait lan egin baina gaur egun ikasten ari diren gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 54,4k) adierazten du bere borondatez utzi zuela aurreko lana.

Eta gaur egun ikasketak eta lanen bat bateratzen duten gazteei begiratuta, lanaldi partzialean lan egiten du gehiengoak (% 90,6k), astean 20 lanordu baino gutxiago egiten ditu % 74,6k, aldi baterako kontratuarekin lan egiten du % 44,8k, kontraturik gabe % 26,8k, eta hilean 500 euro baino gutxiago irabazita % 60,6k.

### 5.4. IKASTEN ETA LAN BILA ARI DIREN GAZTEAK


Bost ikasketik bat (% 20,2) lan bila ari da gaur egun. Ehunekoak ez du gorabehera handirik izan azken urteotan: % 19,0koa izan zen 2011n, % 24,0koa 2013an, % 22,2koa 2015ean eta % 20,2koa izan da 2017an.

Hala ere, erdia soilik (% 10,9) dago izena emanda Lanbiden enplegu-eskatzaille moduan.

Lana bilatzen ari direnen datuetan, ez dago alde handirik nesken eta mutilen artean, ezta soilik ikasten ari direnen eta ikasketak lanarekin bateratzen dituztenen artean, antzeko ehunekoak baitituzte guztiek. Aldeak ikusten dira, ordea, amaitutako ikasketei begiraturaz gero. Lana bilatzen ari direnen ehunekoa handiagoa da goi-mailako titulazioren bat dutenen artean (% 37,7), halakorik ez dutenen artean baino.

### 5.4. irudia

LAN BILA ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO IKASLEAK,  
AMAITUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA (%)



Lan bila ari diren ia guztiak (% 99,5) Euskadin ari dira bilatzen enplegua, baina ikasle batzuek Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetara (% 18,6k) eta atzerrira (% 14,1ek) zabaldu dute bilaketa-eremua.

Lana sei hileko epean aurkitzeko aukera edo probabilitatea nabarmen handitu da aurreko urteekin alderatuta: 2011 eta 2013 urteetan lan bila zebiltzan ikasleen laurdenak soilik uste zuen lana denbora-epe horretan aurkituko zuela (% 23,5ek uste zuen hori 2011n, % 28,7k, berriz, 2013. urtean). Aurrerago, 2015ean, ia erdiraino igo zen itxaropen hori zutenen ehunekoa (% 43,2), eta 2017. urtean erdiak baino gehiagok (% 56,7k) uste du epe horretan aurkituko duela lana.

## 5.5. IKASTEN ARI DIREN GAZTEEN BALIABIDE EKONOMIKOAK

Familiaren diru-sarreraren kontura soilik bizi da ikasleen gehiengoa (% 82,9). Beste muturrean, bere diru-sarrera propioen kontura bizi da % 1,2. Gainerakoek familiaren edo bikotekidearen diru-sarrerekin osatzen dituzte diru-sarrera propioak.


Alde handia dago ikasi eta lan egiten dutenen eta soilik ikasten aritzen direnen artean. Lan osagarriren bat dutenei begiratuta, oso antzekoa da familiaren diru-sarreraren kontura soilik bizi direla diotenen ehunekoa (% 46,2) eta diru-sarrera propioak familiak emandakoarekin osatzen dituztenen ehunekoa (% 46,5), baina lanen bat egiten duten ikasleen % 4,6k bakarrik esaten du soilik bere diru-sarrera propioen kontura bizi dela.

Zenbat diru izaten dute ikasleek hilean? Hilean 60 euro baino gutxiago izaten du ikasleen % 29,3k, hau da, astean 15 euro gehienez. Lan osagarriekin gabe, ikasten soilik aritzen direnen % 36,5ek izaten du diru-kopuru hori hilean, eta proportzioa % 47,0ra igo da 20 urtetik beherako ikasleen artean.

Hilean 60 eta 300 euro bitarteko diru-zenbateko bat izaten du ikasle guztien % 45,5ek. Aurreko bi ehunekoek batura eginez gero, ikusten dugu lau ikasletik hiruk (% 74,8k) 300 euro baino gutxiago izaten dituela hilean. Hilean 300 eta 600 euro bitarteko zenbateko bat du ikasleen % 13,8k, eta 600 baino gehiago % 6,4k. Gainerako % 5,0ak ez dio erantzun galderari. Ikasketak lanarekin uztartzen dituzten ikasleen ia erdiak (% 47,4) 300 euro baino gehiago izaten ditu hilean.

### 5.5. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO IKASLEEK HILEAN IZATEN DUTEN DIRUA, SOILIK IKASTEN ARI DIREN EDO IKASKETAK LANAREKIN UZTARTZEN DITUZTEN AINTZAT HARTUTA (%)




Datuen bilakaera aztertuta, ikusten dugu hilean 300 euro baino gehiago izaten dituzten ikasleen ehunekoak gora egin duela krisialdiko urteekiko, eta 2008. urtean izandako proportzioaren antzekoa dela.

Bilakaera hori gaur egun ikasketak eta lana uztartzen dituzten ikasleen ehunekoak izandakoaren oso antzekoa da (ikus 5.3 irudia). Hau da, ikasketak eta lana uztartzen zituen 2008an ikasten ari ziren bost pertsonatik batek, eta antzekoa zen hilean 300 euro baino gehiago izaten zutenen proportzioa. Bi ehuneko horiek (ikasketak eta lana uztartzen dituzten ikasleena eta hilean 300 € baino gehiago duten ikasleena) behera egin zuten krisialdiko urteetan, eta krisialdiaren aurreko proportzioetara, 2008ko ehunekoetara, itzuli dira 2017an.

## 5.6. irudia

16-29 URTEKO IKASLEEK HILEAN IZATEN DUTEN DIRUAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma 2000-2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017 datuetarako).

## 5.6. 30 ETA 34 URTE BITARTEKO IKASLEEN EGOERA

Lehenik eta behin, adierazi behar da ikasle gutxi daudela adin-tarte horretan, adin-tarte horretako pertsonen % 8,5 baitira. Hala ere, 2011koaren bikoitza da ehuneko hori (% 4,7koa izan zen urte horretan, ikus 1.2 taula), gazte askok, krisialdia hastean, luzatu egin baitzuen bere ikasketa-ibilbidea, lan-eskasia ikusita.

Ikasle gutxi daude adin-tarte horretan, eta, ondorioz, tentuz irakurri behar dira beren egoerari buruzko datu horiek, aztertu den lagin horrek oso pertsona gutxi hartu baititu. Datu orokorrak begiratuko ditugu orain, eta 30 urtetik beherako ikasleen datuekin konparatuko ditugu.

Ikasketa eta lana uztartzen dituztenen ehunekoa antzekoa da adin-talde horretan (% 18,0) eta 16 eta 29 urte bitarteko ikasleen taldean (% 21,2).

30 eta 34 urte bitarteko ikasleen ikasketa-maila 30 urtetik beherakoena baino handiagoa da. Adin handiagokoen taldean, hiru pertsonatik batek (% 34,1ek) goi-mailako tituluren bat du (goi-mailako prestakuntza-zikloa edo unibertsitateko gradua, masterra edo graduondokoa). Ikasketa-maila hori dutenez, logikoa da 30 eta 34 urte bitarteko taldean handiagoa izatea masterrak edo graduondokoak egiten, hizkuntzak ikasten edo bestelako ikastaroak egiten dituztenen ehunekoa.

## 5.3. taula

16 ETA 29 URTE ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO IKASLEEK AMAITUTAKO IKASKETEN  
ETA EGITEN ARI DIREN IKASKETEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)

Zein ikasketa dituzu amaituta? Zer ari zara ikasten?				
(%)	Amaitutako ikasketak		Gaur egun ikasten ari direna	
	16-29 urte	30-34 urte	16-29 urte	30-34 urte
Derrigorrezko ikasketak (amaituta edo oraindik betetzen)	33,0	11,1	6,5	1,2
Derrigorrezko ikasketen ondorengo bigarren mailako ikasketak (Batxilergoa edo lanbide heziketako erdi mailako prestakuntza-zikloak)	47,5	54,8	29,4	14,3
Goi-mailako ikasketak (gradu unibertsitate-ikasketak edo lanbide heziketako goi-mailako prestakuntza-zikloak)	17,0	24,2	50,1	54,8
Graduondoko ikastekak edo masterrak	2,5	9,9	5,7	16,5
Hizkuntzak edo bestelako ikastaroak *	–	–	8,3	13,2
Guztira	100	100	100	100
(n)	647	49	647	49

\* Aukera hau ez zaie eskaini gaur egun ikasten ari direnei.

Esan behar da, edonola ere, 30 eta 34 urte bitarteko ikasleen prestakuntza-maila, batez beste, beren adin-taldekoarena baino apalagoa dela, eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsona guztiak aintzat hartuta, % 50,5ek duela, Euskadin, goi-mailako tituluren bat.

Zer hizkuntza dakizkiten aztertuta, 30 eta 34 urte bitarteko ikasleen % 69,2k esaten du ondo hitz egiten duela euskaraz, eta proportzio hori 16 eta 29 urte bitartekoena baino txikiagoa da (% 78,6); hala ere; ingelesaren ezagutza-maila handiagoa dute adin handiagoko taldekoek, % 63,0k esaten baitu ondo hitz egiten duela ingelesez, eta 30 urtetik beherako ikasleen taldean, berriz, % 56,9k esaten du ingelesaren ezagutza-maila hori duela.

30 eta 34 urte bitarteko ikasleen euskara- eta ingeles-maila adin-bitarte horretako pertsona guztien batez besteko mailarekin konparatzen baldin badugu, ikusten dugu ikasten ari direnek maila nabarmen handiagoa dutela, batik bat ingelesean. Euskaraz ondo hitz egiten dutenen batez bestekoa % 53,3koa da 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean, eta proportzioa % 69,2koa da adin-bitarte horretako ikasleen artean. Bestalde, ingelesez ondo hitz egiten dutenen batez bestekoa % 38,8koa da adin-bitarteko pertsona guztiak aintzat hartuta, eta % 63,0koa adin-talde horretako ikasleen artean. Joera hori bera ikusi dugu 16 eta 29 urte bitarteko gazteen hizkuntza-ezagutzak aztertzean, adin-talde horretako ikasleek beren adinekoen batez bestekoa baino ezagutza handiagoa dutela egiaztatu baikenuen.

Bestalde, 30 eta 34 urte bitarteko hamar ikasletik seik (% 61,0) lan-eskarmentua dute; horien artean, lana eta ikasketak bateratzen ditu % 18,0k, eta % 43,0k esaten du noizbait lan egindakoa dela iraganean, baina pertsona horien gehiengoak esaten du, 30 urtetik beherako ikasleek ez bezala, ez zutela borondatez utzi aurretiaz egindako lan hori (adierazten dute kontratua amaitu zitzaiela eta ez zietela berritu, kaleratu egin zituztela, enpresak itxi egin zuela, etab.).

Ikasten ari den hiru pertsonatik bat (% 31,4) lan bila ari da, baina txikiagoa da Lanbiden enplegu-eskatzaile moduan izena emanda daudenen ehunekoa (% 25,7). Lan bila ari diren ikasle horiek guztiak Euskadin ari dira lana bilatzen, eta gutxi dira Espainiako beste leku batzuetan (% 9,0) eta atzerrian (% 3,8) bila ari direnak.

Lan bila ari diren ikasleen ehunekoa handiagoa da 30 eta 34 urte bitartekoen artean (% 31,4koa da), 16 eta 29 urte bitartean dituztenen artean baino (% 20,2).

30 eta 34 urte bitarteko hiru ikasletik bi (% 65,0) familiaren diru-sarreraren kontura soilik bizi da, eta ikasleen % 20,2 bizi da bere diru-sarrera propioen kontura edo bere diru-sarrerak eta bikotekidearenak partekatuta. Azken talde hori gutxiengoa da, baina 30 urtetik beherakoen artean baino proportzio handiagoa osatzen dute, adin-talde gazteko % 1,8k soilik baitu independentzia ekonomikoa.

Datuak diru-zenbatekoetara ekarrita, ikusten da hilean 300 euro baino gutxiago izaten dituela 30 eta 34 urte bitarteko ikasleen % 53,6k. Hala ere, ehuneko hori 16 eta 29 urte bitartekoen adin-taldekoa baino txikiagoa da (% 74,8).

## 5.7. EMAITZA NAGUSIAK

2017. urtean, ikasten aritu da 16 eta 29 urte bitarteko gazteen erdia baino gehiago. Guztirako datuei begiratuta, 2000. urtean hasitako urte-sailaren bolumen handiena izan da.

Ikasleen ehunekoa handiagoa da 25 urtetik beherakoen artean, bost gaztetik batek soilik jarraitzen baitu ikasten 25 eta 29 urte bitartekoen adin-taldean. Hamar pertsonatik bakarrak jarraitzen du ikasten 30 eta 34 urte bitartekoen adin-taldean.

Ikasle horien erdia baino gehiago goi-mailako lanbide-ikasketak egiten edo unibertsitateko graduak, masterrak edo graduondokoak ikasten ari da, baina unibertsitate-ikasketa hautatzen dutenen ehunekoa handiagoa da, emakumeen artean batik bat.

Ikasten ari diren gazteen erdiak lan-eskarmentua du, bai lanean ari delako ikasten ari den bitartean, bai noizbait lan egin duelako nonbaiten. Gazte horien gehiengoak esaten du bere borondatez utzi duela aurrez egindako lana. Lan-eskarmenturen bat duten ikasleen ehunekoak gora egin du krisialdiko urteekin alderatuta, eta 2008ko ehunekoetara gerturatu da. Lanean ari diren ikasleak lanaldi partzialeko enpleguak dituzte, 20 lanordutik beherakoak, eta aldi baterako kontratuarekin edo kontraturik gabe lan egiten dute.

Ikasleen gehiengoak familiaren diru-sarreraren kontura bizi da, eta 300 euro baino gutxiago ditu erabilgarri hilean. Ikasten ari diren bost pertsonatik bat lan bila ari da, eta krisialdiko urteetan ez bezala, hura sei hileko epean aurkitzea espero du gehiengoak.

30 urtetik beherako ikasleen aldean, 30 eta 34 urte bitarteko ikasleek lan-eskarmentu handiagoa dute, eta ehuneko handiagoan ari dira lan bila. Eta 16 eta 29 urte bitartekoek baino diru gehiago izaten dute erabilgarri hilean.



# 6

## Lan-bilaketa

Ikasten, lanean eta langabezian dauden gazteen egoera aztertu dugu orain arte. Egoera horietan guztietan ikusi ditugu gazteak lan bila. Kapitulua honetan, batera aztertuko ditugu pertsona horiek guztiak, datu orokorrak emateko; hala ere, kontuan izango ditugu egoera bakoitzaren berezitasunak.

### 6.1. LAN BILA ARI DIREN GAZTEEN KOPURUAK ETA HORIEN EZAUGARRIAK

Zer egoeran dagoen bereizi gabe, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 26,3 lan bila ari da gaur egun.


Krisialdi ekonomikoko urteetakoa baino txikiagoa da ehuneko hori; izan ere, enpleguaren kontrako joera izaten du lan-bilaketak: zenbat eta gazte gutxiago aritu lanean, orduan eta gazte gehiago ari da lan bila, eta alderantziz. Aztertu diren lau urteetan, ordea, lanean ari direnen eta lan bila ari direnen ehuneko baturak % 60tik % 70era bitarteko ehunekoak dakarzkigu. Gainerako gazteek, momentuz, ez dute lan egiten eta ez dute lanik egin nahi (buru-belarri ikasten ari dira, etab.).

Ikasten edo lanean ari diren gazteen artean, gutxiengoa ari da lan bila (ikasleen % 20,2 eta lanean ari direnen % 23,3); hala ere, langabezian daudenen artean, gehiago dira (lau pertsonatik hiru) lan bila ari direnak (% 74,8).

Lan bila ari direnen ezaugarriak adin bereko gazte guztien ezaugarriekin alderatuz gero, langabezian daudenen ehunekoa batez bestekoa baino handiagoa da lan bila ari direnen artean, handiagoa da 20 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa (lan bila ari direnen batez besteko adina 23 urte eta erdikoa da), goi-mailako ikasketak dituztenen ehunekoa, atzerrian jaiotakoena eta beheko edo ertain-beheko gizarte-mailako pertsonena.

## 6.1. irudia

16-29 URTEKO LANGILEEN ETA LAN-BILATZAILAEN BOLUMENAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma).

## 6.1. taula

LAN BILA ARI DIREN GAZTEEN ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE GUZTIEN EZAUGARRIEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)


(%)		Lan bila ari diren gazteak	Gazte guztiak
Adin-taldeak	16-19 urte	12,8	28,5
	20-24 urte	41,3	34,2
	25-29 urte	45,8	37,3
Amaitutako ikasketak	Derrigorrezkoak edo derrigorrezkoen ondorengo bigarren mailakoak	55,1	63,7
	Goi-mailakoak	44,9	36,3
Okupazioa nagusia	Ikasten	41,7	54,4
	Lanean	31,3	35,4
	Langabezian	19,4	6,7
	Beste egoera batean	7,6	3,5
Jaiolekua	Euskadi	68,8	83,1
	Espainiako beste Autonomia Erkidegoren bat	5,9	5,3
	Atzerria	25,3	11,5
Gizarte-maila subjektiboa	Goi-maila, ertain-goikoa edo ertaina	61,8	73,5
	Behekoa edo ertain-behekoa	36,6	24,9
	Ez du bere burua kokatzen	1,5	1,7
Aldagai bakoitzeko GUZTIZKOAK		100	100
(n)		373	1319

## 6.2. LAN-BILAKETAREN EZAUGARRIAK

Lan bila ari diren hiru gaztetik bi (% 62,6) Lanbiden, Euskal Enplegu Zerbitzuan, izena emanda daude. Langabezia dauden pertsonak erabiltzen dute gehien zerbitzu hori; lan bila ari diren ikasleen erdia soilik dago Lanbiden izena emanda.

### 6.2. irudia

LANBIDEN IZENA EMANDA DAUDEN GAZTEEN EHUNEKOA LAN BILA ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE GUZTIEKIKO, OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)




Pertsona horietako ia guztiak (% 99,0) Euskadin ari dira lan bila, baina lan bila ari diren bost pertsonatik batek (% 20,4k) Euskaditik kanpora zabaldu du bilaketaren eremua; zehazki, Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetara zabaldu du % 16,9k, eta atzerrira zabaldu du % 11,8k. Bilaketa modu horiek bateragarriak dira, eta horren erakusgarri da lan bila ari direnen % 8,2 Espainiako beste lurralde batzuetan eta atzerrian bilatzen ari dela.

Talde hauek dituzte lana Euskaditik kanpo bilatzen dituztenen ehuneko handienak: goi-mailako ikasketak dituztenek, ingelesa ondo dakitenek eta lehendik Euskaditik kanpo lan egiten dutenek.

### 6.3. irudia

EUSKADITIK KANPO LANA BILATZEN ARI DIREN 16 ETA 29 URTEKO PERTSONEN EHUNEKOA LAN BILA ARI DIRENEN GUZTIEKIKO, IKASKETA-MAILAREN, INGELESAREN JAKINTZA-MAILAREN ETA EUSKADITIK KANPO IZANDAKO LAN-ESKARMENTUAREN ARABERA (%)



Gazteek, galdetu zaien anean, bederatzi hilabete zeramatzaten, batez beste, lana bilatzen, baina horrek ez du esan nahi hori denik lana bilatu bitarteko denbora osoa. Batez bestekoa horixe bera izan zen, bederatzi hilabetekoa, bai 2015etan, bai 2013an.

Langabezian dauden pertsonen daramate denbora gutxien lana bilatzen (zazpi hilabete, batez beste). Aitzitik, lanean ari direnak dira lan bila denbora gehien daramatenak (ia hamahiru hilabete). Txosten honen 3. kapituluari ikusi dugun moduan, lan-baldintza hobekiak edo ikasi dutenarekin lotura handiagoa duen lanen bat aurkitu nahi izaten dute lanez aldatu nahi duten pertsonak, eta, lan bila aritzen direnean, baldintza hobeko horiek topatu nahi izaten dituzte, eta ez dituzte onartu nahi izaten baldintza kaskarragoak, langabezian dagoen norbaitek, akaso, onartu ditzakeen arren. Hori horrela, langabezian dauden pertsonak gainerako pertsonak baino ehuneko handiagoan daude ogibidez edo lanbidez aldatzeko prest (egoera horretan daudenen % 95,1), beraien ustez dagokiena baino lanbide-kategoria txikiagoko lan bat onartzeko prest (% 63,4), eta beraien ustez duten kualifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera apalagoak dakartzkien enplegu bat onartzeko prest (% 59,4).

## 6.2. taula

LAN BILA ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK BEREN LAN-AURREIKUSPENAK ALDATZEA DAKARTEN ENPLEGUAK ONARTZEKO DUTEN PRESTASUNA, OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

Hartuko zenuke lan bat ondokorik ekarriko balu...?*	Guztira	Okupazio nagusia		
		(%)	Ikasten	Lanean
... lanbidea edo ogibidea aldatzea?	80,6	73,8	80,0	95,1
... zure ustez, zure prestakuntzari dagozkion diru-sarrerak baino baxuagoak?	55,3	52,0	52,7	63,4
... zure ustez, dagokizuna baino maila edo kategoria baxuagoa?	50,3	48,6	44,7	59,4
(n)	373	144	122	75

\* Banan-banan egindako galderak. Portzentajeek galdera bakoitzari emandako baiezko erantzunak adierazten dituzte.


Sei hiletan lana aurkitzeko zer aukera ikusten duten galdetu ondoren, handiagoa da lana aurkitzea nahiko edo oso gertagarria dela uste dutenen ehunekoak (lan bila ari direnen % 52,7k uste du epe horretan topatuko duela), epe horretan aurkitzeko aukera gutxi edo deusezak dituztela pentsatzen dutenena baino (% 42,0). Gainerakoek ez dakite zer gerta daitekeen edo ez dute erantzun.

Lana sei hileko epean aurkitzeko konfiantza edo itxaropena zertxobait handitu da 2015. urtearekiko (orduan lan bila ari zirenen % 49,4k uste zuen epe horretan topatuko zuela), eta 2013. urtean izandakoaren bikoitza da (% 26,6).

Lana aurkitzeko duten itxaropenarekin konparatzen baldin badugu lan bila ari diren gazteen ehunekoak, ikusiko dugu nabarmen hobetu dela egoera 2013. urtearekiko; izan ere, behera egin du lana bilatzen ari direnen ehunekoak, eta lan bila ari direnek orduan baino itxaropen handiagoa dute lana sei hileko epean aurkitzeko.

## 6.4. irudia

LAN BILA ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA ETA, LAN BILA ARI DIRENEN ARTEAN, SEI HILEKO EPEAN LANA AURKITZEA ESPERO DUTENEN EHUNEKOAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma).

Lana aurkitzeko duten itxaropenari edo konfiantzari begiratuta, ez dago alde handirik ikasleen, lanean ari direnen eta langabezian dauden artean. Aldeak ikusten dira, ordea, amaitutako ikasketa-mailaren arabera: lan bila ari diren goi-mailako ikasketadunen % 57,1ek uste du sei hileko epean aurkituko duela, eta goi-mailako ikasketarik ez dutenei begiratuta, berriz, % 49,2k uste du lana epe horretan topatuko duela. Aldea are handiagoa da jaiolekuari begiratzen baldin badiogu: Euskadin jaiotakoen % 55,7k uste du lana sei hileko epean aurkituko duela, eta atzerrian jaiotakoen % 42,8k uste du lana epe horretan bertan aurkituko duela.

### 6.3. 30 ETA 34 URTEKO PERTSONEN LAN-BILAKETA

Gaur egun zer egoeratan dagoen begiratu gabe, lan bila ari da 30 eta 34 urte bitarteko hiru pertsonatik bat (% 32,5). Lan bila ari direnen ehunekoak behera egin du 2015. urteko datuarekiko, eta 2013. urteko datuaren antzekoa da.

Lan bila ari direnen ehunekoa sei puntu handiagoa da 30 eta 34 urte bitarteko artean, 16 eta 29 urte bitarteko adin-taldean baino; hala ere, ez da beti izan horrelako alderik. Bi adin-talde horien datuak oso antzekoak ziren 2011n, eta urte horretan eta 2013an adin-talde gazteko pertsona gehiago ari ziren lan bila, 30 eta 34 urte bitarteko adinean baino.

#### 6.5. irudia

LAN BILA ARI DIREN 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKOEN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

30 eta 34 urte bitarteko pertsona langabeak dira lan-bilazailen ehuneko handiena dutenak (langabeen % 84,5 ari da lan bila, eta lanean ari direnen % 22,8).

Atzerrian jaio diren adin-bitarte horretako pertsonen erdia (% 52,1) ari da lan bila, eta Euskadin jaiotakoen artean, berriz, laurdena baino zertxobait gehiago (% 28,4) ari da enplegua bilatzen.

Behe gizarte-mailako eta maila ertain-baxuko pertsonak proportzio handiagoan esaten dute lan bila ari direla, erdi-mailako eta maila ertain-altukoek baino (% 42,3 eta % 28,1, hurrenez hurren).

Lana bilatzeko moduari begiratuta, 30 eta 34 urte bitartean lana bilatzen ari diren lau pertsonatik hiru (% 72,8) Lanbiden izena emanda daude, lan-eskatzaille moduan. 30 eta 34 urte bitarteko lan-bilatzailleek ehuneko handiagoan jotzen dute Lanbidera (% 72,8), 16 eta 29 urte bitarteko lan-bilatzailleek baino (% 62,6).

Lan bila ari direnei soilik begiratu beharrean, adin horretako pertsona guztiekiko kalkuluak egiten baldin baditugu, ikusten dugu Euskadin 30 eta 34 urte bitarte dituzten pertsonen laurdena (% 23,7) dagoela Lanbiden izena emanda, eta ehuneko hori % 16,5koa dela 16 eta 29 urteko pertsona guztiak kontuan hartuz gero.

Lanbiden izena emanda daudenen ehunekoa handiagoa da langabezian izan eta lan bila ari direnen artean (% 87,3), enplegu bat izan eta lanez aldatu nahi dutenen artean baino (% 62,4). Emakume gehiagok jotzen du Lanbidera lan bila, gizonak baino (% 76,4 eta % 69,5, hurrenez hurren).


Aldeak ikusten dira, era berean, ikasketa-mailaren, jaiolekuaren eta gizarte-mailaren arabera. Goi-mailako titulaziorik ez duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak ehuneko handiagoan baliatzen dute Lanbide, goi-mailako ikasketa horiek dituztenek baino (goi-mailako titulaziorik ez dutenen % 76,5 eta titulazio hori eskuratu dutenen % 69,0). Atzerrian jaio eta lan bila ari diren pertsonak ehuneko handiagoan ematen du izena Lanbiden, Euskadin jaio eta lana bilatzen ari direnek baino (% 84,8 eta % 67,7, hurrenez hurren). Azkenik, beheko gizarte-mailakoak edo behe-ertainekoak direla adierazten dutenen % 76,1ek eman du izena Lanbiden, eta proportzioa % 70,4koa da gizarte-maila ertainekoak, ertain-altukoak edo altukoak direla adierazten duten lan-bilatzailen artean.

Lan-bilaketaren eremuari begiratuta, Euskadi da eremu nagusia: lan bila ari direnen % 97,2 ari da lana Euskadin bilatzen. Horrez gainera, Euskaditik kanpo lan bila ari da % 23,5; zehazki, Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetan bilatzen ari da % 22,5, eta atzerrian % 12,1.

Euskaditik kanpo bila ari direnen ehunekoa zertxobait handiagoa da 30 a 34 urte bitarteko lan-bilatzailen artean, 30 urtetik beherakoen artean baino (% 20,4 dira azken adin-talde horretan), baina horren arrazoi nagusia da 30 urtetik gorakoek ehuneko handiagoan bilatzen dutela lana Espainiako beste lurralde batzuetan.

## 6.6. irudia

LANA BILATZEKO EREMUEN KONPARAZIOA LAN BILA ARI DIREN 30-34 URTEKO ETA 16-29 URTEKO PERTSONEN ARTEAN (%)



Lan bila ari diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen soilik begiratuta, esan behar da gizonek ehuneko handiagoan bilatzen dutela lana Euskaditik kanpo, emakumeek baino (gizonen % 26,9 eta emakumeen % 19,9), eta beren burua beheko gizarte-mailan edo ertain-baxukoan kokatzen dutenek ehuneko handiagoan bilatzen dute lana kanpoan, gizarte-maila ertain, ertain-altu edo altukoek baino (% 28,9 eta % 20,7).

Hala ere, aurretiaz Euskaditik kanpo izandako lan-eskarmentuak dakartza alderik handienak. Noizbait Euskaditik kanpo lan egin eta gaur egun lan bila dabilzan pertsonak ari dira proportzio handienean bilatzen lana Euskaditik kanpo; izan ere, pertsona horien % 30,9 ari da lana Euskaditik kanpo bilatzen, eta kanpoan lan egin ez dutenen % 17,2 ari da lana kanpo-eremu horretan bilatzen.

Lana bilatzeko batez besteko denbora hamar hilabete eta erdikoa da, 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen batez beste daramaten denbora baino luzeagoa (bederatzi hilabetekoa da gazteen batez bestekoa). Lana bilatzeko batez besteko denbora murriztu egin da 2015. urtearekiko (batez bestekoa hamaika hilabete eta erdikoa izan zen urte hartan), eta are gehiago 2013. urtearekiko (ia hamahiru hilabetera iritsi zen, batez beste), eta, gaur egun, 2011. urtekoa baino zertxobait luzeagoa da (hamar hilabetekoa izan zen orduan).

Langabezian dauden pertsonen daramate denbora gutxien lan bila (zazpi hilabete, batez beste), eta gaur egun lanean ari direnek daramate denbora gehien lan bila, egun duten lanpostua aldatzeko (hamalau hilabete daramate lan bila, batez beste). Horren azalpen posible bat eman dugu 16 eta 29 urte bitarte dituztenek lana bilatzeko jardunean dituzten aldeak azertu ditugunean: lanean ari direnek beren egungo lanean dituztenak baino lan-baldintza hobea goko lanpostuak bilatzen dituzte. Lan-baldintza hobea gokoak nahi dituztenez, ez dute lanbidez aldatzeko edo beren lanbide-kategoria apaltzeko prestasunik izaten, ezta, langabezian daudenen aldean, beren ustez dagozkienak baino diru-sarrera txikiagoak jasotzeko prestasunik ere.



Oro har, eta gaur egun duten okupazioari begiratu gabe, lan bila ari diren 30 eta 34 urte bitarteko hamar pertsonatik bederatzi daude ofizioz edo lanbidez aldatzeko prest, enplegu bat eskuratuko baldin badute. Lan bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteena baino handiagoa da prestasun hori.

Horrez gainera, lan bila ari direnen erdiak baino gehiagok onartuko luke bere ustez dagokiona baino lanbide-kategoria txikiago batean lan egitea, eta bere kualifikazioari legezkiokkeenak baino ordainsari apalagoak eskuratzea onartuko luke ia erdiak. Bi aldagai horietan ez dago alde handirik 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen eta 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean.

### 6.3. taula

LAN BILA ARI DIREN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK BEREN LAN-AURREIKUSPENAK ALDATZEA DAKARTEN ENPLEGUAK ONARTZEKO DUTEN PRESTASUNA, OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA, ETA LAN BILA ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN PRESTASUNAREN ARTEKO KONPARAZIOA (%)

Hartuko zenuke lan bat ondokorik ekarriko balu...?*				
(%)	Lan bila dauden 30-34 urtekoak, guztira	Lan bila ari diren 30-34 urte bitartekoen okupazio nagusia**		Lan bila dauden 16-29 urtekoak, guztira
		Lanean	Langabezian	
... lanbidea edo ogibidea aldatzea?	89,3	84,5	96,4	80,6
... zure ustez, zure prestakuntzari dagozkion diru-sarrerak baino baxuagoak?	58,0	50,4	67,7	55,3
... zure ustez, dagokizuna baino maila edo kategoria baxuagoa?	48,2	34,6	59,9	50,3
<i>(n)</i>	192	99	62	373

\* Banan-banan egindako galderak. Portzentajeek galdera bakoitzari emandako baiezko erantzunak adierazten dituzte.


\*\* Ikasleei dagozkien datuak ez dira aurkezten, adin tarte honetan lan bila ari diren ikasleak oso gutxi direlako laginean eta, horren ondorioz, ez da fidagarritasun estatistiko nahikoa bermatzen.

Azkenik, sei hileko epean lana aurkitzeko itzaropena edo konfiantza handitu egin da aurreko urteekiko, eta lan bila ari direnen ia erdiak (% 49,5ek) uste du epe horretan topatuko duela.

Lana sei hileko epean aurkitzea espero dutenen proportzioak antzeko bilakaera izan du 30 eta 34 urte bitarteko lan-bilatzailen artean eta 16 eta 29 urte bitarteko lan-bilatzailen artean.

## 6.7. irudia

LAN BILA DABILTZAN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK SEI HILABETEKO EPEAN LANA AURKITZEKO DUTEN ITXAROPENAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

30 eta 34 urte bitarteko adinean dauden lan-bilatzailerik gizonen gehiengoan espero dute lana sei hileko epean aurkitzea, egoera horretan dauden emakumeek baino (gizonen % 53,3k eta emakumeen % 45,3k). Era berean, goi-mailako ikasketen titulazioa dutenek gertagarriagoa ikusten dute lana epe horretan aurkitzea, titulazio hori ez dutenek baino (% 53,5ek eta % 45,6k, hurrenez hurren).

## 6.4. EMAITZA NAGUSIAK

16 eta 29 urte bitarteko lau pertsonatik bat lan bila ari da gaur egun. Lan bila ari diren gazteen kopurua murriztu egin da aurreko urteekiko, eta langabezian dauden artean soilik dira gehiago lan bila ari direnak.

30 eta 34 urte bitarteko adin-taldean ere behera egin du lan bila ari direnen ehunekoak, baina 16 eta 29 urte bitartekoen taldean baino handiagoa da lan-bilatzailerik ehunekoak.

Lan bila ari diren pertsonen gehiengoak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dago, lan-eskatzailerik moduan. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen 30 urtetik beherakoek baino ehuneko handiagoan erabiltzen dute zerbitzu hori, eta, kasu guztietan, langabezian daudenak dira gehien erabiltzen dutenak, ikasleen eta lanean ari direnen aurretik.

Lana bilatzeko eremuari begiratuta, ez da Euskadi bilaketa-eremu bakarra, lan bila ari diren bost gaztetik batek Euskaditik kanpora zabaldu baitu bilaketa-eremu hori. 30 eta 34 urte bitarteko adin-taldean, gora egiten du apur bat lana bilatzeko eremua Euskadirik kanpora zabaldu dutenen ehunekoak, baina horren arrazoia da handiagoa dela Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetan bilatzen dutenen ehunekoak, atzerrian bilatzen dutenena antzekoa baita bi adin-talde horietan.

30 eta 34 urte bitarteko pertsonen denbora gehiago daramate lan bila (hamar hilabete eta erdi), 16 eta 29 urte bitarteko lan-bilatzailerik baino (bederatzi hilabete, batez beste). Horrez gainera, 30 urtetik beherakoen adin-taldean, lana bilatzeko batez besteko denborak ez du aldaketarik izan azken urteetan, eta murriztu egin da hortik gorakoen adin-taldean. Langabezian dauden pertsonen denbora gutxiago daramate lan bila, gaur egun lanean ari diren lan-bilatzailerik baino. Honako hau da, neurri handi batean, horren arrazoia: langabezian daudenek beren lan-aurreikuspenak apaltzeko prestasun handiagoa dute.

Azkenik, lana sei hileko epean aurkitzeko itzaropena edo konfiantza nabarmen handitu da, eta ia bikoiztu egin dira bi adin-taldeek 2013an izan zituzten ehunekoak. 2017. urtean, lan bila ari direnen erdiak uste du oso gertagarria dela lana denbora-epe horretan aurkitzea. Goi-mailako ikasketak dituztenek dute lana sei hileko epean aurkitzeko konfiantza handiena.



# 7

## Lan-eskarmentua Euskaditik kanpo

Azken urteotan etengabe entzuten da gazteak Euskaditik kanpora joaten ari direla lan bila. Ez da egoera berria hori, gazteak beti joan izan baitira gure erkidegotik kanpo lan bila, bai Espainiako beste leku batzuetara, bai atzerrira. Lan-emigrazio horrek, ordea, gazteen galera dakar, eta egoerak kezka eragiten dio euskal gizarte gero eta zahartuagoari.

Euskaditik irten eta beste nonbait lan egin ondoren, Euskadira itzuli diren pertsonen egoera aztertuko dugu kapitulu honetan. Egia da hemendik kanpora joandako pertsona asko ez dela itzuli, baina orain Euskadira itzuli diren horien irteteko eta bueltatzeko arrazoiak aztertzen baldin baditugu, garai batean irten eta (oraindik) bueltatu ez diren pertsonen arrazoiak ulertzeko aukera izango dugu.

Hori horrela, azterketa ahalik eta zorrotzena egiteko, Euskadin jaio diren gazteen egoera soilik aztertuko dugu, posible baita beste leku batzuetan jaio direnek haien jatorriko herrietan lan egin izana noizbait, eta Euskaditik kanporako emigrazioa aztertu beharrean, hona etorri zaizkigun immigranteen egoera aztertzen arituko ginateke.

### 7.1. EUSKADIN JAI O DIREN 30 URTETIK BEHERAKO ZENBAT PERTSONEK DUTE LAN-ESKARMENTUA EUSKADITIK KANPO?


Gazteen egoera aztertzen ari garela aintzat hartuta, lan-eskarmentuaren kontzeptua darabilgunean, barnean sartzen ditugu ikasketetako praktikak eta ikerketa-bekak, baina ez ikasteko bekak.

Euskadin jaio diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 9,5ek egin du lan, noizbait, Espainiako beste lekuren batean. Europako beste herrialderen batean lan egin du % 6,1ek. Eta Europatik kanpo lan egin du % 1,6k. Posible da pertsona batek eremu horietako batean baino gehiagotan lan egin izana; beraz, lan-eremu horiek ez dira elkarren baztertzaila. Guztira, % 14,0k du lan-eskarmenturen bat Euskaditik kanpo.

Ez dago alde handirik sexuari edo gazteak egun bizileku duen lurralde historikoari begiratuta. Alde nabariak daude amaitutako ikasketa-mailaren arabera, baina adinak eragin handia du alde horietan; izan ere, 20 urteko adina bete aurretik gazteen % 3,0k soilik izan du lan-eskarmenturen bat Euskaditik kanpo, eta proportzioa, berriz, % 24,0koa da 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

### 7.1. irudia

EUSKADIN JAIOTAKO 16-29 URTEKO GAZTEEN LAN-ESKARMENTUA EUSKADITIK KANPO, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)



Atzerriko lan-eskarmentuari begiratuta, Euskadin jaiotako 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 6,8k lan egin du, noizbait, atzerriko herrialderen batean. Proporzio hori 2015ekoaren oso antzekoa da (% 6,6).

Adinak eta ikasketa-mailak gora egin ahala, orduan eta handiagoa da atzerriko lan-eskarmentuaren ehunekoa. Hori horrela, 20 urtetik beherakoen % 0,8k du lan-eskarmentua atzerriko herrialderen batean; proporzioa % 7,7ra igotzen da 20 eta 24 urte bitartekoen artean, eta % 10,8koa da, azkenik, 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

Gipuzkoako gazteek ehuneko handiagoan dute lan-eskarmentua atzerrian (% 7,7), proporzioa txikiagoa baita Bizkaian (% 6,4) eta Araban (% 5,7).


## 7.2. EUSKADIN JAIOTAKO 30 ETA 34 URTE BITARTEKO ZENBAT PERTSONEK DUTE LAN-ESKARMENTUA EUSKADITIK KANPO?

Adin-bitarte horretako pertsonen % 23,0k adierazi du noizbait lan egin duela Espainiako beste lekuren batean, % 10,2k esan du Europako beste herrialderen batean lan egin duela, eta Europatik kanpo lan egin duela % 4,7k. Guztira, % 27,1ek esaten du Euskaditik kanpo lan egin duela, hau da, Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan jaiotako lau pertsonatik batek.

Euskaditik kanpo zer taldek duten lan-eskarmentu handiena aztertu nahi izan dugu, eta ikusi dugu Bizkaian jaiotakoek dutela kanpora lan egitera joandakoen proporzio handiena (% 29,6), eta Araban jaiotakoek dutela ehuneko txikiena (% 22,6). Bestalde, behe gizarte-mailako eta maila ertain-baxuko pertsonen proporzio handiagoan esaten dute Euskaditik kanpo lan egin dutela, gizarte-maila ertaineko, ertain-altuko eta altuko pertsonen baina (% 31,8 eta % 26,0, hurrenez hurren). Hiru ehuneko-puntuakoa da goi-mailako ikasketak dituztenen eta ez dituztenen arteko aldea (% 28,4ko eta % 25,2ko ehunekoak dituzte, hurrenez hurren).

### 7.2. irudia

EUSKADIN JAIOTAKO 30-34 URTEKO PERTSONEN LAN-ESKARMENTUA EUSKADITIK KANPO, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)



Noizbait atzerriko herrialderen batean lan egin dutenei begiratzen baldin badiegu, Euskadin jaio diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 11,3k lan egin du noizbait atzerrian. Proportzio hori 2015ekoa baino zertxobait txikiagoa da (% 12,7koa izan zen orduan).

Euskadin jaio diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen atzerriko lan-eskarmentua zertxobait handiagoa da gizonen artean, emakumeen artean baino (% 12,5ekoa da gizonen artean, eta % 9,8koa emakumeen artean). Atzerrian lan-eskarmentua dutenen ehunekoari begiratuta, Gipuzkoan bizi direnek ehuneko handixeagoa dute (% 12,2), Bizkaian eta Araban bizi direnek baino (% 11,1 eta % 9,5, hurrenez hurren). Hala ere, ikasketak dira aldagai edo ezaugarri erabakigarriena, goi-mailako ikasketak amaitu dituztenen % 17,0k baitu lan-eskarmenturen bat atzerrian, eta proportzio hori, berriz, % 3,2koa da goi-mailako ikasketarik ez dutenen artean.


## 7.3. EUSKADIN JAI O DIREN 16 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK ATZERRIAN DUTEN LAN-ESKARMENTUAREN ANALISIA

Gutxi dira, 30 urtetik beherako pertsonen artean eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean, noizbait atzerrian lan egin dutenak; beraz, lan-eskarmentu hori aztertzeko, batera aztertuko ditugu Euskadin jaio eta noizbait Espainiatik kanpo lan egin duten 16 eta 34 urte bitarteko pertsonak. Adin-bitarte horretan Euskadin jaio diren pertsona guztien % 8,1 dira, guztira. Proportzio hori 2015ekoaren antzekoa da (% 8,7koa izan zen orduan).

Lehen aurreratu duguna berresten digu 16 eta 34 urte bitarteko pertsona horien guztien analisiak: atzerrian lan egin dutenen ehunekoak handiagoak dira gizonen artean eta Gipuzkoan bizi direnen artean.

## 7.3. irudia

ATZERRIAN LAN-ESKARMENTUA DUTEN EUSKADIN JAIOTAKO 16-34 URTEKO PERTSONAK, SEXUAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)



Atzerrian izandako lan-eskarmentuari buruz galdetu zaie pertsona horiei, eta Espainiatik kanpo lan bat baino gehiago egin baldin badute, azkenari buruz galdetu zaie.

Europako herrialderen batean lan egin duela esaten du gehiengoak (% 80,8k). Erresuma Batua da lanerako pertsona gehien hartu dituen, atzerrian lan-eskarmentua dutenen % 30ek esaten baitu herrialde horretan lan egin duela. Frantzia lan egin du % 14,0k eta Alemanian % 11,1ek. Polonian lan egin du % 6,3k, Irlandan % 5,0ek, Italian % 4,6k, eta Europako beste herrialderen batean gainerako % 9,8ak (zehazki, Txekiar Errepublika, Errusia, Suedia, Bulgaria, Errumania, Grezia, Islandia, Malta, Portugal eta Holanda aipatu dituzte).


Amerikako herrialderen batean lan egin duela adierazi du % 11,5ek. Zehazki, Ameriketako Estatu Batuetan edo Kanadan lan egin duela adierazi du % 5,1ek, eta gaztelaniaz hitz egiten duen herrialderen batean gainerako % 6,4ak (Mexiko, Argentina, Uruguai, Txile, Ekuador, Costa Rica eta Panama aipatu dituzte).

Munduko beste herrialde batzuk aipatu ditu % 5,6k, hala nola Australia, Taiwan, Filipinak, Maroko edo Saudi Arabia. Gainerako % 2ak ez du erantzun.



#### 7.4. irudia

NON EGIN DUTEN LAN ATZERRIAN LAN-ESKARMENTUA DUTEN EUSKADIN JAIOTAKO  
16 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK (%)



Pertsona horien erdiak baino gehiagok (% 55,1ek) hiru hilabeteko lana egin zuen gehienez (Espainiatik kanpo lan egin dutenen hiru pertsonatik batek, % 32,8k zehazki, adierazi du hiru hilabeteko iraupena izan zuela atzerriko lanak, eta gainerako % 22,3ak esan du hilabete eta bi hilabete bitarteko epean aritu zela lanean atzerrian).

Lau hilabete eta urtebete bitartean lan egin zuen atzerrian % 32,0k, eta, Euskadira bueltatu aurretik, urtebete baino denbora luzeagoan aritu zen lanean atzerrian pertsona horien % 12,9.

Atzerrian hilabetetik 3 hilabetera bitarteko epean lan egin dutenen ehunekoak zertxobait egin du gora 2015. urtearekiko (% 51,8tik % 55,1era), baina behera egin du atzerrian urtebetetik gora lan egin dutela diotenen ehunekoak (% 17,5etik % 12,9ra).

Atzerrira joateko arrazoiei begiratuta, gehien errepikatzen den arrazoa da bizipen berriak eduki nahi izatea, beste leku batzuk ezagutu nahia edo hizkuntzak ikastea (arrazoi hori eman du % 34,8k). Atzerrian ikerketa-bekaren bat edo ikasketa-praktikak lortu izana da gehien errepikatzen den bigarren arrazoa (% 25,1ek eman du arrazoi hori), eta enpresak aldi baterako atzerrira lan egitera bidali izana da hirugarrena (% 21,8k adierazi du arrazoi hori).

% 8,8k soilik esan du hemen lanik ez zuelako eta hura aurkitzeko itzaropenik ez zuelako joan zela atzerrira lan egitera.

Une horretan atzerrian zegoela adierazi du % 2,2k, eta gastuetarako dirua lortzeko egin zuela lan. Atzerrira lan egitera beste arrazoiren batengatik joan zela adierazi du gainerako % 7,3ak.

Konparatzen baldin baditugu noizbait atzerrian lan egin eta Euskadira itzuli direnek 2017an eman dituzten arrazoiak eta 2015ean eman zituztenak, ikusten dugu 2015etik 2017ra handitu egin dela bizipen berriak izan nahi zituztenen eta beste leku eta hizkuntza batzuk ezagutu nahi zituztenen ehunekoak, eta behera egin duela atzerrian ikerketa-bekaren bat edo ikasketa-praktikak lortu zituztenen ehunekoak.

## 7.1. taula

EUSKADIN JAIO ETA NOIZBAIT ATZERRIAN LAN EGIN DUTEN 16 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK ATZERRIAN LAN EGITEKO IZAN DITUZTEN ARRAZOIEN BILAKAERA (%)

Zergatik joan zinen atzerrira lan egitera?*		
(%)	2015	2017
Esperientzia berriak bizi nahi zenituelako eta beste leku batzuk ezagutzeko, hizkuntzak ikasteko eta abarrerako aprobetxatu	24,9	34,8
Atzerrian ikertzeko beka edo ikasketa-praktikak egiteko aukera eman zizutelako	35,3	25,1
Enpresak agindu zizulako	16,7	21,8
Hemen ez zenuelako lanik ezta izateko aukerarik ere	9,2	8,8
Momentu horretan atzerrian ikasten zenbilen eta dirua irabazi nahi zenuen	4,3	2,2
Beste arrazoi bat	9,6	7,3
Guztira	100	100
(n)	126	124

\* Euskadin jaio diren eta atzerrian noizbait lan egin duten 16-34 urte bitarteko gazteei bakarrik egindako galdera.

Bueltatzeko izan dituzten arrazoiei begiratuta, hamarretik lauk (% 39,7k) adierazi dute aldi baterako lana, praktikaldia edo ikerketa-beka zelako itzuli direla, hau da, aldi baterako epe hori amaitu zelako. Atzerrian egiten ari zen ikasketak eta ikasi bitartean egiten zuen lana amaitu zituelako bueltatu dela azaldu du % 9k. Hemen lana topatu edo eskaini ziotelako bueltatu zela adierazi du % 6,0k. Atzerrian gustura egon eta hemen lanik ez izan arren, bueltatzeko gogoia zuelako itzuli zela adierazi du % 15,0ek. Hemen lanik ez izan arren, atzerrian gustura ez zegoelako bueltatu zela adierazi du % 8,6k. Beste arrazoiren bat ematen du, edo ez du erantzunik eman, gainerako % 21,7ak.

2015ean eta 2017an eman diren erantzunen bilakaerak erakusten digu behera egin duela bueltatzeko arrazoia praktikaldia, ikerketa-beka edo enpresak atzerrian agindutako lana amaitu izana dela adierazi dutenen ehunekoak (del % 50,6tik % 39,7ra). Logikoa da hori horrela izatea, txikiagoa baita atzerrira joateko arrazoi hori eman dutenen ehunekoa. Aitzitik, handitu egin da, % 12,5etik % 23,6ra, bueltatu egin nahi zutela arrazoitu dutenen ehunekoa, atzerrian gustura zeuden ala ez kontuan hartu gabe.

**7.2. taula**

EUSKADIN JAIO ETA NOIZBAIT ATZERRIAN LAN EGIN DUTEN 16 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK EUSKADIRA BUELTATZEKO IZAN DITUZTEN ARRAZOIEN BILAKAERA (%)

Eta zergatik bueltatu zinen?*		
(%)	2015	2017
Epe zehatzerako lana, beka edo praktikak zirelako	50,6	39,7
Han egiten ari zinen ikasketak amaitu zenituelako	10,3	9,0
Hemen lana aurkitu zenuelako edo eskaini zizutelako	5,2	6,0
Bueltatu nahi zenuelako, nahiz eta han gustura egon eta hemen lanik ez izan	8,3	15,0
Ez zeundelako gustura han, nahiz eta hemen lanik ez izan	4,2	8,6
Beste arrazoi bat	20,6	20,7
Ed/Ee	0,8	1,0
Guztira	100	100
(n)	126	124

\* Euskadin jaio diren eta atzerrian noizbait lan egin duten 16-34 urte bitarteko gazteei bakarrik egindako galdera.

Atzerrian egindako lanari buruz galdetuta, hiru pertsonatik bik (% 67,1ek) erantzun dute ikasitakoaren edo jasotako prestakuntzarekin lotutako lana izan zela.

## 7.4. EUSKADIN JAIO ETA NOIZBAIT ATZERRIAN LAN EGIN DUTEN 16 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN EGUNGO EGOERA

Noizbait atzerrian lan egin duten lau pertsonatik ia hiruk (% 72,0k) esaten dute lana egitea dela, gaur egun, beren okupazio nagusia. Proporzio hori handiagoa da atzerrian inoiz ere lanik egin ez dutenen artean baino, lan egitea baitu okupazio nagusi azken horien % 46,9k. Egia da, era berean, gaur egun langabezian daudenen ehunekoa handiagoa dela noizbait atzerrian lan egin eta bueltatu direnen artean, atzerrira lanera joan ez direnen artean baino (% 12,9 eta % 6,9 dira, hurrenez hurren). Argitu behar da atzerrira lanera joan direnen batez besteko adina 28 urtekoa dela, eta joan ez direnena, berriz, 25 urtekoa, eta aintzat hartzekoa da, aurrez adierazi dugun moduan, adinak gora egin ahala, gero eta gehiago direla lanean edo langabezian daudenak.

Horrez gainera, noizbait atzerrian lan egin dutenek atzerrian lan egin gabekoek baino ehuneko handiagoan adierazten dute berriro atzerrian lan egiteko asmoa dutela (lehendik atzerrian lan egindakoen % 51,3k eta Espainiatik kanpo lanik egin gabekoen % 38,6k), eta handiagoa da, era berean, atzerrira joatea oso gertagarria dela deritzotenen ehunekoa (% 48,3 eta % 30,1, hurrenez hurren). Atzerria lan-eskarmentua dutenen ia erdiak (% 48,8k) esaten du munduko edozein lekutara joango litzatekeela, lan interesgarriren bat eskaintzen baldin badiote.

### 7.3. taula

EUSKADIN JAIKO ETA NOIZBAIT ATZERRIAN LAN EGIN DUTEN 16 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN  
ETA ATZERRIAN INOIZ ERE LAN EGIN EZ DUTENEN ARTEKO ALDEA (%)

	Lan-eskarmentua atzerrian	
	Bai	Ez
Batez besteko adina (urtea)	28	25
Ikasten (%)	14,1	44,2
Lanean (%)	72,0	46,9
Langabezian (%)	12,9	6,9
Atzerrira lan egitera joateko gogo handia edo nahikoa (%)	51,3	38,6
Seguru aski edo agian joango dira atzerrira lan egitera (%)	48,3	30,1
Lan interesgarria eskeiniz gero, munduko edozein lekutara joateko prest (%)	48,8	32,4
(n)	124	1338

## 7.5. EMAITZA NAGUSIAK

Euskadin jaiko eta 16 eta 29 urte bitartean dituzten gazteen % 14,0k eta gure erkidegoan jaiko eta 30 eta 34 urte bitartean dituztenen % 27,1ek lan egin dute, noizbait, Euskaditik kanpo. Espainiako beste leku batzuetan lan egin izana da ohikoena.

Hala ere, atzerrian lan egin dute, noizbait, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 6,8k eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 11,3k (Euskadin jaiko diren pertsoez ari gara kasu honetan); orotara, 16 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 8,1 dira. Atzerrian lan egindako pertsona horien gehiengoa Europan eta urtebetetik beherako epean aritu da lanean.

Atzerrira joateko arrazoi nagusiak izan dira beste bizipen batzuk izateko gogoia, beste leku, hizkuntza eta pertsona batzuk ezagutzeko gogoia, ikerketa-bekaren bat lortzea edo atzerrian ikasketen praktikak egiteko aukera eskuratu izana, eta enpresak bertako langilea atzerrira bidaltzea lan egitera. Atzerrira lan egitera joan eta bueltatu diren pertsonen artean, hamar pertsonatik bakarra joan da atzerrira hemen lanik ez zuelako eta lana topatzeko itzaropenik ez zuelako.

Atzerritik bueltatzeko arrazoi nagusia atzerriko lana, beka edo praktikaldia amaitu izana da.

Noizbait atzerrian lan egin duten pertsonak atzerrian lan egin gabekoek baino gogo handiagoa adierazten dute berriro atzerrian lan egiteko, eta, horrez gainera, gertagarriago deritzote atzerrian lan egiteko aukerari.

# 8

## Enpleguarekiko jarrerak

Gazteen egiazko egoera zehatzari begiratu diogu orain arte, langileen, ikasleen eta langabezian dauden pertsonen arteko bereizketa eginda. Azken kapitulu honetan, enpleguarekiko jarrerak, lehentasunak eta aurreikuspenak aztertuko ditugu, jakina den arren aurreikuspen horiek ez direla beti gauzatuko. Zehazki, autoenplegurako, atzerrian lan egiteko eta lan-aurreikuspenak aldatzeko gogoia eta prestasuna aztertuko ditugu.

Azterketa-lan hori egiteko, 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztiak hartuko ditugu kontuan, eta, ondoren, aurreko kapituluetan egin dugun moduan, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen adierazitako lehentasunekin eta jarrerekin konparatuko ditugu.

### 8.1. AUTOENPLEGURAKO PRESTASUNA

16 eta 29 urte bitarteko gazteen gehiengoak (% 55,8k) ez du inoiz ere pentsatu lanpostu propio bat sortzea eta norberaren konturako erregimenean lan egitea, hau da, autonomia, enpresaria edo profesional liberala izatea.

Ehuneko horrek, ordea, nabarmen egin du behera aurreko urteetako ehunekoekin alderatuta. Asmoa gauzatu ez duten arren, aurreko urteetan baino gazte gehiagok adierazi du 2017an serio aztertzen ari dela aukera hori edo aukera aztertu, baina aurrera ez egitea erabaki duela.

## 8.1. taula

AUTOENPLEGUAN ARITZEKO PRESTASUNAREN BILAKAERA 16 ETA 29 URTE  
BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN (%)

Inoiz pentsatu al duzu zure lanpostua sortzea, zeure kontura lan egitea, profesional liberala edo enpresari txikia izatea?						
(%)	2004	2008	2011	2013	2015	2017
Autonomoa, profesional liberala edo enpresaria zara jadanik	3,1	3,9	3,2	3,6	2,4	3,5
Autonomoa, profesional liberala edo enpresaria izan zinen, baina jada ez zara*	0	0	1,4	0,9	1,2	1,4
Serio pentsatzen ari zara	6,9	10,4	11,1	11,9	8,5	14,7
Pentsatu duzu baina ez egitea erabaki duzu	14,4	13,6	12,1	17,4	16,1	20,0
Ez duzu pentsatu	74,4	70,8	71,6	65,4	70,9	55,8
Ed/Ee	1,2	1,3	0,6	0,9	0,8	4,6
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1429	1436	1327	1318	1338	1319

\* 2004 eta 2008an ez zen erantzun hori eskaini.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma 2004-2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017 datuetarako).

Langabezian dauden pertsonen ia erdiak aztertu du aukera hori: % 3,3k lan egin du noizbait autonomoen erregimenean, gaur egun lan egin ez arren; % 13,5 serio aztertzen ari da aukera hori, eta % 26,4k aukera aztertu, baina aurrera ez egitea erabaki du. Guztira, langabezian dauden gazteen % 43,1ek aztertu du noizbait bere kontura lan egiteko aukera. Gaur egun lanean ari direnen artean, % 11,1 da edo izan da noizbait langile autonomoa edo enpresaria, % 13,7 serio aztertzen ari da aukera hori, eta % 25,2k, aukera aztertu ondoren, urratsa ez ematea erabaki du. Guztira, lanean ari direnen % 50,0k aztertu du autoenpleguaren aukera. Azkenik, gaur egun ikasten ari direnen artean, hiru pertsonatik bat (% 32,5, guztira) ari da gaur egun aukera hori aztertzen edo aztertu du, noizbait, aukera hori iraganean.

Noizbait beren kontura lan egitea aztertu dutenekin jarraituta, aukera hori ehuneko handiagoan aztertu dute lan bila ari direnek, lan bila ari ez direnek baino (% 46,4 eta % 37,2 dira, hurrenez hurren, aukera hori gauzatu duten ala ez begiratu gabe). Adinak gora egin ahala, handitu egiten da noizbait aukera hori aztertu dutenen ehunekoa: 16-19 urtekoen taldean % 32,1 dira, 20-24 urtekoen taldean % 34,1 eta 25-29 urtekoen taldean % 50,3. Goi-mailako titulazioa dutenek ehuneko handiagoan aztertu dute aukera hori, titulazio hori ez dutenek baino (goi-mailako titulazioa dutenen % 44,5ek aztertu du, eta ez dutenen % 36,8k). Azkenik, atzerrian jaio diren gazteek ehuneko handiagoan aztertu du aukera hori (% 46,4), Euskadin jaiotako gazteek baino (% 38,3). Ez dago alde nabarmenik gizon eta emakume gazteen artean.

Autonomoa edo enpresaria izateak edo izateko aukera aztertzen aritzeak ez du esan nahi, halabeharrez, hori denik pertsona horien lehentasunezko aukera. Gaur egun autonomoen erregimenean lan egiten ari den edo noizbait erregimen horretan lan egin duen hiru gaztetik batek (% 33,3) nahiago du besteren kontura lan egitea. Norberaren konturako erregimenean lan egiteko lehentasuna dutenen artean, gehiengo dira aukera hori serio aztertzen ari diren pertsonak (% 70,5); hala ere, adierazi behar da besteren kontura lan egin nahiko lukeela autoenpleguaren aukera serio aztertzen ari diren bost pertsonatik batek (% 18,8k). 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztiak aintzat hartuta, gehiago dira besteren kontura lan egin nahi dutenak (% 50,2), beren kontura lan egin nahiago dutenak baino (% 37,1). Gainerakoek (% 12,7k) ez dakite edo ez dute erantzun.

**8.2. taula**

NORBERAREN EDO BESTEREN KONTURA LAN EGITEKO LEHENTASUNA, 16 ETA 29 URTE  
BITARTEKOEN AUTOENPLEGURAKO JARRERAREN ARABERA (%)

Edozelan ere, aukeratu ahal izango bazenu, zer nahiago zenuke?					
(%)	Guztira	Autoenplegurako jarrera			
		Autonomoak dira edo izan dira	Serio pentsatzen ari dira	Pentsatu dute baina ez egitea erabaki dute	Ez dute pentsatu
Norberaren kontura lan egitea	37,1	55,9	70,5	45,9	23,7
Besteren kontura lan egitea	50,2	33,3	18,8	41,8	63,7
Ed/Ee	12,7	10,7	10,7	12,3	12,6
Guztira	100	100	100	100	100
(n)	1319	72	192	274	721

Beste aldagai batzuk aztertzen baldin baditugu, ikusten dugu norberaren kontura lan egiteko lehentasuna duela atzerrian jaiotako gehiengoak (% 55,9k). Euskadin jaio direnen artean, aldiz, gehiago dira besteren kontura lan egiteko lehentasuna dutenak (% 52,4), norberaren kontura lan egin nahi dutenak baino (% 34,1).

Gehiago izatera iristen ez diren arren, gizonezko gehiagok du norberaren kontura lan egiteko lehentasuna, emakumeak baino (% 40,1 eta % 33,9, hurrenez hurren), eta goi-mailako titulaziorik ez dutenek ehuneko handiagoan dute lehentasun hori (% 41,4k), goi-mailako titulazioa dutenek baino (% 29,5).

## 8.2. MUGIKORTASUN GEOGRAFIKOAREKIKO PRESTASUNA

16 eta 29 urte bitarteko gazteen erdia baino gehiago (% 57,1) dago Euskaditik irteteko prest, baldin eta lan interesgarriren bat eskaintzen baldin badiote. Zehazki, munduko edozein lekutara joango litzatekeela dio % 38,0k, Europatik irten gabe, Europako beste herrialderen batera joango litzateke % 8,9, eta, atzerriko aukera baztertuta, Espainiako beste lekuren batera joango litzateke gazteen % 10,2.

Beste muturrean, inola ere ez luke bizilekua aldatuko gazteen % 5,9k, gertuko udalerriren batera soilik joango litzateke % 6,1, eta bizilekua Euskadiko beste lekuren batera soilik aldatuko luke % 13,3k.

Gainerako % 17,7ak ez daki zer egingo lukeen edo leku eta egoera zehatzaren arabera aztertuko lukeela dio.

Euskaditik kanpora lan egitera joateko prest daudenen ehunekoa nabarmen handitu zen krisialdiko urteetan, eta bi puntu soilik jaitsi da 2015. urtearekiko. Ehuneko handiena 2015ekoa da, hain justu, gazteen % 59,0k adierazi baitzuen Euskaditik kanpo lan egiteko prest zegoela, eta ehuneko apalena 2008koa da (% 40,7), krisialdia abiatu aurrekoa.

Euskaditik kanpora lan egiteko prestasuna handitu izanaren arrazoi nagusia da 2011tik aurrera handitu egin dela munduko edozein lekutara joateko prest dauden gazteen ehunekoa; izan ere, gazteen % 22 eta % 23 izan ziren 2000 eta 2008 urteen bitartean, eta % 37 eta % 40 izan dira 2011 eta 2017 urteen bitartean.

## 8.3. taula

LAN INTERESGARRIREN BAT ESKAINIZ GERO, BIZILEKUZ ALDATZEKO PREST AGERI DIREN  
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN BILAKAERA (%)

Bizilekua aldatuko zenuke lan interesgarria eskainiko balizute?							
(%)	2000	2004	2008	2011	2013	2015	2017
Bai, munduko edozein lekutara	22,7	22,0	22,1	37,0	39,0	40,0	38,0
Europar batasuneko edozein lekutara	6,7	5,4	7,0	8,1	11,2	10,5	8,9
Espainia barruan izanez gero	17,2	15,0	11,6	7,8	8,1	8,5	10,2
<b>EUSKADITIK KANPO JOATEKO PRESTASUNA</b>	<b>46,6</b>	<b>42,4</b>	<b>40,7</b>	<b>53,0</b>	<b>58,4</b>	<b>59,0</b>	<b>57,1</b>
Euskadi barruan izanez gero	20,0	19,6	17,7	13,6	11,3	9,8	13,3
Inguruko udalerrri batera bada	8,5	6,7	13,1	6,0	6,0	6,2	6,1
Ez zaude ziur, lekuaren arabera	12,6	17,5	12,6	12,3	8,6	9,5	16,1
Ez, inola ere ez	10,9	12,4	14,0	13,8	13,3	13,2	5,9
Ed/Ee	1,4	1,4	1,8	1,3	2,3	2,2	1,6
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1305	1429	1436	1327	1318	1338	1319

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* bilduma 2004-2008ko datuetarako eta *Emantzipazioa* bilduma 2011-2017 datuetarako).

Euskaditik kanpo lan egiteko prestasun handiagoa dute ikasleek, langabezian daudenek baino (ikasleen % 65,9 eta langabeen % 50,7 dago Euskaditik kanpo lan egiteko prest), eta bi talde horiek dute gaur egun lanean ari direnek baino prestasun handiagoa (% 45,5).

Horrez gain, Euskaditik kanpo lan egiteko prestasun handiagoa dute noizbait Euskaditik kanpo lan egin dutenek, kanpoan lan egin ez dutenek baino (% 62,8k eta % 55,8k, hurrenez hurren). Eta ingelesez ondo dakitenek prestasun handiagoa dute, ingelesa ondo ez dakitenek baino (ondo dakitenen % 63,5 dago prest, eta ez dakitenen % 50,7).



## 8.4. taula

LAN INTERESGARRIREN BAT ESKAINIZ GERO, BIZILEKUZ ALDATZEKO PREST AGERI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, OKUPAZIO NAGUSIAREN, EUSKADITIK KANPO DUTEN LAN-ESKARMENTUAREN ETA INGELESAREN JAKINTZAREN ARABERA (%)

Bizilekua aldatuko zenuke lan interesgarria eskainiko balizute?								
(%)	Guztira	Okupazio nagusia			Euskaditik kanpo lan-eskarmentua		Ingelesaren jakintza	
		Ikasten	Lanean	Langa-bezian	Bai	No	Ondo edo oso ondo mintzatzen dira	Ez dira ondo mintzatzen
Bai, munduko edozein lekutara	38,0	43,4	32,7	21,8	50,1	35,3	45,3	30,8
Europar batasuneko edozein lekutara	8,9	11,8	4,4	10,6	5,3	9,7	10,9	6,9
Espainia barruan izanez gero	10,2	10,7	8,4	18,3	7,4	10,8	7,3	13,0
<b>EUSKADITIK KANPO JOATEKO PRESTASUNA</b>	<b>57,1</b>	<b>65,9</b>	<b>45,5</b>	<b>50,7</b>	<b>62,8</b>	<b>55,8</b>	<b>63,5</b>	<b>50,7</b>
Euskadi barruan izanez gero	13,3	10,5	17,4	17,6	10,7	13,9	11,1	15,5
Inguruko udalerrri batera bada	6,1	3,4	10,1	6,2	7,9	5,7	4,3	7,8
Ez zaude ziur, lekuaren arabera	16,1	14,9	18,3	16,1	14,5	16,5	16,1	16,2
Ez, inola ere ez	5,9	4,0	6,9	6,9	3,7	6,4	3,6	8,1
Ed/Ee	1,6	1,3	1,7	2,5	0,4	1,8	1,3	1,8
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1319	647	517	99	258	1061	627	692

Aldeak are handiagoak dira berariaz begiratzen badiogu munduko edozein lekutan lan egiteko prestasunari. Ikasleek, Euskaditik kanpo lan egin duten gazteek eta ingelesez ondo hitz egiten dakiten gazteek dute munduko edozein lekutan lan egiteko prestasun handiena. Nabarmendu behar da, horrez gainera, prestasun handiagoa dutela gizonen, emakumeen baino (gizonen % 41,0 eta emakumeen % 34,8 daude edonora joateko prest), eta prestasun handiagoa dutela atzerrian jaio diren gazteek, Euskadin jaiotako gazteek baino (% 43,3 eta % 36,9 hurrenez hurren).

Mugikortasun geografikorako prestasunaren gaian sakontzeko, atzerrian lan egin nahiko luketen galdetu zaie gazteei. Baietz erantzun du ia erdiak (% 47,8k).

Atzerrian lan egiteko gogo handiena adierazi dute gaur egun atzerrian lan egiten ari den anaiak, neba, arreba edo ahizparen bat dutenek (gazte horien % 64,6k nahi du atzerrira joan lan egitera), lehendik atzerrian lan eginda dauden gazteek (pertsone horien % 58,5ek du atzerrian berriro lan egiteko gogo) eta ingelesez ondo hitz egiten dutela diotenek (gazte horien % 55,9k nahi du atzerrian lan egin; aitzitik, beste hizkuntzaren jakin dezaketenen arren, ingelesez ondo hitz egiten ez dutenen % 40,0 dago horretarako prest).


Adinak behera egin ahala, gora egiten du atzerrian lan egiteko gogoia dutenen ehunekoak: 16 eta 19 urte bitartekoak % 57,6k du atzerrian lan egiteko gogoia, 20 eta 24 urte bitartekoak % 51,8k, eta 25 eta 29 urte bitartean dituztenen % 36,7k. Adinari lotuta, gazteen okupazio nagusiak alde nabarmenak dakartza: ikasleen gehiengoak (% 56,5ek) du atzerrian lan egiteko gogoia, baina gogo hori dutenak gutxiengo dira lanean ari direnen eta langabezia daudenen artean (% 38,1 eta % 33,6 dira, hurrenez hurren).

Datu horien bilakaerak adierazten digu atzerrian lan egiteko gogoia dutenen ehunekoa % 40tik gorakoa dela aztertutako urte guztietan: % 45,6koa izan zen 2013an, % 40,3koa 2015ean, eta % 47,8koa izan da 2017an.

Atzerrira joateko aukera gertagarria deritzoten galdetuta, gazteen % 39,9k deritzo nahiko edo oso gertagarria dela etorkizunean atzerrian lan egitea. Ehuneko hori 2013koaren oso antzekoa da (% 40,0), 2015ekoa baino handiagoa (% 31,2), eta joateko gogoaren joera bera erakusten du.

### 8.1. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK ATZERRIAN LAN EGITEKO DUTEN GOGOAREN  
ETA HORI GERTATZEKO AURREIKUSPENAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma).

Hori logikoa da, atzerrian lan egiteko gogoia dutenak baitira, hain justu, atzerrira joatea oso gertagarri deritzotenak: atzerrira lan egiteko gogoia dutenen % 68,5ek esaten du oso gertagarria dela atzerrian lan egitea; beste muturrean, % 13k soilik esaten du ez deritzotela gertagarri atzerrira lan egitera joateari.

Ildo orokor horren harian, atzerrira joateko gogo handia adierazten duten pertsona-taldeak dira, era berean, atzerrian lan egitea gertagarri zaiela irizten dutenak: noizbait atzerrian lan egiten dutenek gertagarriago ikusten dute, atzerrian lanik egin ez dutenek baino (% 53,3 eta % 38,5, hurrenez hurren); ingelesez maila ona dutenek gertagarriago ikusten dute, ingeles-maila apala dutenek baino (ingeleza ondo dakitenen % 52,7k eta maila apala dutenen % 27,5ek); 25 urtetik beherako pertsonak gertagarriago deritzote, 25 eta 29 urte bitartekoek baino (25 urtetik beherakoak % 47,0k eta hurrengo adin-taldekoak % 27,9k); eta ikasten ari diren gazteek gertagarriago deritzote etorkizunean atzerrian lan egiteko aukerari, gaur egun lanean edo langabezia daudenean baino (ikasleen % 51,6k deritzo gertagarri, lanean ari direnen % 25,5ek eta langabeen % 27,5ek). Atzerrian lanean ari den anaia, neba, arreba edo ahizparen bat dutenek ez dute halakorik ez dutenek baino ehuneko askoz ere handiagoan uste

atzerrira joango direnik lan egitera (atzerrian anaia, neba, arreba edo ahizparen bat dutenen % 43,2k uste du gertagarri zaiola atzerrira joatea lan egitera, eta atzerrian anaia, neba, arreba edo ahizparik ez dutenen % 39,8k uste du horixe bera).


Atzerrian lan egiteko gogoia eta hori gertatzeko probabilitatea uztartzen baditugu, gazteen kategoria hauek osa ditzakegu:

- Lehen kategoria edo taldea da atzerrira emigratzeko gogoia izan eta hori gertatzea nahiko edo oso gertagarri deritzotenena. Gazteen % 32,8k osatzen du talde hori. Gazte horientzat emigratzea ez da arazoa, irtenbidea edo aukera baizik. Borondatezko emigrazioa dela esan dezakegu.
- Beste muturrean daudenek osatzen dute bigarren taldea, hau da, atzerrira joateko gogorik izan ez eta aukera hori gertagaitza dela deritzotenek. Hori da talde ugariena, eta gazteen % 41,5ek osatzen du. Pertsona horiek ez dute emigrazioaren aukera aztertzen, eta, ondorioz, emigrazio gertagaitza litzateke.
- Hirugarren taldean daude emigratzeko gogoia izan, baina hori gertatzeko aukera urriak ikusten dituztenak; hau da, emigrazio zapuztuaren taldea litzateke. Hala ere, atzerrira joan daitezke pertsona horiek, baldin eta aukera bat eskaintzen baldin bazaie. Gazteen % 13,5 biltzen du talde horrek.
- Emigratzeko gogorik izan ez, baina horretara behartuta izan daitezkeela uste dutenen taldea da laugarrena. Emigrazio behartuaren taldea dela esan daiteke, egoerak behartuta emigratuko luketelako, beren borondatearen kontra. Gutxi dira hori pentsatzen duten gazteak, % 6,4.
- Azken taldea atzerrian lan egiteko gogorik adierazi ez dutenek edo etorkizunean atzerrira joateko aukeraren galderari erantzun ez diotenek osatzen dute, hau da, sailkapen hau osatzeko erabili diren galderei erantzun ez diotenek. Gazteen gainerako % 6,0a dago azken talde horretan.

Sailkapen honen bilakaerak adierazten digu 2017ko balioak gertuago daudela 2013ko balioetatik, 2015eko balioetatik baino, urte horretan behera egin baitzuen atzerrira emigratzeko gogoia izan eta hori gertagarri ikusten zutenen ehunekoak, hau da borondatezko emigrazioaren ehunekoak. Edonola ere, datu aipagarriena da etengabe ari dela behera egiten emigrazio behartuaren ehunekoa, hau da, nahi izan ez arren, egoerak bultzatuta egin beharrekoa litzatekeena; izan ere, % 8,5ekoa izan zen 2013an, % 8,0koa 2015ean eta % 6,4koa izan da 2017an.

## 8.2. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK ATZERRIRA LANERA JOATEKO BALIZKO EGOERAREN AURREAN AGERI DUTEN SAILKAPENAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Adinak gora egin ahala, behera egiten du borondatezko emigrazioak, eta gora gertagaitzak (25 eta 29 urte bitarteko gazteen gehiengoak deritzo egoera gertagaitza dela).

Ikasle askok (% 43,0k) egiten dute borondatezko emigrazioaren alde, baina lan egiten ari direnen eta langabezia daudenen gehiengoak uste du gertagaitza zaiela emigrazioaren aukera (hala uste dute egoera horietan daudenen % 53,0k eta % 54,5ek, hurrenez hurren).

Borondatezko emigrazioaren ehuneko handiena osatzen dute noizbait atzerrian lan egin dutenek, gazte horien % 45,8k baitu atzerria joateko gogoia eta aurreikuspena. Beste muturrean, atzerrian inoiz ere lan egin gabekoek dute atzerria joateko asmorik izan ez eta aukera hori gertagaitza dela deritzotenen ehuneko handiena.

**8.5. taula**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK ATZERRIRA LANERA JOATEKO BALIZKO EGOERAREN AURREAN AGERI DUTEN SAILKAPENA, ADIN-TALDEEN, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA ATZERRIAN DUTEN LAN-ESKARMENTUAREN ARABERA (%)

(%)	Guztira	Adin-taldeak			Okupazio nagusia			Lan-eskarmentua atzerrian	
		16-29 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langa-bezian	Bai	Ez
Emigrazio gertagaitza	32,8	40,7	38,5	21,3	43,0	20,4	19,9	45,8	31,4
Borondatezko emigrazioa	41,5	31,1	38,0	52,6	31,7	53,0	54,5	31,9	42,4
Emigrazio zapuztua	13,5	14,0	11,7	14,7	11,8	16,3	12,2	12,2	13,6
Emigrazio behartua	6,4	5,8	7,0	6,2	7,4	5,0	7,6	7,5	6,2
Ed/Ee	6,0	8,3	4,8	5,2	6,1	5,3	5,8	2,6	6,3
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1319	319	400	600	647	517	99	135	1184

Ingeles-maila ona dutenen artean, borondatez emigratuko luketen gazteak dira talde ugariena (% 43,8). Ingeles-maila onik ez dutenen erdiak (% 51,8k) gertagaitza deritzo lan bila emigratzea; halaber, talde horretan ingeles-maila ona dutenen artean baino handiagoa da emigrazio zapuztuaren ehunekoak (ingelese ez jakiteak berak dakarren oztopoaren edo zailtasunarengatik, ziur asko); ehunekoak % 16,0 eta % 10,8 dira, hurrenez hurren.

Atzerrian anaia, neba, arreba edo ahizparen bat izatearen aldagaiak handitu egiten ditu borondatezko emigrazioa eta emigrazio zapuztua, emigratzeko gogoia dutenen ehunekoak gainerakoetan baino handiagoa baita talde horretan. Edonola ere, beste talde batzuetan ikusten direnen antzeko aldeak ikusten dira talde horretan.

Azkenik, ez dago alde aipagarriarik sexuaren arabera, eta ez da alde handirik ikusten gaur egun lan bila ari direnen eta ez direnen artean.

### 8.3. LANEZ ALDATZEKO ETA LAN-AURREIKUSPENAK MURRIZTEKO PRESTASUNA


Ofizioa edo lanbidea aldatzea lekarkeen enpleguren bat onartuko lukete hiru gaztetik bik (% 64,1ek). Gazteek lan-merkatura moldatzeko malgutasuna dutela adierazten digu datu horrek, baina, bestalde, kezagarria da ikustea gazteen gehiengoak prest dagoela, enplegu bat eskuratuko baldin badu, ikasi duena alde batera uzteko, irakaskuntza publikoak (zentro publikoren batean ikasi baldin badute) eta, batik bat, familiek, gazteei ofizio edo lanbide bat irakasteko, diru eta denbora aldetik egin duten inbertsio handia kontuan hartuta.

Aztertutako talde guztietan dira gehiengo lanbidez aldatzea dakarren lan bat onartuko luketela adierazten dutenak. Hala ere, langabezian daudenak eta lan bila ari direnak dira ofizioz edo lanbidez aldatzeko prestasun handiena dutenak (langabezian daudenak % 91,8k eta lan bila ari direnen % 80,6k onartuko lukete ofizioz edo lanbidez aldatzea lekarkekeen lanposturen bat).

Adinak eta laneratzeak gora egin ahala, handitu egiten da, era berean, lanbidez aldatzeko prestasuna; hori horrela, lan-eskarmenturen bat dutenek eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteek dute lanbidez aldatzeko prestasun handiena. Sexuak, ordea, ez dakar alde handirik.

### 8.3. irudia

OFIZIOZ EDO LANBIDEZ ALDATZEA DAKARREN ENPLEGU BAT ONARTZEKO PREST DAUDEN 16 ETA 29 GAZTEAK, ADIN-TALDEEN, OKUPAZIO NAGUSIAREN, AURRETIAZKO LAN-ESKARMENTUAREN ETA LANA BILATZEKO EKIMENAREN ARABERA (%)



Lanean ari diren pertsoneri begiratuta, hauek dira lanbidez aldatzeko prestasun handiena dutenak (talde bakoitzean lanbidez aldatzeko prest daudenak adierazten ditu parentesi arteko ehunekoak): gaur egun ikasi dutenarekin lotura txikia duen lanen bat egiten ari direnak (% 78,4), urtebeteko epean lana galtzea oso gertagarri zaiela deritzotenak (% 74,3), lanaldi partzialean lan egiten dutenak (% 71,8), eta egiten duten lana gaizki ordainduta dagoela uste dutenak (% 71,2).

Bestalde, pertsona gazteen erdiak baino gutxiagok (% 45,5ek) onartuko luke bere ustez dagokiona baino lanbide-kategoria txikiago batean lan egitea. Langabezian dauden pertsonen eta lan bila ari direnen gehiengoak, ordea, lanbide-kategoria txikiagoko lanen bat onartuko luke (% 63,2k eta % 55,3k, hurrenen hurren).

Antzeko emaitzak lortu dira gazteei beren kualifikazioari ustez dagozkionak baino diru-sarrerara txikiagoak dakartzan lanen bat onartzeko prest dauden galdetu zaienean. Erdiak baino gutxiagok (% 41,6k) erantzun du ordainsari txikiagoko lanen bat onartuko lukeela, baino langabezian daudenek eta lan bila ari direnek gainditu egiten dute erdiaren langa, % 57,2 eta % 50,3 baitago, hurrenez hurren, horrelako lan bat onartzeko prest.

Gizonek baino ehuneko handiagoan adierazten dute emakumeek beren kualifikazioari dagozkionak baino kategoria eta ordainsari txikiagoko lanen bat onartuko luketela.

**8.6. taula**

BEREN KUALIFIKAZIOARI DAGOZKIONAK BAINO KATEGORIA ETA/EDO ORDAINSARI TXIKIAGOKO ENPLEGUREN BAT ONARTZEKO PREST DAUDEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, OKUPAZIO NAGUSIAREN, LAN-BILAKETAREN ETA SEXUAREN ARABERA (%)


Hartuko zenuke lan bat ondokorik ekarriko balu?								
(%)	Guztira	Okupazio nagusia			Lana bilatzen		Sexua	
		Ikasten	Lanean	Langabezian	Bai	Ez	Emakumeak	Gizonak
...Zure ustez, dagokizuna baino maila edo kategoria baxuagoa?								
Bai	45,5	47,3	38,7	63,2	55,3	41,9	48,5	42,5
Ez	42,8	39,7	52,1	24,3	35,7	45,3	39,5	45,9
Ed/Ee	11,8	13,0	9,2	12,5	9,0	12,8	12,0	11,6
...Zure ustez, zure prestakuntzari dagokiona baino ordainsari txikiagoa?								
Bai	41,6	44,7	33,3	57,2	50,3	38,5	44,1	39,2
Ez	46,5	41,8	58,4	27,5	38,6	49,3	43,7	49,3
Ed/Ee	11,9	13,5	8,3	15,3	11,1	12,2	12,3	11,5
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1319	647	517	99	373	946	661	658

Lanean ari diren pertsoneri erreparatuz gero, berriro ikusten dugu honako talde hauek dutela, gainerakoen aldean, beren kualifikazioari dagozkionak baino kategoria edo ordainsari txikiagoko enpleguren bat onartzeko prestasun handiagoa: aldi baterako lanak dituztenek, kontraturik gabe lan egiten dutenek, lanaldi partzialean lan egiten dutenek, hilean 1000 euro baino gutxiago irabazten dutenek, beren lanak ikasi dutenarekin lotura txikia edo deuseza dutela uste dutenek eta urtebeteko epean lana galduko dutela uste dutenek.

Krisialdiaren ondorengo goraldi ekonomikoaren ondorioz, behera egin du, 2013tik 2017ra bitartean, ofizioz edo lanbidez aldatzeko prest dauden gazteen ehunekoak, duten kualifikazioari dagokiona baino lanbide-kategoria txikiagoko enpleguren bat edo ustez dagozkienak baino ordainsari txikiagoak dakartzaten enpleguak onartzeko prest dauden gazteak.

### 8.4. irudia

OFIZIOA EDO LANBIDEA ALDATZEA DAKARREN ENPLEGUREN BAT EDO BEREN KUALIFIKAZIOARI DAGOZKIONAK BAINO KATEGORIA ETA/EDO ORDAINSARI TXIKIAGOKO ENPLEGUREN BAT ONARTZEKO PREST DAUDEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EHUNEKOEN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

## 8.4. ENPLEGUAREKIKO JARRERAK 30-34 URTEKO PERTSONEN ARTEAN

Orain arte aztertu dugu 30 urtetik beherako gazteek zer prestasun duten autoenpleguan aritzeko, mugikortasun geografikorako, lanbidez aldatzeko eta beren prestakuntzari dagozkionak baino kategoria edo ordainsari txikiagoko enpleguak onartzeko; orain, berriz, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonengan aztertuko ditugu aldagai horiek.


### 8.4.1. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen autoenplegurako prestasuna

30 eta 34 urte bitarteko pertsonen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 53,5ek) lan egin du edo lan egiten du autonomoen erregimenean edo noizbait pentsatu du erregimen horretan edo enpresari moduan lan egitea. Ehuneko hori 30 urtetik beherakoena baino nabarmen handiagoa da (% 39,6).



**8.5. irudia**


AUTOENPLEGURAKO PRESTASUNAREN KONPARAZIOA 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO ADIN-TALDEEN ARTEAN (%)



Aurreko urteekiko, gora egin du beren kontura lan egitea pentsatu duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak (aintzat hartu gabe asmo hori gauzatu duten ala ez). Gaur egun erregimen horretan lan egitea pentsatzen ari direnak edo noizbait hori pentsatu dutenak daude igoera horren atzean, eta ez, hainbeste, asmo hori gauzatu dutenak eta orain autonomoak direnak edo noizbait autonomoak izan direnak.

**8.6. irudia**

30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK AUTOENPLEGURAKO DUTEN PRESTASUNAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Adinez gazteago direnek baino ehuneko handiagoan pentsatu dute 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak autoenpleguan aritzea, baina norberaren konturako erregimenean lan egiteko bokazioa zertxobait apalagoa da adin-tarte horretan (% 34,7), gazteen artean baino (% 37,1).

30 eta 34 urte bitartekoen adin-taldean, hauek dira norberaren konturako erregimenean lan egiteko lehentasun handiena adierazten dutenak: jada norberaren konturako erregimenean lan egiten ari direnak (autonomoen % 67,2k esaten du nahiago duela erregimen horretan lan egin, besteren kontura lan egin baino), atzerrian jaio diren pertsonak (atzerrian jaiotakoek % 52,8), goi-mailako ikasketarik ez dutenak (% 42,7) eta ikasi dutenarekin lotura txikia edo deuseza duen lanen bat dutenak (% 44,0). Gizonek norberaren konturako erregimenean lan egiteko gogo handiagoa adierazten dute, emakumeek baino (gizonek % 38,2k eta emakumeek % 31,2k).

30 eta 34 urte bitarteko pertsonen talde horiek, beren adinekoen batez bestekotik gorako ehunekoan adierazten dutenak norberaren konturako erregimenean lan egin nahi dutela, 16 eta 29 urte bitartean horixe bera adierazten zuten talde berberak dira.

### 8.4.2. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen mugikortasun geografikorako prestasuna

30 eta 34 urte bitarteko hamar pertsonatik zazpi (zehazki, % 39,7) Euskaditik kanpora joateko prest daude, baldin eta lan interesgarriren bat eskaintzen baldin badiete. Ehuneko hori 16 eta 29 urte bitartekoen adinean adierazitakoa baino nabarmen txikiagoa da, adin-bitarte horretan erdiak baino gehiagok (% 57,1ek) adierazi baitu Euskaditik kanpo joango litzatekeela lan on bat aurkituz gero.

Zehazki, munduko edozein lekutara joango litzateke 30 eta 34 urte bitartekoen % 27,1, Europar Batasuneko herrialderen batera % 5,5, eta soilik Espainiako beste lekuren batera % 7,1.

Beste muturrean, % 17,2 ez dago prest bizilekuz aldatzeko, ezta gertuko udalerriren batera joateko ere. Ehuneko hori 30 urtetik beherakoena baino handiagoa da, gazteen % 5,9k soilik adierazi baitu ez duela bizilekuz aldatzeko prestasunik.

#### 8.7. taula

MUGIKORTASUN GEOGRAFIKORAKO PRESTASUNAREN KONPARAZIOA  
16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO ADIN-TALDEEN ARTEAN (%)

Bizilekua aldatuko zenuke lan interesgarria eskainiko balizute?		
(%)	16-29 urte	30-34 urte
Bai, munduko edozein lekutara	38,0	27,1
Europar batasuneko edozein lekutara	8,9	5,5
Espainia barruan izanez gero	10,2	7,1
<b>EUSKADITIK KANPO JOATEKO PRESTASUNA</b>	<b>57,1</b>	<b>39,7</b>
Euskadi barruan izanez gero	13,3	15,1
Inguruko udalerriri batera bada	6,1	9,0
Ez zaude ziur, lekuaren arabera	16,1	17,9
Ez, inola ere ez	5,9	17,2
Ed/Ee	1,6	1,1
Guztira	100	100
(n)	1319	600

Logikoa da hori horrela izatea, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean handiagoa baita, 30 urtetik beherakoekin alderatuta, lanean eta lan-baldintza hobetoetan lan egiten ari direnen ehunekoa; era berean, handiagoa da etxebizitza bat eta familia propioa duten pertsonen ehunekoa. Izan ere, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen herenak (% 34,7k) etxebizitzaren bat du jabetzan, eta herena dira (% 34,4), era berean, seme edo alabaren bat dutenak. Aitzitik, 30 urte bete gabekoaren artean, oso gutxi dira etxebizitza baten jabetza edo seme edo alabaren bat dutenak.

Euskaditik kanpora irteteko prestasunak ez du aldaketa handirik izan azken urteotan. Zalantzek gora egin dute 2017an, eta behera egin du bizilekuz aldatzeari uko egiten diotenen ehunekoak. Horren arrazoia izan daiteke txikiagoa dela orain, eta adin horretan, kontratu finkoa edo mugagabea dutenen bolumena.

### 8.8. taula

#### MUGIKORTASUN GEOGRAFIKOAREKIKO PRESTASUNA DUTEN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN BILAKAERA (%)


Bizilekua aldatuko zenuke lan interesgarria eskainiko balizute?				
(%)	2011	2013	2015	2017
Bai, munduko edozein lekutara	29,0	26,6	28,3	27,1
Europar batasuneko edozein lekutara	5,6	4,0	6,3	5,5
Espainia barruan izanez gero	8,6	8,3	7,6	7,1
<b>EUSKADITIK KANPO JOATEKO PRESTASUNA</b>	<b>43,2</b>	<b>38,9</b>	<b>42,2</b>	<b>39,7</b>
Euskadi barruan izanez gero	11,8	12,6	13,7	15,1
Inguruko udalerrri batera bada	6,5	10,7	7,7	9,0
Ez zaude ziur, lekuaren arabera	13,1	13,5	7,6	17,9
Ez, inola ere ez	24,1	23,2	27,8	17,2
Ed/Ee	1,3	1,1	1,0	1,1
Guztira	100	100	100	100
(n)	600	600	600	600

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Hauek dira, lan interesgarriren bat topatuz gero, Euskaditik kanpora joateko prestasun handiena duten taldeak: ikasi dutenarekin lotura txikia edo deuseza duen lanen bat dutenak, lana urtebeteko epean galduko dutela uste dutenak eta noizbait Euskaditik kanpo lan egin dutenak. Gizonek, oro har, emakumeek baino prestasun handiagoa azaltzen dute.

## 8.7. irudia

LAN INTERESGARRIREN BAT ESKAINIZ GERO, EUSKADITIK IRTETEKO PREST AGERI DIREN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO ZENBAIT TALDETAKO KIDEAK (%)




Atzerrira lanera joateko gogoari begiratuta, 30 eta 34 urte bitarteko adin-taldean gutxiengo dira gogo nahikoa edo handia dutela diotenak (% 25,8). Ehuneko hori ia bikoiztu egiten da 30 urte bete gabekoen adin-taldean (% 47,8).

Azken urteotan, ez da askorik aldatu atzerrian lan egiteko gogoazaltzen duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoak.

## 8.8. irudia

ATZERRIRA LAN EGITERA JOATEKO GOGOAREN BILAKAERA, 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO ADIN-TALDEEN ARTEAN (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma).


Noizbait atzerrian lan egiten duten pertsonen, atzerrian anaia, neba, arreba edo ahizparen bat duten pertsonen eta ingelesez ondo edo oso ondo hitz egiten dutela adierazten dutenek azaltzen dute atzerrian lan egiteko gogorik handiena; zehazki, gogo hori adierazten du noizbait atzerrian lan egindakoen % 33,0k, atzerrian anaia, neba, arreba edo ahizparen bat dutenen % 30,0k eta ingelesez ondo hitz egiten dutenen % 34,7k.

Etorkizunean atzerrian lan egiteko probabilitateaz galdetuta, 30 eta 34 urte bitarteko % 18,4k uste du nahiko edo oso gertagarria dela atzerrian lan egitea, hau da, gutxiago dira gertagarri deritzotenak, atzerrira joateko gogoia dutenak baino.

Susperraldi ekonomikoarekin batera, behera egin zuen atzerrira lan egitera joateko probabilitatearen pertzepzioak 2013tik 2015era, baina zertxobait egin du gora 2017an. Edonola ere, 30 eta 34 urte bitarteko adinean daudenek ehuneko txikiagoan uste dute atzerrira lanera joan beharko dutela, 16 eta 29 urte bitarteko adinean daudenek baino.

### 8.9. irudia

ATZERRIRA LANERA JOATEKO PROBABILITATEAREN PERTZEPZIOAREN BILAKAERA,  
16-29 URTEKOEN ETA 30-34 URTEKOEN ARTEAN (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Hauek dira emigratzeko probabilitate handiena hautematen duten pertsona-taldeak: atzerrian jaiotakoak, noizbait atzerrian lan egin dutenak, gaur egun atzerrian anaia, neba, arreba edo ahizparen bat dutenak, langabezian daudenak eta, batik bat, atzerrian lan egin nahi dutenak.

## 8.10. irudia

30-34 URTEKO ADIN-TALDEKOEN ZENBAIT KOLEKTIBOK ATZERRIRA LANERA JOATEKO HAUTEMATEN DUTEN PROBABILITATEA (%)



Beste muturrean, hauek dira emigratzeko probabilitate gutxien hautematen duten taldeak: kontratu finkoa edo mugagabea dutenak (% 12,5), ikasi dutenarekin lotutako lana dutenak (% 12,4), etxebizitzaren bat erosi dutenak (etxebizitza erosi dutenen % 6,6k soilik hautematen du aukera hori) eta emigratu nahi ez dutenak (% 9,3).

Atzerrira joateko gogoarekin konbinatzen baldin badugu atzerrira joateko hautemandako probabilitatea, lehen 16 eta 29 urte bitartekoekin adin-taldean egin dugun sailkapena lortuko dugu.


30 eta 34 urte bitarteko adinean, gehiengoak (% 62,2k) uste du gertagaitza dela atzerrira lan egitera joatea. Kanpora joan nahi luke % 13,6k, baina, bizi duen egoerari begiratuta, ez du uste oso gertagarria denik (emigrazio zapuztua izango litzateke). Horrez gainera, % 11,3k uste du borondatez joango dela atzerrira lanera, hala nahi duelako, eta % 6,6k uste du hala egin beharko duela, nahi ez duen arren, hau da, emigrazio behartua datorkiola. Gainerako % 6,3ak ez du atzerrira joateko probabilitatearen eta/edo gogoaren gaineko iritzirik eman.

Ehuneko horiek 16 eta 29 urte bitartekoekin datuekin konparatzen baldin baditugu, ikusten dugu emigratzeko probabilitate txikiagoa hautematen dutela 30 eta 34 urte bitartekoek, eta 16 eta 29 urte bitartekoek baino ehuneko txikiagoan uste dutela borondatez joango direla.

Datuen bilakaerari begiratuta, ikusten dugu 2013 eta 2015 urteen bitartean behera egin zuela halabeharrez emigratu beharko zutela pentsatzen zutenen ehunekoak, eta gora egin zuela emigratzea gertagaitza deritzotenen proportzioak. 2015 eta 2017 urteen bitartean, gora egin du, berriro, emigrazio behartuaren probabilitatea ikusten dutenen ehunekoak, eta ez da, beraz, 2015ean uste zena bezain gertagaitza irizten.

**8.11. irudia**

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK ATZERRIRA LANERA JOATEKO BALIZKO EGOERAREN AURREAN AGERI DUTEN SAILKAPENAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma).

30 eta 34 urte bitarteko adinean dauden talde jakin batzuen egoerari begiratuta, ikusten dugu emigratio behartuaren arriskua batez bestekoa baino ehuneko handiagoan hautematen dutela langabezia dauden pertsonen (langabezia dagoen bost pertsonatik batek, % 20,2k, uste du atzerrira joan beharko duela lanera, horretarako gogorik ez izan arren).

Atzerrian jaio direnek ehuneko handiagoan uste dute emigratu egingo dutela, bai beren borondatez (% 25,1ek uste du hori) bai behartuta (% 15,4k uste du hori); guztira, hamar atzerritarretik lauk uste dute beste herrialderen batera joango direla.

Horixe bera gertatzen da lehendik atzerrian lan egindakoak direnekin; batez bestekotik gorako ehunekoan uste dute berriro atzerrira joango direla, bai borondatez (% 20,2k uste du hori), bai behartuta (% 16,0k uste du hori).


Gaur egun atzerrian anaia, neba, arreba edo ahizparen bat lanean dutenek gainerakoek baino ehuneko handiagoan uste dute haien bideari borondatez jarraituko diotela (% 21,2). Talde honetan emigratio behartua egin beharko dutela uste dutenen ehuneko adin horretako pertsona guztien batez bestekoaren ia-ia berdina da.

### 8.4.3. Lan ez aldatzeko eta lan-aurreikuspenak murrizteko prestasuna 30 eta 34 urte bitarteko artean

30 eta 34 urte bitarteko pertsonen gehiengoak (% 68,4k) onartuko luke ofizioz edo lanbidez aldatzea lekarkeen enplegu bat. Pertsonen gehiengoak izan du prestasun hori 2011 eta 2017 urteen bitartean egindako neurketa guztietan. Eta ez da alde handirik ikusten 16 eta 29 urte bitarteko prestasunarekin alderatuz gero.

#### 8.12. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK OFIZIOZ EDO LANBIDEZ ALDATZEA DAKARREN LANA ONARTZEKO DUTEN PRESTASUNAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Langabezian dauden pertsonen eta, lanean ari daitezkeen arren, gaur egun lana bilatzen ari direnak dute ofizioz edo lanbidez aldatzeko prestasun handiena (egoera horretan dauden % 94,7 eta % 89,3 dira, hurrenez hurren). Prestasun hori % 80tik gorakoa da (% 82,9koa, hain justu) urtebeteko epean lanik gabe geratuko direla pentsatzen dutenen artean.

Horrez gainera, atzerrian jaiotakoek lanbidez aldatzeko prestasun handiagoa dute, Euskadin jaiotakoek baino (atzerrian jaiotakoek % 77,8k eta Euskadin jaiotakoek % 64,9k), eta goi-mailako titulaziorik ez dutenek prestasun handiagoa dute, goi-mailako ikasketak dituztenek baino (goi-mailako ikasketarik ez dutenen % 73,3k eta ikasketak dituztenen % 63,6k).

Norberari dagokiona baino lanbide-kategoria txikiagoko lan bat onartzeko prest dauden galdetu ondoren, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen erdiak baino gutxiagok (% 42,9k) erantzun du baldintza hori duen lan bat onartuko lukeela.

Hauek dira, berriro ere, teoriarik dagokiena baino lanbide-kategoria txikiagoko lana onartzeko prestasun handiena dutenak: langabezian dauden pertsonak (langabeen % 66,0k), lana bilatzen ari direnak (% 58,0k) eta urtebeteko




epean lanik gabe geratuko direla uste dutenak (% 53,5ek). Atzerrian jaio direnen artean ere, % 50,0k onartuko luke dagokiona baino lanbide-kategoria txikiagoko enplegu bat. Adin-bitarte horretako gainerako taldeetan prestasuna ez da % 50era iristen.

Era berean, ez dago alde handirik 16 eta 29 urte bitarteko pertsonekin alderatuta; izan ere, 30 urtetik beherako pertsonen artean ere erdiak baino gutxiagok onartuko luke bere ustez dagokiona baino lanbide-kategoria txikiagoko enpleguren bat.

Datuen bilakaerak adierazten digu 2017. urtean behera egin duela, 30 eta 34 urte bitartekoen artean, lanbide-kategoria txikiagoa onartzeko prest daudenen ehunekoak.

### 8.13. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK DAGOKIENA BAINO KATEGORIA TXIKIAGOKO LANA ONARTZEKO DUTEN PRESTASUNAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

Azkenik, 30 eta 34 urte bitarteko hiru pertsonatik batek (% 32,7k) adierazten du bere kualifikazioari dagozkionak baino ordainsari txikiagoak dakartzan lan bat onartuko lukeela.

Langabezia daudenen artean soilik dira gehiengo prestasun hori dutenak (langabeen % 56,7 dago bere ustez dagokiona baino ordainsari txikiagoa irabazteko prest), baina prestasun hori batez bestekoa baino nabarmen handiagoa da lan bila ari direnen artean (% 48,2) eta urtebeteko epean lanik gabe geratuko direla uste dutenen artean (% 40,6). Atzerrian jaio direnek prestasun handiagoa adierazten dute, Euskadin jaio direnek baino (% 46,4 eta % 30,5, hurrenez hurren).

Norberaren kualifikazioari dagozkionak baino txikiagoak irizten diren ordainsariak izateko prestasuna txikiagoa da 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean, 16 eta 29 urte bitartekoen artean baino (% 32,7 eta % 41,6 dira, hurrenez hurren).

Horrez gainera, 2013 edo 2015 urteen aldean, nabarmen egin du behera, 30 eta 34 urte bitarteko adin-taldean, beren ikasketen eta prestakuntzaren arabera dagokiena baino ordainsari txikiagoak eskuratzeko prest daudenen ehunekoak.

#### 8.14. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK BEREN KUALIFIKAZIOARI DAGOKIENA BAINO ORDAINSARI TXIKIAGOKO LANA ONARTZEKO DUTEN PRESTASUNAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* bilduma).

## 8.5. EMAITZA NAGUSIAK

Gazteek nahiago dute besteren kontura lan egin, norberaren konturako erregimenean lan egin baino; hala ere, azken urteetan gora egin du noizbait autoenpleguaren aukera aztertu dutenen ehunekoak.

Gazteen erdia baino gehiago Euskaditik irteteko prest dago, baldin eta lan interesgarriren bat eskaintzen baldin badiote. Prestasun hori nabarmen handitu zen krisialdiko urteetan, eta 2011. urteaz geroztik, gehiengo dira emigratuko luketela adierazten dutenak. Alde horretatik, 2011-2017 aldian asko handitu da, 2000-2008 aldiarekiko, munduko edozein lekutara joateko prest daudenen ehunekoak.

Gazteek atzerrira joateko zer gogo duten eta atzerrira joateko zer probabilitate ikusten duten aztertuta, nabarmendu behar da % 10ek baino gutxiagok uste duela atzerrira ezinbestean joan beharko duela, horretarako gogorik ez izan arren. Ehuneko hori, 2017an, aurreko urteetako baino txikiagoa da.

Gazteen gehiengoak dago ofizioz edo lanbidez aldatzeko prest, baina erdiak baino gutxiagok onartuko luke bere lanbide-kategoriatik beherako lanposturen bat edo duen kalifikazioarentzat egoki irizten dituenak baino ordainsari txikiagoak dakartzan enpleguen bat. Jaitsi egin da, 2013tik 2017ra, aldaketa horietako bat lekarkiokeen enpleguen

bat onartuko luketen gazteen ehunekoak, eta horren arrazoietako bat izan daiteke azken urte hauetan behera egin duela langabezian dauden gazteen kopuruak; izan ere, langabezian dauden pertsonak dira lanbidez aldatzeko edo lan-aurreikuspenak murrizteko prestasun handiena dutenak.

30 eta 34 urte bitarteko pertsonen adin-taldean handiagoak dira noizbait autoenpleguaren aukera aztertu eta baliatu dutenen ehunekoak, 30 urtetik beherako gazteen adin-taldean baino. Ehuneko horiek handiagoak izan arren, norberaren konturako erregimenean lan egiteko gogo handiagoa adierazten dute gazteagoek.

Atzerrian lan egiteko prestasuna, aldiz, gazteena baino txikiagoa da 30 eta 34 urte bitartekoen adin-taldean (handiagoa da lanean ari direnen ehunekoa, emantzipazio-proporzioa ere handiagoa da, batzuek seme-alabak dituzte, etab.). Enplegu interesgarri bat topatuz gero, 30 eta 34 urte bitarteko hamar pertsonatik lau Euskaditik kanpora joango lirateke; hala ere, atzerrira emigratzea gertagaitza da pertsona horien gehiengoarentzat.

Pertsonen gehiengoak du lanez aldatzeko prestasuna 30 eta 34 urte bitarteko adin-taldean, eta horixe bera adierazten dute 30 urtetik beherako gazteek; aitzitik, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen erdia baino gutxiago dago duena baino lanbide-kategoria txikiagoko lanposturen bat edo duen kualifikazioarentzat egoki irizten dituenak baino ordainsari txikiagoak dakartzan enpleguen bat onartzeko prest. Diru-sarrerak murrizteko prestasuna 30 urtetik beherakoena baino nabarmen txikiagoa da 30 eta 34 urte bitartekoen taldean.



# 9

## Gazteen lan-egoeraren ondorioak

Aurreko kapituluetan ikusi dugun moduan, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen herena baino zertxobait gehiago ari da lanean, eta aldi baterako kontratua du lanean ari direnen erdiak, hau da, lan ezegonkorra du. Hamar langiletik hiruk lanaldi partzialean egiten dute lan, eta batez besteko soldata 1000 eurokoa baino zertxobait handiagoa da, hilean.

Baldintza horietan, nola bizi dira gazteak? Zenbat diru dute? Ba al dute emantzipatzeko eta familia bat osatzeko aukerarik? Galdera horiei erantzuten saiatuko gara lerrootan, eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen egoerarekin konparatuko dugu 30 urtetik beherako gazteen egoera.

### 9.1. GAZTEEN EGOERA SOZIOEKONOMIKOA

16 eta 29 urte bitarteko gazteen erdia baino gehiago (% 54,4) bere gurasoen eta beste senide batzuen (neba-arreben, aitona-amonen eta bestelako senideen) diru-sarreraren kontura bizi da nagusiki; diru-sarrera propioen eta bere familiaren (gurasoen, neba-arreben, aitona-amonen eta bestelako senideen) diru-sarreraren kontura bizi da % 19,4; eta gazteen % 25,0k soilik esaten du bere diru-sarrera propioen kontura, bere bikotekidearen diru-sarreraren kontura edo, erdibana, bere diru-sarrera propioen eta bere bikotekidearen sarreraren kontura bizi dela<sup>8</sup>.

Lanean ari diren gazteei begiratuta, bikoiztu egiten da azken ehuneko hori, eta % 56,3k esaten du nagusiki bere diru-sarreraren eta/edo bere bikotekidearen diru-sarreraren kontura bizi dela. Lanean aritu arren, diru-sarrera propioen eta bere familiaren (gurasoen, aitona-amonen edo beste senide batzuen) diru-sarreraren kontura erdibana, edo nagusiki familiaren diru-sarreraren kontura bizi da gazte horien % 43,0.

Lanean ari diren gazteen talde horretan, gainerakoek baino autonomia ekonomiko txikiagoa dute lanaldi partzialean lan egiten dutenek, % 39,0 soilik bizi baita bere diru-sarrera propioen eta/edo bere bikotekidearen diru-sarreraren kontura nagusiki.


Beren diru-sarrera propioen kontura eta/edo bere bikotekidearen diru-sarreraren kontura bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera aztertzean, ikusten dugu lanean ari diren gazteen bilakaera bera izan duela 2013. urtera arte, baina urte horretatik aurrera, lanean ari diren gazteen ehunekoak gora egin duen arren, behera egin du diru-sarrera horien kontura bizi diren gazteen ehunekoak, eta horren arrazoia nagusia da handitu egin dela ikasten ari diren gazteen ehunekoa (hau da, diru-sarrerarik ez duten gazteena).

---

<sup>8</sup> Zehaztu behar da gurasoen etxean bizi direla bere diru-sarrera propioen kontura bizi direla esaten duten hamar pertsonatik hiru. Egoera horretan, beren gastuak ordain ditzakete, baina ez dago jakiterik emantzipatuta eta beren diru-sarreraren kontura soilik bizi daitezkeen.

### 9.1. irudia

BEREN DIRU-SARRERA PROPIOEN KONTURA ETA/EDO BERE BIKOTEKIDEAREN DIRU-SARREREN KONTURA BIZI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, ETA IKASTEN ETA LANEAN ARI DIRENENA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak eta Emantzipazioa* bilduma).

Diru-zenbatekoei begiratuta, hilean 60 euro baino gutxiago dituela esaten du gazte guztien % 18,5ek, hilean 60 eta 300 euro bitartean dituela % 29,7k, hilean 301 eta 600 euro bitartean dituela % 13,0k, eta hileroko batez beste, 601 eta 900 euro bitartean izaten dituela % 9,4k. Hilean 900 euro baino gutxiago dituzte hamar gaztetatik zazpik (% 70,7k).

Bestalde, hilean 900 euro baino gehiago ditu % 22,0k. Lanean ari diren gazteek izandakoaren antzeko bilakaera izan du ehuneko horrek.

### 9.2. irudia

HILEAN 900 EURO BAINO GEHIAGO DITUZTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, ETA IKASTEN ETA LANEAN ARI DIRENENA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak eta Emantzipazioa* bilduma).

2017. urtean lanean ari ziren gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 53,9k) izan ditu 900 euro baino gehiago hilean. Ez da hori, ordea, langileen egoera orokorra; esaterako, lanaldi partzialean lan egiten dutenen laurdenak (% 25,1ek) soilik izaten ditu 900 euro baino gehiago hilean.

Bestalde, hilean 300 baino gutxiago izaten dituzte ikasten ari diren lau gaztetatik hiruk (% 74,8k). Eta 16 eta 19 urte bitartekoen adin-taldean, gehiago dira, lanean ari diren ala ez begiratu gabe, hilean 300 euro baino gutxiago izaten dituztenak (adin-talde horretan dauden % 82,6, zehazki).

## 9.2. GAZTEEN AUKERAK ETXEBIZITZA PROPIOA IZATEKO ETA FAMILIAK OSATZEKO

16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, gutxiengo dira (% 22,6) beren jatorriko familiarena ez den etxebizitza batean bizi direnak, hau da, emantzipatuta daudenak.

Egoera hori ez da harrizkoa; izan ere, % 22,0k soilik izaten ditu 900 euro baino gehiago hilean, eta alokairu librearen batez besteko hileko prezioa 944 eurokoa izan da Euskadin 2017ko laugarren hiruhilekoan (garai horretan egin da azterlan hau oinarritzeko erabili den inkesta)<sup>9</sup>. Hau da, gazte gutxi du emantzipatzeko behar den dirua, eta gazte horiek egoera are zailagoa dute, gainera, bakarrik baldin badaude.

Lanean ari diren gazteen artean, batez bestekoa baino handiagoa da emantzipatuen ehunekoak (% 42,2), baina, hala ere, ez da gazteen erdira ere iristen. Hilean 1200 euro baino gehiago irabazten dituzten langileek soilik dute % 50etik gorako emantzipazio-ehunekoak (% 58,7).

Gazte emantzipatuen ehunekoak izan duen bilakaerari begiratzean, ikusten dugu 2011-2015 aldian baino txikiagoa izan dela 2017. urtean, baina, hala ere, krisialdiaren aurreko urteetakoak baino handiagoa dela (ikus 9.3 irudia). Izan ere, krisia abiatu aurretik, 2008. urtean, orain baino handiagoa zen alokairuko etxebizitzaren batez besteko prezioa (969 eurokoa hilean), eta etxebizitza libre<sup>10</sup> batez besteko salmenta-prezioa egungoa baino 100.000 euro handiagoa zen (338.900 eurokoa zen 2008an, eta 238.900 eurokoa izan da 2017an). Horrek, noski, are gehiago murrizten zituen emantzipatzeko aukerak, lanean aritu arren.

Gurasoen etxean, lanik gabe eta diru gutxirekin biziz gero, zaila da, ezinezkoa ez bada, familia bat osatzea. 30 urtetik beherako pertsonen % 6,8k soilik du seme edo alabaren bat.

Ehuneko hori izatearen arrazoi nagusia da pertsona immigranteek seme-alabak gaztetan izateko joera kulturala dutela. Euskadin jaiotako pertsonen bakarrik begiratzen baldin badiegu (gurasoak immigranteak diren ala ez aintzat hartu gabe), adin-bitarte horretan % 3,0k soilik du seme edo alabaren bat.


---

<sup>9</sup> Eusko Jaurlaritzak: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (2017): *Higiezinaren Eskaintzaren Inkestaren taula estatistikoak - HEI, 2017ko 4. hiruhilekoa*, [linean] Hemen eskuragarri: [http://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovse01/eu/contenidos/estadistica/ovv\\_v\\_ofin\\_2017t4/eu\\_def/index.shtml](http://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovse01/eu/contenidos/estadistica/ovv_v_ofin_2017t4/eu_def/index.shtml) [Kontsulta: 2018/07/19]

<sup>10</sup> Salmenta-prezioa ez da notariotzako eskriturretan adierazitako prezio berbera. Notaritzaren Kontseilu Orokorrean erregistratu diren zenbatekoak zertxobait txikiagoak dira, eta hauek izan daitezke horren arrazoiak: etxebizitzaren hasierako salmenta-prezioa jaitsi izana, edo eskriturretan ez adierazi izana ordaindu den prezio osoa, zati bat ezkutuan ordaindu delako.

### 9.3. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN EHUNEKOAREN BILAKAERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak eta Emantzipazioa* bilduma).

## 9.3. 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEN EGOERA

Egoera alderantzikatu egiten da 30 eta 34 urte bitarteko adin-tartean, gehiengoak (% 76,8k) esaten baitu bere diru-sarrera propioen, bikotekidearen diru-sarreraren edo bien diru-sarreraren kontura bizi dela. Edonola ere, kezkgarria da ikustea adin-bitarte horretako bost pertsonatik bat bere gurasoen (edo beste senide batzuen) diru-sarreraren kontura bizi dela edo bere diru-sarrerak gurasoen diru-sarrerekin osatu behar dituela.

### 9.4. irudia


16-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ETA 30-34 URTE BITARTEKO PERTSONEN DIRU-SARREREN JATORRIAREN ALDERAKETA (%)





Egoera logikoa da hori, 30 urtetik beherako gazteen herena baino zertxobait gehiago (% 35,4) soilik ari delako lanean, eta ehuneko hori bikoitza delako, % 73,3koa, 30 eta 34 urte bitartekoen adin-taldean.

Hilean erabilgarri duten diru-kopuruak ere gora egiten du adin-talde nagusian, eta 30 eta 34 urte bitartekoen erdiak baino gehiagok (% 57,1ek) izaten ditu 900 euro baino gehiago hilean.




Hori horrela izanda ere, oso kezkarria da ikustea 30 eta 34 urte bitarteko hiru pertsonatik batek 900 euro baino gutxiago izaten dituela hilean.

Adin-bitarte horretan, gehiago dira, era berean, emantzipatuta bizi direnak (% 76,1), eta adin horretako hiru pertsonatik batek (% 34,4k) seme edo alaba bat du.

Ehuneko hori txikiagoa da, berriro ere, Euskadin jaiotakoak soilik hartzen baldin baditugu kontuan; izan ere, erkidegoan jaiotakoen % 27,4k soilik du seme edo alabaren bat adin-bitarte horretan, nahiz eta, oro har, atzerrian jaiotakoek baino diru gehiago izaten duten hilean.

### 9.6. irudia

16 ETA 29 URTEKO ADIN-TALDEAN ETA 30 ETA 34 URTEKO ADIN-TALDEAN EMANTZIPATUTA DAUDENEN ETA SEME EDO ALABAREN BAT DUTENEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



## 9.4. EMAITZA NAGUSIAK

Gazteen herenak soilik lan egiten baldin badu, eta lan egiten duten horiek soldata apalak jasotzen baldin badituzte, ondorioak agerikoak dira: gazteek ez dute diru askorik izaten, gutxi batzuk soilik bizi daitezke beren diru-sarrerara propioen kontura, emantzipatzeko aukera murrizak dituzte (merkatu libreko etxebizitzaren prezioek asko zailtzen dituzte emantzipazio-aukerak) eta oso gazte gutxi osatzen dituzte familiak, beren seme-alabekin, 30 urte bete baino lehen.

Adin hori bete ondoren, egoerak nabarmen egiten du hobera (ehuneko handiagoak du lana, diru gehiago izaten dute, etab.), baina ez da egoera bikaina. 30 eta 34 urte bitarteko adin-bitarte horretan, pertsonak abiatuta izan beharko lukete, teoriarik bederen, beren bizitza-proiektu independentea, baina adin-bitarte horretan dagoen hiru pertsonatik batek 900 euro baino gutxiago izaten ditu erabilgarri hilean, lautik bat gurasoekin bizi da, eta adin-talde horren herenak soilik du seme edo alabaren bat.

# Ondorioak

Egoera ekonomiko orokorrak hobera egin du, eta, horren ondorioz, 2017an hobetu egin da gazteek etorkizuneko lanarekiko duten pertzepzio subjektiboa eta itxaropena. Gazteen egoera objektiboa, ordea, ez da askorik hobetu.

Egia da murriztu egin direla langabezian dauden gazteen ehunekoa eta gazteek lanik gabe daramaten denbora (lan-merkatua mugitzen ari dela adierazten du horrek), baina jaitsiera horren arrazoi nagusia da handitu egin dela ikasten ari diren gazteen ehunekoa, eta ez, hainbeste, lanean ari direnen ehunekoak gora egin duela. Frogatuta dago prestakuntza eta kualifikazioa garrantzitsuak direla enplegarritasuna izateko, eta horren ondorioz, gazteek curriculum osoagoa nahi izaten dute eta luzatu egiten dute beren ikasketa-ibilbidea.

Hauek dira gazteen enpleguen ezaugarri orokorrak: aldi baterako lanak izaten dituzte (gehiago dira aldi baterako kontratua duten gazteak, kontratu mugagabea dutenak baino), gazte askok lanaldi partzialak egiten dituzte (lanaldi horretan lan egin nahi ez duten arren), eta hilean gutxigatik gainditzen dute 1000 euroko soldata. Baldintza horiek ez dira egokiak gazteak emantzipatzeko, aldi baterako lanek ez dutelako ematen etxebizitza bat erosteko ordainketa erregularrei aurre egiteko behar den ziurtasunik, eta nekeza delako soldata mileuristekin aurre egitea etxebizitzaren merkatu espekulatiboak dakartzan gastuei.

Baina, aurrez esan dugun moduan, krisialdiko urteetan baino itxaropen handiagoz ikusten dute gazteek etorkizuna; izan ere, krisialdiko urteetan baino ehuneko txikiagoan uste dute beren lan-baldintzak okertu egin daitezkeela, lan bila ari direnek epe motzean lana aurkitzeko itxaropen handiagoa dute, eta lehen baino gutxiago dira ezinbestean atzerrira lanera joan beharko dutela pentsatzen dutenak.

Horrek, ordea, ez du esan nahi gazteek Euskaditik kanpo lan egiteko bizipena probatu nahi ez dutenik. Gazteek uste dute ikasketak egitea eta atzerrian lan-eskarmentua izatea balio erantsiak direla, eta atzerrira joateak bizipen berriak izateko, lekuak ezagutzeko eta hizkuntzak ikasteko eta hobetzeko aukera ematen duela. Hori horrela, Euskadiko gazteen ia erdiak du atzerrian lan egiteko gogoia.

Funtsezkoa da enplegua hobetzeko eta lan-aukerak handitzeko politika publikoetan inbertitzen jarraitzea, gazteek beren bizitza-proiektuak Euskadin eraikitzeko aukera izan dezaten.



# Bibliografia

- BILBAO GAZTAÑAGA, Miren; LONGO IMATZ, Oskar eta CORCUERA BILBAO, Nieves (2016): *Gazteak eta enplegua Euskadin 2015* [linean] Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 978-84-457-3412-4. Hemen eskuragarri: [http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak\\_bilduma/eu\\_liburuak/adjuntos/Juventud\\_empleo%202015\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_empleo%202015_e.pdf) [Kontsulta: 2018/02/14]
- BILBAO GAZTAÑAGA, Miren (2008): *Euskadiko gazteak 2008* [linean] Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia – Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 978-84-457-2876-5. Hemen eskuragarri: [http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak\\_bilduma/eu\\_liburuak/adjuntos/Juventud\\_vasca\\_2008\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2008_e.pdf) [Kontsulta: 2018/05/27]
- ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALA (EAO - BOE): 316. zk., 2016ko abenduaren 31koa: *Abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretua, 2017rako lanbide arteko gutxieneko ordainsaria finkatzen duena* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <http://www.boe.es/boe/dias/2016/12/31/pdfs/BOE-A-2016-12598.pdf> [Kontsulta: 2018/03/20]
- EUROPEAN COMMISSION: EUROSTAT (Europar Batasuneko estatistika-erakundea): *Database: Population and social conditions: Labour market* (lan-merkatuari buruzko datu estatistikoak) [linean] Hemen eskuragarri (ingelesez): <http://ec.europa.eu/eurostat/data/database> [Kontsulta: 2018/08/16]
- EUROPEAN COMMISSION: EUROSTAT (Europar Batasuneko estatistika-erakundea): *Database: Population and social conditions: Youth* (gazteei buruzko datu estatistikoak) [linean] Hemen eskuragarri (ingelesez): <http://ec.europa.eu/eurostat/data/database> [Kontsulta: 2018/06/30]
- EUSKO JAURLARITZA: INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA (2017): *Higiezinen Eskaintzaren Inkestaren taula estatistikoak - HEI. 2017ko 4. hiruhilekoa*. [linean] Hemen eskuragarri: [http://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovse01/eu/contenidos/estadistica/ovv\\_v\\_ofin\\_2017t4/eu\\_def/index.shtml](http://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovse01/eu/contenidos/estadistica/ovv_v_ofin_2017t4/eu_def/index.shtml) [Kontsulta: 2018/07/19]
- EUSTAT - EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA - INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA: *Baliabide estatistikoak* [linean] Hemen eskuragarri: <http://eu.eustat.eus/indice.html> [Kontsulta: 2018/06/30]
- GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA = OBSERVATORIO VASCO DE LA JUVENTUD (2018): *Gazteen adierazleak 2017. Euskadiko gazteen panoramika* [linean]. Gazteen Euskal Behatokia, Bilbao. Hemen eskuragarri: <http://www.gazteukera.euskadi.eus/gazteen-adierazleak-2017-euskadiko-gazteen-panoramika/r58-7651x/eu/> [Kontsulta: 2018/06/25]
- GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA = OBSERVATORIO VASCO DE LA JUVENTUD (2014): *Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013* [linean]. Gazteen Euskal Behatokia, Bilbao. Hemen eskuragarri: [http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu\\_def/adjuntos/txostena\\_emantzipazioa\\_15\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu_def/adjuntos/txostena_emantzipazioa_15_e.pdf) [Kontsulta: 2018/02/27]

- GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA = OBSERVATORIO VASCO DE LA JUVENTUD (2004): *Euskadiko gazteak 2004* [linean]. Francisco Javier Gutiérrez Páramo (koord.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 84-457-2196-8. Hemen eskuragarri: [http://www.contenidos.servicios.jakinaplus.ejgvdns/contenidos/informacion/euskadiko\\_gazteak/eu\\_liburuak/adjuntos/Juventud\\_vasca\\_2004\\_e.pdf](http://www.contenidos.servicios.jakinaplus.ejgvdns/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2004_e.pdf) [Kontsulta: 2018/02/27]
- GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA = OBSERVATORIO VASCO DE LA JUVENTUD (2000): *Euskadiko gazteak 2000* [linean]. Francisco Javier Gutiérrez Páramo (koord.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. ISBN: 84-457-1638-7. Hemen eskuragarri: [http://www.contenidos.servicios.jakinaplus.ejgvdns/contenidos/informacion/euskadiko\\_gazteak/eu\\_liburuak/adjuntos/Juventud\\_vasca\\_2000\\_e.pdf](http://www.contenidos.servicios.jakinaplus.ejgvdns/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2000_e.pdf) [Kontsulta: 2018/02/27]
- INFOEMPLEO-ADECCO (2016): *Oferta y demanda de empleo en España 2016* [linean] Hemen eskuragarri (gaztelaniaz): <https://iestatic.net/infoempleo/documentacion/Informe-Infoempleo-Adecco-2016.pdf> [Kontsulta: 2018/07/18]
- INTERNATIONAL LABOUR ORGANIZATION (ILO): *Global Employment Trends for Youth 2017* [linean] Geneve 2017 [ISBN 978-92-2-130109-7 (web pdf)] Hemen eskuragarri (ingelesez): [http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/---publ/documents/publication/wcms\\_598669.pdf](http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/---publ/documents/publication/wcms_598669.pdf) [Kontsulta: 2018/05/17]
- LÓPEZ OLLER, Joffre (2017): *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2016* [linean] Gazteen Euskal Behatokia (koord.), Bilbao. Hemen eskuragarri: [http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu\\_def/adjuntos/emantzipazio\\_kostea\\_2016\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu_def/adjuntos/emantzipazio_kostea_2016_e.pdf) [Kontsulta: 2018/05/15]

# Taulen eta irudien aurkibidea

## TAULEN AURKIBIDEA

<b>1.1. taula.</b>	16-29 urteko gazteen okupazio nagusia, jaiolekuaren eta sexuaren aldagaiak uztartuta (%) . . .	22
<b>1.2. taula.</b>	30-34 urteko pertsonen okupazio nagusiaren bilakaera (%) . . . . .	25
<b>1.3. taula.</b>	30-34 urteko pertsonen okupazio nagusia, sexuaren, jaiolekuaren eta amaitutako ikasketamailaren arabera (%) . . . . .	27
<b>2.1. taula.</b>	Egindako azken lana uzteko arrazoiak, gaur egun lanik izan ez baina noizbait lan egin duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteek emandakoak, gaur egun duten okupazio nagusiaren arabera (%)	31
<b>2.2. taula.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean lan-eskarmentua dutenen bilakaera eta adin horretan, lanik egin ez baina garai batean lan egin zutenen artean, aurreko enplegua beren borondatearen kontra utzi zutenen bilakaera (%) . . . . .	31
<b>2.3. taula.</b>	Lehen lana zer adinetan eskuratu den, lan-eskarmentua duten gazteen jaiolekuaren eta amaitutako ikasketamailaren arabera (%) . . . . .	32
<b>2.4. taula.</b>	Lehendabiziko lana eskuratzeko modua, eskuratzeko unearen arabera (%) . . . . .	34
<b>2.5. taula.</b>	Lehendabiziko enplegua eskuratzeko moduaren bilakaera (%) . . . . .	35
<b>2.6. taula.</b>	Eskuratutako lehen enpleguan lan egindako orduen kopurua, hura eskuratzeko unearen arabera (%) . . . . .	36
<b>2.7. taula.</b>	Kontratua lehen enpleguan, hura eskuratzeko unearen, sexuaren eta jaiolekuaren arabera (%) .	36
<b>2.8. taula.</b>	Lehen enpleguak ikasketekin zuen harremana, lehen enplegu hori eskuratzeko unearen arabera (%) . . . . .	37
<b>2.9. taula.</b>	30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean lan-eskarmentua dutenen bilakaera eta adin horretan, lanik egin ez baina garai batean lan egin zutenen artean, aurreko enplegua beren borondatearen kontra utzi zutenen bilakaera (%) . . . . .	38

<b>2.10. taula.</b>	Lan-eskarmentua duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen zer ikasketa-maila duten eta zer adinetan eskuratu zuten lehen enplegua, sexuaren, jaiolekuaren eta gizarte-maila subjektiboaren arabera (%) .....	40
<b>2.11. taula.</b>	Lehen enplegua eskuratzeko modua 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean, hura eskuratutako unearen eta ikasketa-mailaren arabera (%) .....	42
<b>3.1. taula.</b>	Lehen enplegua eskuratzeko moduaren eta egungo enplegua eskuratzeko moduaren arteko aldea, lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%) .....	48
<b>3.2. taula.</b>	Lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen egungo enplegua eskuratzeko modua, ikasketa-mailaren arabera (%) .....	49
<b>3.3. taula.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazteen antzintasuna beren egungo enpleguan, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%) .....	50
<b>3.4. taula.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazteek beren egungo enpleguan duten kontratua, sexuaren, adin-taldearen, amaitutako ikasketa-mailaren eta lanean duten antzintasunaren arabera (%) .....	52
<b>3.5. taula.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazteen gizarte-segurantzarako kotizazioa, kontratu motaren arabera (%) .....	55
<b>3.6. taula.</b>	Besteren kontura lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteek lantoki duten erakunde motaren bilakaera (%) .....	57
<b>3.7. taula.</b>	Besteren kontura lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteek lantoki duten erakunde mota, sexuaren, amaitutako ikasketa motaren eta jaiolekuaren arabera (%) .....	58
<b>3.8. taula.</b>	Lanaldi partzialean lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoak adin-tarte horretako gazte okupatu guztiekiko, sexuaren eta Europako herrialdearen arabera (%) .....	60
<b>3.9. taula.</b>	Lanaldi partzialean lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteek lanaldi horretan lan egiteko dituzten arrazoien bilakaera (%) .....	61
<b>3.10. taula.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak astean egiten dituzten lanorduak, lanaldi motaren arabera (%) .....	63
<b>3.11. taula.</b>	16-29 urteko gazteen egungo enpleguaren eta egin dituzten ikasketen arteko loturaren bilakaera (%) .....	64
<b>3.12. taula.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuaren prestakuntzaren eta enpleguaren arteko lotura, amaitutako ikasketa motaren arabera (%) .....	65
<b>3.13. taula.</b>	16 eta 29 urteko gazteek ondo ordaindutako lana izatearen pertzepzioa, soldata tarteen arabera (%) .....	67
<b>3.14. taula.</b>	Lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteek beren egungo lanarekin duten poztasuna, lanaldi eta kontratu motaren, ikasketekiko duen loturaren eta ondo ordainduta izatearen sentipenaren arabera (%) .....	70
<b>3.15. taula.</b>	Lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteek beren egungo enplegua aldatu nahi izateko ematen dituzten arrazoiak, egungo enpleguak ikasketekiko duen loturaren eta ondo ordainduta izatearen sentipenaren arabera (%) .....	71



<b>3.16. taula.</b>	Lanean ari diren 16 eta 29 urteko gazteek eta 30-34 urteko pertsonen egungo enplegua eskuratzeko moduan ageri duten aldea (%) . . . . .	73
<b>3.17. taula.</b>	Norberaren konturako erregimenean lan egiten duten 30-34 urte bitarteko pertsona okupatuak, sexuaren eta jaiolekuaren arabera (%) . . . . .	78
<b>3.18. taula.</b>	Besteren kontura lan egiten duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen lantoki duten erakunde mota, sexuaren eta amaitutako ikasketa motaren arabera (%) . . . . .	79
<b>3.19. taula.</b>	Besteren kontura lan egiten duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen lantoki duten erakunde motaren bilakaera (%) . . . . .	80
<b>3.20. taula.</b>	Lanaldi partzialean lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteek eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen lanaldi horretan lan egiteko dituzten arrazoien konparazioa (%) . . . . .	82
<b>3.21. taula.</b>	30 eta 34 urte bitarteko langileek astean egiten dituzten lanorduak, sexuaren, kontratu motaren eta lanaldi motaren arabera (%) . . . . .	83
<b>3.22. taula.</b>	30 eta 34 urte bitarteko langileen batez besteko soldata, sexua eta lanaldi mota konbinatuta (€)	86
<b>3.23. taula.</b>	Lana aldatu nahiko luketen 16 eta 29 urte bitarteko langileek eta 30 eta 34 urte bitarteko langileek horretarako ematen dituzten arrazoien konparazioa (%) . . . . .	91
<b>5.1. taula.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazteek amaitutako ikasketak eta egun egiten ari diren ikasketak (%)	113
<b>5.2. taula.</b>	16 eta 29 urte bitarteko ikasleak egiten ari diren ikasketa motak, sexuaren arabera (%) . . . . .	113
<b>5.3. taula.</b>	16 eta 29 urte eta 30 eta 34 urte bitarteko ikasleek amaitutako ikasketen eta egiten ari diren ikasketen arteko konparazioa (%) . . . . .	119
<b>6.1. taula.</b>	Lan bila ari diren gazteen eta 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien ezaugarrien arteko konparazioa (%) . . . . .	122
<b>6.2. taula.</b>	Lan bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteek beren lan-aurreikuspenak aldatzea dakarten enpleguak onartzeko duten prestasuna, okupazio nagusiaren arabera (%) . . . . .	125
<b>6.3. taula.</b>	Lan bila ari diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen beren lan-aurreikuspenak aldatzea dakarten enpleguak onartzeko duten prestasuna, okupazio nagusiaren arabera, eta lan bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen prestasunaren arteko konparazioa (%) . . . . .	129
<b>7.1. taula.</b>	Euskadin jaio eta noizbait atzerrian lan egin duten 16 eta 34 urte bitarteko pertsonen atzerrian lan egiteko izan dituzten arrazoien bilakaera (%) . . . . .	138
<b>7.2. taula.</b>	Euskadin jaio eta noizbait atzerrian lan egin duten 16 eta 34 urte bitarteko pertsonen Euskadira bueltatzeko izan dituzten arrazoien bilakaera (%) . . . . .	139
<b>7.3. taula.</b>	Euskadin jaio eta noizbait atzerrian lan egin duten 16 eta 34 urte bitarteko pertsonen eta atzerrian inoiz ere lan egin ez dutenen arteko aldea (%) . . . . .	140
<b>8.1. taula.</b>	Autoenpleguan aritzeko prestasunaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%) .	142

<b>8.2. taula.</b>	Norberaren edo besteren kontura lan egiteko lehentasuna, 16 eta 29 urte bitartekoen autoenplegurako jarreraren arabera (%) .....	143
<b>8.3. taula.</b>	Lan interesgarriren bat eskainiz gero, bizilekuz aldatzeko prest ageri diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera (%) .....	144
<b>8.4. taula.</b>	Lan interesgarriren bat eskainiz gero, bizilekuz aldatzeko prest ageri diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteak, okupazio nagusiaren, Euskaditik kanpo duten lan-eskarmentuaren eta ingelesaren jakintzaren arabera (%) .....	145
<b>8.5. taula.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazteek atzerrira lanera joateko balizko egoeraren aurrean ageri duten sailkapena, adin-taldean, okupazio nagusiaren eta atzerrian duten lan-eskarmentuaren arabera (%) .....	149
<b>8.6. taula.</b>	Beren kualifikazioari dagozkionak baino kategoría eta/edo ordainsari txikiagoko enpleguren bat onartzeko prest dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteak, okupazio nagusiaren, lan-bilaketaren eta sexuaren arabera (%) .....	151
<b>8.7. taula.</b>	Mugikortasun geografikorako prestasunaren konparazioa 16-29 urteko eta 30-34 urteko adin-taldean artean (%) .....	154
<b>8.8. taula.</b>	Mugikortasun geografikoarekiko prestasuna duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen bilakaera (%) .....	155

## IRUDIEN AURKIBIDEA

<b>1.1. irudia.</b>	16-29 urte bitarteko gazteen okupazio nagusia (%) .....	17
<b>1.2. irudia.</b>	Euskadin eta Europar Batasunean langabezia-egoeran dauden gazteen ehunekoen konparazioa, gazte guztiekiko (%) .....	19
<b>1.3. irudia.</b>	16-29 urteko gazteen okupazio nagusia, adin-taldean arabera (%) .....	20
<b>1.4. irudia.</b>	16-29 urteko gazteen okupazio nagusia, jaiolekuaren arabera (%) .....	21
<b>1.5. irudia.</b>	25-29 urteko gazteen okupazio nagusia, amaitutako ikasketa-mailaren arabera (%) .....	23
<b>1.6. irudia.</b>	16-29 urteko gazteen okupazio nagusiaren bilakaera (%) .....	24
<b>1.7. irudia.</b>	16-34 urteko gazteen okupazio nagusia, adin-taldean arabera (%) .....	25
<b>1.8. irudia.</b>	Euskadin eta Europar Batasunean langabezia-egoeran dauden 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoen konparazioa, adin-bitarte horretako pertsona guztiekiko (%) .....	26
<b>2.1. irudia.</b>	16-29 urteko gazteen lan-eskarmentua, adin-taldean arabera (%) .....	30
<b>2.2. irudia.</b>	Lan-eskarmentua duten gazteek lehen enplegua eskuratzeko unearen bilakaera (%) .....	33

<b>2.3. irudia.</b>	Lan-eskarmentua duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen zer adinetan eskuratu zuten lehen enplegua, ikasketa-mailaren arabera (%).	39
<b>2.4. irudia.</b>	Lehen enplegua eskuratzeko adinaren bilakaera lan-eskarmentua duten 30-34 urteko pertsonen taldean (%).	41
<b>2.5. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko pertsonen eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen lehen enpleguan egindako asteko lanorduen kopuruaren konparazioa (%).	43
<b>2.6. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko pertsonen eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen lehen enpleguan izandako kontratu-harremanen arteko konparazioa (%).	44
<b>3.1. irudia.</b>	16-29 urteko gazteek egungo enpleguan duten antzinatasunaren bilakaera (%).	50
<b>3.2. irudia.</b>	Lanean ari diren 16-29 urteko gazteen kontratu motak (%).	51
<b>3.3. irudia.</b>	Lanean ari diren 16-29 urteko gazteen kontratu moten bilakaera (%).	53
<b>3.4. irudia.</b>	Aldi baterako kontratua duten 16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen ehunekoen konparazioa, Euskadin eta Europar Batasuneko kontura lan egiten duten gazte guztiekiko (%).	54
<b>3.5. irudia.</b>	Euskadin eta Europar Batasunean norberaren konturako erregimenean lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen ehunekoen konparazioa (%).	56
<b>3.6. irudia.</b>	Euskadin 16 eta 29 urte bitartean dituzten gazte okupatuen lanaldiaren bilakaera, sexuaren arabera (%).	59
<b>3.7. irudia.</b>	Lanaldi osoko lanik topatu ez dutelako lanaldi partzialean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteak, lanaldi partzialean lan egiten duten gazte guztiekiko. Euskadiko eta EBko datuen arteko konparazioa (%).	62
<b>3.8. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuek astean egiten dituzten lanorduak (%).	63
<b>3.9. irudia.</b>	16-29 urteko langile gazteen batez besteko soldataren bilakaera, sexuaren arabera (%).	66
<b>3.10. irudia.</b>	Norberaren lana ondo ordainduta izatearen sentipenaren eta 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen batez besteko soldataren bilakaera.	68
<b>3.11. irudia.</b>	Lanean ari diren 16-29 urteko gazteen enplegua galtzeko edo prekario bihurtzeko arriskuaren bilakaera (%).	69
<b>3.12. irudia.</b>	Beste enpleguen baten bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko langileak, kontratu eta lanaldi motaren arabera, egungo enpleguak ikasketekiko duen loturaren arabera, ondo ordainduta izatearen sentipenaren arabera, egungo enpleguarekin duten poztasunaren arabera eta enplegua galtzeko arriskuaren arabera (%).	72
<b>3.13. irudia.</b>	Egungo enpleguan hiru urtetik gorako antzinatasuna duten pertsonen bilakaera, 16 eta 29 urteko gazteen eta 30-34 urteko pertsonen adin-taldeetan (%).	74
<b>3.14. irudia.</b>	Lanean ari diren 16 eta 29 urteko gazteek eta 30-34 urteko pertsonen beren kontratu motetan duten aldea (%).	75

<b>3.15. irudia.</b>	Kontratu moten bilakaera 30 eta 34 urte bitarteko langileen artean (%) . . . . .	76
<b>3.16. irudia.</b>	Euskadin eta Europar Batasunean norberaren konturako erregimenean lan egiten duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsona okupatuen ehunekoen konparazioa (%) . . . . .	77
<b>3.17. irudia.</b>	Lanaldi partzialean lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen bilakaera eta konparazioa, sexuaren arabera (%) . . . . .	81
<b>3.18. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko langileek eta 30 eta 34 urte bitarteko langileek astean egiten dituzten lanorduen bilakaera eta konparazioa (%) . . . . .	84
<b>3.19. irudia.</b>	Ikasitakoarekin lotutako lana duten 16 eta 29 urte bitarteko langileen eta 30 eta 34 urte bitarteko langileen bilakaera eta konparazioa (%) . . . . .	85
<b>3.20. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko eta 30 eta 34 urte bitarteko langileen hileko batez besteko soldataren bilakaera eta konparazioa (€) . . . . .	86
<b>3.21. irudia.</b>	Norberaren lana ondo ordainduta izatearen sentipenaren eta 30 eta 34 urte bitarteko landunen batez besteko soldataren bilakaera . . . . .	87
<b>3.22. irudia.</b>	30 eta 34 urte bitarteko langileek enplegua galtzeko edo prekario bihurtzeko hautematen duten arriskuaren bilakaera (%) . . . . .	88
<b>3.23. irudia.</b>	Lanarekiko poztasuna edo lana aldatzeko gogoia 30 eta 34 urte bitarteko langileen taldean, ondo ordainduta izatearen sentipenaren arabera, lanak egindako ikasketekin duen loturaren arabera, eta enplegua galtzeko edo prekarioa bihurtzeko arriskuaren gainean duten iritziaren arabera (%) . . . . .	89
<b>3.24. irudia.</b>	16-29 urteko eta 30-34 urteko langileek beren enpleguarekin duten poztasunaren bilakaera eta konparazioa (%) . . . . .	90
<b>3.25. irudia.</b>	16-29 urteko eta 30-34 urteko langileen artean beste enplegu baten bila dabiltzanen bilakaera eta konparazioa (%) . . . . .	92
<b>3.26. irudia.</b>	Beste lan baten bila dabiltzan 16 eta 29 urte bitarteko langileek eta 30 eta 34 urte bitartekoek sei hilabeteko epean lana aurkitzeko duten itxaropenaren bilakaera eta konparazioa (%) . . . . .	93
<b>4.1. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeen ehunekoaren bilakaera adin horretako gazte guztiekiko, eta Espainiako eta Europar Batasuneko batez besteko datuekiko konparazioa (%) . . . . .	96
<b>4.2. irudia.</b>	Langabezian dauden gazteen prestakuntza-mailaren eta 16 eta 29 urte bitarteko gazteen batez besteko datuen arteko konparazioa (%) . . . . .	97
<b>4.3. irudia.</b>	Lan-eskarmentua duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeen ehunekoaren bilakaera, langabezian dauden gazte guztiekiko (%) . . . . .	98
<b>4.4. irudia.</b>	Langabezian dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, lan-eskarmentua duten gazte langabeen ehunekoarena eta langabezia-prestazioa jasotzen duten gazte langabeen ehunekoarena (%) . . . . .	99
<b>4.5. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeek langabezian daramaten denbora (%) . . . . .	100

<b>4.6. irudia.</b>	Lan-bilaketaren eremua 16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeen artean (%) . . . . .	101
<b>4.7. irudia.</b>	30 eta 34 urte bitarteko langabeen ehunekoaren bilakaera eta 16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeekiko konparazioa (%) . . . . .	102
<b>4.8. irudia.</b>	30 eta 34 urte bitarteko langabeen ehunekoaren bilakaera Euskadin, Espainian eta Europan, adin horretako pertsonen kopuru osoarekiko (%) . . . . .	102
<b>4.9. irudia.</b>	30 eta 34 urte bitarteko langabeen prestakuntza-mailaren konparazioa, adin horretako pertsonen batez bestekoarekiko eta 16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeekiko (%) . . . . .	103
<b>4.10. irudia.</b>	Goi-mailako ikasketak dituzten 30 eta 34 urte bitarteko langabeen ehunekoaren bilakaera, adin horretan langabezian dauden pertsona guztien ehunekoarena eta adin horretan goi-mailako titulazioa duten pertsona guztien ehunekoarena (%) . . . . .	104
<b>4.11. irudia.</b>	Aurretiazko lan-eskarmentua duten langabeen bilakaera 30 eta 34 urte bitarteko eta 16 eta 29 urte bitarteko langabeen artean (%) . . . . .	105
<b>4.12. irudia.</b>	Iraupen luzeko langabeen ehunekoaren bilakaera 30 eta 34 urte bitarteko adin-taldean eta 16 eta 29 urte bitarteko adin-taldean (%) . . . . .	106
<b>4.13. irudia.</b>	Lana bilatzeko eremuen konparazioa 30-34 urteko eta 16-29 urteko langabeen artean (%) . . .	107
<b>4.14. irudia.</b>	Lana bilatzen daramaten batez besteko denboraren bilakaera 30-34 urteko eta 16-29 urteko langabeen artean (hilabeteak) . . . . .	108
<b>4.15. irudia.</b>	30 eta 34 urte bitarteko eta 16 eta 29 urte bitarteko langabeek sei hilabeteko epean lana aurkitzeko duten itxaropenaren bilakaera (%) . . . . .	109
<b>5.1. irudia.</b>	16-29 urteko ikasleak, adin-taldea (%) . . . . .	112
<b>5.2. irudia.</b>	Euskararen eta ingelesaren jakintza-maila, 16 eta 29 urte bitarteko ikasleen eta adin horretako pertsona guztien artean konparatuta (%) . . . . .	114
<b>5.3. irudia.</b>	Noizbait lan egin duten eta egun lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko ikasle gazteen ehunekoaren bilakaera (%) . . . . .	115
<b>5.4. irudia.</b>	Lan bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko ikasleak, amaitutako ikasketa-mailaren arabera (%)	116
<b>5.5. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko ikasleek hilean izaten duten dirua, soilik ikasten ari diren edo ikasketak lanarekin uztartzen dituzten aintzat hartuta (%) . . . . .	117
<b>5.6. irudia.</b>	16-29 urteko ikasleek hilean izaten duten diruaren bilakaera (%) . . . . .	118
<b>6.1. irudia.</b>	16-29 urteko langileen eta lan-bilatzailen bolumenaren bilakaera (%) . . . . .	122
<b>6.2. irudia.</b>	Lanbiden izena emanda dauden gazteen ehunekoa lan bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztiekiko, okupazio nagusiaren arabera (%) . . . . .	123
<b>6.3. irudia.</b>	Euskaditik kanpo lana bilatzen ari diren 16 eta 29 urteko pertsonen ehunekoa lan bila ari direnen guztiekiko, ikasketa-mailaren, ingelesaren jakintza-mailaren eta Euskaditik kanpo izandako lan-eskarmentuaren arabera (%) . . . . .	124

<b>6.4. irudia.</b>	Lan bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera eta lan bila ari direnen artean, sei hileko epean lana aurkitzea espero dutenen ehunekoaren bilakaera (%) . . . . .	125
<b>6.5. irudia.</b>	Lan bila ari diren 30 eta 34 urte bitartekoen eta 16 eta 29 urte bitartekoen bilakaera (%) . . . . .	126
<b>6.6. irudia.</b>	Lana bilatzeko eremuen konparazioa lan bila ari diren 30-34 urteko eta 16-29 urteko pertsonen artean (%) . . . . .	128
<b>6.7. irudia.</b>	Lan bila dabilzan 16 eta 29 urte bitarteko eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak sei hilabeteko epean lana aurkitzeko duten itxaropenaren bilakaera (%) . . . . .	130
<b>7.1. irudia.</b>	Euskadin jaiotako 16-29 urteko gazteen lan-eskarmentua Euskaditik kanpo, adin-taldean arabera (%) . . . . .	134
<b>7.2. irudia.</b>	Euskadin jaiotako 30-34 urteko pertsonen lan-eskarmentua Euskaditik kanpo, lurralde historikoaren arabera (%) . . . . .	135
<b>7.3. irudia.</b>	Atzerrian lan-eskarmentua duten Euskadin jaiotako 16-34 urteko pertsonak, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera (%) . . . . .	136
<b>7.4. irudia.</b>	Non egin duten lan atzerrian lan-eskarmentua duten Euskadin jaiotako 16 eta 34 urte bitarteko pertsonak (%) . . . . .	137
<b>8.1. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazteek atzerrian lan egiteko duten gogoaren eta hori gertatzeko aurreikuspenaren bilakaera (%) . . . . .	146
<b>8.2. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazteek atzerrira lanera joateko balizko egoeraren aurrean ageri duten sailkapenaren bilakaera (%) . . . . .	148
<b>8.3. irudia.</b>	Ofizios edo lanbidez aldatzea dakarren enplegu bat onartzeko prest dauden 16 eta 29 gazteak, adin-taldean, okupazio nagusiaren, aurretiazko lan-eskarmentuaren eta lana bilatzeko ekimenaren arabera (%) . . . . .	150
<b>8.4. irudia.</b>	Ofizioa edo lanbidea aldatzea dakarren enpleguren bat edo beren kualifikazioari dagozkionak baino kategoria eta/edo ordainsari txikiagoko enpleguren bat onartzeko prest dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%) . . . . .	152
<b>8.5. irudia.</b>	Autoenplegurako prestasunaren konparazioa 16-29 urteko eta 30-34 urteko adin-taldean artean (%) . . . . .	153
<b>8.6. irudia.</b>	30 eta 34 urte bitarteko pertsonak autoenplegurako duten prestasunaren bilakaera (%) . . . . .	153
<b>8.7. irudia.</b>	Lan interesgarriren bat eskainiz gero, Euskaditik irteteko prest ageri diren 30 eta 34 urte bitarteko zenbait taldetako kideak (%) . . . . .	156
<b>8.8. irudia.</b>	Atzerrira lan egitera joateko gogoaren bilakaera, 16-29 urteko eta 30-34 urteko adin-taldean artean (%) . . . . .	156
<b>8.9. irudia.</b>	Atzerrira lanera joateko probabilitatearen pertzepzioaren bilakaera, 16-29 urtekoen eta 30-34 urtekoen artean (%) . . . . .	157

<b>8.10. irudia.</b>	30-34 urteko adin-taldekoen zenbait kolektibok atzerrira lanera joateko hautematen duten probabilitatea (%) . . . . .	158
<b>8.11. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazteek eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak atzerrira lanera joateko balizko egoeraren aurrean ageri duten sailkapenaren bilakaera (%) . . . . .	159
<b>8.12. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazteek eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak ofizioz edo lanbidez aldatzea dakarren lana onartzeko duten prestasunaren bilakaera (%) . . . . .	160
<b>8.13. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazteek eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak dagokiena baino kategoria txikiagoko lana onartzeko duten prestasunaren bilakaera (%) . . . . .	161
<b>8.14. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazteek eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak beren kualifikazioari dagokiena baino ordainsari txikiagoko lana onartzeko duten prestasunaren bilakaera (%) . . . . .	162
<b>9.1. irudia.</b>	Beren diru-sarrera propioen kontura eta/edo bere bikotekidearen diru-sarreraren kontura bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, eta ikasten eta lanean ari direnena (%) . . . . .	166
<b>9.2. irudia.</b>	Hilean 900 euro baino gehiago dituzten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, eta ikasten eta lanean ari direnena (%) . . . . .	166
<b>9.3. irudia.</b>	16 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera (%) . . . . .	168
<b>9.4. irudia.</b>	16-29 urte bitarteko gazteen eta 30-34 urte bitarteko pertsonen diru-sarreraren jatorriaren alderaketa (%) . . . . .	168
<b>9.5. irudia.</b>	16-29 urte bitarteko gazteek eta 30-34 urte bitarteko pertsonak hilean izaten duten diru-zenbatekoaren alderaketa (%) . . . . .	169
<b>9.6. irudia.</b>	16 eta 29 urteko adin-taldean eta 30 eta 34 urteko adin-taldean emantzipatuta daudenen eta seme edo alabaren bat dutenen arteko konparazioa (%) . . . . .	170

